









6150

# ARGI DONEA


«ARGIA»REN ELIZ-LIBURUA











AITA GUREA, zeruetan zaudena: SANTIFIKATUA izan  
bedi zure izena: BETORÓ gugana zure ÉREINUA: EGIN  
BEDI zure borondatea zeruan bezela luéan ere...



M-8640  
R-36285

ATV  
18.970

ARGIAREN IDAZTIAK

# ARGI DONEA

BALZOLA'TAR PRANTZISKO ABAK EGIÑA

TA

«ARGIA»REN BATZALDIAN SARITUA

BIGAREN ARGITALDIA



EDITORIAL VASCA

BANCO DE ESPAÑA, 3

BILBAO

1933

Nihil obstat

*Emmanuel de Lecuona*

Censor

Imprimatur

Bujedo (Burgis), die 30 Octobris 1932.

† *Matthæus, Episcopus Victoriensis*

L. ✠ S.



## **AITA SANTUAREN ONESPENA**



**SECRETARIA DI STATO**

**DI SUA SANTITÀ**

**N.º 38080**

**DA CITARSI, NELLA RISPOSTA**

***Dal Vaticano, 17 Gennaio 1925.***

***Revmo. Signore :***

***Devo alla S. V. Revma. i paterni ringraziamenti della Santità Sua per il filiaè omaggio del Manuale di preghiere Argi Donea intenso a promuovere in mezzo***

*a coteste buone popolazioni il culto della pietá cristiana nello spirito della Santa Liturgia.*

*Ben lieto di una pubblicazione che é, nel tempo stesso, opera nobilissima di fraterna caritá spirituale, l' Augusto Pontefice forma per essa i migliori voti; e mentre si augura dal libro i piú abbondanti frutti in ordine alla vita religiosa e devota, paternamente invia al zelante Autore l' Apostolica Benedizione.*

*Mi é grato aggiungere il paterno compiacimiento di Sua Santitá per l' altro nobilissimo Manuale «Eliz-Abestiak»; e nel presentarle i miei personali sinceri ringraziamenti per il delicato pensiero avuto a mio riguardo, mi valgo volentieri de l'incontro per professarmi con sensi di stima.*

*Rev.mo Signore*  
**Victor Garitaonandia**  
Direttore dell' «Argia»  
SAN SEBASTIAN

*di V. S. Revma.*  
*affmo. per servirla*  
P. Card. Gasparri.

# AITA SANTUAREN ONESPENA

(EUSKERATUTA)

*Batikanotik, 1925 Ilbeltza 17.*

*Jaun agurgaria :*

*Zuri Aita Santuaren eskerik xamuñ-bizienak eman bear dizkitzut, seme on batek bezela, aitari eskeñi diozun Otoi-liburu **Argi Donea**, zuen eri oietan kristau-bizitza bizkoitzeko eratu gatik, ta Eleiz araudi doneari aiñ egokitua.*

*Orobat, biotzen anaitasun maitagariako argiratu dan idazti bikain ori Aita Santu berak atsegin aundiz begiratu du, ta oso zabaldua ikusi nai luke; ta jaungoikozko emaitz (frutu) ugariak ekariko dituala uste izanik, bere Onespena (Bendizioa) Eleiz-liburu oren Egile zintzoari biotz - biotzetik ematen dio.*

*Pozgari zait onekin batean beste esku - liburu eder - bikain*

*«Eliz Abestiak» ere Aita Santuari  
atsegin zaiola adiraztea, eta ne-  
reganako oroipen xamuñ ordez  
nere eskerik zintzoenak agertuaz,  
poztutzen naiz aldi au egoki da-  
toñkidalako zureganako nere oni-  
ritziak aitoñtuaz, biotzez eskein-  
tzeko J. A. oñen zerbitzari.*

*P. Kardenal Gaspari.*

**«ARGIA»'ren Zuzendari**

**Garitaonandia'taí Bitor**

Jaun Agurñafia

**DONOSTIA**





## LENEN-ARGITALDIKO ITZ-AURĒA

---

*ARĒGIA* sořtu zan, ez asteroko bat egiteko bakařik, baita beař diran beste gauzarik asko euskeldunei euskeraz emateko ere. Gauza orietan beař-beařenetakoa eliz-liburu on eta oso-oso bat iruditu zitzaigun, řelijio ta animari dagozkion gauzak nun ikasi, nola ta nundik egin izan zezaten euskaldunak.

Beste eliz-liburu asko dabiltz euskaldunen ařtean, baņa baiere txarařak diranik esan gabe, ez gaituzte betetzen, batez ere oso-osoak ez diralako, eta utsune ori bete naian natořkizu, kristau euskalduna.

Ořetarako *ARĒGIA*'k Batzaldi bat egin zun, eliz-libururik egokien eta edeřena egiten zunari mila pesetako saria eskeņirik. Bi liburu agertu ziran Batzaldira eta Epaileak (juraduak) li-

*buru au, eskuetan daukazun au, Baltzola Aitak egindakoa, aukeratu zun, eta berari eman zitzaion mila pesetako saria. Ora nola sortu zan liburu au.*

*Eliz-liburu au ez da izango, noski, akatsik gabekoa; baña, batere gezurik gabe esan genezake, mundua mundu dan ezkeroztik, Euskaleriko alderdi onetan beintzat, ez dala onelako liburrurik, onen oso ta egokirik argitaratu, eta euskaldunak arera on bat egiten badiozute, geroago ta obetzen joango da.*

*Liburu onek zer dakarren jakin nai ba'dezu, Arki bidean ikusi zenezake, baña emen ere esango dizut :*

*1'g.—Onek dakarzkien otoitzik geienak, ia guztiak, barkapen edo induljentziz aberastuak daude; beraz, otoitz egiten dezun bidez, barkapen aundiak irabaziko dituzu, liburu onetatik egiñaz.*

*2'g.—Aitoartzeko ta Jaunaartzeko era bi dakarzki; bat luzea eta laburra bestea. Jaunaartzeko era laburra mutil-nexka guziak batean egiteko oso egokia da, otoitzak guziak batera esanaz. Era luzea, norberak bakarrik egiteko ohea da. Aitoartzeko era laburra maiz egiten*

*diranentzat da, eta luzea beñiz noizean bein (ilean bein) egiten diranentzat. Era berean bi azterketa edo esamiña dauzka, eta azterketa luzea noizean bein irakurtzea on zaie guziei, eta batez ere guzien Jaunartzea danean eta Pazko aldian apaiz jaunak pulpitotik irakurtzea oso ona litzake, toki batzuetan egiten dan bezela. Askotan galdera batek geiago esnatzen du, bat bakañik pentsatzen egonak baño.*

*3'g.—Kristau ikasbide edo Dotriña beñiaren eran ipiñiak daude Kredoan, Salbea ta gañerakoak.*

*4'g.—Igande ta Jai guzietako Ebanjelioak ba - dakarzki bakoitzak zer adierazi nai dun auñetik adieraziaz. Sermoiak ondo entzuteko, auñetik Ebanjelioa irakurtzea da onena.*

*5'g.—Elizan abesten diran Bezperetako salmoak dakarzki, zertarako idatzia izan ziran auñetik esanaz; eta gañera latiñezko beste kanta asko, elizkizunetan kristau guziak abestu ditzaten. Eliza Ama Santak nai du, eñ guziak parte artzea Meza, Bezperak, Tantun ergo ta beste elizkizunetan, ez*

*bakarrik Elizara joanaz, guzien artean abestuz baizik. Orduan esan liteke, eliz-jaiak eñi guziaren Jainkoaganako jaiak dirala, Meza ta otoitzak eñi guziaren Meza ta otoitzak dirala.*

6'g.—Gañera ogeitamaika gogozko otoitz edo meditazio egokiak dakartzki, ilabetearen egun bakoitzerako bat. Gogozko otoitz edo meditazio gabeko sinismen eta religioa aula ta axalekoa izaten da. Zure buru ta biotzean sinismen ta religioaren zañak ondo artzea nai ba'dezu, sendo euki nai ba'dituzu, egin zazu egunero meditazio txiki bat «recogita corde» eta bañen-bañeneraño botako ditu sustraiak.

Kristauen artean dabilen gauñ dan eguneko gaitzik txarenetakoa auxe da, sinismen otza, aula, argala, motela, axalekoa, ila izatea, eta oñela izanik, kristau zintzoa izaten zañla da, erortzen eñeza.

7'g.—Azkenik, liburu onen bidez elizkizunak eta otoitzak batera ekañi nai genituke. Elizako ta animako gauza aundienak toki guzietan berdin edo berdintsu egitea, eta ez batek batera ta

*besteak bestera, nundik nora dabiltzan jakin gabe, otoitzak noiz ta nola egin dituzken eta egiten diran, eta elizkizunetan zer esan eta zer kantatzen dan guziak jakin dezaten. Orduan izango da kristau euskalduna eliza gauzetan bea' bezela ondo ikasia. Ori iritxiko ba'gendu ontzat emango genituke gure lan eta neke guziak, eta ondo pozik ala ere. Jainkoari nai dakiola o'rela izatea.*

### **A'rgia**



## BIGAÑEN ARGITALDIKO ITZ-AUÑEA

---

*Ona emen beñiro «Argi Donea».*

*Lenen - argitaldia berealako batean zabaldu zan Euskaleñi osoan eta Argia'ren Eliz-liburu edeña gabe euskaldun asko gelditu ziran. Nai ta izan ez.*

*Eskea bazan ugari, «Argi Donea» bakar bat ere ez.*

*Orain, eskea ase ta utsunea bete-beañez, ona beñiro «Argi Donea».*

*Egutegia, du oraingoak lengoak etzuna ta Kristau - Ikasbide - laburpena.*

*Gañerakoan lengo mami gozo-edeña bera du, euskera an-or-emen apurtxo bat beñitua eramán añen.*

*Azkenik liburua bera, naiz paperez naiz azalez, eder-bikaña.*

*Agur Kristau euskotaña; zure animaren onerako izan bekizu gure «Argi Donea».*

**Argia**

## EGUTEGIA

### ILBELTZA

1. ✠ *Jesus' en Bilebaiketa*. Bingen—Bizente (bizkaita odolez).
2. Antioki'ko Ixidori—Ixidoro.
3. Danel—Daniel.
4. Akilin—Akilino.
5. Emilene—Emiliana.
6. ✠ *Jauna'ren Agerketa*. Kaskante'tar Jon—Juan (nafa).
7. Luken—Luziano.
8. Julene—Juliana.
9. Markelin—Marzelino.
10. Nikanor.
11. Seber—Sebero.
12. Jon—Juan.
13. Lontzi—Leonzio.
14. Ilari—Ilario.
15. Paul—Pablo.
16. Markel—Marzelo.
17. Andoni—Antonio.
18. Kepa—Pedro. Deun E'fom. Irakastegia.
19. Mari—Mario.
20. Sebasten—Sebastian.
21. Inese—Ines.
22. Bingen—Bizente.
23. Peñafor'tar E'faimunda—Raimundo.
24. Timota—Timoteo.
25. Paul—Pablo'ren biurtza.
26. Poluikarpa—Polikarpo.
27. Jon Kisostoma—Juan Krisostomo.
28. Julen—Julian.
29. Sales'tar Pantzeska—Prantzisko.
30. Martiñe—Martina.
31. Kepa—Pedro Nolasko.

## OTSAILA

1. Iñaki—Iñazio.
2. ✠ *Andre Mariaren Garbiketa*. Adabaldo  
(laburditaña odolez).
3. Balasi—Blas.
4. Ander—Andres.
5. Martin (Gipuzkoaña).
6. Maurondo (laburditaña).
7. Eñikarta—Ricardo.
8. Luki—Luzio.
9. Sabin—Sabino.
10. Eskolastike—Eskolastika.
11. *Lourdes'ko Ama*. Elazar—Lazaro.
12. Eulale—Eulalia.
13. Rizzis'tar Katariñe—Katalina.
14. Balendin—Balentin.
15. Paustin—Faustino.
16. Iulene—Juliana.
17. Kapadozia'tar Jule—Julia.
18. Eladi—Eladio.
19. Markel—Marzelo.
20. Nemesi—Nemesio.
21. Peli—Felix.
22. Margarite—Margarita.
23. Damen—Damian.
24. Mati—Matias.
25. Jule—Julia.
26. Nestor.
27. Alexander—Alejandro.
28. Leander—Leandro.
29. Eñoman—Roman.



## EPAIĻA

1. Gotzon Zaindaria—Anjel.
2. Paul—Pablo.
3. Emeteri—Emeterio.
4. Kasimir—Kasimiro.
5. Eusebi—Eusebio.
6. Bitor—Biktor.
7. Akino'tar Toma—Tomas.
8. Beremundo (napaña).
9. Katariņe—Katalina.
10. Alexander—Alejandro.
11. Euloji—Eulogio.
12. Gergori—Cregorio.
13. Leander—Leandro.
14. Matilde.
15. Meliton.
16. Eusebi—(l aburditaña).
17. Patirki—Patrizio.
18. Gabirel—Gabriel.
19. ✠ *Joseba Deuna—S. Jose.*
20. Julene—Juliana.
21. Bedita—Benito.
22. Paul—Pablo.
23. Bitoren—Victoriano.
24. Katariņe—Katalina.
25. Dima—Dimas lapur ona.
26. Basil—Basilio.
27. Jon—Juan Damasko'taņa.
28. Kastor.
29. Paule—Paula.
30. Pastor.
31. Peli—Felix.

## JORAILA

1. Benantzi—Benanzio.
2. Paula'tar Pantzeska—Franzisko.
3. Erikkarta—Rikardo.
4. Ixidor—Isidro.
5. Feñer'tar Bingen—Bizente.
6. Markelin—Marzelino.
7. Kerman—Jerman.
8. Jenar—Jenaro.
9. Demetir—Demetrio.
10. Ezekel—Ezekiel.
11. Lon—Leon.
12. Zenon.
13. Margarite—Margarita.
14. Justin—Justino.
15. Anastase—Anastasia.
16. Toribi—Toribio.
17. Miren Ane—Maria Ana (nafa).
18. Apoloni—Apolonio.
19. IX'en Lon—Leon.
20. Todor—Teodoro.
21. Peli—Felix.
22. Soter—Sotero.
23. Akil—Akiles.
24. Pidel—Fidel.
25. Marka—Markos.
26. Basil—Basilio.
27. Toribi—Toribio.
28. Purdentzi—Prudenzi.
29. Andone—Antonia.
30. Sena'tar Katarine—Katalina.

## A II OÍILA

1. Pilipa ta Jag—Felipe ta Sant.
2. Anastasi—Anastasio.
3. ✠ *Gurutz Deun. arkikundea.* Alexander—
4. Monike—Monika. [Alejandro.
5. Adamando (laburditaña).
6. Jon—Juan *ante Port. Lat.*
7. Augustin—Agustin.
8. Dunixi—Dionisio.
9. Gergori—Gregorio.
10. Andoni—Antonio.
11. Pantzeska—Franzisko.
12. Domeka—Domingo (arabaña).
13. Kepa—Pedro.
14. Juste—Justa.
15. Ixidor—Isidro.
16. Jon—Juan Nepomukaña.
17. Paskal—Paskual.
18. Benantzi—Benanzio.
19. Ibon—Ibon.
20. Anastasi—Anastasio.
21. Sekundin—Sekundino.
22. Paustin—Faustino.
23. Polentzi—Florenzio.
24. Bingen—Bizente.
25. VII'g. Gergori—Gregorio.
26. Zakari—Zakarias.
27. Pazzistar Miren—Maria Magdalena.
28. Augustin—Agustin.
29. Todose—Teodosia.
30. Perdiñanda—Fernando.
31. Paskasi—Paskasio.

## GARAGAÑILA

1. Iñaki—Iñigo.
2. Markelin—Marzelino.
3. Paule—Paula.
4. Saturnin—Saturnino.
5. Bonipagi—Bonifacio.
6. Norberta—Norberto.
7. Paul—Pablo.
8. Maximin—Maximino.
9. Bingen—Bizente.
10. Margarite—Margarita.
11. Barnaba—Bernabe.
12. Bitor nekazaria (arabaña).
13. Padua'tar Andoni—Antonio.
14. Basil—Basilio.
15. Libe—Libia.
16. Regis'tar Pantzeska—Franzisko.
17. Anastasi—Anastasio.
18. Elixabete—Isabel.
19. Julene—Juliana.
20. Silberi—Silberio.
21. Gonzaga'tar Koldobika—Luis.
22. Paulin—Paulino.
23. Peli—Felix.
24. ✠ *Jon—Juan Bautista'ren jayotza.*
25. Gilelma—Gilermo.
26. Jon—Juan.
27. Zoil—Zoilo.
28. Il'g. Lon—Leon.
29. ✠ *Kepa ta Paul Pedro ta Pablo Apostoluak.*
30. Kolsenda (laburditaña).

## UZTAIĻA

1. Simeon nekazaria (napaĶa).
2. *Ama BirjiĶaren Ikerkundera*. Sinborose—
3. Iren—Irene. Tirpon—Trifon. [Sinforosa.
4. BeĶiotxoar Balendin (BizkaitaĶa)—Balendin.
5. Kuiril—Zirilo. [tin.
6. Domeke—Dominika.
7. Pirmin—Fermin (napaĶa).
8. Elixabete—Isabel.
9. Beronike—Beronika.
10. Peli—Felix.
11. Marken—Marziano.
12. Golberta—Gualberto.
13. Anakelda—Anakleto.
14. Banabendur—Buenabentura.
15. Mayorga'ar Juan (benapaĶa).
16. Eustaki—Eustakio.
17. Jakinda—Jazinto.
18. Kamil—Kamilo.
19. Paul'dar Bingen—Bizente.
20. Margarite—Margarita.
21. Danel—Daniel.
22. Miren Matale—Magdalena.
23. Apolinari—Apolinar.
24. Bitor—Biktor.
25. ✠ *Jakoba—Santiago Apostolua*.
26. Ane—Ana.
27. Peli—Felix.
28. Nazari—Nazario.
29. Paustin—Faustino.
30. Aton—Abdon.
31. ✠ *Loyola'ar IĶaki—IĶazio*.

## DAGONIĀ

1. Kepa—Pedro *ad Vincula*.
2. Ligorio'tar Albontza—Alfonso.
3. Estepan—Esteban.
4. Guzman'dar Domeka—Domingo.
5. Kasen—Kasiano.
6. Justa—Justo ta Pastor.
7. Kayetan—Kayetano.
8. Seber—Sebero.
9. Eroman—Roman.
10. Laurentzi—Lorenzo.
11. Tiburtzi—Tiburtzio.
12. Kalare—Klara.
13. Bergmans'tar Jon—Juan.
14. Eusebe—Eusebio.
15. ✠ *Andre Maria'ren Jasokundea*. Tartsixi—
16. Jokin, Eřoka—Joakin, Roque. [Tarsizio.
17. Bonipagi—Bonifazio.
18. Elene—Elena.
19. Maren—Mariano.
20. Bernarta—Bernardo.
21. Jone Pantzeske—Juana Frantziska.
22. Anastasi—Anastasio.
23. Kauldi—Klaudio.
24. Bartoloma—Bartolome.
25. Koldobika—Luis.
26. Keperin—Zeferino.
27. Kalasanz'tar Joseba—Jose.
28. Augustin—Agustin.
29. Sabiņe—Sabina.
30. Lima'tar Eřose—Rosa.
31. Eřaimunda—Ramon Nonnato.

## IRAILA

1. Ane—Ana.
2. Andolin—Antolin.
3. Serape—Serapia.
4. Marin—Marino.
5. Laurentzi—Lorenzo.
6. Makari—Makario
7. Jon—Juan.
8. ✠ *Andre Maria'ren Jaiotza. Arantzazu'ko  
Andre Maria.* Adiran—Adrian.
9. Zenon—Zenon.
10. Tolentino'tar Nikola—Nikolas.
11. Bingen—Bizente.
12. Baleren—Baleriano.
13. Euloji-Eulogio.
14. Saluste—Salustia.
15. Emile—Emilia.
16. Korneli—Kornelio.
17. Arbues'tar Kepa—Pedro.
18. Toma—Tomas.
19. Jenar—Jenaro.
20. Eustaki—Eustakio.
21. Matai—Mateo apostol.
22. Maurixi—Maurizio.
23. Lin—Lino.
24. Tirtsa—Tirso.
25. Miren—Maria.
26. Justiñe—Justina.
27. Kosma, Damen—Kosme, Damian.
28. Marka—Markos.
29. ✠ *Mikel—Migel Goiaingerua.*
30. Andonin—Antonino.

## URILA

1. Eremiji—Remijio.
2. Saturi—Saturio.
3. Todor—Teodoro.
4. Asis'tar Pantzeska—Franzisko.
5. Atilan—Atilano.
6. Markel—Marzelo.
7. Jule—Julia.
8. Birkide—Brijida.
9. Dunixi—Dionisio.
10. Borja'tar Pantzeska—Franzisko.
11. *Begoña'ko Andre Maria*. Nikasi—Nicasio.
12. Peli—Felix.
13. Edorta—Eduardo.
14. Ebaista—Ebaristo.
15. Josu'ren Terese—Teresa de Jesus.
16. Alexander—Alejandro.
17. Bitor.
18. Luka—Lukas.
19. Luki—Luzio.
20. Jon—Juan.
21. Urtzule—Ursula.
22. Miren Salome—Maria Salome.
23. Seberen—Seberiano.
24. Erapel—Rafael Goiaingeru.
25. Kispin—Krispin.
26. Luken—Luziano.
27. Polentzi—Florenzio.
28. Simon eta Juda—Judas.
29. Narkis—Narziso.
30. Babil doatsua (napaña).
31. Nemesi—Nemesio.



## AZIĀ

1. ✠ *Deun (Santu) guzien jaya.* Miren-Maria.
2. *Animen eguna.* Bitorin –Biktoriano.
3. Balendin –Balentin.
4. Boñome'tar Karla –Karlos Boñomeo.
5. Zakari –Zakarias.
6. Seber –Sebero.
7. Andoni –Antonio.
8. Kauldi –Klaudio.
9. Todor –Teodoro.
10. Ander –Andres.
11. Martin.
12. Martin.
13. Kostka'tar Estanislao –Estanislao.
14. Kelmendin –Klementino.
15. Luke –Luzia.
16. Érupin –Rufino.
17. Gergori –Gregorio.
18. Éroman –Roman.
19. Elixabete –Isabel.
20. Agapi –Agapito.
21. Estepan –Esteban.
22. Koikile –Zezilia.
23. Kelmen –Klemente.
24. Gurutzearen Jon –Juan de la Cruz.
25. Katariñe –Katalina.
26. Jon –Juan Berkmans.
27. Margarite –Margarita.
28. Gergori –Gregorio.
29. Saturnin –Saturnino.
30. Ander –Andres apostol.

## LOTAZIĀ

1. Luki—Luzio.
2. Eusebi—Eusebio.
3. Xabier'tar Pantzeska—Franzisko Javier.
4. Barbara-Barbara.
5. Simon.
6. Bari'tar Nikola—Nikolas.
7. Anbortsi - Ambrosio.
8. ✠ *Andre Mariaren Sortzegarbia*. Eutikin—
9. Lokade—Leokadia. [Eutikio.
10. Eulale—Eulalia
11. Danel—Daniel.
12. Dunixi—Dionisio.
13. Luke—Luzia.
14. Nikasi—Nikasio.
15. Iren—Ireneo.
16. Eusebi—Eusebio.
17. Lazar—Lazaro.
18. Erupe—Rufo.
19. Paul—Pablo.
20. Domeka—Domingo.
21. Toma—Tomas.
22. Demetir—Demetrio.
23. Bitore—Biktoria.
24. Delfin gotzaia (nafa).
25. ✠ *Jesusen Jayotza*. Aldasenda (laburditafa).
26. Estepan—Esteban.
27. Jon—Juan.
28. Agape—Agape.
29. Toma—Tomas.
30. Sabin—Sabino.
31. Silbester—Silbestre.

# JAI-IGANDE ALDAKOŖAK

Urtea	Zazpigaren igandea (Septuagésima)	Auste-eguna	Berpizkunde-igandea	Jauna'ren Igokundea	Goteun-etor-kundea (Pentecostés)	Jesukristo'ren Gorputz Deuna	Elgaro'ko lenen-igandea
1933	Otsaila, 12	Epaila, 1	Joñaila, 16	Orñila, 25	Garagañila, 4	Garagañila, 15	Lotazila, 3
1934	Ilbeltza, 28	Otsaila, 14	» 1	» 10	Orñila, 20	Orñila, 31	» 2
1935	Otsaila, 17	Epaila, 6	» 21	» 30	Garagañila, 9	Garagañila, 20	» 1
1936	» 9	Otsaila, 26	» 12	» 21	Orñila, 31	» 11	Azila, 29
1937	Ilbeltza, 24	» 10	Epaila, 28	» 6	» 16	Orñila, 27	» 28
1938	Otsaila, 13	Epaila, 2	Joñaila, 17	» 26	Garagañila, 5	Garagañila, 16	» 27
1939	» 5	Otsaila, 22	» 9	» 18	Orñila, 28	» 8	Lotazila, 3
1940	Ilbeltza, 21	» 7	Epaila, 24	» 2	» 12	Orñila, 23	» 1
1941	Otsaila, 9	» 26	Joñaila, 13	» 22	Garagañila, 1	Garagañila, 12	Azila, 30
1942	» 1	» 18	» 5	» 14	Orñila, 24	» 4	» 29
1943	» 21	Epaila, 10	» 25	» 22	Garagañila, 13	» 24	» 28
1944	» 6	Otsaila, 23	» 9	Garagañila, 3	Orñila, 28	» 8	Lotazila, 3
1945	Ilbeltza, 28	» 14	» 1	Orñila, 18	» 20	Orñila, 31	» 2
1946	Otsaila, 17	Epaila, 6	» 21	» 10	Garagañila, 9	Garagañila, 20	» 1
1947	» 2	Otsaila, 19	» 6	» 30	Orñila, 25	» 5	Azila, 30
1948	Ilbeltza, 25	» 11	Epaila, 28	» 6	» 16	Orñila, 27	» 28
1949	» 13	Epaila, 2	Jofaila, 17	» 26	Garagañila, 5	Garagañila, 16	» 27
1950	» 5	Otsaila, 22	» 9	» 18	Orñila, 28	» 8	Lotazila, 3
1951	» 21	» 7	Epaila, 25	» 3	» 13	» 24	» 2
1952	Otsaila, 10	» 27	Joñaila, 13	» 22	Garagañila, 1	» 12	Azila, 30
1953	» 1	» 18	» 5	» 14	Orñila, 24	» 4	» 29
1954	» 14	Epaila, 3	» 18	» 27	Garagañila, 6	» 18	» 28

# Barau, aragi-uzte ta barkamenak

---

I.—*Barau ta aragi-uzteko legeak.*

II.—*Barkamenak.*

## I

«Barauak: gaitzak sendatzen ditu, deabruak iges jartzen ditu, gogapen txarak ayenatzen ditu, adimena aragiagoa bihurtzen du, biotza garbitzen du ta, azkenean, Jaungoikoaren egon-toki afera gizona eramaten du».

(*Atanasio Deunak*).

A)—*Barau ta aragi-uzteko legeak bi dira :*

Bata estuagoa, buldik ez daukaten kristau guztientzat jartzen dana.

Bestea gozoagoa, España'ko legea, bulda ateratzen duten kristaudentzat ematen dana.

Bien berri laburkiro emango da emen.

B)—*Barau ta aragi-uzteko legeak beartzen dituzte :*

*Aragi uztekoak :* 7 urte bete dituzten kristau guztiak.

*Barau legeak :* 21'gañen urtetik asi ta 60 urterañoakoak.

(*Oarpena:* Aragi-uzteko legeak ez ditu beartzen 7'gañen urtea baño lenago adimen edo arazoia duten umeak).

C)—*Lege auek zer eskatzen dute?*

*Aragi-uzteko legeak :* aragia ta aragi-salda egun batzuetan debekatzen ditu. (Arautzak, esnea ta esnekiak ez daude debekatuak).

*Barau legeak:* bazkari bakañ bat egunean egiteko agintzen du.

Alabaña :

*goizean* 2 ontza janari (62'50 gramo) ta *arátsean*, 8-10 ontza (250-300 gramo) artu litezke.

(Goiz-arátseko orduetan oitutako eran jañaitu).

D)—*Noiz barau egin eta aragia utzi beañ dan.*

Ez da lege beñdiña guztientzat. Beraz ondoren, bi lege jañtzen dira.

*Bulda gabekoen legea.*

## BARAU EGUNAK

Garizumaren 40 egun osoak.

Lau barukaldiko (tenporetako) asteazken, ostiral eta larunbatak.

Pentekoste, Andre Mariaren Jaso-kundea (Asunzioa), Santu-Guztien (Azaroaren 1'g.) eta Jesusen Jaio-tzaren (Lotazila'ren 25'g.) aurreko egunak (bijiliak).

*Guztira : 53 egun.*

## BARAU TA ARAGI UZTEKO EGUNAK

Austeré-eguna (Asteazkena).

Garizumaren barukaldiko asteazkena.

Garizumaren ostiral eta larunbatak. Irutasun Santuaren (Trinidad), Mateo santuaren eta Elgaroko (Abenduko) barukaldiak (Tenporak).

Pentekoste, Andre Maria'ren Jaso-kundea, Santu Guztien eta Jesus'en Jaiotzaren aurreko egunak.

*Guztira : 29 egun.*

(Beraz : Garizumaren beste 24 egunak barau-egunak bakarrik dira, ez aragi-uztekoak.

Larunbat-Santuko baraua, eguerdian bukatzen da).

Aragi-uzteko egunak

Urte guztiko ostiralak.

*Bulda daukatenen legea.*A)—*Bulda ¿noizkoa da?*

Kristauak moroen kaltezko guda edo buñukak soñtu zituzten garaikoa da.

Urbano II'gk. lenengoz (1095'g urtean) barkapen eta mesede aundiak egin zizkien Luñ-Santua moroen mendetik ateratzearen, aiekin buñukatzeraz zijoazenei edo aieri laguntzen zieten guztiei.

Ondorengo Eñoma'ko Aita Santuak beste mesede aundi asko, oien antzekoak, agindu zizkien, naiz Luñ-Santuara zijoazenei, naiz España'n bertan moroe-kin buñukatzen ziranei.

Julio II'gk., uste danez, lenengo aldiz eman zuen «España'ko Bulda»; arézkero, esker-mesede beñi askoz aberastu dute ondorengo Aita Santuek, eta azkenean, Benedito XV'gk. gaur agiri dan bezela jañi zuen.

B)—*Oarpen batzuek, sañera gisa.*

1.—Buldak eskeintzen dituen barkapen eta mesedeak irabazteko Bulda arñzea beañ-beaña da, eskatzen dan dirua orñda-indurik.

Nork bere izen-abizena Buldan jañtzea ez da beañekoa, ezta ere Bulda etxean goñdetzea edo sakelean eramatea.

Beste batek zure izenean arñtu lezake, ta utsean eman nai badizu ere balio du. Urteko Bulda beña arñtu beañ da, baño zabañkeriz - edo, beña arñtu gabe utzi bada, joan dan urtekoa ona da ilabete bat geyagorako.

Bulda jabe zerala atzeñira (erñbestera) bazoaz, Buldaren mesedeak irabazten dituzu, erorbidea (eskandaloa) ezbadezu ematen.

2.—*Buldak ¿zenbat dira?*

Bulda, berez, bakaña da : «Gurutze-Bulda» (Kruzadakoa, Gurutze gugaldi-koa). Alabaña: Bulda izenez deitzen ditu oiturak, «Aragiena», «Ildakoena» eta besteak ere.

Iru nagusienak aitatu ditut emen, eta



oiturari jaraiturik, Bulda izenarekin deituko ditut :

«Gurutze-Bulda» (Kruzadakoa).

«Aragi-Bulda ta.

«Ildakoen Bulda».

### **Bulda bakoitzaren azalpen laburra**

«*Gurutze-gudaldiko*» *Bulda (Kruzadakoa)*.

Lañegi litzake Bulda onek ematen dituen barkapen, mesede ta beste zertzelada guztiak emen aitatzeari. Beñenak edo nagusienak bakarrik azalduko ditut :

*Barkapenak.*—*Barkapen osoa urtean 2 aldiz, norberak aukeratutako egunetan, Aitoritu ta, al bada, Jaunañtu ezkerro. (Jaunañtu ezin duenak, Pazkoakoa egin beza barkapen oiek irabazteko asmoz).*

*15 urte ta 15 berogeiko barkapenak, barau egiten dan bakoitzean (aginduta ez dagon egunean) biotz damuturik eta Aita Santuaren alde otoitz egiñik. Berauxe egiten dutenak kristaudi osoan egun oietan egiten diran eginkizun on guztien aldedun dira.*

*Eroma'ko egonaldi edo estazioko barkapen guztiak, Aita Santuaren alde elizan otoitz egiñaz, eta Aitoñtu-Jaunañtuta barkapen osoak irabazi nai badira.*

*Barkapen osoa eriotz-zorian, aitoñtu ta Jaunañtu al bada, edo bestela biotzez damuturik «Jesus» esanda ta eriotza gogo onez Jaunaren eskuetatik añtu ezkerro.*

(Barkapen oiek guztiak, azkeneko au ez izatera, Garbitokiko animentzat eskeñi ditezke).

*Bulda au ateratzeko 3 eREAL ordaindu beañ dira.*

Emen oañtu beañ dezu bein eta befiko, Bulda ez dala erosten, askok esaten duten bezela. Bulda añtu egiten da, anima-eskeñak ezin saldu dira-ta. Buldak emanaz biltzen dan diruaren zati bat, beartsu ta gaxotetxeetan banatzen da, ta beste zati bat, eliz, apaizgaietxe ta apaizei laguntzeko.

*Aragi-bulda.*

Añautz, esne ta esnekiak añtzeko baimen osoa ematen du. Au da: Bulda añtu duten guziei, edozein egunetan (naiz Aste Santuko egunetan), ta ordu guztie-

tan (naiz goizean, naiz arátsean, neuría gorde ezkerro).

Orobat: Edozein janari (naiz goizeko, naiz arátsekoa), nai dan koipez (urdaiazpi, manteka... ez ordea saldakin) gertutzeko edo prestatzeko eskubidea.

Azkenez : Barau ta aragi-uzteko egun asko urtean kentzen ditu, ondoren agiri dan bezela.

**BARAU TA ARAGI-UZTEKO EGUNAK**

Garizumako ostiralak.

Pentekoste, Andre Maria'en Jaso-kundea (Asunzioa, Dagonila'ren 15' g.) ta Jesus'en Jaiotzaren (Lotazila'ren 25'g.) aurreko egunak (bijiliak). (Azkeneko au abenduko barukaldian larunbatean egiten da).

*Guztira : 10 egun.*

**Aragi-uztekoak bakarik Barau - egunak bakarik**

Garizumako asteazken eta larunbatak.

*Guztira : 14 egun.*

Irutasun (Trinidad) Santu, Mateo santu ta Abenduko barukaldietako ostiralak.

Beraz: ( † -barau-eguna esan nai du. )  
 X -aragi-uzteko » » »

<b>GARIZUMAN</b>	}	Azteazkena . . . . . †	
		Ostirala . . . . . †	--- X
		Larunbata . . . . . †	

<b>Auregunak (Bijiliak)</b>	}	Pentekoste'koa . . . . . †	- X
		Andre Mariaren Jasokundekoa	† - X
		Jesusen Jaiotzakoa . . . . . †	- X

(Azkeneko au Abenduko larunbatean egiten da).

<b>Barukaldiko (temporen)</b>	}	<b>Ostiralak</b>	Irutasun Santuarena . . . . . X
			Mateo Santuarena . . . . . X
			Abendukoa . . . . . X

Oarpenak :

1.—Barau ta aragi-uzteko legeak uts egiten du jai-egunean datořenean Garizuman ez izatera.

2.—Apaizak askapena (dispentsa) emango die bear dutenei.

Bulda onek ematen dituen mesede-

jabe izateko, onekin batean «Gurutze-gudaldiko» (Kruzadako) Bulda artzea bear-beareko da.

Iru erealean ematen da.

Bearitsuak ez dute ez Bulda onen bear-ik, ez Kruzadakoarena, aitatu diran egunetan aragia jateko.

Esan bitzate oien ordez «Aita Gurea» ta «Aguñ Maria».

Sendi (pamili) aundia daukatenak sei lagunentzako bulda bakañ bat, eta beste seirentzat beste bat artzea naiko dute; *baño bakoitzak «Kruzadako Bulda» atera bear du gañera.*

*Ildakoen bulda.*

Bulda au artzen dutenak, barkapen osoa irabazi lezateke il dan batentzat, aitoñtu, Jaunañtu ta otoitz eginda.

Ez da bearezko il danaren izena, ezta ere norbere izena, buldan jartzea.

Ez da bearezko «Kruzadako Bulda» barkapen oso au irabazteko.

«Aita Gurea», «Aguñ Maria» ta «Gloria» esatea naikoa da.

Barkapen au irabazi leike goñputz ila etxetik eramán badute ere; lurperatuta

gero ere bai; ta baita aspaldi ildakoaren-  
tzat eskeñi ere.

Urtean bi bulda baño geiago ezin di-  
tzake artu kristau bakoitzak.

Ezta ere, ez da bearezko zeñaldoan  
bulda sartzea, oitura txit ona izan aŕen.

Kristaua : zure etxekoak maite badi-  
tuzu, biotzez maite badituzu zure aide ta  
lagunak, ezin obeto erakutsiko diezu  
egizko maitetasuna «Iñen Bulda» oientzat  
arñuaz baño. *Ez dira negarñak, ezta ere  
loreak, oiek eskatzen dituztenak: otoi-  
tzak nai dituzte, barkapen eta eginki-  
zun onak.*

Guztiz egokia da «Ildakoen Bulda»  
etxean izatea, etxekoan edo lagun  
arñean norbait iltzen danerako, arñentzat  
lenbailen barkamena irabazteko.



**Oaña.**—Eliz-liburu au irafi ta gero, izan da aldaketa Bulda artu al izateko eman bear dan ugitxo edo limosnaren neurian.

Idazti onen 34' gañen oñialdean onela dio : «Bulda au artzeko iru eñeal ordaindu bear dira». Gurutze-gudaldiko Buldatzaz da ori. 37' gañen oñialdean, beñiz, onela dio : «Iru eñealean ematen da». Aragi-Buldatzaz da ori.

Ona orain aldaketak. Gurutze-gudaldiko Buldarekin eta Aragi-Buldarekin dute zer ikusi.

Urteko 5.000 laurleko baño gutxiago irabazten dutenak, laurleko bat eman bear dute bi Bulda oietako bakoitzagatik.

5.001 laurlekotik 10.000 bitarte irabazten dutenak, 5 laurleko eman bear dituzte.

10.001'tik 25.000 bitarte irabazten dutenak, 10 laurleko eman bear dituzte.

Azkenik, 25.001'tik auñera irabazten dutenak, 25 laurleko eman bear dituzte.

Emazteak, senañak bezela eman bear du; seme-alabak, berak irabazten ez badute, ugitxorik txikiena ematea naikoa dute.



## BARKAMENAK

«Dabo tibi thesauros absconditos».

«*Aberastasun gordeak emango dizkizut*».  
(Isai. XLV. 3).

«Thesaurizate vobis thesauros in coelo».

«*Bildu itzazute zuentzat aberastasunak zerruan*». (Mat. VI 20).

Pekataria bere pekatua aitortuta gero ere, zerbait ordaindu behar izaten du oraindik, edo emen luzean, edo gero garbitokian. Barkapenak aberastasun izugarri aundiak jaritzen dituzte bere eskuetan zor ori ordaintzeko.

*Barkamen osoak*, pekatuaren zora oso osorik ordaintzen dute. Beraz, barkamen osoa irabazita bereala, ilko baltz norbait, zuzen-zuzenean joango litzake zerura.

*Osoak ez diranak*, zerbait ordaintzen dute, zora gutxitzen dute.

(Ez uste izan, orde, urtebeteko barkapenak esatean, Garbitokiko urtebetea kitatzen dizuela. Orek esan nai du, urtebetean penitentzia egiñaz irabaziko zenuken saria, irabazten dezula, zora ordaintzeko).

Barċamenak irabazteko beař dira :

a)-Biotz-gařbia. (Pekatu lařipean ba-zaude, zoaz aitořtzera, ta ezin badezu, egizko damua biotzean sořtu zazu «Jesu-kristo nere Jauna» esanaz).

b)-Agintzen diran otoitzak edo beste egikizun onak bete. (Meza agintzen bada, igandekoa, ez da naikoa, beste bat entzun beař da).

*Aitořtza* eskatzen danean, pekatu lařirik ez badezu ere, aitořtu beař zera. Astero aitořtzen bazera, aste batetik besterako barċapenak irabazteko ez dezu beřiro aitořtu beařik.

*Aitořtza ta Jaunařtzea* eskatzen diranean, bein oiek egin ezkerro, uřengo bi eguneko barċapenak irabazi litezke.

*Eliza ikeřtzea* (bisitatzea) edo Jaunařtzea eskatzen danean, gaxo daudelako, ezin joan diranak, beste egikizun edo otoitzekin barċamenak irabaziko dituzte, aitořlariak esango diena eginda.

Beste otoitzik agintzen ez danean, 5 «Aita Gure» ta 5 «Aguř Maria» esatea *naikoa* da.

## “Jubileo“ barkamena

Ogeitabost urtetik ogeitabost urtera, Aita Santuak *barkapen oso bat* eskeintzen du, urtebetean irabazi ditekena. Beragatik, URTE SANTUA deitzen zaió, barkapen osoa dakañen urte oni.

Urte santu au, Jaungoikuaren erukizko urtea da. Eleiz-Amak bertan eskeintzen digu gure pekatu guztien barkamena, ta oien neke ordaña erézago kitatu dezagun, barkapen osoa gureganatzeko eréztasuna ematen digu.

Barkapen osoa irabazteko egin beaí diranak, orduan esan oi dira. Geienean, aitoítu ta Jaunaítzea, ta elizaren batean Aita Santuaren alde otoitz egitea eskatzen da.

Ez bakaírik 25'gañen urtebetetze bakoi-tzean, baño beste geítaldi nagusienetan ere, Jubileo'ko barkapena, Aita Santuek eman oi dute. Ala danean, ongi begiratu beaí da baraua ala beste zerbait ez ote dan gañera eskatzen, barkapena irabazteko.

**Dagonilaren (Agostuaren) 2'an**  
**“Porziunkula” izeneko barkamena**

Asis'tar Prantzisko Deunak, Andre Mariaren bitartez, Jaunari eskatu zion, eta Ill'gañen Onorio Aita Santuak, 121'gañen urtean, ontzat eman zuen barkamen au.

Dagonilaren l'ean. eguerditik asi ta 2'aren gauerdi artean irabazten da.

Eskatzen dira :

a)—Aitoñtu ta Jaunañtzea.

b)—Prantziskotañen, Kaputxinoen, edo barkapen ori irabazi leiken beste elizañen bat ikertzea (bisitatzea), bertan Aita Santuaren alde otoitz egiñaz (5 Aita Gure, Agur Maria, esan oi dira).

d)—Ikertaldi bakoitzean barkapen osoa irabazi diteke.

e)—Barkapen auek guztiak Garbitokiko animen alde eskeñi ditezke.

g)—Bakoitzak beretzat bat irabazi dezake, baño au irabazita besteak ezin ditu beretzat irabazi. Beraz, txit egokia da, norberetzat onak ez ba-dira, ildakontzat mesedezkoak izan ditezen, Jaunari eskatzea.

i)—Toki askotan, gorago aitatu dan aurreko edo ondorengo igandean barkapen oiek irabazi ditezke.

### Ur-bedeinkatua

Elizaren asiera - asieratik, erabiltzen da ur bedeinkatua kristauen artean. Basilio deunak diogu kristauak elizan sartu edo ateratzen zirenean beti artzen zutela, ta etxeetan, jeiki ta oieratzekoan, ere bai.

Baño ur bedeinkatua, animari mesedezkoa izateko, sinispen edo fede beteaz artu bear da, ez ardurarik gabe ta nolainai. Onela artzen danean, deabrua gure aldamenetik uxiatzen degu, ta Espiritu Deunak bere doaiatz laguntzen gaitu.

Esan bada artzen dezun bakoitzean :  
«*Aqua benedicta sit nobis salus et vita*»  
—«Ur - bedeinkatua izan bedi neretzat osasun eta bizia».

## Kristauaren bizibidea ta eginbearak

Agustin Deunak bere itzaldietan onela dio: «Otoitz egiten dakiena, ondo bizikoda» (Hom. 40). Kristau onaren bizibidea emen azaldu naiean, bidezkoa izango da, noski, lendabizi otoitza aitatzeari.

**OTOITZA.**—Guztiz bearrezkoa dezu otoitza, kristaua, loreak intza ta jaio-be-riak esnea bezela, bear-bearekoa, nai ta naiezkoa, zerua irabazteko. Ora zergatik: sinismen edo fedeko egia da, «Jaungo-koaren laguntza gabe, ezer ez genezake- la gure indar utsez» (1); baño «Jaunak ez dio bere laguntza ematen, eskatzen dionari baizik» (Agustin D). Beraz, «Otoitzik gabe, galdua zera, eta otoitz egiten ba-dezu irabaziko dezu» (Alf. D).

---

(1) Sine me nihil potestis facere, (Joan XV-5, VI-44).

Bai, otoitza guztiz beañekoa degula «Beti ta beti otoitz egiteko» esaten digu Jaunak (Luc. XVIII); eta berebat dio Pablo bere Apostoluak: «gelditu gabe, atsedengabe, otoitz egiteko» (1).

Guztiz beañekoa ezik, otoitza *guztiz mesedezkoa* dezu. Pozgañiak dira benetan Jesukristoren itzak gai onetan: «Eskatu ta arñtuko dezute, deitu ta idikiko zaitzute, bilatu ta arñkituko dezute; eskatzen duenari ematen zaio, bilatzen duenak arñkitzen du». Bai otoitza guztiz indarñ aundikoa da, Jaungoikoaren itza bañño indarñtsuagoa (Krisostomo deunaren iritziz); obeto esateko, neuñi gabeko indarñ dauka. Ester eñregiñña bezela, sarñtzen da, noiznai Jaungoikoaren jauregi-gelan, ta nai duena irixten du. Otoitz egizu ba, krñstaua, eskatu asko, eskatu beti.

GOIZEAN, jeiki ta laxteñ, eskeñi Jaungoiko Aitari, Jesusen Biotzaren bitartez, eguneko lan-neke ta otoitz guztiak; eman egun beñi bat ikusteko grazia eman dizulako eskeñak... ¡Egun beñi bat! lan egiteko, zerurako irabaziak biltzeko,

(1) I Tesal. V-17.

Jaungoikoagana biurtzeko... Aurki datorkizu gaua, eriotzako gau ikaragarria; ta orduan ezin lanik egingo dezu (1). Suleizako (impernuko) aberatsak Jaunari Lazaro beartsua bere bost anaiengana bidaltzeko eskatzen zion, eriotzako pres-tatu zitezela esatera...; mandatari bat egunero bidaltzen dizu Jaungoikoak zuri, zure lo-zorotik esnatzera: goizeko argiak «jeiki zaitez, dio, lotan zauden ori, orain dezu zure anima salbatzeko aukera; orain da lan egiteko garaia». (2).

**GAUEAN**, oieratzekoan, egizu salerosleak egiten dutena: artu-emanak aztertu, zerbait irabazi dezun ala ez, argiro jakiteko. Ez beñere oiera joan eguneko uts-egite ta pekatuen barkamena Jaungoikoari biotzez eskatu gabe, «Jesukristo nere Jauna» esanaz; ta jar zaitez orobat beti, Andre Maria ta Jose Deunaren itzalpean.

**MEZA DEUNA.** «Bazeneki, kristaua, (dio Ligorio'tar A. M.'k) zure etxe ingur-

(1) Veniet nox, quando nemo potest operari (Joan IX-14).

(2) Surge qui dormis... ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis. (II Corint. VI-2).



uan urézko meatza bat arkitzen dala, ta noiznai bertara joan zindezkeala, luña atxurtuta nai dezun aña uré biltzera ¿ez al da egia antxen ziñakeala egun osoan urégoña biltzen? Pizkoitu zazu bada, zure sinismena; Zeruko Érege Altsuak zure eskuetan egunero jaítzen ditu urégoñi ta ari disdiratzu guztiak baño askoz ederagoak diran, Jesukristoren irabazi guztiak, meza santuan ematen zaizkizu guztiak. Ez esan, ba, burugabeko gizon batzuek bezela: «Meza bat gora-bera ajolik ez dio»; edo «Naikoa da, bai, igandetan meza entzutea». Oñela mintzatzen diran oiek, meza bat, ezer-ez eta uskeritzat daukaten oiek, aztuta daude, noski, *Meza Deuna* Jesukristok gurutzean Jaungoiko Aitari eskeñitako opari berbera dala, odoltsua ez ezik; orlakoak ez dakite Meza Jaungoikoak iñoiz egin duen mirari aundienetako bat dala, ta biderik egokiena gañera azkenean Jaungoikoaren asarea gozatzeko, eta zor dizkiogun mesedeak ordaindu ta beñiak irabazteko, eta Garbitokiko su-garretatik anima gizagaxoak ateratzeko, eta zeru-luñak atsegin eta ondasunez betetzeko.

Eta meza deunarekin aterako dituzun mesedeak aundiak ba-dira, kristaua, *Jaunañtzearekin* irabaziko dituzunak ez dira gutxiagoak, batez ere laguntasuna ta indaia: *Da robur, fer auxilium*. Gure liburu santuetan irakurtzen degu: Ejipto'taen semeak iltzera Jainkoak bidalitako aingeruak ez zutela judatarik ikutu, aien etxe-atariak arkume odolez gorituak ikusi zituztelako. Orobat deabrua iges dijoa, kristauen biotzan Jesukristo Bildots Santuaren odolez gorituak ikusten dituztenean. Mai-aldarean Jaunañtzen degunean «su ta gaia begietatik darioten leoi amoratuak bezela irtetzen gera-ta» (KRISOST.). Ortik atera zuten martiriak oñaze-min ikaragarrienak Jaungoikoaren izenagatik kementasun ta biotzez eramateko indaia.

Eta ¿zenbat aldiz artu beañ degu Jauna? Sari, al dezun maizena, egunero al ba-dezu. Gorputza bezela, janaririk gabe, anima ere auldu ta il egiten da; animaren janaria Jesukristoren Gorputz-Odol agurgarriak dira, «Christum Regem venite adoremus... qui se manducantibus dat spiritus pinguedinem».

Goizean zure biotzean Jauna artu iza-

nik, zoaz al ba-dezu elizara egunañtean, *Jesus zure Jauna ta laguna ikerñtzera* (bisitatñzera). «Asko ta asko ikusten ditugu (dio Paulino santuak) Luñ-Santura dijoazenak, gure Eroslea jaio ta bizi izan zan tokiak ikustera, ta poz-pozik biurñtzen dira, andik luñ pixka bat dakarñtela»; aiek baño amaika aldiz zoriontsuagorik, bertan daukazuzuk, kristaua, Jesus zure Erosle ta Jauna. ¡Eldu zaitez maiz bere ingurura, Bera da-ta aberatsenetan aberatsena, ondasun guztien iturburua!

Jesusen maitasunarekin batean bere Amarenganako maitetasun sutsua soñtu beañ dezu biotzean. Esaiozu biotz-biotzez *Angelus*-otsa entzungo dezun bakoitzean aingeruekin batean «Aguñ Maria» otoitz laburñtxo baño txit eder ori. «Gure luñak iñoiz bidali izan dion agurik-eztitsu-gozoena» da ta «zeruko izarñak bezela dizdiratasunez bete - beteñ» (AGUSTIN DEUNA).

Baño «Aguñtza» (erósario) santuarekin batez ere Maria zure Ama gozatuta, zureganatuko dituzu mesederik aundienak, *innumerabiles fructus*. Bere (mis-

terio) ezkutapenak gogoratuta, gure sinismena sendotu egiten da ta itxaropena pizkortzen. Aguritzak zorionekoak egiten gaitu emen beian, erbestean, ta zoriontsuak egingo gaitu gero betiko zeru ederean. «Aguriza eskuetan, otoitza ezpanetan, begiak lurrean eta biotza zeruan, gauza ederagorik bai ote dago kristau batentzat?», zion gure Beriotxoak zoriondunak. Ez, dago, ezin diteke izan, ez da izango.

André Maria biotzez maite ba-dezu, ta zerbait gogozko duana egin nai badiozu; bere *Eleizbazkun (kongregazio) ta beste anaidietan (kofradietan)* izendatu zaitez; oiek gaztelu goñdelariak bezela dituzu ta zure animarentzat goñde-leku sendo-irmeak.

Beste goñde-leku atsegingarri-sendoa, *Jesusen Biotzean* aurkituko dezu; atsegingarri, bai, bertan dituzu-ta, poza ta atsegina, indar ta laguntasunarekin batean. Ona bere Biotzaren maitaleeri Berak egindako eskeñiak : 1.—laguntza beren eginkizunetan; 2. — pakea beren sendietan (pamilietan); 3.—atsegin-poza naigabeetan; 4.—bizitzan, ta eriotzean

batez ere, estalpea ta iges-lekua bere Biotzean; 5.—bedeinkapena ta laguntza beren lan guztietan; 6.—erukitasun neurigabea pekatarietara; 7.—kristau epelak berotzeko; 8.—ta beroak bere maitetasunean irazekitzeko doaia; 9.—apaizei pekatariak biurtzeko eskua; 10.—bere irudia agirian daukaten etxeai bedeinkapena; 11.—ta bere Biotzean gordeko dituala Biotz orenganago jaiera zabalduko dutenen izenak; 12.—eta Lenengo Bederatzi Ostiraletan jaunaritzen dutenak, bere maitetasunean eta grazian ilko dirala.

Jesus ta Maria, Ama ta Semea maite dituzula, maita zazu orobat biotzez Aitordea, *Jose santua*, ta bere laguntza egunero eskatu.

Azkenean, kristaua, zoaz igandero meza-nagusi, bezpera ta ibildeun edo prozesiotara. Zeruko Jaun Altsuak egun bat aukeratu du astean, igandea, bere seme guztiak batean Bera agurtu dezaten. Gure aurrekoak igandero-igandero goizeko meza nagusira ta aratsaldeko bezperetara etortzen ziran, eta Jaunari eskeñak, bizirik dago oraindik oitura eder au eri

koxkoñetan, zoritxaréz gure urietan galtzen badijoa ere. Bi irabazi aundi aterako dituzu elizkizun oietatik : batetik mesede ugariagoak; otoitzak, Jesukristok berak diogunez (MAT. XVIII 19-20) zenbat eta lagun geiagoen artean egiten dan, ainbat eta indar aundiagoa dakar (beregatik ere Agurta Santua lengo oitura zara gordeaz, gurasoak eta umeak guztiok elkarrekin esan beti); bestetik, orrela (batez ere ibildeunetan), galduko dezute gezurlo-tsa, ta sinismena sendotu ere bai.

Goiz *etxeratu* zaitez gauean; ez aztu deabruak, «gezuraren aita» dalako, ta gezurti aundia, ilunpeak asko maite dituela. Suge pozoituari baño ariñago egiozu iges *dantza lotuari*. Dantzara dijoana, diogute Elizaren guraso agurgañiak, garbia dijoa ta zikindua biuritzen da : bere gorputzak zauririk artu ez are, anima zauriz betea dauka»; ez aztu, kristaua, Ambrosio Deunak dioguna : «Emakume dantzari batek eskatu zuela Juan Bataiatzailearen burua».

Guztiz laguntza aundikoa izango zaizu baita, urtero *Inazio Deunaren bakaraldiak* (ejerzizioak) egitea. «Ejerzizioak

egizkizu, idazten zion gure santuak, Miona Aita bere lagunari, ta etzaizu damutuko». Ez, ziuñ ere, ez zaizu damutuko, kristaua, uste ez añako mese-deak aterako dituzu. Urteroko bakañtaldi oiekin oitu zaitez, ilero bakañtaldi egun bat zuretzat aukeratzen; egun añtan sañtu zaitez zure bañenean, ta bukatu degun ilari begiratu bat emanaz, ikusi zertan zauden, atzera ala auñera zoazen, onetarako eriotzaren oroipena bezelakorik ez da. Jesus Gurutziltzatuaren auñean belaunikatu, ta orduan gogoratu eriotza, epaia (juizioa), suleiza (inpernua) edo zerua. Gauz auek ezin gogoratuko dituzu damutu gabe, negañ egin gabe, obea-goia izateko asmo sendoa añtu gabe.

Oñ nola zuzenduko dituzun, kristaua, zure eginbearlan guztiak, Jaungoikoaren aitzinean, Bera guaza guztietan begiratzen degula, moñoiak nagusiari begiratzen dion bezela : «*sicut oculi ancillæ in manibus Dominae suæ*».

«Oñela egizu ta biziko zera—*Hoc fac et vives*» (PROV. IV 4).

## Kristau onaren bizi-bidea

1). —Betiko ondamendiari iges egin-da, azkengabeko zoriona iritxi nai ba-de-zu, ez dezazula, kristaua, *pekatu lañirik* egin; pekatu lañiak, zeruko sañera betiko itxitzen dizu, ta amaigabeko zoritxaña irabazten.

2). —Pekatu lañiari ez ezik, *pekatu ari-ñari* ere iges egiozu. Gauza txikietan zuzena ba-zera, aundietan ere zintzoa izango zera; ta bestela, pekatu ariñak aintzat artzen ez ba-dituzu, poliki-poliki, antxe eroriko zera pekatu lañietan.

3). —Ez pekatuari bakañik, baizik pekatuaren *bide edo añiskoetatik* ere alde egizu. Jaungoikoak berak esana da: «Galbide edo añiskoa maite duena, bertan il oi da».

Pekatu lañiari iges egitea beañ-beañez-ko da zerua irabazteko. Ba'dira baño beste egikizun txit egokiak ere lan ori betetzen asko ta asko lagunduko digute-nak. Oñ nagusienak :



## EGUNERO

1.—Jeiki ta bereala «Gurutze Santua-  
ren» ta goizeko otoitzak egin itzazu beti.

2.—Meza egunero entzun, ta obeto  
entzuteko, «Otoiz-liburua» meza-ártean  
irakuñi.

3.—Txit egokia litzake orobat, ta Je-  
sukristo ta gure Eliz-Amaren gogokoa,  
egunero Jaunaítzea.

4.—Inondik al badezu, ordu laurdene-  
ko gogapen edo meditazioa egizu. (Li-  
buru onen azken aldian 31 gogaketa  
arkituko dituzu).

«Zure azken lañiak gogoratu, ta iñoiz  
ez dezu pekaturik egingo». (ECLES. VII-40).

5.—Zure lan guztiak al dezun ondoen  
egin itzazu, ta maiz gogoratu «alpeñkeria  
griña guztien ama dala».

6.—Lagun gaizto ta pekaturako gal-  
bide guztietatik iges egizu, ta zure iraba-  
zi edo lan-saria ez alpeñik galdu, jokoan  
edo txurutean batez ere.

7.—Egun-ártean, zure begiak eta bio-  
tza Jaungoikoagana maiz jaso, biotz-  
-otoitz labuñak askotan esanaz.

8.—Egun bakar bat ez utzi, zure etxe-koekin batean, Agurta edo Errosarioa esan gabe; ta Errosarioa beti zurekin batean eraman.

Ameriketara zijoan euskaldun gazte on bati, bein apaizak, ain urutiko tokietara joanda gaiztotuko ote-zan belduñ zala esan zion; baño gazte argi arek Errosario bat sakeletik atereaz erantzun zion: «Jauna, *onekin*, ez Euskal-Erian ez Ameriketan, ere, ez naiz galduko».

9.—Gabean goiz etxeratu, ta oieratu baño len, bañena apur batean aztertu edo begiratu, eguna nola igaro dezun ikusteko.

### ASTERO

1.—Igande-jai egunetan, ez lanik egin, ta lan egitera beartua baldin ba-zaude, aldezula beintzat ixilean egin.

2.—Igande ta jai-egunetan Meza entzun gabe ez utzi, ta ez nolana entzun, jaiera edo debozioaz baizik, eta meza nagusi ta bezperetara joan.

3.—Astero, larunbatetan, zure pekatuak aitoru.

4.—Egunero Jaunartzen ez badezu

ere, igandero beintzat ar zazu ta orobat jaialdi nagusietan. (Ona litzake, berebat, jaiotz-egun eta ezkontz-egun urteurenetan aitoritu ta Jaunañtzea).

5.—Igande, jai-egunak. Jaungoikoaren egunak diran ezkeroz, besteak baño obeto bete beñ dituzu. Beraz, meza nagusia ere entzun zazu, ta aratsaldeko bezperetara ta beste eleizkizunetara joan zaitez.

6.—Jolastu zaitez, baño arretaz edo kontuz. Ez joan zine ta beste jolastoki galgañietara, ta dantza lotuetatik alde egizu.

### IĪERO

1.—Astero ezpada, iĪero beintzat zure pekatuak aitoritu itzazu, eta Jaunañtu ere bai, lenagotik ondo geñtuta.

2.—Egun bat iĪero bakañtaldi - egun aukeratu, bide onean auñeratzen dezun ala ez, egun ortan ikusteko.

### URTERO

1.—Eleiz-Amaren aginduak eskatzen dizutenez, urteko pekatuak aitorituz, aitorpen on bat egin ta Jaunañtu zazu.

2.—Ondo izango da urtero Inazio Deu-  
naren gogo-iñarkunak (ejerzizioak) Lo-  
yolan edo beste toki batean egitea.

3.—Urte bukaeran, zure animaren ar-  
tu-eman guztiak gogoratu, bukatzera di-  
joan urtean, zerbait aureratu dezun, ala  
bestela atzeraka joan zeran, argiro ikus-  
teko.

### ALDI - GUZTIETAN

1.—Anaidi edo kofradietan izendatu  
zaitez. Oiek gaztelu goñdelariak beze-  
lakoak izango dituzu - ta, zure anima-  
rentzat.

2.—Jaungoiko ta Eleiz-Amaren agin-  
duak aretaz zaitu, ta zuri dagozkizun  
eginbear guztiak ondo betetzeko alegin-  
du zaitez.

3.—Lagun gaizto, irakurgai lasai, ta  
galbide guztietatik alde egizu.

4.—Begirunez jantzi zaitez, ez lotsa-  
galduen antzera, kolko ta besoak agirian  
dituzula, edo langilea izanik, aberats-  
-jaioak bezela.

5.—Aitoñlari on bat aukeratu zazu, ta  
zure barengo kezka guztiak ari agertu,

sendalariari zure miñak adierazten dizkiozun bezela.

6.—Egizu beti eriotzako aldian egiña izan naiko zenukeana.

7.—Pekatu lañi-pean, ez iñoiz oieratu. Zoritxañez ala arkitzen bā-zera, esan biotz-biotzez lendabizi «Jesukristo nere Jauna» zure pekatuaz damuturik.

## OAÑPEN OROIGAÑIAK

1.—Jauna agirian dagoela bere auñetik igaro beañ dan bakoitzean, bi belaun eta buruz agur egin beañ zaio.

Apaizak eta apaiz-lagunak belaun batekin Jaun agiriaren auñean egiten diran elizkizunetan; baño aiek ere aldaretik eliz-gelara (sakristira) edo emendik aldarera ba-datoz, bi belaunekin agur oi dute.

Mai-aldarean estalirik baldin badago, belaun batekin bakañik.

2.—Belaun bateko agur egin beañ danean, eskubiko belauna luñeraño jetxi beañ da ezkeñeko txonkatilaren aldameñean, gorputza zuzen eukiaz.

Bi belaunekoa egin beañ danean, len-

bizi eskubiko belauna, ta gero ezkerkoa, luña jotzeraño jetxi beañ dira, ta ondoren burua makuñturik, agur egiten da.

3.—«Gloria Patri...», «Aintza Aitari...», esaten danean burua makuñtu beañ da. Orobat Semea ta Espiritu Santua, aintzatuaz (glorificatuaz) izendatzen diranean, eta Jesús edo Mariaren izena, edo eguneko santuarena, edo Aita Santuarena aitutzen diranean.





## I. OTOITZA

«Etsaien ekiñaldiaz ez zaitez tela belduftu: gogoratu gure gurasoak azke nola irten ziran, eta ots egin dezagun orain zerura ta gutzaz erukituko da Jauna».

(I Mac. IV. a-12)

### *Otoitza beaŕ-beaŕeko degu :*

Ao batez erakusten digute: Jesu-Kristo gure Erakusleak, done edo santu aundienak ta gure adimenak berak ere bai.

Beaŕeko degu, Jainkoari zoŕ zaion agurtza emateko.

Beaŕeko degu, zitzaldiak (tentazioak) menderatzeko: «Begiratu, ta otoitz egin, zitzaldian ez erortzeko». (MAT. XXVI).

Beaŕeko degu, pekatu lañiaren eriotzari iges egiteko: «Aŕgitu nere begiak, Jauna, ariotzaren lozoŕoan erori ez nadin». (PS. 12-4).

Beaŕeko degu, bide zuzenean beti irauteko: «Ongi biziko da otoitz egiten dakiana». (AGUSTIN DEUNAK).

Beaŕeko degu, azkenez, azkengabeko zoriona irabazteko : «Otoitz egiten badezu, zerua irabaziko dezu, bestela galduko zera». (LIGORIO'TAR ALFONSO DEUNAK).

Oña zergatik gure liburu santuetan irakurtzen degun; gau ta egun otoitz egin beaŕ degula, atsedengabe eskatzeko, otoitz egiteko, *sine intermissione orate* (I TESAL. V. 17). «Azken gabe, gelditu gabe, otoitz egizute».

Gure adimenak (arazoiak) auxe bera azaltzen digu; gauza jakina da, Jaungoikoaren laguntzarik gabe ezer ez genezakeala; baño ez zaigu laguntzarik emango otoitza gabe. Beraz, beaŕ-beaŕeko degu otoitz egitea.

### *Otoitza irabazi aundikoa degu.*

Otoitzaren bitaŕtez eskatzen degun guzia emango zaigu :

«Eskatu ta emango zaizute» (MAT. VII-7).

«Eskatzen duten guztiak, aŕtuko dute» (8).

«Gizon zuzenaren otoitza, zeruko giltza da : igotzen da otoitza, ta Jainkoaren erukia jeixten da». (Agustin deunak).

«Otoitzak Guzialduna bera, Jaungoikoa irabazten du—*superat omnipotentem*—» (REMIJO DEUNAK).

«Otoitzak, Jaungoikoaren itzak baño indaŕ aundiagoa dauka» (KRISOSTOMO DEUNAK).

Ona gertaera edeŕ bat edo beste, gure liburu santuetatik aŕtuak, otoitzaren indaŕ aundia erakusten digutenak :

Moises'ek Jaunari eskatzen dio bere Eriari



barkatu dezayola. Jaunak ez dio entzun nai, ta Moises'eri esaten dio *dimitte me*. Aitek, ordea, otoitzari ekiten dio, ta Jauna azkenean makur-tzen zaio.

Elias igarleak (profetak) Jaunari eskatzen dio euririk ez bidaltzeko, ta iru urte ta sei ilabetean ez du euririk egingo. Gero otoitz egiten du beñ-iro ta euria atzera jeixten da.

Holofernes, Betulia artu naien zebilela, Eli-azin apaiz nagusiak otoitzak egiten ditu, ta otoi-tzak indartzen du Juditen besoa, Holofernes'i ari burua ebakitzeko.

Pablo ta Silas espetxean (kartzelan) daudela, gauerdian otoitz egiten asten dira, ta bat-batean, luñ-ikara aundi bat soñturik, kateak austen zaiz-kie ta aske arkitzen dira.

Pedro deuna ere espetxean zegoela, kristauak otoitz egiten zuten, *oratio autem fiebat sine in-termissione...* ta aingeru batek askatu zuen.

*Otoitz egizu ba kristaua. Otoitz egizu egu-nero, otoitz egizu beti.*

*Goiz-aratseko otoitzak, batez ere, ez utzi iñoiz.*

---



## GOIZEKO OTOITZAK

Jaungoikoak egun befi bat eman dizu ta zure lenengo eginbeafa izan bedi biotz-begiak zerura jasotzea, orain atera zoazen egun befi au Jaungoikoari oso-osorik eskeintzeko.

Egizu, beraz, jeiki ta bereala, ur bedeinkatua artuta Gurutze «antza» esanaz :

Gurutze santuaren ✠ señaleagatik gure ✠ etsaiengandik zaitu gaitzazu ✠ gure Jaun eta Jaungoikoa.

Aitaren eta Semearen ✠ eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

50 eguneko barkapenak egiten dan bakoitzean.

100 eguneko barkapenak ur bedeinkatuaz eginda.

*Esan gero :*

**N**ERE Jaungoiko maitea : kristau onari dagokion bezela nai det gauñ bizi : Zure laguntza-eske natoñ orain. Eman zadazu Jesu-Kristo gure Eroslearen biotz-nekez-

ko irabazien bidez. Aitaren Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Alaxen.

*Sinispén itxaropen, eta maitetasun egintzak.*

«Zugan zinisten det, Jauna, Egi utsa zeralako.

«Zugan Jauna, daukat itxaropena, Sinisgaría zeralako.

«Maite zaitut, Jauna, Ona zeralako».

(7 urte ta 7 berogeiko barkapenak bakoitzean).

*Jaungoikoaren aurrean jaririk agurtu zazu.*

**J**AINKO Guzialdun eta Betikoa, Aita, Semea ta Espiritu Santua, iru notin edo personetan Jaungoiko bakaria zerana! Emen zure aurrean auspezturik, zeruko done (santu) ta aingeruekin batean biotz berendik agurtzen zaitut, nere Egile ta Jaun bakaria Zu zeralako.

*Egiten dizkigun mesedeaz, eskerak eman.*

**N**ERE Jaungoiko maitea! Esker ugariak demazkitzut egin dizkidazun mesede

guzti-guztiakatik, eta batez ere, ezer-ezetik soñtuta, Jesu-Kristo zure Semearen odolaz, ber-erosi, Eleiz-amaren seme egin eta gauñdaño bizia goñde didazulako.

*Obenari (pekatuari) iges egiteko asmo sendoa añ ezazu.*

**J**ESUS agurñaria! ¡Onbide (birñute) guztien eredu ta ispilua! Zure antzekoa izaten sayatuko naiz gauñ. Zu bezela, paketsua, eramankoa, apala, garñbia, maitetasunez betea agertu nai det; eta batez ere, oben (pekatu) lañiari itzul-egiteko bide guztiak añtu ta alegin osoak egingo ditut. Alaxen.

*Eskerñ-mesede berñiak eskatu.*

**N**ERE Jaungoiko maitea! Nere argaltasun eta ezerezkeria argi-argiro ezagutzen dituzu, ta badakizu nerez ezer ez naizela, ta zure laguntza gabe ezer ez nezakeala, indañtu nazazu ta lagundu zadazu, aurre-rantzean zure biotza ez iñoiz naigabetzeko, ta nere eginbeañak beti ongi bete-

tzeko, otoitz eta lanbide oieri agindutako barkapenak irabaziaz gañera.

«Aita gurea»

**A**ITA gurea, zeruetan zaudena : santifikatua izan bedi zure izena: betor' gugana zure er'einua: egin bedi zure borondatea zeruan bezela lu'ean ere. Emaiguzu gau' gure eguneroko ogia : barka zazkiguzu gure zor'ak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela : ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen, baizikan libra gaitzazu gaitzetik. Alaxe.

**Agu' Maria**

**A**GU', Maria, graziaz betea : Jauna da zurekin : bedeinkatua zera zu andre gutien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, er'egutu ezazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzeko orduan. Alaxe.

**Sinisten det**

«Kredoa».

**S**INISTEN det Jaungoiko Aita alguztidun, zeru-lu'en egilea, ta bere Seme baka'

Jesukristo gure Jauna : Espiritu Santuaren egitez sortu ta Andre Maria Birjinagandik jaio zana, Pontzio Pilatoren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, ila ta obiratua izan zana, inperñuetara jetxi ta irugañen egunean ilen artetik piztu zana : zeruetara igo ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldefik eseririk dagona : andik biziak eta ilak epaitzera etoriko dana. Sinisten det Espiritu Santua; Eliza Santu, Katolikua : Santuen alkaritasuna : pekatuen barkamena : aragiaren piztuera, betiko bizitza. Alaxe.

### Jesukristo nere Jauna

**J**ESUKRISTO nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazko, nere egile ta salbatzale ori, zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua : asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guztiak utzi, aitoritu ta oben-nekea betetzeko. Alaxe.

## Jesusen Biotzari Otoitza

(eguneroko lanak eskeintzeko).

**N**ERE Jesus Maitea! Mariaren biotz garbiaren bitartez, gauko eskari, neke ta eginkizun guztiak eskeintzen dizkitzut, egiten zaizkizun iraiñen orde, ta zure Biotz Santuaren beste gogo guzietarako. Batez ere Apostolotzakoai il ontan izendatu zaien asmoagatik.

### Andre Mariari

**A**NDRE Maria! Nere Ama: zuri oso-oso rik eskeintzen natzaizu, ta nere maitetasuna obeki agertzeko, gauk eskeintzen dizkitzut nere begi, belari, mingain ta naizen guzi-guzia. Zurea naiz bada, Ama Erukitsua; zaitu ta gorde nazazu zure gauza ta aberastasuna bezela.

(100 eguneko barkapenak, «Agur Maria» esanez gañera, goiz eta afatsean).

*Gero: Iru «Agur Maria» esazkizu, ta ondoren:*

**Z**URE Soitze garbiagatik, Andre Maria, garbitu nere gorputz-anima.

(300 eguneko barkapenak).

(Iru «Aguñ Mariak» goiz-añatsetan esatea, santu askok euki duten oitura goragaña da. Ligorio'tañ Alfonso deunak, eriotz on baten bidez *zerua iritxiko duela*, dio, goiz ta añatsean, iru «Aguñ Mariak» esaten dituen añek).

### Jose Deunari

**G**UTZAZ oroitu zaite, Jose Doatsua, ta zure otoitzaren bitañtez, eskatu ezayozu guretzat Jesus zure Seme - ordekoari; orobat jañi gure alde zure emazte Birjin Doatsua, Aita ta Espiritu Santuarekin, gizaldi ta gizaldietan, bizi dan eta agintzen duen Jesu-Kristoren Ama.

(100 eguneko bañkapenak, egunean bein).

### Aingeru Zaitzañeari

Jaunaren Aingerua  
Berak, nere erukiz  
Graziz, mesede aundiz  
Ni zaitzeko autua,  
Goi-goietako añgiz  
Bide gaizto guzitik  
Ondo zaitu nazazu;  
Egun baten ez nadin  
Inperñuan ondatu.



## Eriotz on bat irixteko otoitza

«Zorionekoak Jaungoikoaren  
besoetan iltzen diranak».

**N**ERE Jaungoiko maitea : gauza agiria da ilko naizela; noiz, ordea, nola ta non, oña ziuñ ez dakidana. Bakar-bakarrik bai dakit betiko galdua naizela pekatu larri-pean iltzen banaiz. Maria Birjin Doatsua, Jaungoikoaren Ama deuna, nere alde otoitz egizu, pekataria naiz-ta, orain ta nere eriotz-zorian. Alaxe.

(300 eguneko barkapenak, egunean bein).

### *Oarpena.*

(Guztiz mesede audikoa izango dezu goizeko otoitz, auen ondoren «Gogo-otoitza» (meditazioa), laburkiro bada ere, egitea. Liburu onen azken aldean arkituko dituzu ileko egun bakoitzaren otoitzgaiak edo gogapenak).

## JESUSEN AĀRENTZA (letaniya)

(300 eguneko barkapenak egunean bein).

Kyrie eleison.

Christe eleison.

Kyrie eleison.

Jesu audi nos.

Jesu exaudi nos.

Pater de cœlis Deus,  
*miserere nobis.*

Fili Redemptor mundi  
Deus,

Spiritus Sancte Deus,  
Sancta Trinitas  
unus Deus,

Jesu Fili Dei vivi,

Jesu splendor Pa-  
tris,

Jesu candor lucis  
æternæ,

Jesu rex gloriæ,

Jesu sol justitiæ,

Jesu Fili Mariæ Vir-  
ginis,

Jesu amabilis,

Jesu admirabilis,

Jesu Deus fortis,

Jauna erukitu gutzaz.

Jesu-Kristo erukitu gu-  
tzat.

Jauna erukitu gutzaz.

Jesus entzun zaguzu.

Jesus aditu zaguzu.

Zeruko Aita Jaungoi-  
koa, *erukitu gutzaz.*

Jaungoiko Semea, gi-  
zonen Eroslea,

Espiritu Santua,  
Irutasun deuna,

Jainko bakarra,  
Jesus Jaungoiko Bi-  
ziaren Semea,

Jesus, Aitaren eder-  
tasuna,

Jesus, betiko argiaren  
dizdiratasuna,

Jesus Zeruko Eregea,  
Jesus zuzentasun-  
-eguzkia,

Jesus Andre Mariaren  
Semea,

Jesus txit maitagarria,  
Jesus guztiz arigarria,  
Jesus Jaungoiko indar-  
tsua,

MISERERE NOBIS

ERUKITU GUTZAZ

Jesu Pater futuri sæ-  
culi,

Jesu magni consilii An-  
gele,

Jesu potentissime,  
Jesu patientissime,  
Jesu obedientissime,

Jesu mitis et humi-  
lis corde,

Jesu amator casti-  
tatis,

Jesu amator noster,  
Jesu Deus pacis,

Jesu auctor vitæ,

Jesu exemplar virtu-  
tum,

Jesu zelator animarum,

Jesu Deus noster,  
Jesu refugium nostrum,  
Jesu pater pauperum,  
Jesu thesaure fidelium,

Jesu bone pastor,

Jesu lux vera,

Jesu sapientia æterna,

Jesu bonitas infinita,

Jesus gizaldi beñiaren  
Aita,

Jesus batzar nagusia-  
ren Aingerua.

Jesus guztiz indartsua,  
Jesus txit eramankoa,  
Jesus guztiz mendera-  
tua,

Jesus apala ta biotz  
berakoa.

Jesus garbitasun-  
zalea,

Jesus gure maitalea,  
Jesus Jaungoiko pa-  
ketsua,

Jesus bizitzaren Egi-  
lea,

Jesus onbideen ere-  
dua,

Jesus animen arietadu-  
na,

Jesus gure Jaungoikoa,  
Jesus gure igeslekua,  
Jesus beartsuen aita,  
Jesus kristau onen abe-  
rastasuna,

Jesus artzai ona.

Jesus egizko argia,

Jesus jakintza betikoa,

Jesus baztergabeko on-  
tasuna,

MISERERE NOBIS

ERUKITU GUTZAZ

Jesu via et vita nostra,  
 Jesu gaudium angelorum,  
 Jesu rex Patriarcharum,  
 Jesu magister Apostolorum,  
 Jesu doctor Evangelistarum,  
 Jesu fortitudo Martyrum,  
 Jesu lumen Confessorum,  
 Jesu puritas Virginum,  
 Jesu corona Sanctorum omnium,  
 Propitius estu, *parce nobis Jesu.*  
 Propitius esto, *exaudi nos Jesu.*  
 Ab omni malo,  
*libera nos Jesu,*  
 Ab omni peccato,  
 Ab ira tua,  
 Ab insidiis diaboli,  
 A spiritu fornicationis,  
 A morte perpetua,  
 A neglectu inspirationum tuarum,

MISERERE NOBIS

Jesus gure bide tabizia,  
 Jesus aingeruen poza,  
 Jesus Aita - Nagusien éregea,  
 Jesus Apostoluen Erakuslea,  
 Jesus Ebanjelisten Irakaslaria,  
 Jesus ziñopen (Marti-rien) indaía,  
 Jesus Aitoñleen argia,  
 Jesus Birjiñen garbitasuna,  
 Jesus Santu guztien koroia.  
 Gutzaz erukitu ta bañka zaguzu, Jesus,  
 Gutzaz erukitu ta entzun zaguzu, Jesus,  
 Gaitz guztietatik, *goñde gaitzazu, Jesus.*  
 Oben (pekatu) guztietatik,  
 Zure aseñetik,  
 Deabruaren egiñaldietatik,  
 Lizun-zalekeritik,  
 Betiko eriotzatic,  
 Zure argia ukatzetik,

ERUKITU GUTZAZ

Per mysteriun sanc-  
 tæ Incarnationis  
 tuæ,  
 Per nativitatem  
 tuam,  
 Per infantiam tuam,  
 Per divinissiman vi-  
 tam tuam,  
 Per labores tuos,  
 Per agoniam et passio-  
 nem tuam,  
 Per crucem et derelic-  
 tionem tuam,  
 Per languores tuos,  
 Per mortem et sepultu-  
 ram tuam,  
 Per resurrectionem  
 tuam,  
 Per ascensionem tuam,  
 Per Sanctissimæ  
 Eucharistiæ ins-  
 titutionem tuam,  
 Per gaudia tua,  
 Per gloriam tuam,  
 Agnus Dei qui tollis  
 peccata mundi,  
*parce nobis Jesu.*

LIBERA NOS JESU

LIBERA NOS JESU

Zure gizon Egite  
 santuagatik,  
 Zure Jayotzagatik,  
 Zure Auñtaroaga-  
 tik,  
 Zure bizitza txit  
 Jainkozkoagatik,  
 Zure lan-nekeengatik,  
 Zure eriotz-lari ta ne-  
 kaldiagatik,  
 Zure gurutze ta bakañ-  
 dadeagatik,  
 Zure zauriengatik,  
 Zure eriotz ta luñpera-  
 tzeagatik,  
 Zure piztutzeagatik,  
 Zure igokundeagatik,  
 Zure Sakramentu  
 txit santuaren  
 egiteagatik,  
 Zure atsegin - po-  
 zengatik,  
 Zure zeruko zorio-  
 nagatik,  
 Gizonen obenak  
 kentzen dituzun  
 Jainkoaren Bildotsa,  
*barka zaguzu, Je-  
 sus.*

GORDE GAITZAZU JESUS

GORDE GAITZAZU JESUS

Agnus Dei qui tollis  
peccata mundi,  
*exaudi nos Jesu.*

Agnus Dei qui tollis  
peccata mundi,  
*misere nobis Jesu.*

Jesu audi nos.  
Jesu exaudi nos.

### *Oremus*

Domine Jesu Christe  
qui dixisti: *petite et  
accipietis, quærite et  
invenietis, pulsate et  
aperietur vobis: quæ-  
sumus: da nobis pe-  
tentibus, divinissimi  
tui amoris affectum, ut  
te toto corde, ore et  
opere diligamus; et a  
te nunquam laude ces-  
semus.*

Sancti nominis tui,  
Domine, timoren pa-  
riter et amorem fac  
nos habere perpetuum,  
quia nunquam tua gu-  
bernatione destituis,

Gizonen obenak ken-  
tzen dituzun Jainkoa-  
ren Bildotsa, *aditu  
zaguzu, Jesus.*

Gizonen obenak ken-  
tzen dituzun Jainkoa-  
ren Bildotsa, *erukitu  
zaite gutzaz, Jesus.*

Jesus entzun zaguzu,  
Jesus aditu zaguzu.

### *Otoitza*

Jesu-Kristo gure Jau-  
na: «eskatu ta arituko  
dezute, bilatu ta arki-  
tuko dezute, bultza ta  
irikiko zaizute» esan  
zenduana: aŕen ema-  
guzu eskatzen dizugu-  
noi, zure maitetasun  
txit santua, biotz osoz,  
itzez ta egitez maite  
zaitzagun, eta Zu gor-  
atzetik beiñere geldi ez  
gaitezen.

Egizu, Jauna, zure  
izen santuarenganako  
beldur ta maitetasuna  
beti izan dezagun, zure  
maitetasunean sendo  
jañtzen dituzunak ez

quos in soliditate tuæ  
dilectionis instituis.

Qui vivis et regnas  
in sæcula sæculorum.  
Amen.

dituzu iñoiz laguntza  
gabe uzten-eta.

Gizaldi ta gizaldietan  
bizi eta agintzen dezun  
Jaun ořek. Alaxe.

## AINGERU OTOITZA (Anjelus)

(100 eguneko barikapenak egunean bein)

Gure aurreko agurgañiak, euskaldun asaba-  
-zafak, beste oitura edef askoren artean, «An-  
jelus» esateko oitura goragañi au zeukatzen. Eliz  
tofe zar-zaretik jaixten zan joalearen (kanpai-  
aren) abots lodia entzun bezin laister, beretatik,  
asitako lanak utzita txapela eskuetan afiturik,  
guztiak, zafak eta gaztiak, guraso ta umeak,  
«Anjelus» esaten zuten. Eta orobat pelota-enpa-  
rantzan jolasean ari ziranak, bat-batean uzten  
zuten jokua, «Andre Maria» agurtzeko. Euskal-  
dun biotzekoak, gure soñteñi edefa maite degu-  
nak, ez dezagun galtzen utzi alako oitura edef  
ta garbia.

**A**ngelus Domini  
nuntiavit Mariæ

R̄. Et concepit de  
Spiritu Sancto.

*Ave Maria...*

**J**aunaren ainge-  
ruak Mariari adira-  
zi zion

R̄. Eta Espiritu  
Santuaren egitez  
sortu zuan.

*Aguñ, Maria...*

ÿ. Ecce ancilla  
Domini

Ŕ. Fiat mihi se-  
cundun verbum  
tuum. *Ave Maria...*

ÿ. Et Verbum  
caro factum est

Ŕ. Et habitavit in  
nobis.

*Ave Maria...*

ÿ. Ora pro nobis  
Sancta Dei Geni-  
trix

Ŕ. Ut digni effi-  
ciamur promissio-  
nibus Christi.

### *Oremus*

Gratiam tuam,  
quæsumus Domi-  
ne, mentibus nos-  
tris infunde, ut qui  
Angelo nuntiante,  
Christi Filii tun in-

ÿ. Ona emen  
Jaunaren mirabea :

Ŕ. Egin bekit  
zuk diozun bezela.

*Aguŕ, Maria...*

ÿ. Eta Jaungoi-  
ko - Semea gizon  
egin zan :

Ŕ. Eta gure ar-  
tean bizi izan zan.

*Aguŕ, Maria...*

ÿ. Otoitz egizu  
gure alde Jaungoi-  
koaren Ama done  
oŕek :

Ŕ. Jesukristo  
gure Jaunaren agin-  
duak irabaz ditza-  
gun.

### *Otoitza*

Ixuri ezazu, aŕen,  
Jauna, gure biotze-  
tan zure grazia, Je-  
sukristo zure Se-  
mearen Gizakun-  
dea, Aingeruaren



carnationem cognovimus per passionem ejus et crucem, ad Resurrectionis gloriam perducamur.

Per eundem Christum Dominum nostrum.

Amen.

esanaz ezagutu genduanok, bere Nekaldi ta Eriotzaren bitartez, aintzazko piztuerara eldu gaitezten: gure Jaun Jesukristo beroréngatik.

Alaxe.

*Aingeru-otoitza* egunero iru aldiz esan oi da: goizean, eguerdian eta aratsean, joalearen sonua entzuten danean.

Pizkunde - aldian (Pazko garaian), ondoren jaítzen dan «Regina cœli» esaten da (Larunbat-Deuna egunetik, Pentekoste ondorengo larunbat eguerdi arte).

*Aingeru-otoitza* belauniko esan beaí da, geieanean; larunbat-aratsalde ta igandetan, zutik.

«Regina cœli», zutik beti.

## PAZKO ALDIRAKO

*Regina cœli.*

(100 eguneko bařkapenak, egunean bein).

**R**egina cœli lætare  
Alleluia.

*Zeruko erégiña.*

(100 eguneko bařkapenak, egunean bein).

**P**oztu zaitte, Zeruko Eregiña:  
Gora Jauna.

Quia quem meruisti portare  
Alleluia.

Resurrexit sicut dixit  
Alleluia.

Ora pro nobis  
Deum  
Alleluia.

Gaude et lætare,  
Virgo Maria,  
Alleluia.

Quia surrexit Dominus vere,  
Alleluia.

### *Oremus*

Deus, qui, per resurrectionem Filii tui, Domini nostri Jesu-Christi, mundum lætificare dignatus es: præsta quæsumus, ut per ejus Genitricem Virginem Mariam,

Zuk sabelean eram  
man zenduana :  
Gora Jauna.

Esan bezela berpiztu zan :  
Gora Jauna.

Jaungoikoari gure alde eskatu :  
Gora Jauna.

Poztu ta alaitu,  
Maria Birjiña :  
Goratu Jauna.

Jauna ziñez berpiztu da-ta :  
Goratu Jauna.

### *Otoitza*

Jesu-Kristo zure Semearen pizkundearekin luña atsegindu dezun Jauna : aŕen eskatzen dizugu, bere Ama Andre Mariaren bidez, azkengabeko bizi-

perpetuæ capiamus  
gaudia vitæ.

Per eundem  
Christum Domi-  
num nostrum.

Amen.

tzaren poza iritxi  
dezagula.

Jesu-Kristo gure  
Jaun ber - beraren-  
gatik.

Alaxe.

## JAN AUÑE TA ONDORENGO OTOITZAK

---

*Auñeko :*

«Aitaren...»

*Gero aitak edo amak esango du :*  
Bedeinkatu gaitzazu, Jauna, ta bedeinkatu orobat zure eskuetako jateko auek ere.

*Aita gurea... Agur Maria... Aintza...*  
Zeruko erege aundiak, ango maiean arñu gaitzala. Alaxe.

*Ondorengo :*

«Aitaren...»

Eskeñak Zuri, zure mesede guztiakatik, gizaldi ta gizaldietan bizi zeran eta agintzen dezun Jaungoiko Guzalduna.

*Aita gurea...*

Jaungoikoak bere pakea eman dizagula.

Baita betiko bizitza ere.

**EGUN BITARTERAKO****OTOITZ LABURTZOAK***Jaungoikoari*

Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari, asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Alaxe.

(100 baŕkapen-egunak, egunero, iru aldiz esanda).

Onetsia (bedeinkatua) izan bedi Jaungoikoa.

(50 baŕkapen-egunak, biraua entzundakoan esanda).

Nere Jaungoiko ta nere Guzi-guzia.

(50 baŕkapen-egunak bakoitzean).

Nere Jaungoiko ta ontaŕte bakaŕa, nerea zera bete-betean, zurea osorik naidet izan.

(300 eguneko baŕkapenak bakoitzean).

*Jesusen izenari*

Jesus.

(25 eguneko baŕkapenak).

Jesus David'en Semea, erukitu nitzaz.

(100 eguneko baŕkapenak, egunero).

Jesus nere Jaungoikoa, gauza guztien gañetik maite zailut.

(50 eguneko bakkapenak, egunero).

O nere Jesus, erukitu zaitez.

(100 eguneko bakkapenak, egunero).

### *Jesusen Biotzari*

Jesusen Biotz guztiz santua : betoñki-gu zure agintea (ereñua).

Jesus bigun ta Biotz-apala : egizu nere biotza zure biotzaren antzekoa.

Jesusen Biotz guztiz deuna : zugar daukat itxaropena.

Jesusen Biotz santua : sinisten det maite nazula.

Jesusen Biotz guztiz santua : Zugatik guztia.

Onetsia Sakramentuko Jesusen Biotz guztiz deuna.

Nere Jesusen Biotz txit eztitsua : maite zaitzadala gero ta geiago.

Onetsia izan bedi orain eta beti Jesus gure Jaunaren Biotz txit maitekoñ ta txit gozoa, ta orobat Maria bere Ama maitearena.

(300 eguneko bakkapenak bakoitzak, esaten dan bakoitzean).

Maitatua izan bedi alde guztietan Jesusen Biotz guztiz deuna.

(100 eguneko bakkapenak egunean bein).

Jesusen Biotza, gure maitasunagatik irazekia : sutu gure biotza zure maitasunean.

(100 eguneko bakkapenak, egunero).

Aintza, maitetasuna ta esker-ona Jesusen Biotz-agurgarñari.

(100 eguneko bakkapenak).

Jesusen Biotz ez-titsua : izan zaitez nere maitasuna.

(300 eguneko bakkapenak).

*Jesus, Jose ta Mariari*

Jesus, Maria, Jose.

(7 urte ta 7 befogeiko bakkapenak).

Jesus, Maria.

(300 eguneko bakkapenak).

Jesus, Maria, Jose, argitu, lagundu ta gaizkatu (salbatu) gaitzazute.

(100 egun.)

Jesus, Jose, Maria : zeuentzat nere biotz eta gogoa.

(100 egun.)

Jesus, Jose, Maria : lagundu zadazute eriotz-aldi lañian.

(100 egun.)

Jesus, Jose, Maria : zuen elkarñtasu-  
nean il nai det.

(100 egun.)

Jesus, Jose, Maria : bedeinka gaitza-  
zute orain eta eriotz aldian.

(50 egun.)

### *Andre Mariari*

Onetsia izan bedi Maria Jaungoikoa-  
ren Ama guztiz doatsuaren erugabeko  
Sortze txit santua.

(300 egun., egunean bein).

Maria, gure itxaropena, erukitu gu-  
tzaz.

(300 egun., egunean bein).

Jaungoikoaren Ama Maria, Ama Erú-  
kioña : otoitz egizu gure eta il diranen  
alde.

(100 egun., egunean bein).

Maria Jainkoaren ta gure Ama : eska-  
tu zeroñek gure alde zure semea ta gure  
anaia dan Jesusen Biotzari.

(100 egun., egunean bein).



Mariaren Biotz eztsua : izan zaitez nere gaizkapena (salbazioa).

(300 egun.)

Jesusen Biotzaren Andre Maria : eskatu guregatik.

(100 egun.)

Lurdes'ko Andre Maria : eskatu guregatik.

(300 egun.)

Maitetasun, naigabe ta erukiaren Ama, eskatu guretzat.

(300 egun.)

Andre Maria Atsekabetua, kristau guztien Ama, eskatu guretzat.

(300 egun.)

Nere Ama ta Jabea; gogoratu zurea naizela, zaitu ta begiratu nazazu zure gauza ta ogasuna bezela.

(40 egun., ziltzaldian tentazioan esanda).

*Ordua jotzen duenean esan :*

Aguñ Maria, graziz betea, Jatorizko erú gabe soñtua.

*Lana asteko :*

Jauna, lan au eskeintzen dizut, mesedez onetsi (bedeinka) zazu.

*Ziltzaldian (tentazioan) :*

Andre Maria nere Ama, zure itzalpera nator, etsaia ni galdu nairik dabil-eta.

*Kanpaiak jotzen duenean esan :*

Aita Betikoa : Jesukristoren odol guztiz agurgarria eskeintzen dizut, nere pekatuen ordañez, ta Eliz Amaren beartarako.

(100 eguneko bakkapenak).

*Meza entzuteko garaian esan :*

Jauna : eriotz-aldian egon ta, gaur ilko diran pekatarien alde, eskeintzen dizkitzut gaurko egunez emango diran meza guziak.

Jesus gure Eroslearen Odol bikaña eruki bekie.

(Aldiro 300 eguneko bakkapenak).





## AĀATSEKO OTOITZAK

---

Gurutze santuaren... Aitarean...

Belaunikatu zaituz gurutze baten aurrean eta esan :

Nere Jaun eta Jaungoiko maitea : Zuzan sinisten det eta Zuzan daukat itxaropena; agurtzen zaitut, eta gauza guztiak baño maiteago zaitut. ¿Nola ordainduko dizkitzut, ordea, Zuk egindako mesedeak, batez ere izatea ta Bataioa? ta gauřdaño eman didazun bizia? Emadazu, Jesus maitea, gauřko nere utsegite guztiak ikusteko argia, biotzez gořotatu ditzadan.

Zure bařenari begiraldi bat emaiozu, zertan erori zeran igarı dezazun.

Ara nola :

### Jainkoaganako utsegiteak

¿Goiz-añatseko otoitzak egin dituzu?  
 ¿nola? Otoitz auretik ¿biotza Jaunari jaso  
 diozu? ¿Meza entzun al dezu? ¿nola?  
 Alde batera ta bestera begira... izketan...  
 pairez...? (agian ez zaizu burura etoñi  
 Jauna aldarean zegonik ere, eta ez dezu  
 Jaunaren aurrean obetzeko asmo beririk  
 artu; onetan igariko dezu, zure otoitze-  
 tan nagi-epela egon zeran ala ez).

### Lagun-urkoaren kaltezkoak

¿Guraso edo nagusiekin, lotsagabe  
 agertu zera, erantzuerara txarrik eman die-  
 zu, aien aginteak ez dituzula beteko  
 esan...? (okeñ au zuzentzeko, gogoratu  
 beti, nagusiak eta, batez ere, gurasoak,  
 Jaungoikoaren ordezkioak dirala).

¿Zure seme edo moñoiari ikasbide txar-  
 rik eman diezu?

¿Inñorentzat gaizki-esaka ibili? ¿Gezu-  
 rik esan dezu? zenbat, kaltegarriak...?

### Zure buruaren kaltezkoak

¿Norbaitekin asaretu al zera? ¿Gaitzik  
 edo eriotzik opa izan diozu? ¿Goñotoa

goñde diozu? ¿Bekaizkeria (inbiria) izan? ¿Geyegi jan - edan dezu? ¿Garbitasunaren kaltezko zerbaít egin : lasaiegi jañdunaz, begirada edo ikutze lotsagabeaz, liburu txarñak edo arintxoak irakuñiaz?...

### **Zure beste egin-beañak**

¿Nola bete dituzu? ¿Zure lanetan Jaungoikoa gogoratu al dezu? ¿Bere laguntza eskatu al diozu, batez ere naigabe ta lañi-aldietan?...

(Gai auek guztiak luzaro begiratzea ez da beañekoa; baño bai guztiz onuragañia bi gauz auek ikustea :

1.—Pekatu edo utsegite oietan; zein da geien-geiena maite dezuna, ta maizago erortzen zerana, ori beste guztien gain goñotatu dezazun.

2.—Utsegite okeñ oietan, aundienak txikiengandik berezi, auek biotzetik len-dabizi kendu ditzazun.

Utsegite guzti oien bañkapena Jaungoikoari biotz-biotzez eskatu, esanaz.

*Jesukristo nere Jauna* (Ikus. 68 OñIAL-DEAN).

*Andre Mariari.*

(Sub tuum præsidium).

(100 eguneko bakkapenak, bein).

**Z**URE ardurapean jaítzen gera, Jaungoikoaren Ama Deuna. Ez ukatu gure eska-riak estutasun eta lañi-aldietan, galbide guztietatik beti gorde baizik, Ama garbi-goresgañi ta bedeinkatua.

(100 egun., egunean bein).

*Iru Agur Mariak... goizean bezela.**Jesus, Maria ta Jose*

Bedeinkatu nazazute

Orain eta eriotz lañian.

(50 egun bakoitzean).

*Garbitokiko Animai.*

**A**ZKENGABEKO atsedena emaiezu, Jauna, eta betiko argiak argi bezaie.

(50 egun., egunero).

Maria Jaungoikoaren Ama Erukioña, eskatu gure eta ildakoen alde.

(100 egun., egunero).

*Aingeru Zaitzaleari.*

**S**OÑTU nintzanetik Jaunak laguntzat emandako Aingeru Santua : argitu, zaitu ta lagundu nazazu. Alaxe.

## ANDRE MARIAREN AÑENTZA

(300 eguneko barkapenak, bakoitzean. Andre Mariaren bost jaialdi nagusienetan, barkapen osoa).

Andre Mariaren añentza, Berari kristauak zuzentzen dioten otoitz ederenetako bat da. Loreto'n lenengoz esan omen ziran, ta Buena-bentura deunak orain agertzen diran bezela antolatu zituen edo... beintzat antziña-antziñatik datoz. «Kristauen laguntza» dion eskaria, kristauak turkotañengandik 1511'gañen urtean irabazi zuten garaipena gogoratzeko jaña da. «Jatorrizko erugabe soñtutako Erégiña» diona, Pio IX gañenak jañi zuen, Maria *erugabe soñtua* zala erabaki zuenean, eta bestea «Aguñtza santuaren Erégiña» diona, Leon XIII gañenak egiña da.

Guztiz osasungarri-mesedezkoak dira añentza auek, naiz goñputz, naiz animarentzat: izuñi, luñ-ikara... ta beste gaitz-okeñ guztietan. Aita Santu Gregorio Aundiak añentza oien bitañtez betiko ufutiratu zuen Eróma ondatzen ari zan izuñi zitala.

Asieran: Mariari AMA deitzen diogunean, Jaungoikoaganako zer dan adierazten degu, esanaz: Jaungoikoaren Ama dala, Ama txit garbia.

Urñen: BIRJIÑA deitzen diogunean, onbide (ejem-  
plu) guzti-guztien eredu edeña guretzat dala aitortzen degu. Birjin Erukioña, Jakintasunaren jañlekua...

Azkenean: Zerutañ guztien Eregin izenaz agunñtzen degu: «Aingeruen Erégiña...»

Kyrie eleison	Jauna, erukitu gutzaz.
Christe eleison	Jesu - Kristo, erukitu gutzaz.
Kyrie eleison	Jauna, erukitu gutzaz.
Christe audi nos	Jesu-Kristo entzun zai-guzu.
Christe exaudi nos	Jesu-Kristo entzun zai-guzu.
Pater de coelis Deus, <i>miserere nobis.</i>	Zeruko Aita Jaungoikoa, <i>erukitu gutzaz.</i>
Fili Redemptor mundi Deus, <i>miserere nobis.</i>	Jaungoikoaren Semea, gizonen Eroslea, <i>erukitu gutzaz.</i>
Spiritus Sancte Deus, <i>miserere nobis.</i>	Bspiritu Santu Jaungoikoa, <i>erukitugutzaz</i>
Sancta Trinitas unus Deus, <i>miserere nobis.</i>	Irutasun deuna, Jainko bakaña, <i>erukitu gutzat.</i>
Sancta Maria, <i>ora pro nobis.</i>	Maria Deuna, <i>eskatu gutzat.</i>
Sancta Dei Genitrix,	Jaungoikoren Ama deuna,
Sancta Virgo Virginum	Birjiñen-Birjiña Deuna
Mater Christi	Jesu-Kristoren Ama
Mater Divinæ gratiæ	Jaungoikozko eskeñaren Ama
Mater purissima	Ama txit garbia
Mater castissima	Ama erugabea
Mater inviolata	Ama kutsu gabea
Mater intemerata	Ama orbangabea
Mater immaculata	Ama soñtez-garbia
Mater amabilis	Ama maitagarña

ORA PRO NOBIS

ESKATU GUTZAZ



Mater admirabilis  
 Mater boni consilii  
 Mater Creatoris  
 Mater Salvatoris  
 Virgo prudentissima  
 Virgo veneranda  
 Virgo prædicanda  
 Virgo potens.  
 Virgo clemens  
 Virgo fidelis  
 Spéculum justitiæ  
  
 Sedes Sapiéntiæ  
 Causa nostræ letitiæ  
 Vas spirituale  
 Vas honorabile  
 Vas insigne devotionis  
  
 Rosa mistica  
 Turris Davidica  
 Turris eburnea  
 Domus aurea  
 Fœderis arca  
 Jauna cœli  
 Stella matutina  
 Salus infirmorum  
 Refugium peccato-  
 rum  
  
 Consolatrix afflic-  
 torum  
  
 Auxilium christia-  
 norum

ORA PRO NOBIS

Ama miragaña  
 Ama itun onekoa  
 Egilearen Ama  
 Eroslearen Ama  
 Birjiña txit begiratua  
 Birjiña guýgaña  
 Birjiña goragaña  
 Birjiña indaítua  
 Birjiña erukitsua  
 Birjiña zuzena  
 Zuzentasunaren ispi-  
 ñua  
 Jakintzaren jañ-lekua  
 Gure pozaren iturria  
 Gogozko ontzia  
 Ontzi omengaña  
 Oneraspen ontzi ospe-  
 tsua  
  
 Añosa miragaña  
 Dabiden doña  
 Marfilezco doña  
 Urrezko etxea  
 Elkaritasun-kutxa  
 Zeruko atea  
 Goizeko izarria  
 Gaxoen osasuna  
 Pekatarien babesa  
  
 Atsekabetuen pozgilea  
  
 Kristauen laguntza

ESKATU GUTZAZ

Regina Angelorum  
 Regina Patriarcharum  
 Regina Prophetarum  
 Regina Apostolorum

Regina Martyrum

Regina Confessorum  
 Regina Virginum  
 Regina Sanctorum  
 omnium

Regina sine labe  
 originali concep-  
 ta

Regina sacratissi-  
 mi Rosarii

Regina pacis

Agnus Dei qui tollis  
 peccata mundi,

*parce nobis Domine.*

Agnus Dei qui tollis  
 peccata mundi,

*exaudi nos Domine.*

Agnus Dei qui tollis  
 peccata mundi,

*miserere nobis.*

Aingeruen Éregiña  
 Aita-Nagusien Éregiña  
 Iragarleen Éregiña  
 Bidalien (Apostoluen)  
 Éregiña

Ziñopen (Martirien)  
 Éregiña

Aitoñleen Éregiña  
 Birjiñen Éregiña

Done (santu) guz-  
 tien Éregiña

Jatoñizko erú gabe  
 sortutako Ére-  
 giña

Aguñtza txit deuna-  
 ren Éregiña

Pakezko Éregiña

Jaungoikoaren Bildo-  
 tsa, gizonen peka-  
 tuak kentzen dituzu-  
 na, *bañka zaiguzu*  
*Jauna.*

Jaungoikoaren Bildo-  
 tsa, gizonen peka-  
 tuak kentzen dituzu-  
 na, *aditu zaiguzu*  
*Jauna.*

Jaungoikoaren Bildo-  
 tsa, gizonen peka-  
 tuak kentzen dituzu-  
 na, *erukitu gutzaz*  
*Jauna,*

ORA PRO NOBIS

ESKATU OITZAZ

Ÿ. Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

### *Oremus*

Gratiam tuam, quæsumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante, Christi Filii tui incarnationem cognovimus, per passionem ejus et crucem, ad Resurrectionis gloriam perducamur.

Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

Ÿ. Otoitz egizu gure alde Jaungoikoaren Ama Done orek

R. Jesukristo gure Jainaren aginduak irabazi ditzagun.

### *Otoitza*

Ixuri ezazu, aeren, Jauna, gure biotzetan zure grazia, Jesukristo zure Semearen Giza-kundea, Aingeruaren esanaz ezagutu genduanok, bere nekaldi ta Eriotzaren bitartez, aintzazko piztuerara eldu gaitezzen: gure Jaun Jesukristo berofengatik.

Alaxe.

## DE PROFUNDIS

(Ildakoen alde esan oi dan otoitza)

1) De profundis clamavi ad te, Domine. Domine exaudi vocem meam.

1) Baeren - baerendik ots egiten dizut, Jauna. Jauna, entzun nere abotsa.

- |  |  |
|--|--|
| 2) Fiant aures tuæ intendentes, in vocem deprecationis meæ.                | 2) Zure belarriak erre itzazu, nere otoitzaren abotsera.                               |
| 3) Si iniquitates observaveris Domine ¿Domine quis sustinebit?             | 3) Gaizakeriei begiratzen badiezu, Jauna ¿nor dagoke zure auréan?                      |
| 4) Quia apud te propitiatio est, et propter legem tuam sustinui te Domine. | 4) Baño Zugan da, erukia eta zure legean daukat itxaropena, Jauna.                     |
| 5) Sustinuit anima mea in verbo ejus: speravit anima mea in Domino.        | 5) Jaungoikoaren aginduetan dauka nere gogoak ustea, Jaungoikoagan jari du itxaropena. |
| 6) A custodia matutina usque ad noctem, speret Israel in Domino.           | 6) Goiz-goizetik aratseraño, Israelek Jaungoikoagan itxaron beza.                      |
| 7) Quia apud Dominum misericordia et copiosa apud eum redemptio.           | 7) Jaungoikoa erukitsua bait-da ta txit ugaria bere barikapena.                        |

8) Et ipse redimet  
Israel, ex omni-  
bus iniquitatibus  
ejus.

Ÿ. Requiem æter-  
nam dona eis Do-  
mine.

Ŕ. Et lux per petua  
luceat eis.

Ÿ. Requiescant in  
pace.

Ŕ. Amen.

### *Oremus*

Fidelium Deus  
omnium Conditor  
et Redemptor, ani-  
mabus famulorum  
famularumque tua-  
rum remissionem  
cunctorum tribue  
peccatorum, ut in-  
dulgentiam quam  
semper optaverunt,  
piis supplicationi-  
bus consequantur.

8) Bai, Berak aska-  
tuko du Israel,  
bere gaiztakeri  
guzti-guztietatik.

Ÿ. Azkengabeko  
atsedena, emaie-  
zu, Jauna.

Ŕ. Eta betiko argi-  
ak argi bezaie.

Ÿ. Pakean beude.

Ŕ. Alaxe.

### *Otoitza*

Jauna, Kristau  
guzien Egile ta  
Eroslea, zure jañai-  
tzale gizon-emaku-  
mien animai beren  
pekatu guztien bar-  
kapena emaiezu;  
otoitz beroen bitar-  
tez beti nai izan zu-  
ten barkapena iritxi  
dezaten.

Qui vivis et reg-  
nas in sæcula sæ-  
culorum.

Amen.

Beti ta beti bizi  
ta agintzen dezun  
Jaun oñek.

Alaxe.





## II. AITORTZA

---

Lufean lotuko dezun guztia, lotua izango da zeruan, eta lufean askatuko dezun guztia, askatua izango da zeruan. (Mat. XVI-19).

Jaungoikoari zof diozu, kristaua, zure gaiztakeriak betiko itxi zizuten zerua atzera idikiko dizun *urézko giltza* : aitoztza edo konfesioa. Zure bidegabekeriak aitoztzera apaizagana ez bazatoz, zoritxarékkoa, galdua zera betiko: «Apaizak askatzen duena bakarrik, askatua izango da zeruan». Ez, ez dago zerurako beste biderik, ez dago beste saferik, *edo aitoztza, ala betiko ondamena*.

Aitoztzak, bada :

- 1.—Zure obenak barkatuko dizkizu.
  - 2.—«Graziaren» bizi edera, beñiro emango dizu.
  - 3.—Indar beñiak auferako itzuliko dizkizu.
- Gauza aundia da, deabruaren atzaparetatik

atera ta Jaungoikoaren besoetara biúrtzen gaituen sakramentua : AITOÍRTZA.

Baño aitoítpen on bat egiteko, ongi geítutu bear zera lendabizi, křistaua, eta lan oítarako lagunduko dizuten neuři batzuek aítu bear dituzu.

Oía eginbear nagusienak :

1.—*Bařena azteítu edo miatu.*

2.—*Biotzeko damua soítu.*

3.—*Asmo beři sendo bat aítu.*

4.—*Obenak aitoítu.*

5.—*Oben-ordaña (penitenzia) bete.*

Laburkiro azalduko da emen bakoitza.

## AZTEÍRPENA.

Ongi aitoítu nai badezu, zure bařena azteítu edo miatu bear dezu, *zertan* erori zeran eta *zenbat* aldiz pekatu egin dezun ezagutzeko : pekatu lařiak berak ez ezik, zenbat aldiz egin diran aitoítzea beařa da-ta. Bařena azteítu edo begiratzea beařekoa da, ta *pekatu lařipean agintzen* zaigun lana; baño ez geiegi nekatu, sakramentu ori neketsua egiteraño.

Dakizuna esan, eta dakizun bezela; ta zure oben (pekatu) guztiak obeto ezagutu nai ba-dituzu, egin izaten dezun pekatu au edo bestea nondik datořkizun begira zazu: ořetara edo ařokeriak zaraman, edo gezuřezko belduřak, edo nagikeriak, ala adizkidetasun txaf batek...; sustřaia kenduta, zuaitzak luřa auřki joko du. (Berago jařtzen da azteítpena egiteko bidea).



**DAMUA :**

1'g. Egindako pekatuen miña edo gofotoa da; *maitetasunezkoa* eta *bilduñezkoa* izan ditekete. Lenengoa, Jaungoikoaganako maitetasunak soítzen du gure biotzetan; bigařena inpeřnuko bilduřak. Zer esanik ez dago, lenengoa askoz edeřagoa dala; bere bitařtez pekatuak bařkatzen zaizkigu aitoítu bařno ere lenago benetako damua baldin ba-degu, gero *aitoítzeko asmoarekin*. Beraz, kristaua: *zoritxařez pekatu lařiren batean erortzen ba-zera, biotzeko benetako damua agertu zaiozu Jaungoikoari*, «Nere Jesukřisto Jauna» edo «Ni pekatari» esanda; eta gero, zoaz lenbailen aitoítzera.

2'g. Damua, benetakoa izango ba-da *zerutikakoa* beař du izan lenbizi, au da, Jaungoikoaren laguntzarekin soítua. Gizonaren ařgaltasun aundia, emen agiri da: berez, bere indařez, Jaungoikoa utzi lezake, bařno gero alpeřik egingo ditu egiřal aundienak, Jaungoikoagana biuřtzeko, Berak laguntzen ez ba-du. Emendik bi erakuste eder-edeřak atera ditezke.

LENENGOA. — Pekatuari bilduř-ikara aundia ařtu beař diogula: «*Garaia elduko da (Jaunak diogu) ta nere bila ibiliko zerate, bařno alpeřik, orduan ez nauzute ařkituko.*

BIGAŘENA. — Benetako damua Jaungoikoak eman beař digun ezkeroz, Berari eskatu beař diogula, begiratu gozo batekin Pedro ikutu zuen bezela, gure biotza ikutu dezala.

Benetako damuak gařnera, *biotzetik jaioa*,

*izan bear du.* Alpeñik esango diogu Jaunari «Damu det» pekatua goñotutzen ez ba-degu. Geñuzekko damua agertzen diogu. Mingañezkoa ez, biotzezkoa bear du izan. *Cor autem ejus longe est a me.* (Isai. XXIX, 13).

*Pekatu guztietara zabaltzen dana, guzti-guztiak goñotatu bear ditugu-ta.*

Azkenean *gaitz guzti-guztien gañetikoa*: On-ek esan nai du, pekatu bakañ bat baño, gaitz-okeñ guzti guztiak naiago bear ditugula.

3'g. Baño damua zer dan azaltzea, bera biotz-bañenean soñtzea baño askoz eñezagoa nola baidan, ona, obeto prestatu zaitezten, *bide oso egoki ta eñexa* :

Zoaz adimenaren indañez, inpernura lendabizi. Jetxi arako zulo beltz, ilun añtara... Antxe era-kutsiko dizu deabñuak zure pekakuaz irabazi de-zun tokia, ta entzungo dezu, esaten dizula: «Jau-naren eñukiari zoñ diozu betiko emen ez egotea».

Gero, igo zaitez zerura. Begira, jauregi edeñ-apain añtan Jaungoikoak zuretzat aukeratuta zeukan uñezko aulkia. Antxe zenduan «eñegeak baño apañagoak diran» santuekin batean, zure tokia; baño, pekatuaren bidez, galdua dezu.

Azkenean, itzuli begiak Kalbario-mendira. Be-gira antxe Jesus, gurutzean josia, bi lapuñen artean, samintasun ta oñaze gogoñetan, zaurie-tatik odola dariola... eta entzun bere mintzaldi xamuña : *Nere semea*, esango dizu, *nere seme laztana*: ¿zer egin dizut Nik, edo zertan naiga-betu zaitut, zuk gisa onetan Nigurutzean josi-rik ipintzeko? ¿Alpeñik ixuri ote det nere odol

*guztia zu irabaztearen, alpeñ-alpeñik ote-da semea?*

Sartu zaitez zure bañenean, ta, pekatu guztiak aurrean dituzula, esan biotzez : «Jesukristo nere Jauna»... (57 orrialdea).

## ERABAKI EDO ASMOA :

1.—Egin diran pekatuen *miña*, damuaren erdia baizik ez da. Oñtaz gañera, damua osoa izango ba-da, aurrerakoan pekaturik ez egiteko erabaki edo *asmoa* bea-da.

Baño damua benetakoa baldin ba-da, erabaki edo asmoa ere egizkoa izango da. Pekatuegin dezulako egizko damua baldin ba-dezu, asmo sendoa orobat aurtuko dezu, lengo pekatuetan ez erortzeko, beñiz ez asteko : ¿Ta noiz arte beñiz? Beti, il aurreraño.

2.—Beraz, asmoa izango da :

Lendabizi.—*Sendoa* : au da, beñiro pekaturik ez egiteko erabakia. Ez du onek esan nai aurrerakoan ez zerala eroriko, erortzeko belduña izan añen, zure biotzean ez erortzea erabakitzen ba-dezu, egizko asmoa soñtu dezu.

Urñen.—*Osoa* izango da : Au da, pekatu lañi guztietara zabaltzen dana. Ez da naikoa pekatu lañi bat edo beste goñotatzea, guztiak goñotatu beañ ditugu.

3.—Egizko asmoa soñtzeko asko lagunduko dizu zertan eñezago ta maizago erortzen zeran ikusteak, oñtik zure bizibide osoa zuzendu deza-zun. «Goliat eñaldoia azpiratzen ba-dezu, laister

iges joango dira pilistindafak»; zure griñik gaiztoena ta zitalena menderatzen ba-dezu, beste guziak ere aisa azpiratuko dituzu.

Beragatik :

**asmo asko edo geiegi ez aítu; bat bakara ta ura ona :**

**asmo aldakofik ez aítu; zer nai dezun ongi erabaki; azpiratu bear dezun griña zein dan ondo ikusi.**

## AO-AITOÍRTZA

Ao-aitoítzak: egin ditugun pekatuak aitoíleari esateko eskatzen digu.

### 1.—Pekatu lañiak.

Pekatu lañiak bederik aitoítzera beaítuak gáude. Jesukristok berak agindu du, pekatu lañi guztiak aitoítu beaít dirala, gordeenak ere... lotsagañienak ere...

Ez utzi, añen, lotsaz oben lañirik esan gabe. Ba'dakizu apaizak lenago emango lukeala bere bizia, oiek azaldu baño.

Zure pekatuak aígri ta gañbi esan, diran bezela, apaizak ondo ezagutu ditzan. Gaxo zaude-nean aígriro azaltzen dizkiozu sendatzaleari zure gaitzaren sustraia ta beste zeítzelada guztiak. Orobat egin beaít dezu animaren sendatzalearekin, apaizarekin.

Pekatu lañiak aitoítzen diranean, *zein diran oiek eta zenbat diran* (gutxi gora-bera) *esan beaít da gañera.*

Naikoa da pekatua zein dan, zenbat aldiz egin

dan eta bera *aldatzen* duten zertzeladak aitoñtzea (jañi dezagun 6'garënean : bakañik ala ezkongai edo ezkonduarekin pekatu egin dezun, esan beañ dezu). Ez da beañezkoa, ordea, pekatua nola egin dan ta beste joan-etofiak esatea.

*Pekatu lañiak, lañia izateko, iru gauza eskatzen ditu.*

1.—Zure iritziz lañia dala uste izatea, *bera egin baño len.*

2.—Ezaguera osoarekin egiña izatea.

3.—Naita egiña izatea.

Iru baldintz (kondizio) auetatik, batek uts-egin ezkerro, pekatua ez da lañia izango.

Beraz :

Nai ezta, edo gogo oso gabe, edo ezaguera osorik gabe (ametsetan ala eñdi ametsetan) egiñen dana, ez da pekatu lañia.

Zerbait eginda *gero*, ez ordea egin baño len, pekatu dala igañtzen ba-dezu, ez dezu pekaturik egin, aitoñtu beañik ere ez dezu.

Zalantzan, eztabaidan zaudenean, pekatu egin pezun ala ez, edo egin dezuna pekatu lañia ala ariña ote-dan, edo lenago aitoñtu dezun ala ez, aitoñtu beañik ez dezu.

Aztuta utzi dituzun pekatuak geroago gogoratzzen ba-zaizkizu, esan *urën* aitoñtzen zeranean. Oiek lenbailen aitoñtzera joatea ez da beañekoa; ta bitañtean Jaunañtu zenezake, biotzez damuturik.

Lotsaz edo bestela, nai izanda, pekatu lañia esan gabe utzi ba-dezu, txarki aitoñtu zera, ta ondorengo aitoñtzak ere txañak dira. Ori azaldu arte, beraz, gaizki egindakako aitoñpeneko peka-

tuak eta ondorengo guztiak aitoítu beaf dira; gañera zenbat aldiz aitoítu zeran ta Jaunaítu dezun.

Bein ongi aitoítu ezkeru, ez da beafekoa, esan diran pekatu lañiak beñiro aitoítzea.

## 2.—Obeñ ariñak.

*Pekatu ariñak aitoítzea ez da beañezkoa, baño bai mesede aundikoa.*

Ara zergaitik : Aitoítpenaren bidez :

Aisago ta eñezago iritxiko dezu pekatu ariñen bañkamena.

Jaungoikoaren maitetasuna zure bañenean gei-ago piztuko dezu.

Eskeñ eta indañ beñiak iritxiko dituzu Jaungoikuarengandik.

Pekatuen zoña gutxitu egingo dezu.

Txit ona ta egokia da, beraz, oben ariñak ere aitoítzea; baño ongi oaitu, oiek egizko pekatuak izan beaf dutela, bestela apaizaren azkespena utsean eroriko da. Aitoítza pekatuak askatzeko da, ta, pekaturik ez badezu, ezin askatuko dizkizu. Beraz, egizko pekatu arin bat bederik esan beaf dezu.

Orobat, txit ona ta egokia da, pekatu ariñak baizik ez diranean, lengo pekatu lañiren bat aitoítzea, benetako damua soítzeko.

Azkenez, maiz aitoítzen ba-zera, asko irabaziko dezu, aitoítpen batetik bestera *asmo bat ar-tuaz* (pekatu ori edo bestea kentzeko asmoa) ta uñen aitoítzen zeranean, asmo ori nola bete dezun aitoítleari agertuaz.

## PEKATU-ORDAÑA

1.—Obenak aitoíturik apaizagandik azkespena (asoluzioa) artzea, ez da naikoa. Aitoítpenak pekatua kentzen du, baño onek Jaungoikoari egin dion iraña oraindik nekez ordaindu beaí da. Oía zergatik ematen digun aitoíteak, aitoítu ondoren, pekatu-ordaña (penitenzia), pekatuaren bidez, Jaungoikoari itzuli diogun iraña oben-nekez kitatzeko; aitoítpenak pekatua kentzen duen bezela, orobat pekatu-ordañak ere pekatuaren neke-zoía ordaintzeko indaía dauka.

2.—Pekatu-ordaña aitoítpenaren zati bat da. Beraz, beaítekoa da ordain ori egitea, ta askotan pekatu laípean agintzen zaigun lana do : beraí gatik lenbailen bete beaí da, aztu gabe, aitoítu ta berealaxe al ba-da, edo ainbat laíteíen.

3.—Pekatu - ordañarekin batean, oso egokia da, beste lan - neke, otoitz ta eginkizun onak Jaungoikoari eskeintzea pekatuaren zoía kitatzeko. Baíkapenak batez ere, guztiz mesede aundikoak zaizkigu, ta txit eítez irabazi dítezke gañera.

Ez aztu emen luítean ordaintzen ez deguna, gero Garbitokian ordaindu beaíteko degula, askoz ta askoz aundiagoko oñaze-miñakin.

## AZTERPEN-GALDERAK

Aldiz-aldizka aitortu oi diranentzat azterpen luzea.

*(Ona litzake, ondoren jartzen diran azterpen-galderak noizean bein irakurtzea, ta aitoítzen zeran bakoitzean al ba-dezu).*

### I. JAUNGOIKOAREN AGINDUAK

¿Zenbat egun edo aste dira azkenengoz aitortu ziñala?

¿Ondo aitortu ziñan?

¿Aitoípen txarik egin al-dezu? ¿Zenbat pekatu lañi, lotsaz edo, aitortu gabe utzi dituzu?

¿Zenbat aldiz geroztik Jaunaítu dezu pekatu lañian?

¿Apaizak agindutako pekatu-ordaña bete gabe utzi dezu?

¿Zure pekatuak laguneren artean afokeriz esan al dituzu? ¿Egin dituzunak ez ezik, zure burua goratzearen zuk asmatutakoak agian?

*(Oarpena : Lengo pekatuak gogoraturik, oietzat atsegin artzean, beñiro pekatua egiten da, gogozko pekatua).*

### LENENGO AGINDUA

*Jaungoikua maiteen izatea*

1. – Sinismen edo fedearen kaltezko pekatuak.



¿Sinismen edo fedezko egiak *ukatu* al-dituzu?

¿Eztabaidan edo zalantzan erlijioako egiak artu al dituzu, esanaz: «Nork daki oiek ala diran...»?

Oñelako egirik, zure barrenean sinistu aŕen, aoz ukatu al-dezu?

¿Sinismen edo erlijioaren kaltez itzegin dezu, mintzatu zera? esanaz: «Il eta guztia bukatua dago... Inpernua... nor izan da bertan, inpernua bai dala esateko...? Apaizak asmatutako gezuŕa da, guri helduŕ emateko gezuŕa... ¿Zerua beste txorakeria, auŕai eta emakumeai sinistarazteko ona... erlijio guztiak berdiñak dira...» eta abar?

¿Apaiz jaun eta erlijiosoeri lotsa galdurik, oien kaltez itz egin al dezu, esanaz: «apaizak alpeŕ galantak dirala ta erlijiosoak berdin, aberatsen adizkideak eta langileen etsaiak...» eta abar?

¿Oñelako autuetan dabiltzanei auŕerapiderik eman diezu, galdetuaz, arpegi aŕgia ipiñita, ala paŕ eginda?

¿Izdeunetan (sermoietan) entzundakoa ukatu al dezu, ala jolasean artu?

¿Jaungoikoaren kaltez edo kontra, ona ez dala, zuzena ez dala, edo beste oñelakoren bat esan al dezu?

¿Zeruratzeko itxaropena galdu dezu?

¿*Sinismen edo fedezko ta erlijioaren egiak, elizkizunak eta abar iri ta paŕez artu al dituzu?*

¿Erljioaren kaltez mintzitzen diran *albistar-iak, izpeŕingiak* (periodikuak), eta *liburu txa-ŕak* erosi, irakuŕi edo norbaiteri irakuŕtzeko eman, ala saldu, ta aien esanak sinistu?

¿*Aŕokeriz*, pekatu egiñ, esaten dezula: «ba,

naikoa da aitoftzea... Jaungoikoa ona da... bañkatuko dit...» edo beste orelakoren bat?

¿*Aztiengana* joan, naiz gauz ilun eta etorkizunen beñi ezagutzeko, naiz gorputz - miñak sendatzeko, ala zoriona irixteko...? Ameskeri, sorginkeri edo orelakorik sinistu al dezu?

## 2.—Otoitzak.

¿Ikasbide edo dotriña bai al dakizu? ¿Jaungoiko ta Eliz-Amaren aginduak, *Aita gurea*, *Aguñ Maria*, *Sinisten det...* eta beste otoitzak ikasi al dituzu?

Luzaroan egon zera otoitzik egin gabe? ¿Ziltzaldian (tentazioan) Jaungoikoari laguntza eskatu al diozu?

¿Goiz-añatseko otoitzak, sinispen, itxaropen eta maitetasunezko egintzak, egunero esaten al dituzu? ¿Nola? ¿Nolanai agian, eta beste zure lanetan gogoa daukazula, ala laisterka, zer egiten dezun gogoratu gabe?

### (Oarpenak :

1.—*Ez uste izan, agindu bakoitzean aitatzen diran gauza guztiak pekatupean agintzen diranik : ala, goiz-añatseko otoitzak ez egitea berez pekatu ez da; baño nagikeriz ala arokeriz edo bestela uzten ba-dira, orduan nagikerizko edo arokerizko pekatua egiten da.*

2.—*Lenengo aginduaren kaltezko pekatuetan, asko ta asko erortzen dira gure egunetan, erlijio ta apaizetzaz gaizki itzegiñaz, ta sinis-*

*menaren egiak ukatuaz; onela mintzatzan diranei, gogor egin bear zaie, arpegira boteaz beren añokeri ta jakin-eza, lotsaturik itxildu ditezen).*

## BIGAREN AGINDUA

*Jaungoikoaren izena alpeñik ez aotan añtzea.*

1.—Gezuñezko zin edo juramentuak.

¿Epaile (jueza)-ren aurrean gezuñetan zin egin al dezu?

¿Andik kanpora ere, gezuñezko zin edo juramenturik egin al dezu?

¿Ñoren kaltez, epaile-aurrean, gezuñezko ziñaltzarik (testimonio) esan dezu?

¿Gauzen bat sinistarazteko egiaz ala gezuñez ziñik egin dezu bearik gabe?

¿Jaungoikoa, naiz bere izatea berariz agertzen duten gauzak, lekuko edo testigutzat ipiñi dituzu?

¿Zin edo juramentuakin emandako itza autsi dezu?

(Pekatu dan zerbait zin eginda agintzea, debekatua dago. Orduan pekatu bat egin dezu, ziñez itz emanda; baño oñela agindutakoa ez dezu bete bear, bestela bigaren pekatura egingo dezu.

Umeak atzapañaz gurutzea eginda, mun egiten dutenean, edo *Jaungoikorekiko* esanaz, ez dute, noski, pekatu egiten, baño oitura txaf ori lenbailen utzi bear dute gero okeñagora jo ez dezaten).

## 2.—Birauak.

¿Jaungoiko, Andre Maria ta santuen edo erlijioaren kaltez birauak esan al dituzu? ¿Egunean zenbat bezela esaten dituzu? ¿Oitura ote dezu, ta noiz ezkeroztik?

¿Birauak ez ezik beste itz zikiñik oiekin esaten al dezu?

¿Jaungoikoaren izena nolanai aitatzen dezu?

(Birau zikiñak botatzeko oitura, atzeritik etorri zaigu Euskalerira; ez dauka gure euskera garbiak birau egiteko itzik, eta erdel-izkuntzatik airtzen dituzte guretañak, Jaungoikoaren izena zikintzen duten itz loitsuak ¡Ainbat eta ainbat lotsagañago!

Ongi begiratu bezate gai onetan eriko agintariak; ta legeak ematen dien eskubideaz, orela mintzatzen diranak gogor jotzen ba-dituzte, laister kenduko dute gure Euskal-Eritik, erbesteko belar txar au).

## 3.—Eskeintzak.

¿Gai lañian, Jaungoiko edo Santuei egindako eskeintza (promesa), al dezula, bete gabe utzi dezu?

(Eskeintza edo botoak—promesak—berez txit onak izan aren, *ez dira ariñegi egin bear*, norbere aitoñlearen iritzia lendik eskatu gabe, batez ere betiko garbitasuna goñdetzea, edo orelakoren bat agintzen danean. Askotan egin oi-diran eskeintzak, ez dira pekatu lañipean lotuak gelditzeko asmoz egiten; auek eskeintzak baño asmo

edo erabaki onak obeto deitu ditezke, ta ez da pekatu auek austeak).

## IRUGAÑEN AGINDUA

### *Jai-egunak jai egitea.*

#### 1.—¿Meza entzun al dezu?

¿Ilgande edo jaietan meza entzun gabe utzi al dezu, entzun dezakezula, alpeñkeriz, zabañkeriz edo bestela?

¿Besteei meza entzutea galazi al diezu?  
dala etxekoei : zerbait lan emanaz, edo zerbaitetara uruti bidaliaz, edo aien tokia betetzeko zerori etxera berandu eldurik?

dala kanpokoei : zure moñoi ta neskameei lan egiñaraziaz, edo iñoren etxera zerori joanaz, zer edo zer egiteañen, edo ostatuan, bidean ala jokoan, zeroñekin egon ditezzen zure moñoi eta lagunak bearturik?

¿Mezatara berandu iritxi al zera, Kredoa apaizak bukatu ondoren agian? ¿Etxean, bidean, edo norbaitekin beñiketean, ala pelota - jokuan egonik, berandu iritxiko ziñala jakiñik?

¿Lenengo meza uts eginda, bigañen entzun gabe utzi dezu, batere aitzakirik gabe?

¿Apaizak Jaunañtu baño lenago elizatik iften zera?

#### Oarpenak :

1.—*Pio X'g. Aita Santuak, igandez ostean, beste zortzi jai-egun bakañik utzi ditu :*

1)—Jesus'en Jaiotza (Lotazilaren 25'ean); 2)—Urteberri eguna (Ilbeltzaren 1'ean); 3)—Jaunaren Agerketa edo Iru Eregeak (Ilbeltzaren 6'an; 4)—Jaunaren Igokundea (Azensioa); 5)—Andre Mariaren Sortze Garbia (Lotazilaren 8'an); 6)—Andre Mariaren Jasokundea (Dagonilaren 15'ean); 7)—Pedro ta Pablo Deunak (Garagarilaren 29'an); 8)—Santu Guztien jai-aldia (Azaroaren 1'ean).

Guretzat, beriz, beste iru jai ditu: 1)—Jose Santuaren (Epailaren 19'an); 2)—Gorputz-Deun jaia; 3)—Santiago Deunarena (Uztailaren 25'an).

Gipuzkoa ta Bizkayan beste bat; Inazio Deunarena (Uztailaren 31'an): Araban; Prudenzi Deunarena (Joñailaren 28'an): Napañoan; Jabbier Deunarena (Lotazilaren 3'an).

2)—Kredoa asi ta gero mezatarra irixten diranak, meza bukatu arte elizan baldin badaude, ez dute mezik uts egiten.

Moñoi-neskameak berandu iritxi badira, ta beste meza bat osorik entzun ezin badute, lenengo meza asi duten zatiraño entzun bezate bigarrena.

3)—Ez daude beartuak meza entzutera:

a) Entzun ezin dutenak: gaxoak, makalak... eta abar.

b) Beste edozein beldur, kalte edo lotsa aunditxoa meza entzuteagatik artu bear lutekenak: osasuna galduko duten beldur diranak: moñoiak, nagusiak uzten ez badie (baño lenbailen beste nagusi bat artu bear dute); nai

*ta naiezko bidezkunde edo biajea igandean egin bear dutenak; aurđun arkitzen diranak... eta abar.*

d) *Elizatik urđuti bizi diranak, zarak ba-dira batez ere, ta bide edo egoaldi txarak ba-dira.*

e) *Beren lana utzi ezin dutenak, artzaiak, amak eta inñudeak aurak etxean zaitu bear ta, beren ordezeko inñor jarri ezin badute.*

g) *Gaxoak zaitu bear dituztenak, eta etxea gorde bear dutenak, bakarrik baldin badira; eretzen dagoen etxea itzaltzera dijoazenak...*

## 2.—Meza nola entzun dezu?

¿Gaizki entzun al dezu lotan edo erdi lotan zaundela, ala izketan eta beriketan?

¿Naiz mezetan egon, gogoa beste gauzetan euki al dezu, zure lan eta egitekoak, ala jolasak eta beste txorakeriak gogoraturik?

¿Onela luzeroan egon al zera, mezaren zati aundi batean agian, mez-erdiko Jaun goratze garaian bear bada, meza osoro gogotik galdurik?

¿Elizan abesten (kantatzen) ari diranean, zuk jakin ařen ez dezu abesten, afokeriz, besteak noiz uts egingo duten zelatan?

¿Era berean, abeslariei (kantoreei) gal-erazi al diezu meza zati aundi bat, izketako bidea aiei emanaz?

¿Meza artean nola egon zera Jaungoikoaren aurrean? ¿Begirunez, ala atzera-auffera begiraka, edo txistua lufera boteaz, edo eztulka gogorik gabe, ta oñetakoekin otsa ta zarata egiñaz?

¿Meza bukaeran, iru «Aguf Maria» ondoren, apaizak «Aguf Efégiña» edo «Salbea» asten duenean, elizatik irten al zera, otsa ta zalapafta aundian?

¿Izdeunean (sermoian) ifi-pañezka egon al zera, edo gogoa beste gauzetan daukazula, ala izdeunlariaren esanak aintzakotzat ez arturik?

¿Al dezula meza nagusietara joaten al zera, ta aguítza, izdeun, dotriña ta beste elizkizunetara?

¿Ilgande-jai aratsaldeak nola igarotzen dituzu: bezperetara joan beañean lo luzea egiñaz, gero nai dezun garai txañean etxera biurtzeko?

*1-Kristaua : ez uste izan, doi-doi ta nolanai meza motx bat entzuteaz naikoa egin dezula, Jaungoiko ta Eliz-Amaganako zure kristau eginbeañak zintzo bete dituzula, ori ez da naikoa. Jaungoikoak irugañen aginduan eskatzen dizu bere jai-egunak gordetzeko ¿ta agian uste dezuz ordu erdi bat nolanai bere auñean elizan egoteaz jai-eguna gorde dezula, bere agintea bete dezula?*

*2-Befiz oaftu nai det, emen aitatzen diran zenbait gauza, berez pekatuak ez dirala; baño bai oitura oso itxusiak, lenbailen kendu beañ diranak : ez da pekatu, elizan txistua botatzea, meza bukatu baño len elizatik zalapaftan iftetzea, eta abañ; baña ez aztu eliza Zeru-luñaren Efége Altsuaren jauregia dala.*

### 3.—Ilgandeko lanak.

¿Ilgande ta jai-egunetan lanik egin al dezuz?

¿Bi ordutik gora, beañik gabe?

¿Besteei lan egiñarazi al diezuz? ¿Zure seme, moñoi edo neskameei agian, lanen bat aiei aginduta? ¿Edo kanpokoei, jostun, oski - egileari (zapatagilea) eta abañ, zuretzako soñeko edo



oñetakoak egin ditatzen, aiei igandean lan egin eraziaz?

*Naiz igandetan lan egin, ez dute pekaturik egiten :*

*Baseñitarak eta baratzeak, soroko gauzak ez galtzearen lan egin beherean arkitzen ba-dira.*

*Bizar-kentzaleak moñoi-neskameak, nagusiak agintzen ba-die (baño beste bat bilatu behar dute).*

*Jostunak, agindutako lana bukatu ezin badute.*

*Irabazi aunditxoa bestela galduko lutekenak.*

*Astegunean etxeko jantziak garbitu edo konpondu ezin dituztenak.*

*Beartsuei laguntzearen lan egiten dutenak... eta abar.*

*Baño onela lan egin beherean arkitzen diranak, egin bezate ixilik eta gordean al badute.*

## LAUGAREN AGINDUA

### *Gurasoak aintzakotzat eukitzea*

Seme-alaba :

¿Gurasoei zor diezun begirapena ukatu al diezu? ¿Nola? Itz gaiztoak eta lotsagabekeriak aiei esanaz? ¿Gogorriki eta purustadaz aiekin itz egiñaz?

¿Erantzun txarrik emanda? ¿Iseka edo burlarrik egin diezu? ¿Mutur egon al zera aiekin, edo kopeta beltzakin muxin? ¿Berak zu ondo aitu aien,

zuk naigabetu al dituzu, itz motzak eta gogofak bakarik esanaz? ¿Zematu edo belduritu al dituzu, naiz itzez, naiz eskuz, bultzaka edo joka?

¿Eriotza opa izan diezu, agian, beren ondasunak zureganatzeko edo lasaigo bizitzearen?

¿Biraunik esan aien aurrean eta kaltez?

¿Gurasoen kaltez txarki mintzatu al zera, etxetik at edo kanpora?

¿Gurasoez inoren aurrean, lotsatu al zera?

¿Gurasoen esanak, ardurazko gauzetan, ezetsi edo ukatu al dituzu?

¿Lagun gaiztoekin ez ibiltzeko, meza entzun, Jaunartu ta beste elizkizunetara joateko, ta gabeen goiz etxeratzeke esan dizutenean, aien esanak ukatu dituzu?

¿Gurasoen azken naia bete al dezu?

¿Irabazten dezuna eman al diezu, ta gorputz-animaren bear-izanetan lagundu al diezu?

¿Etxeko zaiei zor zaioten begirapena euki al diezu?

¿Zure anai ariebai bear ez danik erakutsi al diezu, ala aien aurrean ori egin dezu edo oretaz mintzatu zera?

¿Pekatu egitera bultzatu al dituzu? ¿Zertara?

*1-Seme - alabak beste inori baño geiago zor diote gurasoei. Beraz, etxetik kanpoz beti alai dabiltzanak, eta etxe bafenean arpegi beltzakin beti, pekatu egiten dute ta askotan pekatu larria.*

*2-Gurasoei «ika» erantzuteko oitura erabat bazteftu bear da. Semea ez da aita-ama anakoa; gurasoak ez dira lagunak; askoz geiago dira, ta begirapenez itze gin bear zaie.*

## Gurasoa :

a) —¿Ardura aundia euki al dezute zuen seme-alaba gaxtetxoei ainbat laisteren otoitzak erakusteko? «Gurutze santuaren», «Aita Gurea», «Agur Maria», «Sinisten det», «Sinispen, itxaropen, eta maitetasunezko egintzak» eta abar?...

¿Gazte gaztetandik erakusten al dizkiezu sinismen edo fedezko egiak : Jaungoiko bat dala, guztia ikusten duena... pekatuak Bera naigabetzen dutela... badala zeru bat... baita ere suleiza edo inpernua?

¿Etxean, erakusten al diezute zuen semeei *dotriña*, ta ez ote dezute zabañkeriz lanbide ain aundi au utzi, ori apaizen lana dala esanaz? (1)

¿Egunero goiz-añatsetan, egiñerazten al dizkiezu otoitzak?

¿Zazpi urtetara irixtean, meza entzutera, ta ezaguerara iritxi ezkerro, aitoítu ta Jaunaítzera bidali al dituzu : Eta aragi-uzteko egunak gorde-erazi?

¿Txañki dabilzala ikusirik, ala gezuñak esaten, edo gaiztakeriren bat lagunengandik ikasia egiten, zuzendu al dituzu bertatik, gerorako oitura txañak aítu ez ditzaten?

*Ez gerorako utzi zuen semeak zuzentzea,*

(1) Gure egunetan křistau gurasoen lanbide nagusiena da, semeak Jaungoikoaren itzalpean azitzea, gero křistau onak izan ditezen. Ofetarako lanik beafena, nagusiena, lenena da: etxean gazte-gaztetandik semeei *dotriña* erakustea. Beragatik ots-egin nai diet beřtatik apaiz jaun agufgañiei, estu ta zofotz aítu ditzaten gurasoak gai onetan, aiek eginbeař nagusi au beař bezela bete dezaten.

*oraindik gazteak dirala-edo esanaz. Zuaitz gaztetxo aisa zuzentzen da, baño bein makurtzen ba-da oso nekez zuzenduko da.*

*b)-Aurak aunditxoak diranean :*

¿Lagun gaiztoetatik aldendu al dituzu?

¿Eskolara edo dotriñara dijoazenean lagun gaixtoekin biltzen diran ikusi al dezu?

¿Ala bidean, agirian ez bada gordean, gauza txarrik naiz ikusten naiz ikasten edo egiten ote dabilzan?

¿Erian bertan aien ibilera guztiak zaitu al dituzu, norekin biltzen diran jakiteko, ta zer irakurtzen duten, nola mintzitzen diran, igandea non igarotzen duten eta nola? ¿Edo bestela, utzi diezu aratsean kalerik-kale nolana dabilzala, esanaz zure kolkorako, zure aurak ez dutela bear ez danik egingo?

¿Zine'ra joaten utzi diezu? ¿Oretarako dirua zero'ek eman diezu? ¿Zinera zero'ek lagundu diezu?

*Zine geienak kaltegarriak dira, eta kalte aundiak egiten dituzte, batez ere umeetan.*

¿Bilera gaizto ta eromerietara, edo neska-mutilak biltzen diran beste toki batera, zaituko dituen lagunik gabe, baka'rik joaten utzi diezu?

¿Iluntze ezkerro, batez ere alabak, etxeratu al dituzu?

¿Senar' edo andregaiarekin, alabai edo semeai baka'rik egoten utzi diezu?

¿Pekaturako beste edozein galbidetik, aldendu al dituzu?

Gurasoak jakin bear dute, edo etxeko edo besteengandik, beren semeak nola dabilzan. Badira, alabaña, guraso zabañak, beti azkenak diranak beren semeen berri jakiteko; auek, beren semeaz au edo ura norbaitek esaten dienean, asaretu egiten dira, bekaizkeri edo gaiztakeriz onela mintzatzen dirala uste dute, ta azkenik esaten dute: «eriko edozeñenak bezin onak dirala beren semeak». Beste batzuek beriz, «oraindik gazteak dirala» esanda, naikoa egin dutelakoan daude, ta lasa-lasai gelditzen dira: «gazteak dira» diote... oraindik jolastu bear dira... beste ainbeste egin genuen guk ere»... ¡Guraso zabañak guraso itxuak; ez dute ikusten, beren semeen galera ez ezik, beren buruen ondamena ere onela irabazten dutela!

Azkenik, guraso txoroak ere badira, beren semeak eromeriz-eromeri dabilzala jakinda, estutu bearean, iri-parezko arpegiz erantzuten dutenak, «onela aisago ezkonduko dirala»; ba diteke, baño baita aisago galduko ere dute animaren garbitasuna, ta agian-agian baita beren izen-ona ere.

d)—Itzez edo egitez, semeai ikasbide txarrik eman diezu?

ITZETZ: ¿Apaiz, praile edo erlijoaren kaltez aien aurrean itzegiñaz?

¿Ala jardun loitsuak erabiliñaz... birauak botetaz... arlu-emanetan egin dituzun lapuñetak ai-

tatuaz, eta inoren utsegiteak aien auzean aita-turik?... eta abar.

**EGITEZ:** ¿Ilgandeko mezari uts-eginda... jai-igandetan lan-egiñaz, izpeñgi edo periodiko txarrik, edo bertso gaiztoak erosi ta irakuriaz; moskoftuta gauean berandu etxeratuaz, seme bateri besteari baño maitetasun geiago agian biurriagoa dalako erakutsiaz; seme-alabak ez dagoen eran apainduaz? ¿Gogorikiro agintzen al diezu zure semeei, arpegi beltzakin eta gisa-txarrean beti... maitetasuna erakutsi bearean, esker-gaiztoa agertuaz?

*Gurasoak seme-alaben auzean itzez edo egitez pekatu egiñaz, izugarizko lan txarra egiten dute; orain ereiten duten belar txararen azia, bilduko dute gero beren buruen kaltez; gañera, bi pekatu egiten dituzte; berak txarki egin, eta besteak pekatu bidean jari.*

### Nagusia :

¿Nolako moroi-neskameak aritu dituzu? ¿Zure seme-alabai beak ez dana erakutsiko dietenak agian, mingain txardunak, lotsagabeak?

¿Seme-alaben auzean txarki mintzatzen direnean, ala gaizkirik egiten dutenean, estu ta zorrotz aritu al dituzu?

¿Maitetasunaz aritu bearean, gaizkiroa gintzen al diezu beti?

¿Meza entzutera, aitoftu ta Jaunaftzera bidaltzen al dituzu?

¿Dotrina erakusten al diezu, edo erakutsiera-

zi? (Igande añatsaldetan eskolara, dotriña ikas-  
tera bidaliaz, urietan oitzen dan bezela).

¿Lan aundirik igandeetan ematen al diezu?

¿Arduraz begiratu al dezu moñoi-neskameak  
beren añtean lañotasun geiegirik añtu ez dezaten?

¿Neskameai bakañik eñomerietara joaten utzi  
diezu, edo gauean berandu mandatuak egitera  
bidali, etxe-atarian gizasemeekin beñiketari egi-  
ten utzi?

¿Itz batean : pekaturako bidetik moñoi-neska-  
meak aldendu dituzu?

¿Beren sari edo irabaziak, janari edo jan-  
tzietañ ta beañ dutena, eman al diezu garaiz?

*Nagusi zikoitzak, berak ematen die lapuñe-  
tako bidea moñoi-neskameei.*

¿Beren utsegiteak, beañik gabe, agertu dituzu?

¿Beste etxe batera joateko bizibide onaren  
agiria eskatu dutenean ukatu diezu, ala oien  
beñi eskatu dizutenei gezuñik esan?

*Nagusiak, seme-alabak bezela zaitu beañ di-  
tuzte beren moñoi-neskameak; batez ere, gaz-  
teak diranean, beren aita-amaren tokia euki  
beañ dute.*

## Moñoi-neskamea.

¿Moñoi edo neskame zeralako asañe bizi al  
zera?

¿Zure añdurapeko gauzak galtzen utzi al dita-  
zu? (esan zenbat, gutxi gora-bera).

¿Etxeko gauzarik añtu al dezu, saldu, eman?

(gauza aundia, edo txikia, eta zenbatekoa dan esan).

¿Zure eginbear eta lanak nolana eta ajolik gabe egin al dituzu?

¿Lan egin beanean, alpekerian luzaro egon al zera?

¿Nagusi-etxekoandrearen kaltez gaizki esaka ibili al zera?

¿Ixilik gorde bear ziran gauzak, kanpoan agertu al dituzu: nagusiak beanean arkitzen dirala esanda, ala beren artean ongi etortzen ez dirala... eta abar?

¿Lotsagabekeriz nagusiei erantzuten al diezu?

¿Nola zaitu dituzu zure ardurapeko aurak? Itz lasaiak entzungo dituzten edo gauza txarrik ikasiko dituzten bileratara eramaten al dituzu?

¿Gauz itxusiak egiten erakutsi al diezu?

¿Neskame zauden etxean, pekaturako bidea arkituko dezula ezaguturik, ez al zera sayatu andik lenbailen ittetzen?

¿Etxeko seme-alaben beren senargai edo andregaiantzako kartak, gurasoak ez dakitela, eraman al dituzu?

¿Mandatuak egiteko eman dizutenetik, edo beste tokiren batetik, zuretzat zerbait gorde al dezu?

¿Zenbait emakume okeren esanak jaraitu dituzu?



**BOSGAÑEN AGINDUA***Iñor ez iltzea*

¿Iñori kalte egin diozu?

**Goñputzean :**

¿Jo, zauritu, ala il dezu... edo ofelakorik egin nai izan diozu?

**Animan :**

¿Pekaturako bidea eman diozu, pekatu dan zerbait egin dezala esanaz, eta zeroñek erakusbide txarrik emanaz, naiz itzez, kiñuz edo egitez?

¿Oraindik okeñagoa dana, erakuste txar oiek gaztetxoei eman al dizkiezu?

¿Lagun-urkoari iseka ta paña egin al diozu, pekatu dan zerbait egin nai izan ez duelako, egin zaion okeña ordaindu ez duelako, emandako itza autsi ez duelako, zoña ukatu ez duela... ta abar?

¿Pekatu egiten lagundu al diozu? ¿Zertan?

**Bere izen onean :**

¿Ezertzat ez daukazula agertu diozu? ¿Itzez ala egitez? ¿Iñoren aurrean edo atzetik, añen utsegiteak agertuaz?

¿Gezuñez ere, norbaiten kalte itze gin al dezu?

Bestetaz nolanai jañduten al dezu? ¿Entzuten dituzun beñi txarrik zabalduaz, gezuñak dirala jakiñik? ¿Zeroñek entzun dituzula esanaz, agian, edo zeroñek ikusi dituzula?

### **Pakean bizi diranak :**

¿Elkarékin pake santuan ziranak nastu al dituzu? ¿Bateri bestearen jañdunak edo eginkizunak agertuta?

¿Lenagotik asafe ziranak, adizkidetu beafean, ez al-dituzu bata bestearen kaltez geiago berotu?

¿Norbaitek txarki egin dizunean, madarika-zioz ta biraez bete dezu?

¿Eriotza edo okefen bat opa izan al diozu, esanaz : «Itoko baziña, ilko baziña, leftuko baziña...» edo ofelakoren bat?

¿Kalte egin dizunari goñotoa gorde diozu?

¿Bañkapen eske zetoñkizunean, bañkapena ta diosala ere ukatu diozu?

¿Noiz kalte egingo diozun, aukera onaren bila ibili zera, ala etoñi zaion kalteaz poztu zera?

¿Iñoren aberastasunak ikusita, ta batez ere zure etsaiaren zoriona, ez al zera bekaizkeriz beteta, biotzez naigabetu?

### **Zure buruaren kalte :**

¿Naigabe edo beaf-ez txiki batengatik zure buruari eriotza opa izan diozu?

¿Zure osasunaren kaltez ibili zera, geiegi janaz eta batez ere edanaz, edo zure burua erail nai izan dezu?

*Gure egunetan moskoñkeriak galtzen du gure Euskal-Eñi maitea. Moskoñen semeak aulak eta erdi ustelduak izan oi dira geienean, eta moskoñen azkena, beriz, zoro biurtzea.*

¿Beste zer edo zertan zure edo besteen osasunari kalterik egin diozu?

¿Nekazaritza lan gogofetara, aurđun emaztea edo alaba gazteak beartu dituzu?

## SEIGAĀREN ETA BEDERATZIGAĀREN AGINDUAK

*Aragikeririk ez egitea. Besteren  
senar edo emazterik ez nai izatea.*

*Bi agindu auen kaltezko pekatuak, berez beti lafiak dira. «Berez» esan det; bear añako ezaguerarik ez bada, edo pekatu egiteko nai osorik ez bada, askotan ez da pekatu lafirik egingo.*

*Askok uste izaten dute, burura datozkien gogapen txar guztiak pekatu dirala; gogapen lizunak, berez, guk nai ez izan afen datozkigunean, ez dira pekatuak: pekatua, oieri leku ematea edo oietan atsegin artzea da.*

*Agindu auen kaltez, gogoz, itzez edo egitez pekatu egin diteke.*

### Gogoz:

¿Gogapen edo pentsamentu loitsuak gogoan erabili al dituzu, edo lizunkerizko gauzak gogoan erabili az, atsegin izan al dezu, gauz oiek egiteko asmorik ez izan afen ere? ¿Zenbat aldiz gutxi gora-bera?

¿Gogapen txar ak ez ezik, asmo txar ak izan ote dituzu? ¿Asko, zenbat?

¿Len egindako pekatuak gogoraturik, oietan atsegin artu dezu?

**Itzez :**

*Bakaŕean* lagun batekin :

¿Jardun loitsuak, ipui zikiñak, gertaera lizunak aitatu dituzu?

¿Zerori asi zera? ¿Zerori asi ez bazera ere, lagunari izketako bidea eman diozu, paŕ egiñaz ala bere jardunak pozik entzunaz?

¿Askotan, elkaŕekin, bakarik egoten zerate?

*Lagun askoren* artean :

¿Lizunkerizko gauzak aitatu al dituzu? ¿Jardun loitsuak, abesti (kanta) zikiñak... gazteen aŕean agian, edo gauz oiek ez zekizkitenen aitzinean?

¿Zure burua goratzearen beaŕ bada, ala besteak zure esanak txalotu dituzaten?

**Egitez :**

¿Anima-gorputza zikinduaz, loikerizko pekatuŕik egin al dezu? ¿Zenbat aldiz?

¿Bakaŕik edo beste norbaitekin? ¿Gizon, emakume, ezkongai edo ezkonduarekin, edo persona ez danakin? ¿Begiratzez, ikutzez, beste era batera? ¿Zenbat aldiz?

¿Loikerizko pekatu itxusirik egiten norbaiteri erakutsi diozu?

¿Liburu txafak irakuŕi dituzu, irudi txafik begiratu ala gorde? ¿Edo iñori erakutsi, batez ere gaztetxoei?

¿Bileretan edo eŕomerietan ibili zera, bulzaka, musuka, laztanka, zifi ta beste loikerietan?...

¿Antzoki (teatro) txar, zinema ta lasaikerizko beste tokietan bildu?

*¿Dantza lotuan ibili zera?*

*Dantza lotua geien-geienez, pekatu larria da. Jesukristo Jaunak esan ba-du «asmo txarrez emakume bati begiratzen dion aitek, pekatu egiten duela» ¿nor ausartuko da esaten, gizaseme baten besoetan dabilen neskatxa garbi irtengo dala?*

*¿Zure jantzietan nolako begirunea erakusten dezu? ¿Ez ote zabilta maiz kaleetan, paragrafiko itxuran, gona-motz, kolko ta besoak agirian dituzula?*

*Gure egunetan neska txoro askok, onela jantzirik, gazte asko liluratu ta galbidean jantzen dituzte. ¡Zori txarrekoak, beren buruak ondatu ez ezik, inoren, lagunurkoaren gogoa galdu nai duten oiek!... «Obe litzake, bai, jaio izan ez balira».*

*Ara Isaias Igarleak, onela jazten diranei, egintzen dizkien zigorkadak: (Isai. III. 17-24).*

**Sion'go alabei Jaungoikoak ilea kenduko die, ta oien buruak solik agertuko dira.**

**Orobat, egun artan, onetako apañak, ispiluak, ari-edefezko lepokoak, besokoak, belarrikoak, eraztunak, usai - gozoak, jantzi-argiak, danak kenduko dizkie: eta usai gozoen orde, burusola, ta gefikoaren tokian zakutzar bat emango zaie.**

¿Ezkontzeko asmorik gabe, astia igarotzearen, inorekin artu-emanik bai daukazu?

¿Etiket kanpoan gaua igarotzen dezu?

¿Oitura txarrez berandu exteratzen zera?

*Bi agindu auen kaltezko pekatuak, apaizari argiro esan bear zaizkio: pekatua nola egin dan ez da esan bear, baño bai zenbat aldiz egin dan, bakarrik ala nolako notin edo personakin. Ongi aitoñtu zaitez, pakean bizi nai ba-dezu, ta erabili beti begien aurrean, gure Liburu santuen itz beldurgarri auek: «Zeruan, ez da ezer zikiñik saftuko». (Apoc. XXI-20).*

## ZAZPI TA AMAÑGAÑEN AGINDUAK

*Ez ostutzea. Okeñ-bidez besteren ondasunik ez nai izatea*

¿Zerbait ostu al dezu?

*Era askotara ostu leike: naiz besteren gauza lapurtuaz, naiz arkitutakoa gordeaz, jabea bilatu gabez, naiz gauz ostua erosiaz, edo gordeaz, ala salduaz, eta abar.*

Norbaiteri bere ogasunetan kalte egin al diozu, moñoia bazera batez ere, nagusiaren gauzak nolanai ibiliak, ostuko dituzten tokietan utziaz?

*Zorak ordaindu gabe luzaroan euki al dituzu, ezin ordaindu dituzula esanaz?*

¿Sal-erosketan bidegabekeririk egin al dezu?  
¿Eman bear zenukeana baño gutxiago emanaz, edo sal-neufi (prezio) aundiak eskatuaz... eta abar?

¿Dirutza aundirik jokoan galdu al dezu?

*Edariak jokoarekin gure Euskal-Eria oso ondatu bear dute. Gaurko egunean ez bakarrik*

*aberatsak, peritik datozen baseñitarak ere, joku-etxe oietan beren eta bere semeen irabazi guztiak galtzen dituzte.*

¿Jokoan, atzipez edo engañuz irabazi al dezu?  
 ¿Zure moñoi - neskameak, zor diezun saria ordaindu gabe luzaro euki al dituzu?

¿Ostu dezuna, edo aren ordaña, jabeari biur-tu al diozu?

*Emen oartu bear da, ez dala naikoa zazpi-garren aginduaren kaltezko pekatuak aitoñ-tzan esatea: gañera ostu dan guzti-guztia bere jabeari itzuli bear zaio, eta jabea ezagutzen ez bada, bearitsu edo pobreen artean eta beste eginkizun onetan eman.*

*Orobat ordaindu bear da bidegabenez egin dan kalte guztia.*

## ZORTZIGAÑEN AGINDUA

*Gezurkozko testigotzarik ez egin eta  
 gezurik ez esatea*

¿Ñoren kaltezko gezurik esan al dezu?  
 ¿Norbaiteri kalterik egin al diozu, añen utse-gite ixilak azalduaz edo gezurkozkoak asmatu-rik?  
 ¿Ñorengatik gaizki esaka ibili zera, añen gau-za onak txar egin - da, ala txar ak geituta, edo besteak goratzen dutenean, zerori ixilik egonda?  
 ¿Ñorengatik gaizki esaten dana atsegiñez en-tzun dezu, edo, galderak eginda, onela mintza-tzen diranei auferapiderik eman diezu?

¿Itz-erdika edo zeozer esan nairik bezela, nor-baitentzat susmo txarrik softu al dezu?

¿Bata besteari elkarfen kaltez esandakoak azaldu dizkiezu, bien artean asarea softzeko asmoz?

¿Inoren eskutitzak (kartak), baimenik gabe, irakuri dituzu?

¿Ixilekoak entzuten egon zera?

¿Inori izen-ona kenduko dion gauzik idatzi dezu?

¿Eskubide-rik batere gabe, inor txar-etsi edo juzgatu dezu?

¿Lekuko edo *testigo gezuñezkoa* izan zera?

¿Lekuko edo gezuñezko testigoak bildu nairik ibili al zera?

¿Zure lagun-urkoa aldeztu gabe utzi dezu, ezez dezakezularik?

¿Besteen izen-ona galdu dezunean, kendu diozun izen-ona biurtzen saiatu al zera, gezuña esan zenuela esanaz, edo uste gabeen ori sinistu zenuela?

## II.—ELIZAREN AGINDUAK

### LENENGO AGINDUA

*Igande ta jai-egunetan Meza osoa entzutea*

*Jaungoikoaren irugañen aginduan esan dana irakuri.*

¿Igande-jai egunetan, noiz iritxi zera mezara?

¿Asieran, edo Kredoak bukatuta gero?

¿Noiz irten zera? ¿Apaizak Jaunañtu aufetik?



## BIGAÑEN AGINDUA

*Aitoítza, urtean bein gutxienaz egitea, ta oñezaz gañera iltzeko ariskoan arkitzean, eta Jaunaítu baño len, baldin oben aztunean ba-gaude*

¿Gutxienaz urtean bein aitoítzen zera?

¿Ondo, ala aitoítzen txarria egiñik?

*Txarriki aitoítzurik, pekatu larria egiñaz gañera, ez da agindu au betetzen.*

¿Pekatuan egonik? Jaunaítu? ¿Aitoítu gabe ezkondu?

*Pekatu larrian eskontzen diranak, Jaunaítzen dutenak bezelaxe sakrilejioa egiten dute.*

¿Gaxo zaudela, apaiza deitu al dezu, aitoítu ta Elizakoak aítzeko?

¿Zure etxeko aide edo lagunak gaxo ikusirik, gaizki daudela adierazi al diezu apaiza deitu dezaten, ala gezurézko maitetasunaz atzipetu (engañatu) dituzu?

## IRUGAÑEN AGINDUA

*Pazko-aldian gutxienez Jaunaítzea*

¿Pazko-aldian aurtan, Jaunaítu al dezu?

¿Ondo ala txarriki?

*Txarriki Jaunaítuaz, pekatu egiñaz gañera, ez da agindu au betetzen.*

## LAUGAÑEN AGINDUA

*Eliz-Ama Doneak agintzen duanetan  
aragi-uzte ta barau egitea.*

- ¿Al dezularik barau egin al dezu?
- ¿Aragi-uzteko egunak zaitu al dituzu?
- ¿Gizen-eginerazi al diozu iñori?
- ¿Bulda erosi gabe, dezakezula, buldaren eskubideak artu dituzu?

## BOSGAÑEN AGINDUA

*Oi danez, amañenak eta lenenkariak  
Elizari ematea.*

- ¿Eriko elizari ta apaizei, kristau onari dago-kion bezela, laguntzen diezu?

*Orain ba'dakizu Gobernuak ukatu diola Eli-zari len opa oizion sari txiki ura ere. Orain apaizak, bizi al izateko, ez dute erikoak ematen dien eskupekoa besterik. Beragatik len ez bezin bearezkoa da orain, apaizai ta Elizari laguntzeko dirua, agindurik dagon bezela bere garaietan ematea.*

- ¿Opa diezu al dezunaren neurian zure eskupekoa?

- ¿Ematen dezu zintzo-zintzo, opa zenduana?

## III. - BAKOITZAREN EGINBEAÑAK

*Senar-emazteak.*

- ¿Elkar arteko ongi naia autsi al dezute, asarjaita edo arpegi beltza batak besteari erakutsiaz? ¿Seme-alaben aurrean agian?

*Senara :*

¿Zure ondasunak zaitu ta geitzen alegindu al zera; ala edanean eta jokoan ez ote dituzu ondazten, emaztearen ezkon-saria batez ere?

¿Zure irabaziak emazteari eman al dizkiozu, ta etxeko gora-beretako bea duena?

¿Irabazpide ta beste arazo aztunetan elka aditu dezute?

¿Emazteari eskua altxa al diozu, zematu edo jo, ala naigabe aundirik eman?

¿Sakramentuak safi aitzen eragotzi al diozu?

¿Emaztea aur dun dagoela *lan geiegirik eragin al diozu?*

¿Gauetan berandu etxeratzen al zera?

¿Emaztearen baimenik gabe ibilkunde luzeak egin dituzu?

*Emaztea :*

¿Zure setaz etxeko pakea autsi al dezu?

¿Ez ote dezu senara aspeitzen, beti asafe ibiliaz, uskeri batengatik agian?

¿Senaren baimenik gabe zerbait saldu al dezu, alabak apaintzearen?

¿Ezkontzako Sakramentuari utsegin al diozute?

*Etxeko-jauna :*

¿Guraso zafak etxean ba-dauzkazu, berai zof zaien begirapena gorde al diezu?

¿Zure puustadaz eta gogoakeriz, ez ote dituzu naigabetu?

¿Jan-edan eta jazteko beaŕ dutena ukatu al diezu, ala gogo txaŕez eman?

¿Gaxo jaŕi diranean, ez ote dituzu bazteŕturik utzi, sendagairik ez erosi naiaz?

¿Lenbailen il ditezen gogoa ez al dezu agertu?

¿Oien azken-nai edo testamentua zintzoro bete al dezu?

¿Oiek agindutako mezak atera, egikizun onak egin?

¿Guraso zaŕak beaŕtu al dituzu, naiz itzez, naiz egitez, zuri beste anai-aŕebai baŕno geiago azken-naian uzteko?

### *Sendi edo famili-buruzagia :*

¿Nola zaitu dituzu zure seme-alabak, ezkondu ala apaiz - egin edo lekaidetxean (komentuan) saŕtzeko asmoa agertu dutenean?

¿Ezkontzeko asmoz zebiltzenean nolanai ezkondu ditezen utzi diezu, edonorekin, nai duten bezela, agian lendauŕetik itz emanda zeudelako?

¿Edo bestela, zuri ongi ez deritzazula ta berterik gabe, ezkontzea galazi al diezu?

¿Agian ezkon-saria (dotea) eman nai ez diezulako?

¿Edo luzaerazi dezu ezkontza, al dan berandu en ezkontsaria emateko?

¿Zure seme-alaba beaŕtu al dezu, nai ez zue narekin ezkontzera, onek dirua ugari edo daukalako?

¿Zure seme-alabai galerazi al diezu monja, apaiz edo prale izaten, edo ofetarako beaŕtu al dituzu?

¿Dirua ekaftzearen, baseñtik aterata, urieta-  
ra, ola edo fabriketara, ala Ameriketara bidali  
al dituzu?

¿Seme-alabak moñoi edo neskame jañi dituzun  
etxeak berak galtzeko bidekoak ote dira?

*Gurasoak : zuen seme-alabak diru apur bat  
baño geiago maite badituzute, ez oiek baseñ-  
tik urira bidali, oraindik gutxiago Ameriketa-  
ra, besterik eziñean arkitzen ez ba-zerate bein-  
tzat. Ez dute toki uruti aietan asko irabaziko,  
animaren aldetik beintzat, eta sañi askotan  
ezta gorputzaren aldetik ere.*

*Begiratu orobat zuen alabak nolana eta no-  
ranai neskame bidaltzen dituzuten. Eta etxe  
onak, esan oi dan bezela, eskeintzen dizkizu-  
tenean ere, al ba-dezute, gorde zuen aldeme-  
nean : norbere etxea da beti onena.*

### *Eñiko agintaria :*

¿Arduraz zaitu al dituzu lege zuzenak, eta  
oiek autsi dituztenei legeak agintzen duten isun  
edo multa eman al diezu?

¿Batez ere, birao-zale ta moskoñak estu ta  
zoñotz artu al dituzu?

¿Ardandegiak edo tabernak beañ dan garaiean  
itxi ditezela agindu al dezu, ta jokoa eñian galazi?

¿Eñiko petxak banakatzeko iru-lau jauntxoan  
iritzia ala zuzentasuna jañaitu dezu?

¿Autañki-aldian (elezioetan) zure menpekoak  
bidegabez beañtu al dituzu?

¿Meza nagusi ta beste elizkizunetara joaten al  
zera?

*Menpekoa :*

¿Apaiz-jaun, alkate-jaun ta eñiko agintariei zoñ zaien begirapena agertu al diezu?

¿Lege onak zaitu ditezen, alkate ta agintariei lagundu diezu, ala ez; esateko : biraotzaleak zematurik, eta beañ bada, agintariei salaturik, lege arauaz zigoñkatu ditzaten?

¿Eñiko petxa zuzenak ordaintzea luzatu dezu, ala atzipez (engañuz) ukatu?

¿Zure autarkia (botoa), Eñlijio ta eñiaren alde geien egingo duenari, ala diru geiago ematen dizunari eman diozu?

*Ugazaba :*

¿Zure langileei zoñ diezun saria, luzatu gabe, ordaindu al diezu?

¿Maitetasunez begiratzen al dituzu, ala gogoñki ta gañaztasunez?

¿Ilgande-jai egunetan lan egiñerazi al diezu?

¿Beañ - ez batean arkitu izan diranean, ala gaxorik beañean ikusi dituzunean, lagundu al diezu?

¿Arduraz begiratu al dezu birauak zure olatik (fabrikatik) aienatzeko, neska - mutilen arteko jañdun lasaiak, abesti zikiñak... eta abar debekatzekeo?

*Langileea :*

¿Lan orduak zintzoro betetzen al dituzu?

¿Ugazabaren tresnak arduraz zaitzen al dituzu?

¿Ugazabari bere ogasunetan kalterik egin al diozu?

¿Opoñik (uelgarik) soñtu, edo besteak opoñe-ra bultzatu, oñetarako biderik gabe?

¿Iñori lan egiten, bidegabenez, galerazi al diozu?

### *Ostalari ta ardo-sallzaleak :*

¿Moskoñtua edo erdi-moskoñturik dagoanari eskatu aña edaten eman al diozu, kaltegarñ zaiola jakiñik?

¿Zure arðandegira datozenei nolanañ ibiltzen utzi al diezu, batez ere zerbañ beroturik daudenean, oñsa-zarata ateratzen, iskanbiña soñtzen, madarikazioz edo biraoka ari izaten, abesti zikiñak abestutzen... eta abar?

¿Beste edozein jolas txoroetara gaztedia bultzatu al dezu? ala esateko ¿karta-jokoan gurasoen ixilik, dantza - lotuan, laztanka, musuka, ziri-egiñaz ta besarñkaturik... neska-mutilak ibili ditezen zure ostatuan?

¿Gauetz agindurik dagon garaian zure arðandegia itxi al dezu?

*Ostalari ta ardo saltzaleak oarñtu bearñ dute beren etxeetan egin oi diran ainbat pekatuaz erantzun bearñko dutela, askotan beren eruz edo beren kulpaz egin oi dira-ta.*

*Irabazpide txarñ batengatik, ez zuen animak galdu.*

## AZTERPEN LABURÁ

### GALDERAK

**Lenengo agindua:** *Jaungoikoa maiteen izatea.*

¿Sinismen edo fedezko egiak ukatu al dituzu? ¿Ez sinisteko zalantzan egon al zera? ¿Pañez eta txantxetan oietzaz itzegin dezu?

¿Albistariak, izpeñgiak (periodikuak) eta idazti (liburu) txarák, irakuñi dituen ala norbaiteri irakuñtzeko eman edo saldu dizkiozu?

¿Aztiengana jo al dezu, etorkizunaren berri ezagutzeko?

¿Apaizetzaz eta oien kaltez gaizki itzegin al dezu?

¿Jaungoikoaren kaltez edo kontra, ez dala ona, ez dala zuzena, edo beste oré-lakoren bat esan al dezu?

¿Zeruratzeko itxaropena galdu al dezu? ¿Goiz-arátseko otoitzak egin al dituzu, nola? ¿Relijiosoen kontra mintzatu al zera? ¿Sermoietan entzundakoak pañ edo gaizki itzegin al dezu?



¿Gaizki aitoñtu al zera? ¿Pekatu aundian Jaunañtu al dezu?

**Bigafen agindua:** *Jaungoikoaren izena alperik ez aotan añtzea.*

¿Birauak botatzen al dituzu? ¿Seme-alaben edo umeen aurean agian?

¿Zin edo juramenturik egin al dezu, gezuñetan ala beañik gabe?

¿Jaungoikoari edo beste santuei eskeintza eginda, bete gabe utzi al dezu?

**Irugafen agindua:** *Jai egunak jai egitea.*

¿Igande ta jai-egunak nola gorde dituzu?

¿Zabañkeriz meza entzun gabe utzi al dezu igandeetan? ¿Edo berandu iritxi al zera?

¿Nola entzun dezu? ¿Zure moñoi ta mendekoeri, meza entzuten galazi al diezu?

¿Eliz Amak jañitako barau ta aragi-uzteko egunak gorde al dituzu?

¿Igandeetan lanik egin al dezu, bi ordutik gora, beañik gabe?

**Laugafen agindua :** *Gurasoak aintzat eukitzea.*

¿Gurasoen esanak ezetsi edo ukatu al dituzu, ardurazko gauzetan?

¿Gurasoak zure lotsagabekeriz naigabetu al dituzu? ¿Jo edo belduritu al dituzu, ta agian eriotza opa izan diezu?

*Moñoi-neskamea :* ¿Zure eginbear ta lanak, nolana ta ajolik gabe bete al dituzu? ¿Nagusien gauzak alperik galtzen utzi?

¿Aren kaltez gaizki esaka ibili edo aren gauza gordeak kanpoan agertu? ¿Lan egin bearean alperkerian luzaro egon al zera?

*Gurasoak :* ¿Zuen jañdun edo bizibide txarekin seme-alabai erakuste txarik eman al diezute? ¿Aien ibilera guztiak zaitu al dituzute, zer irakurtzen duten, norekin biltzen diran, neska-mutilak elkarrekin jañdunetan ote dabiltzan, goiz etxera datozen edo *kalerik-kale aratsean dabiltzan*, eta meza entzun, aitoñtu ta jaunañtzen duten jakiteko? ¿Etxean erakusten al diezute zuen semeai dotriña, eta ez ote dezute zabañkeriz lanbide ain

aundi au utzi, ori apaizaren lana edo dala esanaz?

Itz batean, ¿galbide ta ariskuetatik al-  
dendu al dituzute, edo zuen zabañkeriz  
noiznai eta nolanaibiltzen utzi?

*Ongi begiratu kristau-gurasoak gai  
onetan, emendik zuen seme-alabei eta  
sendi edo pamili guziari kalte aundiak  
datozkie-ta.*

*Senañ-emazteak* : ¿Elkar arteko ongi  
naia ausi al dezute, aseñe jañita edo ar-  
pegi-beltza batak besteari erakutsiaz?

*Senaña* : ¿Zure irabazia, edo emaz-  
tearen ezkon-saria ez ote dituzu onda-  
tzen, edanean edo jokuan batez ere?  
¿Noiz etxeratzen zera aratsetan? ¿Emaz-  
tea jo al dezu, edo naigabe aundirik  
eman, aurñun dagoala batez ere, edo  
*lan geiegirik eragin al diozu orñelako-  
etan?*

*Emaztea* : ¿Zure senaña ez ote dezu  
naigabetzen, beti erñtan ibilñaz, uskeri  
batengatik agian?

*Batak eta besteak* : ¿Ezkontzaren kal-  
tezko gauzarik egin al dezute?

**Bosgarfen agindua : *Iñor ez iltzea.***

¿Norbaitekin asáretu al zera? ¿Eriotza edo okeñen bat opa izan al diozu? ¿Edo etoñi zaion kalteaz poztu al zera? Bekaizkeriz (inbiriz), seta txañean edo goñotoz egon al zera?

¿Etsaiari ukatu al diozu bañkapena eta diosala, eske etoñi zaizunean, edo bidean arkitzean?

¿Iñor jo edo zauritu, al dezu, edo iñori kalte gogoñik biurñtu al diezu?

¿Zure osasunaren kaltez ibili al zera, geiegi janaz eta, batez ere, edanaz; edo zure burua erail nai izan al dezu?

**Seigarfen eta bederatzigarfena : *Aragikeririk ez egitea. — Besteren senañ edo emazterik ez nai izatea.***

¿Lizunkerizko gauzak gogoan erabiliñaz atsegin izan al dezu?

¿Jañdun loitsuak, abesti (kanta) zikiñak, esan edo entzun dituzu?

¿Liburu txañik irakuñi, irudi nazkagañ-iririk begiratu?

¿Antzoki (teatro), zinema ta lasaikerizko beste tokietan bildu? ¿*Dantza lotuan ibili zera?*

¿Zure jantzietan nolako begirunea erakusten dezu? ¿Ez ote zabilta maiz kaltetan, pañagarizko itxuran, gona-motz, ta kolko ta besoak agirian dituzula?

¿Bakarean zure buruaz atsegin aritu al dezu? ¿Beste norbaitekin? ¿Gizon, emakume, ezkongai edo ezkonduarekin? ¿Begiratzez, ikutzez, beste era batera? ¿Maiz?

*Esan argiro apaizari gai onetan dituzun oben (pekatu) guztiak : zenbat aldiz, nolako notin edo personakin. Ba dakizu gai onetan pekatu geienak lañiak dirala. Beraz, ongi aitoñtu, pakean bizi nai badezu, eta erabili beti begien aurtean, gure Idazti (liburu) Santuen itz beldurgarri aukeratu : “Zeruan ez da ezer zikiñik sartuko” (Apoc. XXI-20).*

**Zazpi ta amargañena ; Ez ostutzea. Okerbidez besteren ondasunik ez nai izatea.**

¿Zerbait ostu al dezu, edo inori kalterik egin al diozu?

¿Ostu dezuna, edo bere ordaña, nagusiari biurtu al diozu?

¿Zorak ordaindu gabe luzaroan euki al dituzu?

¿Testamentu ta beste aginduak bete al dituzu?

¿Sal-erosketan bidegabekeririk egin al dezu?

**Zortzigafena :** *Gezuritzeko testigotzarik ez egin eta gezurik ez esatea.*

¿Inoren kaltezko gezurik esan al dezu?

¿Inori kalterik egin al diozu, aren utsegite ixilak azalduaz, edo gezuritzekoak asmatuaz?

¿Inoren eskutitzik (karta) irakurri al dezu baimenik gabe?

## AITORTZA AUÑEKO OTOITZA

(Veni Sancte Spiritus. 50 egun. barkap. bakoitzean).

¡Atoz Espiritu Santua, bete zure fededunen biotzak, eta piztu biotzetan zure maitetasunaren su-bizia!

Ÿ. Zure espiritua bidali ta zuzenduko dira.

R. Ta lur-bira osoa berituko dezu.

### Otoitza

**E**SPIRITU Santuaren argien bidez, zure jarraitzaileen biotzak zuzendu dituzun

Jaun oñek, emaguzu : Espiritu Santu beroñen bidez, ona dana beti maite izatea, ta bere pozez beti atsegintzea. Jesu-Kristo gure Jaunaren izenean. Alaxe.

¡Nere Jaungoiko maitea, emaidazu nere pekatu guztiak ezagutzeko argitasun bizia, ta oiek guztiak biotz-biotzez goñotatu ta aitoñtzeko indaía!

¡Andre Maria, Ama erukioía, Jose Doatsua, nere Aingeru zaitzaílea; zuen laguntza-beaíean nago oraintxe : guztiok lagundu nazazute, aitoñpen on bat egiten!

*Ondoren, zure baíena azteñtu, Jaungoiko ta Eleiza-Amaren agindu bakoi-tza arakatuaz, zertan uts egin dezun ikusteko.*

### Damu-egintza

Agindutako goiko zeruak  
Ez narama ni zu maitatzera;  
Ez eta beko sugaíaak ere  
Obenderitik alde egitera.

Zuk naramazu; zakusdalako  
Iltzez josia gurutz batean;  
Zuk naramazu, zure nekeaz,  
Zure zauriaz, erio-unean.

Zuk naramazu : t'ain naiz zuregan,  
 Zeru gabe ere naiz zure alde;  
 Maitatzen zaitut inpernu gabe;  
 T'ez ni zerutu naiaren orde;  
 Saririk bear ez banu ere  
 Zaitudan lege zinduket maite.

*(Esaten danez, Xabier ta Franzisko  
 Doneak gazteleraz antolatua).*

Otoitz au egin ondoren, aitoítza egitera zoaz.  
 Zure aurrekoa aitoítzen dan bitartean, esazu  
 biotzez :

**N**IK, pekatari onek, aitoítzen diot Alguz-  
 tidun Jaungoikoari, Andre Maria beti-  
 -birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeru-  
 ari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta  
 Paulo apostolu Doneai, beste Done guz-  
 tiai eta zuri, ene Aita, pekatu asko  
 egin dedala, gogapen, itz eta egiteetan,  
 nere eruz, nere eruz, nere eru aundiz.  
 Oregatik eskatzen diot Andre Maria beti-  
 -birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeru-  
 ari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta  
 Paulo Apostolu Doneai, beste Done guz-  
 tiai ta zuri, ene Aita, otoitz egiozutela  
 nere alde Jaungoiko gure Jaunari.



## *Aitoftzeko era*

«*Nik pekatari onek*» esan ondoren, joan zaitetz aitoftegira, ta belaunikaturik, esan lendabizi:

*Aguñ, Maria, guztiz garbia.*

Apaizak erantzungo dizu: *pekatu gabe soñtua.*

Esan gero :

*Ilabete (edo astebete, edo dana dala) da azkenekoz aitoftu nintzala, eta ez nuan ezer utzi, ez lotsaz, ez azturik.*

*Askespena artu nuen.*

*Geroztik. Lenengo aginduan...*

*Bigarrenean...*

Eta onela lenengo agindutik asi ta esan egin dituzun utsegite ta pekatu guztiak. Ez, asko bezela, aitoftlearen galderaen zai egon.

Onela egiñaz, eñezago ta lenago bukatuko dezu, ta zuk esan ondoren, aitoftleak beste galderaren bat egiten ba-dizu, erantzun apalki, baño garbi.

Entzun gero berak emango dizkitzun erakuste (konseju) onak, gogoan afturik; eta azkenik, azkespena ematera dijoakizunean, esan biotz-biotzez :

«*Jesukristo nere Jauna...*»

Gero zoaz zure tokira, ta antxe bete aitoftleak emandako pekatu-ordaña (penitentzia), ta esan ondoren jaftzen dan otoitza.

### Ondorengo otoitza

*Jaungoiko Aita Betikoari, Andre Mariaren bitartez*

**A**ITA Erúkióría, ta ondasun guztien iturburua! Biotz-biotzez eskatzen dizut, beti zure atsegiña dan Jesus zure Seme maite ta gure Eroslearen Biotz txit santua-ren bitartez, emaikidazula: sinismen bizia, itxaropen sendoa ta Zuganako ta nere lagun-urkoaganako maitetasun sutua. Gañera eskatzen dizut: nere pekatu guztien benetako damua, ta iñoiz aurerakoan ez Zu iraindu ta naigabetzeko asmo sendo-sendoa: Zuk nai dezun bezela beti bizitzeko, zure gogo santua biotz guztietan betetzeko, ta zure maite-tusunean eriotz arteraño irauteko. Alaxe.

¡Nere Erosle ta Jaungoikoaren Ama maite, Maria Birjiñ txit doatsua, arén, eskatzen dizut, zure erukiaren bidez, emaidazula: galbide ta lañi-aldi guztietan Zugana joatea, ta zure laguntza beti eskatzea!

(40 egun. bakap., bein).



### III. JAUNARTZEA

«Aingeruen Ogia  
Gizonen janaria»

#### I. SAÑERA

1) *Jesukristo gure Erakuslearen itzak*  
(Joan. VI).

Juan Deunak bere Ebanjelioan azaltzen diz-  
kigu.

Ona emen nagusienak :

48) — *Ni naiz Bizidun Ogia.*

49) — *Zuen gurasoak «mana» jan zuten basa-  
mortuan eta il ziran.*

50) — *Au da zerutik jetxitako Ogia : berau  
jango duena ez da ilko.*

54) — *Egi-egiaz diozutet : Gizonaren-Seme-  
aren-Aragia (1) jaten ez badezute, ta bere*

---

(1) Safi arkituko dezu Jesukristok Ebanjelioan «Gizo-  
naren-Semea» izentzat aritzen duela; agian izen onekin go-  
goratu nai digu Beragatik esan zuela.

*Odola edaten ez badezute, ez dezutela (zuen bañenean, artean) bizia izango.*

55) — *Nere Aragia jan, eta nere Odola edaten duenak, betiko bizia dauka, ta azken-egunean Nik berpiztuko det.*

56) — *Nere Aragia ziñez janaria da, ta nere Odola ziñez edaria.*

57) *Nere Aragia jan, eta nere Odola edaten duena, Nigan dago ta Ni beragan.*

58) — *Bizirik dagon Aitak bidali nauen bezela, Ni ere Aitaren bidez bizi naiz; eta Ni jaten nauena, nere bidez biziko da.*

Nekez arkituko dezu, kristaua, gure sinismen edo fedezko egien artean, auetxek baño itz edefago ta pozgafiagorik. Gogoan ar itzazu ta maiz irakuñi, zure sinismena piztu ta sendotzeko.

2) *Jesukristo, gogo edo animaren bizia da.*

Alde batetik :

*Oben lañiaren eriotzatik gure gogoa gorde tzen duelako.*

*Au da zerutik jetxitako Ogia : berau jango duena ez da ilko, dio Jesukristo gure Jaunak; eta Trénto'ko batzañak deitzen dio: oben lañitik gordeko gaituen sendagaia. (Trid. ses. XIII-2).*

Auxe bera erakusten digu Tomas Deunak (III p. q. 79, a. 6).

Ara zer dion : «Eriotza edo kanpotik edo bañendik datorkio gizonari.

Bañendik datorkion eriotzari alde egiteko, ja-

nari ta sendagaien bidez indartu egiten du bere burua; kanpotik datorkionari alde egiteko, beñiz, izkiñu edo armakin gogor egiten die etsaia.

Orobat : Jaunartuta indarberitu egiten da gure gogoa Kristo bere graziarekin animaren janari ta sendagai dalako batetik eta bestetik Eukaris-tia Kristoren Nekaldi edo Pasiyo-irudia izanik animak dituan etsayen eraso aldiak mendera-tzen ditualako Kristo'k bere Nekaldiaz etsayak bezela».

Berak ematen digun poz-etzitasunak aztu era-giten dizkigu luñeko zorionak. Beraz, gero ta geiago uñeratzen gaitu Jaungoikoagana, gero ta geiago uñutiratzen gaitu galbidetik, eta onela indaítzen dira onbideak. Berak itzaltzen du ga-ñera aragi-zalekeria, gizonaren etsairik aundie-na; *Gustato spiritu, desipit omnis caro*; baita beste grñña gaizto guztien berotasuna, sukaña ere.

Berak itzultzen dizkigu, azkenez, gogapen onak eta asmo edeñak.

**3) — *Maiz, eta egunero al bada, Jaun-artu bear da.***

Trento'ko Batzañ Nagusiak (XXII'g. bilera, VI'g. buruan) erabaki au dakañ :

*Batzañ Nagusi onek nai luke kristau guztiak meza entzuten duten bakoitzean Jaunartzea.*

Auxe bera eskatzen digu Jesukristo gure Jau-nak : *Zuen gurasoak ogia jan zuten eta il zi-ran... nere Aragia jaten duenak berekin dauka betiko bizitza.*

Au da, goñputzak ogia beaña duen bezela go-goak ere beañ-beaña duela janari au maiz añtzea.

Gure Eliz - Ama arduratsuak eta Erroma 'ko Aita santu guztiak, ao batez auxe bera diogute, ta batez ere Pio X'gañenak *Sakra Tridentina Synodus* deritzaion idazki oroigañian.

Daniel Igañleak : *Gizonaren Semeak, Jaungoiko Aitagandik dakañ eskubidea, aintza, ta agintea; eta eridi, aberi ta izkuntz guztietako gizonak jañaitzen diote, ia onelaxe erakusten dute Mesias gizonen Eroslea dala.*

4)—*Maiz eta egunero Jaunañtzeko zer eskatzen dan.*

Norbaitek uste izango du agian, bera maiz edo egunero Jaunañtzeko diña ez dala. Oneri erantzungo diot : iñoiz ere gai edo din ez dala izango ta aingeruak berak ere ez dirala din ofetarako. Ara :

¿Pekatu lañiaz biotza gañbi al daukazu?

¿Asmo zuzenez Jaunañtu nai dezu?

Ez zaizu ba besterik eskatzen.

*Bi gauz auek, biotz gañbitasuna ta asmo zuzena, naikoak dira, maiz eta egunero Jaunañtzeko.*

Jakiña, oñez gañera biotz-maitetasun eta gurari aundiaz mai - aldarera inguratzen bazera, irabazi geiago aterako dituzula; zenbat eta gose geiago bazkaltzera zoazenean, indañ geiago ateratzen dezun bezela.

Atoz ba maiz, kristaua, atoz egunero al bade-

zu Jaunaítzera. Berak emango dizu pekatu lañi-ari iges egiteko indaía, etsai zitalen ekiñaldiak austeko kemena ta biotza.

## II.—JAUNARTZE AUÑEKO TA ONDORENGO OTOITZAK

### *Oarpenak.*

1.—Ondoren jaítzen diran otoitzak ez dute Jaunaítzera dijoanari zerbaitxo bat laguntzea beste asmorik; askoz ohea da ala ere, nor-berak bere biotzetik itzak ateratzea, Jaunarekin jaít-duteko.

2.—Otoitz auek guztiak esateko aukerik ez daukanak, esan bitza Jaunaítu auñeko ta ondo-rengo *egintzak*, «Jesus Gurutziltzatuari» dion otoitza, ta «Eriotz etsipena».

3.—Jaunaítu auñeko - ondorengo otoitzak bi eratara jañi dira.

Bata *laburagoa*,—umeentzat oso egokia, *guziak batean*, toki askotan oi dan bezela, *esan dezaten*.

Bestea *luzeagoa*,—bakoitzak bakafean esateko.

Bietan : sinispen, maitetasun... egintzak jañi dira, ta ona litzake gañera, «Jesus Gurutziltzatuari» esaten zaion otoitza ta «Eriotz etsipenarena» *beti esatea*.

## JAUNARTU AUÑEKO OTOITZAK

### ERA LABURÁ

Goratu Jaunaítu baño len *NOR DAN zuregana datoñen Jauna.*

*Zure Jaun ta Jaungoikoa dezu Zeru-Luñaren Jabea, zure Egilea, zure Eroslea, zure Ongilea ta Maitalea...*

*Eta biotz-biotzez esan :*

### Sinispén-egintza

**N**ERE Jaun eta Jaungoiko guztiz Egizalea! Sinisten det orain aítzera nuan Osti oñetan zure Gorputz, Odol, Gogo (anima) ta Jaungoikotasun ber-bera ematen dizkidazula. Sinisten det, Zeroñek ala esan zenuelako; ta egi au aitortzeañen, mila ta milaka aldiz nere bizia emango nuke.

*Zertara datoñen :*

Zuri esku-betez mesedeak ekaítzera, zure zoriona emen luñean egitera, gero zeruan ere zoriontsu izan zaitezén,



### Itxaropen-egintza

**J**AUNGOIKO zintzoa : Zuk esan zenuen Zugan itxaropena jaítzen duenik ez dala galduko. Zure agindu zintzoan daukat, bada, nere uste osoa ta itxaro det, orain luéan aítzen ba - zaitut, gero zeruan Zurekin bat egiteko zoriona emango didazula.

#### *Zergatik datořen.*

Zuri dizun maitetasunagatik dator, ez Berak zerbait irabaziko duelakoan; zure onak dakař zure biotzera, ez bere irabaziak.

### Maitetasun-egintza

**J**ESUS maitagařia : nigatik gurutzean bizia emateaz gañera, zure Aragi gařbiarekin ni indaítzera zatozkit. Maite zaitut biotz, gogo ta indař guziaz eta eskatzen dizut eman zaidazula zure maitetasunean bizi ta iltzeko zoriona.

#### *Norengana datořen.*

Zure biotzera dator, pekataria: ainbes-tetan pekatu lařiz loitu dezun zure gogo edo animara. Bere etsaia izan zera, ta

ara non datořkizun zure gaiztakeriak aztuta, adizkidetasunezko laztan gozoa beřiro ematera.

### Damuzko-egintza

**E**NE Jaun aundia : zure aunditasunaren aurrean nere ezereztasuna ezaguturik, biotz damutuaz ementxe auspezten naiz zure oñetan. Nola ureratu ninteke ni Zuarťzera, ainbestetan eta ain gogořki nairgabetu ba-zaitut? Ez, ez naiz ontasun aundi ořen jabe egiteko diña; baña ala nai dezun ezkeroz, egin bedi Zuk nai dezuna.

### ERA LUZEA

#### Sinispn - egintza

**Z**ERU-luřen Egile ta Jauna, Jesus gizonen Eroslea : nigana zatoz orain, nere bařenean arťtu bear zaitut laister. ¡Au zorion aundia! ¿Nork sinistu, baño, arřgarizko miragarĩ au egia dala, Zerorek zure aoz esan ez bazendu? Bai, sinisten det, Jauna, sakramentu onetan arťzera noana Zerori zerala. Zerori zera, estalpe batean jaio ziñana, ta gero gurutzean bizia nigatik

eman zenuena. Zeruan zure eskubide ta aunditasunak ageri dituzu; emen Ogi-Ardoaren antzirudipean estalirik zaude zeran guzti ori.

Sinisten det Jauna, nere begiz ikusten banu bezela. Zerorék esan didazulako sinisten det, ta zure itzak pozik agurítzen ditut. Bai, sinisten det nere esku-begiak igarí ez arén, eta nere adimenak (arazoiak) ezin aditu badu ere; ta pozik menderatzen ditut sinistepean nere zentzumenak eta nere adimena.

Sinisten det, Jauna, ta egia dala aitorítzearen, pozik emango nuke zure laguntzarekin, nere bizi ta odola, pozik artuko nuke eriotza, bear balitz, sinismena ta erlijioa aldezteko.

### Apaltasun-egintza

**NOR** naiz, Jaun Altsua, nor naiz, Zeruluén Eregea, zuk Zure begiak nigan jaítzeko? ¿Nondik iritxi zait neri orén zorion aundia, nere Jaungoiko ta Jauna gauí nigan etoítzeko? ¿Nigana, pekatari onengana, ar zikiñ onengana, ezereza baño ezerezagoa naizen onengana dator

Jaungoiko aundia! ¡Aingeruen Ogia jatera noa, Jaungoikoaren Gorputz-Odola artzera! *«Ez, ez naiz ni Zu nigana etortzeko diña»*, ta, izango ere, ez naiz, Jauna, iñoiz ere.

Zeru-luraren Egile, Jabe ta Jauna: ementxe auspezten naiz zure aurrean Zu goratzearen, Zerori sakramentu oretan, nere maitetasunagatik auspezten zeran bezela. Aitoritzen ditut batean, zure aunditasuna, zure neurigabeko almena ta nere ezereztasuna. Batak aritzen banau, besteak ikara aundia ematen dit. Beraz, nere txikitasuna beriro aitoritzen det, ta biotz-baerendik esaten dizut: «Jauna, ez naiz ni Zu nigana etortzeko diña».

### Damu-egintza

**NIGANA** zatoz, Jaun erukior eta on ori, nere obenak nigandik aldendu bear zindutenean...; baño orain, nere Jaungoiko maitea, biotzez gorotatzan ditut danak zure aurrean. Bai, biotz-biotzez damu det, oiek eman dizuten naigabea, eta aritzen det ez iñoiz geyago orelakorik egiteko asmo sendoa. Bañkatu zazkidazu, Aita,

Aita txit maitea. Maite nauzu, ta zugana etoítzeko agintzen didazu. Orain, aitorpenaren bidez, garbi-garbi nago noski; baño garbitu, Jauna, oraindik ere nere barena; kendu bertatik oíban eta zikinkeri apur-txikienak ere; soítu nigan biotz beíbat, eta azkenean, zuri dagokizun bezela ez bada ere, al dedan ondoen arítu zaitzadan beintzat, gogo garbia emaidazu.

### Itxaropen-egintza

**N**IGANA zatoz, gizonen Erosle ta Salbatzaíle maitea : ¿Non, Zugan ez bada, jaíri nezake itxaropena? ¿Nor, Zu bezin ona, nor Zu bezin aberatsa?

Beraz, itxaropenaz beterik natoít zure aitzinera, nere Jauna ta Jaungoikoa, Zure eskubidea bezin aundia bait-da zure maitetasuna, biak neurígabeak bait-dira.

Nere utsune ta beaít guztiak ongi eza-gutzen dituzu : lagundu zaidazu, Jauna, almena ta gogoa ba'dituzu-ta, zure laguntza ta esker-doaiak eskeñi dizkizun ezkeroz.

Nere Jaungoiko maitea : zure auíean nago utsune ta argalkeriz betea, itxua,

elbaña, makal-makala, txit erukaña. Zuk indaítuko nazu, Zuk argituko nazu, Zuk osorik aldatuko nazu. Bai, ziñez sinisten det ala egingo dezula. ¿Ez al zera bada, nere jabe bakaña? Eta biotzean zauzkanari ¿ezer ukatu al zenezaioke?

### Anbrosio Deunaren Otoitza

**Z**URE bazkal-mai gozora natoñ gauñ, Jesukristo nere Jaun maitakoña, ez nerez gauza banintza bezela, zure erukitasun eta maitetasunagan itxaropena jañita baizik. Baño belduñez ta lotsaz natoñ; goñputz-biotza gaiztakeriz loituak bai ditut... eta mingain ta adimena, beñiz, arretaz ez ditut zaitu. Zugana natoñ estutasunez inguratua, Zugana, erukiaren iturburua zeran oñengana; Zugana lenbailen jo nai-det, sendatu nazazun, Zure babesera itzultzen naiz Zuk beti zaitu nazazun. Eta nere Epaikaria (jueza) izango zaitudalako belduñ ba-nauzu ere, nere Eroslea zeralako maite zaitut. Zuri, Jauna, agertzen dizkizut nere zauriak; Zuri nere lotsagañikeri guztiak. Badakit, bai, asko ta aundiak dirala nere obenak, eta belduñ

naiz; baño zure neurí gabeko erukitasun ezin zenbatu añakoak itxaropena ematen dit. Itzuli itzazu nigana zure begi erukitsuak, Jesukristo nere Jauna, Betiko Erege, Jainko ta Gizon, gizonakatik gurtziltzatua. Zugan daukat itxaropena; entzun nazazu; eruki zaitez nere bidegabe ta obenaz. Zu zera iñoiz agoítuko ez dan eruki ituría. Agur, Bildots osasungari, nigatik eta gizon guztiengatik gurtzearen urkamendian eskeñia. Agur, Odol agurgari eder, Jesukristo nere Jaunaren zaurietatik ixurita, gizon guztien obenak garbitu dituzuna. Oroitu zaitez, Jauna, zure eskutik sortua dala gizona, ta zure odolaz bererosi dezula. Naigabe ta min det oker egiña, ta gaizki-egiñak zuzentzeko asmoa daukat. Kendu, Aita txit Erukitsu orek, nere gaiztakeri ta pekatu guztiak, biotz eta gogo garbiz Santuen-Santua artu dezadan, eta egizu (diña ez banaiz ere), orain artzera noan zure Gorputz-Odol santuak nere pekatuak barkatu dizazkidatela, eta nere gaiztakeriak garbitu, gogamen txarat, itzul eragin asmo onak beritu, zure gogozko egikizunak sendotu ta nere gor-

putz-anima zaitu ditzadatela, azkenean etsai guztien ekiñaldiak austeko. Alaxe.

Meza-laguntzaileak apaizaren «*Domine non sum dignus*» entzunda txintxaña jotzen duenean, esan zuk ere iru aldiz :

Jauna, ez naiz ni Zu nere etxean sartzeko diña; baño itz bakañ bat esan eta nere anima sendatuko da.

Gero, itz auek ezpañetan dituzula, zoaz begirune ta itzal aundiaz Jaunaftzera, besoak eta eskuak gurutzatuaz, eta ez zeinbait bezela, eskuak sakelean (patrikaran) dituzula, bazteñ guztietara begira.

### III. JAUNARTU ONDORENGO OTOITZAK

#### ERA LABUÑA

Zaude pixka batean ixil-ixilik, Jauna biotz-biotzean estutzen dezula, ta zure tokian belaunikaturik, ez besterik gogoratu, Jesus zurea dezula baizik. Ixildu bedi mingaña ta itz egin beza zure biotzak. Agurñtu zazu... eskeñak eman... bañka-pena eskatu... zuk daukazun guztia eskeñi... eta batez ere eskatu, eskatu asko, beañ dezun guztia, zuretzat, etxekoentzat, aide, lagun, etsai eta gizon guztientzat; ez aztu Garbitokiko anima efukañien alde ere eskatzea. Esan gero, po-



liki-poliki, ixil-ixilka, Jauna biotz-gañean estutzen dezula :

**D**ilectus meus mihi, et ego illi.

Inveni quem diligit anima mea, tenui eum nec dimittam,

Veniat dilectus in hortum suum, et comedat fructum pomorum suorum.

Nere Jesus gozo laztana, daukadazun maitetasunagatik, gurutze aztuna sorbalda gañean arturik, ainbeste bide neke-tsuetan ibili zerana! Kalbarioko zure oñaze-miñak gaur' emen gogoraturik, nere esker' ona erakutsi nai dizut lenda-bizi, ta bigarren Gure Eliza Amak, eskeñitako barkapen ugariak irabazi, nerezat eta Garbitokiko anima erukarientzat bañan, Zuk gogokoenak dituzun eta zuri geien zor' dizuten anima aientzat batez ere. ¡Lagundu zaidazu, Jauna, bi asmo eder' oiek ongi betetzen!

(Toki batetik bestera zuazela esan):

Sancta Mater istud agas.	Jesus'ek gurutzean
Crucifixi fige pla- gas.	Artutako zauriak
Cordi meo valide.	Ama, josi nerean.

## LENENGO EGONALDIA

**Gure Jesus Maitea iltzea erabaki zutenekoa**

<i>Adoramus te Christe, et benedi- cimus tibi.</i>	<i>Aguñtzen zaitu- gu Jesus ta bedeïn- katzen zaitugu, zu-</i>
--	--

*Quia per sanctam crucem tuam, redemisti mundum.*

*re gurutze santuz, gizona beñerosi dezulako.*

Nere Jesus maitea: ixil-ixilik zaude, juduar lotsagabe-en eta Pilatos'en aurrean, Zu, gizonik zuzenena izan arian, agintari zital orok, zure kaltez bidegabeko epai gogorra ematera dijoanean...

Arian eskatzen dizut Jauna, emaidazula nere arokeria menderatzeko indarra, erbesteko naigabeak pozik eramanez, zerruko zorion ederra nozbait iritxi dezadan. Alaxe. AITA GUREA... AGUR MARIA... AINTZA (GLORIA).

Esan gero :

*Miserere nostri Domine.*

*Miserere nostri.*

*Et fidelium animæ per misericordiam. Dei requiescant in pace.*

*Amen.*

*Eruki zakizkigu, Jauna.*

*Eruki zakizkigu.*

*Eta ildakoen animak, Jainkoaren erukiaz atseden pakea bezate.*

*Alaxe.*

Batetik bestera aldatzean esan gorago bezela: *Sancta Mater...* edo *Bedeinkatuak eta go-*

*retsiak izan bitez Gure Jesus maitearen Nekaldi eriotza, ta bere Amaren atsekabeak. Alaxe.*

### BIGAREN EGONALDIA

**Gure Jesus maiteak gurutzea artu zueneko**

*Adoramus...*

**Z**eru-luren Egile ta Jauna : juduar biurien menpean jafi zera, ainbat neke gogor aien eskuetatik artu-ta-gero gurutze aztuna sorbalda-gañean eramateko...

Aren Jauna: neronek ere gurutzea laztandu dezadala, au da: atsekabe-miñ eta ezbear guziak, biotz onez artu ta eraman ditzadala, gero zeru ederean Zu beti ikusi zaitzadan. Alaxe.

(*Aita Gurea... ta ondoren jafi diran otoitzak lenengo egonaldian bezela; beste guzietan ere olaxe esan oi dira*).

### IRUGAREN EGONALDIA

**Gure Jesus maitearen lenengo erori aldia**

*Adoramus...*

**N**ere Jesus laztana! Lurean etzana ikusten zaitut, gurutzepean guztiz auldu ta

nekatua; ¿Gurutze aztunak, bota ote-zaitu ba luñera, zeru-luñak indartzen dituzun Jaun Altsu ori...? Ez: nere oben (pekatu) lañi ta bidegabekeri aundiak dira; Zu bota zaituztenak orain ezagutzen det bakoitzaren gaiztakeria.

Emaidazu, Jauna, danak biotzez gorotatzeko zure laguntza. Alaxe.

### LAUGAÑEN EGONALDIA

---

**Gure Jesus maiteak Kalbarioko bidean  
bere Ama ikusi zuanekoa**

*Adoramus...*

**A**ndre Maria, amarik erukañiena: bai dala aundia oraingo zure oñazea, Jesus zure Seme laztana txistuz zikindua, zauriz josia, danok iseka-paña egiten diotela ikusiaz! Barkatu Ama; nere bidegabeak jañi dute zure Semea gisa ontan, bañon orain aitoñtzen ditut danak; aurrakoan bestea izango naiz.

Emaidazu, Ama laztana, biotz-damu egi-egizkoa. Alaxe.

## BOSGARREN EGONALDIA

---

**Gure Jesus maiteari gurutzea eramateko laguna eman ziotenekoa**

*Adoramus...*

**N**ere Jesus txit maitea! Gurutzea eramateko laguna aritu dezu, ez laguntza bearian arkitzen zeralako, guri oso aldakorrak, txit aulak eta pekatariak izanik, gure indar utsez ezer ez genezakela erakustegatik baizik.

Emaiguzu, Jaun maitea, guztioi ain bearezkoa zaigun zure laguntza. Alaxe.

## SEIGARREN EGONALDIA

---

**Beronika'k Jesus maiteari arpegia garbitu zionekoa**

*Adoramus...*

**Z**eruko iza argiak, eta eguzki dizdiratsua bañon edera goa zeran, Jesus nere Jauna! ¿nork txistuz loitu du zure arpegi edera...? Neronek pekatari onek, nere gaiztakeri ta obenaz (pekatuaz); bañon damuzko zapi ederaz zure izerdi-loiak orain kendu nai ditut.

Ezañi Jauna, nere biotzean Zure izerdi gozoa, eta ez naiz beñiz Zugandik aldenduko. Alaxe.

## ZAZPIGAÑEN EGONALDIA

**Gure Jesus maitea bigañen aldiz  
erori zanekoa**

*Adoramus...*

Jesus'ek bigañen aldiz luña jotzen du, kristaua: ¿zergatik ote, ezpada, adierazi nai digulako: asmo sendo-beñiak maiz aritu añen, beñiz ere eroriko gerala, bere laguntza eskatzen ez badegu? Zoritxañez alaxen da: amaika aldiz gure biotza eman diogu; bañan baita beste ainbestetan beñiz ukatu ere Pedrok bezela. Zeñen egia dan bere laguntza gabe, ezer ez genezakela.

Emaiguzu Jauna, gure asmo ona guziak indartzeko zure laguntza. Alaxe.

## ZORTZIGAREN EGONALDIA

---

**Gure Jesus maiteak Jerusalengo  
emakumeai itz-egin zienekoa**

*Adoramus...*

**N**egarez ikusten ditu Jesus'ek Jerusalem' go alabak, Bera gurutziltzatzera darama-  
telako; ta erukiz beterik, beren buruai  
negar egiteko esaten die, beren buruai  
eta beren semeai...

Gure baruan daukagu pekatariok zeri  
negar egin: gure obenak (pekatuak),  
gure gaiztakeri ta bidegabeak; ora beti  
negartu bear ditugunak, oiek erakariko  
digute-ta betiko galera, azkengabeko zo-  
ritxaia.

¡Piztu Jauna, gure biotzetan, damuzko  
su-gaia, ta pekatuaganako gooto bizia!  
Alaxe.

## BEDERATZIGAREN EGONALDIA

---

**Gure Jesus maitea irugafen aldiz  
erori zanekoa**

*Adoramus...*

**A**ritzeko ikusgaia! Zeru-luren Egile  
aundia irugarenez lura erortzen da.

¿Naikoa ez ote-zan, ba, bein eta bitan Berak luía jotzea...? Ez: beárezkoa zan, beñero, irugañen aldiz erortzea, guztiok ikasi genezan «gurutzea azkeneraño eraman beañ degula»: au da, beti izango ditugula neke-lanak, oñaze-miñak, ezbeañ eta naigabeak; bañan guztiak biotz-onez eraman beañ ditugula.

¡Emaiguzu, Jaun Maite oñek, gurutzea beti eramateko kemena ta indaía! Alaxe.

#### AMARGAÑEN EGONALDIA

**Gure Jesus maiteari soñekoak  
kendu zizkiotenekoa**

*Adoramus...*

**B**egira zazu, kristaua, Jesus zure Jauna, aingeru lirañak bañon askoz garbiagoa izanik, ortxe bilutsik, bere etsaien aurrean... ¡Zer lotsa, ta zenbateko naibage miña artuko zuen, ain lotsagañero bere burua ikusirik, ainbeste laguneren artean!

Oía nola ordaindu nai izan dituen zure lasaikeri ta loikeriak, zure zabañkeri ta lizunkeri guziak.



¡Emaiguzu, Jauna, biotz - garbitasun  
aundia! Alaxe.

### AMAIKAGAÑEN EGONALDIA

---

**Gure Jesus maitea gurutzean josi  
zutenekoa**

*Adoramus...*

**N**ere Jesus erukitsu maitea: gurutzean  
ezañtzen dituzu zure esku oñak, eta ika-  
ragarizko oñaze - miñekin, ortxe guru-  
tzean josten zaituzte boñero biotz-gogoñ  
oiek... Bañon ¿zer diot boñeroak? Ni  
naiz, Jesus maitea, boñero aundiena; ne-  
ronek josi zaitut or gurutzean, pekatu  
egin dedan bakoitzean.

¡Eñuki nazazu gauñ, Jauna, ta bañkatu  
tzazu nere bidegabekeri guztiak! Alaxe.

### AMABIGAÑEN EGONALDIA

---

**Gure Jesus maitea gurutzean il zanekoa**

*Adoramus...*

**I**karatu zaituz, kristaua, Jesus gurutzean  
zintzilik begiratzean, ikusgaririk aundie-  
na zure begiak orain ikusten dute ta :

Gizon zuzenena gaizkile-lapuñen artean; bildotx otsanena otso amoratuen erdian; Jaungoikoaren Semea, ta bera bezela Jaungoikoa, bere etsaien eskuekuetan, gurutzean josia odola dariola... Oñra zure pekatuen ordaña.

¡Aguñtzen zaitugu, Kristo gure Jauna, ta bedeinkatzen zaitugu, zuk zure gurutze santuaz, ber-erosi gaituzulako! Alaxe.

#### AMAIRUGAREN EGONALDIA

**Gure Jesus maitearen gorputza bere**

**Amaren besoetan jañi zutenekoa.**

*Adoramus...*

**S**amintasunezko Ama naigabetsua! ¿Nork neuñtu zure oñazeak, Jesus zure Seme laztana zure besoetan ilik ikusten dezula? Ama erukitsu maitea : zure naigabea añako biotz damua nai nuke, nere pekatuak goñotatzeko : oiek eraildute-ta zure Seme laztana!

¡Iritxi zadazu, esker edo grazi berezi au! Biotzez eskatzen dizut! Alaxe.

## AMALAUĞAŘEN EGONALDIA

---

**Gure Jesus maitearen gorputza  
obiratu zutenekoa.**

*Adoramus...*

**B**egira zazu azkenean, kristaua, Jesus-en gorputz ila jaři duten obia; obi beřia da, arkaitzean zulatua, ta aři lodi batek ixten du bere sařera. Zure biotzak ere, obi beřia beař du izan, Jesus ez beste iņor gordeko ez duena. Sařerako ařiak, biotz ori ardura aundiaz zaitu beař dezula esan nai dizu, Jesusen etsaiak, bertan sařtu ez ditezen, berak egin dizkizun eskeř-doaiak lapuřtzera.

¡Andre Maria! Nere Ama! Emaidazu zure Seme ta nere Erosle maiteaganako, maitetasun sutua. Alaxe.

## JESUKRISTOREN BOST ZAURIAl

---

*(Xabieř-tař Prantzisko Deunak egin oi zuen otoitza).*

**N**ere Jaun ta Jaungoiko Jesukristo : gugganako maitetasunak gurutzean iriki zizkizun bost zauriagatik, eta gurutzeko

bidean izan zenituen beste ezin zenbatu ala gorputz-urátze minbereakgatik, eskatzen dizugu: zure ordain aundiko odol eder orek gaitzgabetugaituan guziok, zure erukia, zure laguntza, ta betiko zoriona iritxi dezagula.

(5 Aita gure, Agur Maria ta Gloria, ta beste bat azkenean Aita Santuaren alde).

Gero :

*Adoramus te, Christi, et benedicimus tibi,*

*Quia per sanctam crucem tuam, redemisti mundum.*

*Oremus*

Respice quæsumus Domine, super hanc familiam tuam, pro qua Dominus noster Jesus Christus non dubitavit manibus tradi nocentium et crucis subire tormentum. Qui tecum vivit et regnat, in unitate Spiritus Sancti Deus, per omnia sæcula sæculorum. Amen.

*Jesus Gurutziltzatuaren bost*

*Zauriai Agurak.*

(Gorago jañi dan otoitzaren ordez, beste au esan leike, Gurutz-bidea bukatzeko).

*Ezkerreko-oñeko zauriari :*

Biotzez guritzen zaitut, nere Jesusen zauri eder ori, eta eskatzen dizut, añen, nere ibilera gaiztoz egindako pekatu guztien barkapena. (*Aita gurea, Agur Maria, Gloria*).

*Eskuiko oñeko zauriari :*

Biotzez guritzen zaitut nere Jesusen zauri eder ori, eta eskatzen dizut, añen, nere itz ta egintza gaiztozko pekatu guztien barkapena. (*Aita gurea, Agur Maria, Gloria*).

*Ezkerreko eskuko zauriari :*

Biotzez guritzen zaitut, nere Jesusen zauri eder ori, eta eskatzen dizut, añen, nere begi ta beste zentzunez egindako pekatu guztien barkapena. (*Aita gurea...*)

*Eskuiko eskuko zauriari :*

Biotzez guritzen zaitut, nere Jesusen zauri eder ori, eta eskatzen dizut, añen, nere oroimen, adimen, ta naimenaz (borondatez) egindako pekatu guztien barkapena. (*Aita gurea...*)

*Saietseko zauriari :*

Biotzez guñtzen det, Jesus, zure saietseko zauri eder ori, eta beragatik eskatzen dizut Jauna : zure Biotza aztamakil gogoñak eta zure Amarena ezpata zoñotzak josi zuen bezela, zure maitetasunak nere anima josi dezala. (*Aita gurea...*)

(Beste *Aita gure*, *Aguñ Maria* ta *Gloria*, Aita Santuaren alde).

## LEZOKO - KRISTO DEUNARI

Gure asaba zañak, euskaldun leñargi prestuak, oso *Gurutze-Deunaren* zaleak zirala gauza agiria da; gure Euskal-Eñiko mendi-tontor eta gañuñetara begiratuta, nonnai gurutze ederak agiri dira : Urkabe, Guadalupe, Igeldo, Ernio, Gorbea... eta beste amaika ta amaika, bata beste bañon aundi ta ederagoak.

Bañan, oiek guziak bañon entzute aundiagoa dauka *Lezoko Gurutze Deunak*. Lezoko Gurutze Santua Euskal-Eñi guztian antziña-antziñatik ezaguna da; bertara etoñtzen dira, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Napañoa ta Bidasoz andiko euskaldunak. Gurutze ori, noiztik dagon, ta nondik etofia dan ondo-ondo iñork ez daki. Bartzuek diote, Bayonako gotzai ta martiri Leon santuaren egunetan ekañia dala.

Bañon, noiz eta nola Lezoko Gurutze santua

etofí zaigun ezpadakigu ere, ongi bañon obeto dakiguna da : Lezoko Gurutze santuak, mesede gaztiz aundiak erakafi dizkiola Euskal - Eñiari eta antziña Jesusek, lufean zebilela, itxuak ar-gitu, gofen belafiak idiki, izge edo mutuen mingañak askatu, ta elbafiak zutindu zituen bezela, Lezon ere, oien antzeko amaika mirari eder egin izan dituela.

Piztu dezagun ba, euskaldun onak, Lezoko Gurutze Deunaganako jayera bizia eta maitetasun sutua : Lezon daukagu Euskaldunok, urutira joan gabe gure sendagai bakafá : *Kristo Gure Jaun Gurutziltzatua.*

**Eresia** (Ormaetxea-rena)

*Lezon daukagu, euskaldun onak*

*Gure sendagai bakafá*

*Kristo gure Jaun Gurutzetua,*

*Jaungoikoaren indafá.*

1

(Venite ad me...)

Gaitzak makuñturik

zauzkana,

naigabe eta neke

zerana:

atoz biotz ar-giz

nigana,

arinduko dizut

min-lana.

2

(Surdi audiunt...)

Goñak emen dira

er-netzen,

baita itxuak ere

ar-gitzen,

elbari zeudenak

zutitzen,

legendunak beriz

garbitzen.

3	4
(applicatio)	(petitio)
Emen gaiztakeri laña laxter gelditzen da garbia; baita biotz epel nagia Kristoren maitean Goria.	Beso zabal zaude Jainko ori, ageri ditezu bost zauri : beraz on bazaigu, ixuri osasun laguntzak ugari.

### JESUS GURUTZILTZATUARI

#### Otoitza

**A**ntziña-antziñatik, Lezon, euskaldunok gurutzen zaitugun Jesus gurutziltzatu maitea! Nik orain daukadan bezelako bear asko estali dituzu eruki aundiz zuk zure gurutze ortatik. Lagundu diezun guzti oiei bezin gozoro, esaten didazu neri ere : *eskatu ta artuko dezu*; itz auek entzunda, bada, zure Irudi edeñaren aurrean auspezten naiz, uste osoz beteta; besteentzat zabaldua dauzkazun biotzesku oiek, zabaldu itzazu neretzat ere gaur Jauna; entzun nere eskaria (*jañi emen eskatu nai dezuna*); osatu nere beaña. Alaxe.



(Aita Santu Pio V gañenaren Otoitza — 60 eguneko bar-kapenak bakoitzean).

(Jesukristo Gurutziltzatuaren irudi aurrean be-launikaturik esan biotz-biotzez):

Jesu-Kristo nere Jaun gurutziltzatu,  
Andre Maria Birjiñ Doatsuaren Seme  
txit maitea! Idiki itzazu zure belarriak, ta  
entzun zadazu, zeruko zure Aitari Tabor  
mendian entzun zenion bezela. (Kredoa  
esan: *Sinisten det...*)

2) Jesu-Kristo nere Jaun gurutziltza-  
tua, Andre Maria Birjiñ Doatsuaren  
Seme txit maitea! Zabaldu itzazu zure  
begiak eta begira nazazu, zure Ama txit  
maite naigabetsu ta saminduari, guru-  
tzetik begiratu zenion bezela. (*Sinisten  
det...*)

3) Jesu-Kristo nere Jaun gurutziltza-  
tua, Andre Maria Birjiñ Doatsuaren  
Seme txit maitea! Zabaldu ezazu zure ao  
bedeinkatua eta itz egin zadazu, Juan  
santuari itz egin zenion bezela, zure  
Ama maiteari semetzat eman zenionean.

4) Jesu-Kristo nere Jaun gurutziltza-  
tua, Andre Maria Birjiñ Doatsuaren  
Seme txit laztana! Zabaldu itzazu zure  
besoak ni laztantzeko, gurutzeean gizadi

osoa laztantzeko zabaldu ta luzatu zenituen bezela. (*Sinisten det...*)


5) Jesu-Kristo nere Jaun gurutziltzaitua, Andre Maria Birjiñ Doatsuaren Seme txit laztana! Idiki ezazu zure biotza, artu ezazu nere a ta entzun nere eskeñiak, zure gogo santuak ala nait badu. (*Sinisten det...*)

Ondoren esan :

«Aita Betikoa : Jesukristoren odol agurgarria eskeintzen dizut, nere obenen ordanaz, ta beste gure Eliza-Amaren beařetarako». (100 eguneko bakkapenak).

(Eskatu emen zuretzat, zure aidientzat, ta gure Euskal-Eři maitearentzat).





## SAKRAMENTU GUZTIZ DEUNARI IKEÑALDIA

### Safera

Biotzez alkar maite duten lagunak, ez dute poz-atsegiñ aundiagorik artzen elkar-ikustea baña, eta onela ikusten ditugu, noiz elkar arkituko duten aitzeki biñ dabiltzala beti.

Jesus gure Jauna biotzez maite badegu, ez itzez ta mingañez bakañik, ez degu egun bakañ bat ere utziko Bera ikusi gabe.

¿Zer? ¿Astirik ez dezula diozu? ¿Egun oso-luzean, ordu laurden bat bederen izango ez dezuz, Jesus zure laguna ikustera joateko?

Agian, ezin elizara joango zera: bañon etxean bertan, baseñian mendi-txabolan, gogoz eta biotzez elizara joan ziñezke, Jesus agurtu zenezake, Berakin jañdunean egon ziñezke.

¡Añen, eskeñi zaiozu, kristaua, egunean ordu laurdentxo bat, Bera aztuta bizi diran ainbat eta ainbaten izenean eta ordañaz. Eskeñ-mesede ugarienak irabaziko dituzuz gañera.

### Asierako otoitza

**J**esu-Kristo nere Jaun maitea, maite gaituzulako, gau ta egun bakañ-bakañik aldarean gordeta zaudena, gu noiz etorriko geran zai! Aguritzen zaitut, eta siñisten det, emen aldarean zaudela, bizi-bizirik, egi-egiaz. Lendabizi gurtu nai zaitut, Jaungoiko aundia, zure aitzinean auspez jañirik, nere ezereza ezagutzen dedala. Eskeñak damazkizut gañera, gaurdaño egin dizkidazun, eta aurera-koan egingo dizkidazun mesede guzi-guziez; bañon batezere emen aldarean nigatik gelditu zeralako; zure oñetara deitu nazulako; Andre Maria, zure Ama berbera, Amatzat eman didazulako.

Bai, aguritzen zaitut Jaun maitea; aguritzen det orobat zure biotz gurgaña; eta gauñ zure aurera natoñela, iru asmo bete nai ditut:

*Lenengoa:* Bidezko eskeñak, eskeñ ugariak eman nai dizkizut gure artean, gure aldamenean, gurekin batean gelditu zeralako.

*Urñen:* Emen zure etxe-ontan eta batezere aldareko sakramentuan, iñoiz

egin zaizkizun irain guzi-guziak ordaindu nai ditut.

*Eta azkenean:* Zu aztuta bizi diran ran gizon guzien (eta batezere nere aide ta lagunen) tokia bete nai det aien ordezt, aien izenean esker-agurak Zuri emanaz.

¡Nere Jaun laztan maitea! Biotz-biotzez maite zaitut; damu det, ainbestetan zure biotza mindua, ta asmo sendo beria artzen det, ez beriz inoiz obenik (pekatirik) egiteko; nere gogo ta biotza, nere oroimen ta borondatea (naimena), ni naitzen eta al dedan guzia, Zureak dituzu. Zure maitetasuna. Bakar bakarrik nai dei nik neretzat; eta il arteraño zure maitetasunean irautea besterik ez dizut eskatzen. Eruki itzazu, Jauna, Garbitokiko anima goxoak; eruki itzazu pekatariak: aientzat eta oien alde eskeintzen dizkit, Aita Jaungoikoa, nere irabazi apurak, zure Semearen irabazi neurigabekoekin batean: artzazu, Jaungoiko aundia, nere oparia, ta ordañez emaidazu Zuganako maitetasun bizi sutua. Alaxe.

## Gogapenak

*Deliciæ meæ esse cum filiis hominum.*  
*Gizonen umiekin dauzkat nere atsegi-*  
*ñak.*

**I**karatu zaitez kristaua! Jaungoiko berberak dio, gizonen umiekin dauzkala bere atsegiñak. Ez zan naikoa noski, bere odol agurgarri guzia gugatik gurtzean ixurtzea, bere bizitza gugatik ematea; oraindik zerbaít geigo utzi nai izan digu, eta aldareko kutxan, gure artean, gurekin batean gelditu da.

¿Eskeřgaixtoko gizona, digu Teresa Deunak, ainbeste maite zaitun Jauna zure gaiztakeriaz naigabetuko dezu? ¿Neurigabeko onginaia Berak erakusten dizularik, zuk iraindu egingo dezu? ¿Zer, zeruko Jaun aundiak gurekin dauzka atsegiñak, eta guk bakar-bakarikan utziko degu? Zorionekoak deritzazkigu, eregeak bere etxera, bere maira deitzen ditun lagunak: baña ¿ez al gera amaika aldiz zoriontsuagoak, gu kristauok, zeru-luřen Erege beti gure artean degula?

¡Nere Jaungoiko maitea! Oraintxe na-

tor zure oñetara, gau ta egun gordeta zauden zure aldare aurera. Zu zera ontasun guzien iturburua, gaitz guzien osagilea, bearean daudenen aberastasuna, malkurik arkitzen diranen indarra. Emen naukazu, gizon guztietan beartsuen ta makalena naizenau. Eruki izan nazazu, Jauna! Aundiak dira, egia da, nere utsegite ta bidegabekeriak; bañan zure azken-gabe-ko erukia gogarturik, uste-onez beterik natozkizu, Jauna.

Aguñtzen zaitut, bedeinkatzen zaitut, maite zaitut nere Jaun eta Ongilea: eta azkenean, mesede auxe ausarkiro eskatuko dizut: emaidazu, Jauna, beñero ez iñoiz Zure biotza pekatuaz naigabetzeko eta zure maitetasunean beti irauteko laguntza: Bai, maite zaitut, Jauna, eta maite nai zaitut orain, nere bizibide labur-ean, eta gero betikotasun osoan zeruan.

### Gogozko Jaun-añtzea

**N**ere Jesus laztan-maitea! Ben-benetan sinisten det, Mai-aldareko Sakramentu gurgarri ontan, ogiaren antz-irudipean, gorderik zaudela: aguñtzen zaitut, nere

Jaungoikoa; eta maite ta gogo zaitut; bañon orain nere bañenean ezin arñtu zaitudan ezkerro, atoz gogoz beintzat nere biotzera; bertan bazeunde bezela laztantzzen zaitut, Jauna, eta zurekin bat egin nai det beti. ¡Iññoiz ez al naiz geigo Zuingandik aldenduko!

(Zaude piñin batean ixilik, eta eskatu Jaunari beañezkoak dituzun mesedeak).

## JESUS SAKRAMENTUARI BOST IKUSTALDI

### Lenengo ikustaldia

**A**guñtu dezagun Jesus Sakramentatua, ezkutu agurñari au ipiñi zuelako eskeñak emateko.

Auspezturik agurñtzen zaitut, Jesus'en Biotz maitagarñi ori, Sakramentu agurñgarñi oñetan; eta eskeñak ematen dizkizut mirari guztien laburñpen eta guganako berarizko agerbide au asmatu dezulako. Baña eten gabe eskeñak ematen egoteko, dei egiten diet zeruko zoriondun ta luñeko zuzen guztiei, nere biotz-berotasunak ayenakin, batu eta betiraun-osoan



gogo-garitsuz zu goratzen jardun dezagun.

Baita agurtzen zaitut, sinisgabeko ta kristau gaiztoengandik artzen dituzun iraiñak nolabait ordaintzeko ere : batez ere ainbeste sagraiotan bakarrik utziaz egiten dizkitzuten eskergabekeri ta aztutzeagatik. Guzti - guztietan emenditxek apalki agurtzen zaitut, baturik nere oparixuak santurik zintzoenen ta zure Biotza geyen maite dutenen zaletasun eta berotasunik aundienekin. Artu, nere Jesus maite orek, nere eskari garitsuak, emen lurrean gure maitetasunagatik sakramentaturik agurtu ondoren onetsi (beinkatu) ta goratu zaitzadan gero bertiraunean. Olaxe.

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

### Bigafen ikustaldia

**A**gurtu dezagun Jesus Sakramentatua, ainbeste bider artu degulako, zenbatu ezin ala on guganatuaz.

¡Nere animaren Salbatzaile, Jesusen Biotz guztiz biguñā! Neurigabeko eskerak ematen dizkitzut zure eskutik artu di-

tudan on guztiagatik, eta batez ere ainbeste bidei nere barura etoñi zeralako, zure erukitasunak eskuak betean emanaz eta zure Biotz gozoko ugaritasunak iñoiz ere agoñtu gabe. Ortitxek bialtzen dizkidazu beti ainbeste argitasun eta biotz-ikutze, ni zure maitetasunaren uztañi biguñera erakañtzeko. Emen naukazu, ba, auspezturik zure oñetan. Zure asmo maitetsuei ez diet emendik auñera gogorik egin nai. Zuk bakañik agindu zazu; izan zaite zu bakañik gure biotzetan nagusi. Guztiok ezagutu ta maitatu nai zaitugu, eta zure Jainkozko Biotzaren onegiñei guztiok erantzun nai diegu emen guztiok maitetu ta onetsi zaitzagan gero beti zeruan. Olaxe.

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

### Irugañen ikustaldia

**A**guñtu dezagun Jesus'en Biotza, sinisgabeko ta siniste-ausle edo erejeengandik artzen dituan iraiñen ordañez.

¡Ziñestauslien biurikeri ta itxutasunez Sakramentu agurñari oñetan eten gabe iraindua zauden Jesus'en Biotz guztiz

maitegarí ori! nere biotzeko indartxo guztiaz agurtzen zaitut, eta ainbeste iraiñen ordaingarirako, dei egiten diet zeruko zoriondunei beren gorapenez gizonen irain eta eskergaberiak ordaindu ditzaten. Biltzen ditut nere gurari epelak aingeru-sutsuen maitetasun goriarekin, zure maitetasun aintzafartugabekoa iraingetu, ta nere bizitzako une guztietan au onetsi ta zorionak zuri ematen egoteko. Egizu, Jauna, gizon guztien biotzak goratu zaitzatela ta batu ditzatela beren gorapenak aingeru, zorioneko, ta zure Ama guztiz santuaren biotz garbi-garbiak ematen dizkizutenakin. Azkenez, Sakramentuko Jaun gorengo ori, zu zere Jaungoikoaren gorapenaren ordaintzalea-ta, zu izango zera ainbeste iraiñen ordainpide egokia ere. Artu, betiko Aita on orek, nere eskari apalak, zure Seme Bakañaren Biotzak zuzentzen dizkitzuna-kin batean. Bera da Zurekin eta Espiritu Santuarekin gizaldien gizaldietan bizi ta agintari. Olaxe.

*(Aita gurea, Agur' Maria ta Gloria..)*

### Laugarren ikustaldia

**A**guitu dezagun Jesus Sakramentatua, zinestdunengandik artzen dituan lotsagabekeri ta donauste edo sakrilejioen ordain-bidetzat.

Ona emen ni, Jesus maitearen Biotz santua, miñez jauzi-ta zure aunditasun gorengoaren aurrean; min det benetan ainbestek, pekatu aztunean artuaz egiten dizuten irain ikaragarria, Juduaeren gaiztakeri ta Judas 'en saldukeria beritzen bait-dituzte.

Azpiratu ezazu, nere Jesus, zure erukitasunaz, ainbeste eskergabeko biotzen gogorkeri itsua: argitu zaiezu ta erakari itzazu zure maitetasunera, zu zera-ta sendatzalea, artzaya eta aita-maitetsua: ta ez utzi emendik aurrea inori pekatu aztunean zu sakramentaturik artzera ureratzen.

Zure Biotz gozo-gozo ta zure Ama maitetsuaeren eskatzen dizut, Esker auxe egin zadazu lurrean eta baita zeruan zu ikusi ta goratzea ere. Olaxe.

*(Aita gurea...)*

**Bosgarren ikustaldia**

**A**guítu dezagun luéko eliza guzietan ain azturik, ain txarki arturik eta ain gutxitan ikertu edo bixitaturik dagon Jesus sakramentatua.

Gure maitetasunez gau ta egun, bene-benetan ostia deun oretan egon aren, ain azturik zauzkatela ikusirik, Jesus'en biotz guztiz maitagarí ori, nai ziñuket ikertu sakramentaturik zauden luéko eliza guztietan, eta eskeiñi zuri oparitzat gizon guztien biotzak, eta batu nere alegin ezerezak anima beroak, luñian, eta zorionekoak zeruan egiten dizkitzuten agur eta eskeintza ederekin. Oraintxe ezagutzen det zure neurígabeko eraman-kizun edo pazientzia : damututa nago mila bider nik ere zu Jesus'en Biotz erukioñ ori aztu ta irainduta euki izana. Emaidazu gaurtik aurera garitsu, zintzo, ta asperitu gabe zu maitatzeko laguniza. Argitu, Jauna, nere adimena, garitu nere naimena, garbitu nere biotza, ta emai-guzu neri ta gizon guztiei benetako oneraspina Jainkozko sakramentu au itzalik aundienaz aguritzeko, berau da-ta lagun-

tza guztien gordeleku ta iturria. Onelaxe itxaroten det zure ontasun eta erukitasun amaigabekoaren gandik zeruan betiraun guztian zu goratu ta aundiesteko.

Eta zuk, Andrea, Jaungoikoaren eta nere Ama maite orek, zure Biotz guztiz gozoaren garbitasun eta santutasunagatik, iritxi zaidazu, aeren, zure seme maite Jesus'en Biotzaganako oneraspen benetakoa ta iraunkorra, berarekin estu - estu baturik bete ditzadan, bear bezela, nere egin bearak, eta egin biotzeko poz eta gozotasunaz, beti (baño batez ere il onetan) bere Biotz guztiz bigun erukioaren aginduak. Olaxe.

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

#### **Otoitz laburra**

*Bone Pastor, panis vere, Jesu, nostri miserere.*

*Artzai ona, Ogi bizia, Jesus, nitzaz eruki.*

#### **Andre Mariari Gogapenak**

**A**ndre Maria nere Ama maite, guztiz garbia : Zugana nato orain, Jaungoikoaren Ama, gure eregiña ta pekatari

eŕukaŕien itxaropen eta iges-lekua. Zure oñetara natoŕ, ni pekatari aundiau, ora-indaño egin dizkidazun, eta auŕerakoan egingo dizkidazun, ainbat eta ainbat mesedegatik nere eskeŕ ona Zuri era-kustera. Maite zaitut, Ama laztana, eta zure Seme on izan nai det beti, bai beti; zure babesean aŕtu nazazu ba, Ama eŕu-kitsu maite oŕek; eta eskatu ezaiozu nere alde Jesus zure Semeari, beraganako maitetasuna egunean-egunean nere bio-tzean ugaritu dedin, gero betiraunde osoan, zeru goi-edeŕean ikusi dezadan. Alaxe.

### **Bernardo Deunaren Otoitza**

(300 eguneko baŕkapenak bakoitzean, osoa ilean)

#### *(Memorare)*

**O**roitu zaitetz, Birjiña Maria guztiz Eŕu-kioŕ ori; iñoiz entzun eztala: laguntza gabe utzi dezula iñor Zugana etoŕita, zure laguntasuna eskatu duanik. Itxaropen onekin sendoturik, Zugana natoŕ laisterka. Zure auŕean nago negaŕez. ¡Seme Jaungoikoaren Ama! ez entzungoŕik egin nere eskariai, baizikan entzun itzazu ta abegi ona egin zaiezu. Alaxe.

### Jose Doatsuari

Iru aldiz esan :

Jose doatsua, nere Zaindari eztitsu maitea, nitzaz erukitu.

### IÑAUTERIAK

Ikaragañiak dira, egun auetan, Jesus gure Jaun ta Jaungoiko maiteari egiten zaizkion iraiñaz : ez bere etsaiak bakarik, baita bere lagun ber-berak ere, baita bere maian exeritzen diranak ere, baita bere Gorputz-Odolaz alikatzen (mantentzen) diranak, ere, or ibili oi dira txoroen gisa loikerizko jai-aldi auetan; ba'dirudi aztuta daudela kristauak dirala, Kristoren semeak dirala, ta Kristoren jañaitzañeak, eta Berak bezela gurutzea sorbalda gañean eraman beař lutekenak.

Bañon ainbat eta ainbatek egun auetan. Jesusen Biotza mintzen badute ere, ba'dira baita kristauen artean, Biotz ori pozez betetzen dutenak ere, eta zenbat eta geiago gaiztoak naigabetzen duten, ainbat eta geiago sayatzen diranak ura atsegin-pozez betetzen. Bildu zaitez auekin kristau ona, ta iru egun auetan zoaz al dezun maizen elizara, Jaun Agiria ikeřtzera, ta egiten zaizkion iraiñ-pekatuak zure aldetik ordaintzera.

Ona emen egun oetako otoitz egoki batzuek :



### Damu-egintza

Jesukristo nere Jaun maitea : Ba'dakit pekatuak (obenak) aseřetzen zaituna ta oben-neke edo penitentziak zure aseřea austen duana; entzun ezazu gaur gure otoitza : eřuki ta barkapen eske gatoz eta, barkatu, zure neurigabeko eřukiaz, gure gaiztakeri guzti-guztiak. Ařen eskatzen dizugu, guretzat eta batezere zuegan-dik urun bizi diranentzat gořoto dizute-  
nentzat, pekatari guztientzat.

Gure gaiztakeriagatik ta gure guraso, senide, lagun, eta etsaien pekatuakga-  
tik (obenagatik).

*Eřuki zakizkigu, Jauna. (1)*

Gure ařokeri, aseře, gořoto ta biotz-  
gogořkeriagatik.

*Eřuki zakizkigu, Jauna.*

Gure zikoizkeri, lapuřeta, diru-onda-  
tze, ta apaintasun geiegizkoagatik.

*Eřuki zakizkigu, Jauna.*

Gure lasaikeri, jařdun loi ta aragizko  
beste oben guziagatik.

*Eřuki zakizkigu, Jauna.*

(1) Itz auek denak erantzungo dituzte).

Zinema ta antzokietan (teatruetan) egin oi diran pekatuakgatik eta ainbeste lasaikeri, irudi lizun, eta dantza-nastu zikiñagatik.

*Eruki zakizkigu, Jauna.*

Seme-alabak azitzeko gurasoen za-  
barikeriagatik, ta aien lotsagabekeria-  
gatik.

*Eruki zakizkigu, Jauna.*

Kristau nagien epeltasunagatik eta  
nork-zer-esanaren bildurtiengatik, eta  
siñisgogorekoen lotsagabekeriagatik.

*Eruki zakizkigu, Jauna.*

Kalietan entzun oi diran birauakgatik  
(blasfemiak) eta eguneroko paper ta  
liburuetan, jaítzen diranengatik.

*Eruki zakizkigu, Jauna.*

Jai-egunak gordegabez, eta elizetan  
egiten diran pekatuagatik.

*Eruki zakizkigu, Jauna.*

Masoi ta dongeak, Aita Santuari, gure  
Eliza-Amari, ta Jesukristo gure Jaunari  
dioten goñotoagatik.

*Eruki zakizkigu, Jauna.*

Jauna, aztu itzazu gure pekatuak.

*Barkatu gure bidegabekeriak.*

### Otoitza

**E**ntzun, Jauna, gure otoiza, Erúkiór'a zera-ta eta beti barkapen-zalea; barkatu gaur gure pekatuak (obenak) eta gizon guztiak egiten dizkizutenak, Jesukristo zure Semearen izenean. Alaxe.

### Birauen Ordezko Gorapenak

(Jaun Agiria aldare kutxan sartu bañon len esan beař dira, belauniko bere aurrean)

**B**edeinkatua izan bedi Jainkoa.

Bedeinkatua izan bedi bere Izen Donea.

Bedeinkatua izan bedi Jesukristo, egizko Jainko ta egizko gizona.

Bedeinkatua izan bedi Jesusen Izena.

Bedeinkatua izan bedi bere Biotz Jaungoikozkoa.

Bedeinkatua izan bedi Aldareko Sakramentu guztiz Donea.

Bedeinkatua izan bedi bere Sořtze Done ta Erugabea.

Bedeinkatua izan bedi Birjin ta Ama Maria'ren Izena.

Bedeinkatua izan bedi bere Ezkontide guztiz garbi Jose Donea.

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa bere  
Aingeru ta Santuetan.

(Nai danean otoitz au esanda, aldiro urtebeteko barka-  
pena irabazi leike.—Pio VII g. 1801.—Uztail 23 a.)

### JAUNAREN ONESPENA EGITEKO ERA

Jauna agirian jartzen danean : *O salularis...  
Pange lingua...* edo oien antzeko beste eresiren  
bat abestu oi da.

*Ur̄en* : Egoki litzake *Tu es Petrus...* edo *Ore-  
mus pro Pontifice*, ondoren jartzen diran bezela,  
abestea.

### *Pro Summo Pontifice*

ÿ. Orémus pro Pontífice nóstro N...

Ŕ. Dóminus consérvet eum, et vivífi-  
cet éum et beátum fáciat éum in térra,  
et non trádat éum in ánimam ínimicórum  
éjus.

ÿ. Fíat mánus túa super vírum déxte-  
ræ tuæ.

Ŕ. Et supra fílium hominis quem con-  
firmásti tibi.

### Oremus

Deus, omnium fidélium pastor ei rec-  
tor, fámulum tuum N. quem pastórem

Ecclésiæ tuæ præesse voluisti, propitius respice: da ei quæsumus, verbo et exemplo, quibus præest proficere; ut ad vitam una cum grege sibi crédito, perveniat sempiternam. Per Christum...

Gero: *Tantun ergo...* liburu onen azkenean dagoan lez.

Ÿ. Panem de cælo præstitisti eis. (T. P. Alleluia.)

Ŕ. Omne delectamentum in se habentem. (T. P. Alleluia.)

### Oremus

Deus, qui nobis sub Sacramento mirabili passionis tuæ memoriam reliquisti: tribue, quæsumus, ita nos Corporis et Sanguinis tui sacra mysteria venerari, ut redemptionis tuæ fructum in nobis jugiter sentiamus. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum. Ŕ. Amén.

## SAKRAMENTU GUZTIZ DEUNA

## IKERTZEAGAKIK BAŔKAPENAK

### 1. Aratoste edo iñauterietan :

BaŔkapen osoa, aitoŕtu, Jaunaŕtu ta Aita Santuaren alde otoitz eginda, Jaun agiriaren aŕfean.

*Befogei orduko otoitzak egin oi diran elizetan baŔkapen osoa len bezela.*

**3. Ostegun eta ostiral Deunetan :**

Barkapen osoa altoftu ta Jaunaftu ta ostegun deunean edo Piztuera (Pazkoa) jaialdian, monumentu aufean Aita Santuaren alde otoltz eginda.

**4. Sakramentu Guztiz Deunari** egiten zaion ikerpen bakoitzagatik, baita gordea dagoela ere: 300 eguneko barkapenak, 5 Aita Gure, Agur Maria ta beste bat Gloriakin, Aita Santuaren izenean esanda.





## JESUSEN BIOTZAGANAKO ERASPENA

1. *Maitetasunak maitetasuna eskatzen du,* ta ongi-nai neufigabeak, maitetasun oso aundia. Jaungoikoaren Semeak guztioi digun maitetasun aundiaren ezaugaritzat, bere Biotza erakusten digu, sugañez inguratua: bere Biotza eskeintzen digu, bañon gurea beretzat izan dezan; bere maitetasuna azaltzen digu, guk ere gurea eman dizaiogun. Oña ba : maitetasunari, maitetasuna erantzun beař zaio, ta au da Jesusen Biotzaganako jayera, eraspen edo debozioa: Berak biotz-osoaz maite gaituen bezela, guk ere Bera biotzez, maite izatea, ainbeste maite gaituen bere Biotz agurģařia gora-goratzea.

2. *Bañon Jesusen Biotzaren maitetasuna* ez da nolanaikoa: gurutze bat biotz-erdian daukala agiri zaigu; ez bait-dute askok eta askok, gizonen ařtean, ain maitetasun aundia ezertan ařtzen, askok eta askok ukatu egiten bait dute Jesus; oña zergatik, Jesusen Biotza maite degunok, agitz sayatu beař geran gizon oien esker-gabekeria, gure maitetasun sutsuaz osatu, ta

ordaintzen. Maita dezagun beraz, Jesusen Biotz agurgarri edera.

Maita dezagun biotz biotzez, kristau epel-nagian eskergaiztoa ordaintzeko. «Ez gaitezela euskaldunak izan Jesusen-Biotzaren maitatzaile txikienak». (*Aita Mendiburu*).

### Amabi eskeintzak

1.<sup>a</sup> Beren bizibidean beaŕ dituzten laguntasun guztiak, Nik emango dizkiet.

2.<sup>a</sup> Beren sendi edo familietan, Nik pakea zabalduko det.

3.<sup>a</sup> Atsekabe guztietan, Nik alaituko ditut.

4.<sup>a</sup> Bizitzan eta batezere eriotz-aldian, Ni izango naiz beren igesleku ta estalpea.

5.<sup>a</sup> Beren egikizun guztietan Nik bedeinkatu ta lagunduko ditut.

6.<sup>a</sup> Pekatariak erukizko itxaso-baztergabea nere Biotzean arkituko dute.

7.<sup>a</sup> Kristau epelak Nik berotuko ditut.

8.<sup>a</sup> Beroak, nere maitetasunean Nik irazekiko ditut.

9.<sup>a</sup> Apaizai, biotz gogoŕenak biguntzeko doaia Nik emango diet.

10.<sup>a</sup> Nere Biotz-irudia agirian jaŕiko duten etxeak Nik bedeinkatuko ditut.

11.<sup>a</sup> Nere biotzaganako maitetasuna zabalduko duten guztien izenak nere Biotzean ezaŕita gordeko ditut.

12.<sup>a</sup> Ilaren ienengo bederatzi ostiraletan jaŕaiturik, jaunaŕtuko duten guztiei, neuriz gañezko nere Biotzaren erukiak auxe ezkeintzen die:



ez dirala ilko nere aseñean, ezta elizakoak aritu gabe ere.

### Gertrudis deunaren otoitza

**A**guñ, maite zaitudan Jesusen Biotza. Zu zera, aitzen etzeran eta ur bizi ta bizi-gaia dariozun ituria. Zuk dituzu. Jaungoikotasunaren ondasunak. Zu zera Jainkoak digun maitasuna berotzen duen sutegia: ta Zu izango zera nere gaztelu ta atsedeteko tokia. Urtu zazu Jesus, zurea urtzen duen suaz nere biotza. Bete zazu, zureari dariozkan graziz eta ondasunez nere biotza, emen eta beti, Zuk nai dezuna besterik maite ez dezan. Alaxe. (*Zeruratzeke indaia* liburutik artuta).

### Irañ-pekatu ordezeko egintza

(Iñero lenengo ostiraletan, Jaun-agiriaren aurrean esan leike).

**G**ure Jaun agurñgañi maitea, Jesus gizon guztien Eroslea (Sabaltzalea): zure Biotzaren neuriz-gañezko maitetasunak ortxe jañi zaitu Zu aldarean. Osti Deunaren antzirudipean. Zure aurrean belaunikatzera gatoz, Jauna, gizonak egunero egi-

ten dizkizuten iraiñ eta pekatuak gatik oso naigabeturik; zure inguruan bildu gera oraiñ, irain pekatu oien ordeztu, gure maitetasun sutua agertu, ta al degun neurian gaiztakeri guztiak eta batezere zure Eriotz-Neke aldian, eta Aldareko Sakramentuan, egin zaizkitzunak ordaindu naiez. Nor ari liteken, Jauna, odolezko negaak, urtu arteraño, ixurtzen, Zuri, Erege guztietan maitetsuenari, ta biotz-guztietan onenari, agertu dizugun gaiztakeri ta esker gabekeria guztien kutsuak garbi-garbitu arte!

¡Barkatu Jauna, ainbat eta ainbatek, biotz gogo epelarekin edo pekatu larri-pean, Mai-aldarean arturik eman dizuten naigabea!

¡Barkatu Jauna, gure biotz-gogorke-ria, gure esker gaiztoa, Zuganako gure maitetasun epel-apurá!

Atozte Apaizak, atozte Jesukristoren Ezkontide garbiak, atozte kristauak; Jesusen Biotzaren maitaleak, goazen guztiok, bere aurrean belaunikatuta, bere Biotz agur gañari ezañi dizkiogun zauriak, gure maitetasunaz gozatzera.

Eta Zuk, Jauna, entzun ezazu gaur

gure eskaria; ontzat eman damu ta negarrik; barkatu gure gaiztakeriak; ta zure Biotz baren-barenengan aritu gaitzazu, betiraunde osoan Zurekin batean Aita ta Espiritu Santua beti maita dezagun. Alaxe.

### Alakoke-tar M. Maria Deunaren Eskeintza

(300 eguneko barkapenak: barkapen osoa ilero. 1898-1908.)

Nik (*N. Nk. ipiñi emen zure izena*)

Jesukristo gure Jaunaren, Biotz Deunari (santuari), gaurtik eta betiko eskeintzen dizkiot nere gorputz-gogoak (anima), nere bizia, eginkizunak, neke ta eramankizunak, eta ez det aurerakoan ezertxore egin nai. Bera guztzeko, ta maitatu ta goresteko ezpada, Jesusena bakarrik izan nai det beraz, eta bere maitetasunagatik egin nai ditut gauza guztiak. Bera nairgabetu lezaken guzia biotz-biotzez ukatuaz.

¡Jesusen Biotz agurgarria! Zu izango zera nere maitetasun bakarra; Zu nere laguntzalea, bizi onetan; Zu nere argaltasunaren sendagaia, Zu nere utsegitien zuzentzalea; ta azkenik baita nere iges-

-lekua ere Zu izango zera nere eriotz-  
-aldi lañian.

Zugan jañi nai det, Biotz maitetsu oñen  
gan, nere itxaropen (uste) osoa: nere  
gaiztakeri ta argaltasunaz beldur naiz;  
bañon esturaldi guztietatik zure ontasu-  
nak aterako nauela, uste det.—(Zugan  
jañi nai det... itz auekin bakarrik, 300  
eguneko barkapenak irabazi leizke).

Ere ta kixkali ezazu nigan. Zuk naiga-  
bekoa dezun guzia. Zutaz beñere ez  
aztu, ta Zugandik beñere ez aldegiteko,  
sar bedi zure maitetasun garbia nere  
biotzean. Nere izena Zugan ezañi ezazu  
añen, zure ontasun aundiagatik; nere  
atsegin - poza bizi ta eriotzean, Zure  
mendeko izatea da Jauna.

### **Sendi edo familiaren Eskeintza**

**J**esus guztiz maitagaña! Atoz gogo onez  
zure Ama gozoarekin batean gure etxe  
ontara; ta bete itzazu bertako bizi-lagun  
guztiak zure Biotzari eskeñitako sendi  
edo familiai agindu zenizkien mesedez.  
Entzun degu, Jesus gure Erosle erukiz  
betea, Margarita Maria deunari egin ze-

nion eskea : ainbeste maite gaituen, eta ain gutxi maite degun zure Biotzari, gure maitetasun bero ta sutsuena emateko diozu. Sendi edo famili au, zure deia entzun-da, oso-osorik orain Zugana dator, eta ainbat eta ainbaten esker-gaiztoaren orde, gaurtik, Biotz-Deuna, Jabe eta Eregetzat artzen zaitu Zu, ta bere pozak, lanak, negar ta naigabeak ementxe eskeintzen dizkizu, orain eta beti zurea izango dala aitortuaz.

Onetsi (bedeinkatu), Jauna, zure aurrean belauniko gaudenak.

Onetsi (Zuk ala nai izan eta) eriotz zitalak gure artetik eramán dituenak.

Onetsi, Jesus maitea, etxetik uruti dabilzanak.

Zure Ama Maria-ri diozun maitetasunagatik, arien eskatzen dizugu : zure maitetasunaren agintea etxe ontan jarri dezazula, ta zure sinismen (fede), santutasun ta garbitasunaz, gure etxeak bete itzazula.

Gorde itzazu Zuretzat bakarrik biotz auek, eta lurreko txorakerietatik urundu itzazu. Zure Biotz erukitsuaren zauri santuan artu ta gorde gaitzazu gu guztiok,

gaizkapen —(salbazioko)—ontzian beze-  
la, betiko bizitzaraño eldu arte.

¡Aintzatua, maitatua ta goratua izan  
bedi beti gure artean, Jesusen Biotz ga-  
raitzalea! Alaxe.

### Jesus'en Biotza'ri Ordain-otoitza

Pio XI, Aita Santua' ren aginduz Jesus' en  
Biotz egunez edo uringo igandez Eleiza guztie-  
tan esan bear dan ordain-otoitza.

Jesus gozo-gozoa! Zeñen txarki ta es-  
kerik gabe ordaintzen degun gizonok  
Zuk gure artean ixuri dezun maitetasuna!  
Ementxe gauzkatzu gu zure aldareau-  
rean, epel eta zabarkeri orek eta gañe-  
rako bidegabe guztiak zure Biotz on ori  
ematen dioten naigabe latza pixka bat  
lasaitu ta gozatu naiez.

Ba-dakigu, Jesus, gu geurok ere as-  
kotan Zuganako eskergabe ta gaiztoak  
izan gerana. Barkatu, Jauna! Damu degu  
ta gertu gaude, txarkeri guztien ordañez  
jentilkerietan eta pekatupean dabilzan  
guztiak Zuregana erakartzen alegin guz-  
tiak egiteko.

Gaizki guzti-guztiak galdurik nai ge-

nituzke, Jauna; bañan oetxek batez ere : jantzietako ta biziera guztiko lotsa galdu ta aragikeria, gazte erugabeai nun-nai ezartzen zaizkienlakio ta erorbide galgarriak, jai-egunetako lantegi ta elizarik- ezak, Zure ta Santuen izeneko birau ikaragarriak, Erroma 'ko Aita 'ren eta Apaiz guztien kaltean nola-nai itz egin- bear gaiztoa, Aldare 'ko Sakramentu Aundiarenganako zenbaiten goñoto itxua, ta azkenik, Zuk guri emandako Ama Eli- za 'ren agintzeko ta erakusteko eskubi- dea ezagutu nai ez duten Erien esker gaiztoa.

O! Nork ito ta galdu lezazkikean bere odoletan gaiztakeri oiek guztiak! Bañan ori ezin degun ezkerro, or dezu Zeroñek gurutze 'an bein eta gure aldareetan egun- ero eskeintzen dezun Meza 'ko Opari aundi-edeña; or dituzu Ama Birjiña 'ren ta Zeruko ta luñeko Santu guztien irabazi ugari-ugariak. Guk geurok ere zure la- guntzarekin alegiñak egin nai ditugu, gure ta gizon guztien gaizki ta eskerga- bekeriak, sinismen sendo, oitura garbi ta goi-maitasun bero-beroz ordaintzen, gaiztakeriari bideak galazten eta al ditu-

gun gizon guztiak zure lege ta bide zuzenera erakartzen.

Artu itzazu, Jauna, gure eskiñi ta gogoon oiek Ama Birjiñ Ordaintzalea'ren eskutik; egin gaitzatzu zintzo ta esanekoak zure mendean; eta emaiguzu aizkenik bide onetan il arte irauteko laguntza, egunen batean, Aita're, kin eta Espiritu Santuare'kin betiko agintari bizi zeran zeru ederean ikusi zaitzagun. Amen.

(Bařkapen osoa, aitořtu, Jaunařtu ta Aita Santuaren alde otoitz eginda; aitořtu gabe, 7 berogeiko bařkapena: Garbitoki'ko animentzat eman leizke. Pio X gařenak 1906'ko Dagoniaren 22'an).

Ondoren esan beař da, Jesusen Biotzaren ařentza (letañia).

## JESUS' EN BIOTZA' REN LITANIAK

(300 eguneko bařkapenak, egunean beĩñ)

Jesusen Biotzaren ařentza edo letañia Alako ke'tař Margarita Maria Deunak erabili oi zuena da, zerbaitxo bat aldatua. Ogeitamairu eskari ditu, Jesukristo gure Jaunak luřean egin zituen 33 urteen oroipenaz.

Lenengo zazpi eskariak (1-7) Jesusen Biotza zer dan adierazten digute (Jaungoikoaren Semea dala, Andre Mariaren sabalean jayoa, Espiritu Santuaren eliza).

Lau uřengoak (8-12) Jesusen Biotzaren maitefasuna, ta beste bere onbide (birtuteak) gogortzen dizkigute.



Ondorengo beste bostak (12-17) Jesusen Biotza goratu bear degula diogute, guztiz bikaiñ gogoragaría dalako.

Eta azkenean, 17'garfenetik asita bukaeraño-koak, Jesusen Biotzaren mesedeak gogoratzen dizkigute, Berak gugatik egin duen guzia.

Kyrie, eleison

Kyrie, eleison

Christe, eleison

Christe, eleison

Kyrie, eleison

Kyrie, eleison

Christe, audi nos

Christe, exaudi nos

Pater de coelis Deus  
*miserere nobis*

Fili Redemptor mundi  
Deus,

Spiritus Sancte Deus

Jauna, éruki zakigu;

Jauna, éruki zakigu;

Jesukristo, éruki zakigu;

Jesukristo, éruki zakigu;

Jauna, éruki zakigu;

Jauna, éruki zakigu;

Jesukristo, entzun eiguazu;

Jesukristo, entzun eiguazu;

Jesukristo, adi zai-guazu;

Jesukristo adi zai-guazu;

Zeruko Aita Jaungoikoa;

Éruki zakigu;

Gizadiaren Salbatzailea zeran Jaungoikoa'ren Semea;

Éruki zakigu;

Espiritu Santu, Jaungoikoa;

Éruki zakigu;

Sancta Trinitas unus  
Deus

1) Cor Jesu Filii Patris  
æterni

2) Cor Jesu, in sinu  
Virginis Matris á  
Spiritu Sancto for-  
matum

3) Cor Jesu Verbo  
Dei substantialiter  
unitum

4) Cor Jesu, majestatis  
infinಿತæ

5) Cor Jesu, templum  
Dei sanctum

6) Cor Jesu, taberna-  
culum Altissimi

7) Cor Jesu, domus  
Dei et porta cœli

8) Cor Jesu, formax  
ardens caritatis

Irutasun Done, Jaun  
goiko bakaña;

Eruki zakigu;

1) Betiko Aita 'ren  
Seme, Jesusen Bio-  
tza

2) Ama Birjiña 'ren  
sabelean Espiritu  
Santuak sortu zin-  
duan Jesus'en Bio-  
tza

3) Jaungoikoa 'ren  
Semearekin bat  
egiñik zauden Je-  
sus'en Biotza

4) Neuri gabeko aun-  
ditasunez jautzirik  
zauden Jesus'en Bio-  
tza

5) Jaungoiko'aren Eli-  
za Donea zeran Je-  
sus'en Biotza

6) Jaungoiko Aundia'  
ren gela zeran Jesus'  
en Biotza

7) Jaungoikoa'ren jau-  
regia ta zeruko atea  
zeran Jesus'en Biotza

8) Goimaitasunezko  
labe gorria zeran Je-  
sus'en Biotza

MISERERE NOBIS

ERRUKI ZAKIGU

9) Cor Jesu, justitiæ et amoris receptaculum

10) Cor Jesu, bonitate et amore plenum

11) Cor Jesu, virtutum omnium abyssus

12) Cor Jesu, omni laude dignissimum

13) Cor Jesu, rex et centrum omnium cordium

14) Cor Jesu, in quo sunt omnes thesauri sapientiæ et scientiæ

15) Cor Jesu in quo habitat omnis plenitudo divinitatis

16) Cor Jesu, in quo Pater sibi bene complacuit

17) Cor Jesu, de cuius plenitudine omnes nos accepimus

18) Cor Jesu, desiderium collium æternorum

9) Zuzentasun eta maitasun - ontzia zeran Jesus'en Biotza

10) Ontasun eta maitasunez beterik zauden Jesus'en Biotza

11) Onbide guztien osin ondorik gabea zeran Jesus'en Biotza

12) Jesus ' en Biotza goragar i- goragaría

13) Gure biotz guztien Erege ta Eguzkia zeran Jesus'en Biotza

14) Jakinduri ta Jakintza guztien gordairuak Zugan dituzun Jesus'en Biotza

15) Jaungoikoa Bera bere betetasun guztian bizi dan Jesus'en Biotza

16) Aita ' ren atsegiña zeran Jesus'en Biotza

17) Zure betetasunetik guztioi eman diguzun Jesus'en Biotza

18) Betiko mendi-bizkaeren gurari bizia zeran Jesus'en Biotza

MISERERE NOBIS

ERRUKI ZAKIGU

- 19) Cor Jesu, patiens  
et multæ miseri-  
cordiæ
- 20) Cor Jesu, dives  
in omnes qui invo-  
cant Te
- 21) Cor Jesu, fons  
vitæ et sanctitatis
- 22) Cor Jesu, propitia-  
tio pro peccatis nos-  
tris
- 23) Cor Jesu, satura-  
tum opprobriis
- 24) Cor Jesu, attritum  
propter scelera nos-  
tra
- 25) Cor Jesu, usque ad  
mortem obediens  
factum
- 26) Cor Jesu, lancea  
perforatum
- 27) Cor Jesu, fons to-  
tius consolationis
- 28) Cor Jesu, vita et  
resurrectio nostra

MISERERE NOBIS

- 19) Eraman eta efuki  
aundiko Jesus ' en  
Biotza
- 20) Eskean datozki-  
t z u n guztientzat  
emañe aberatsa ze-  
ran Jesus'en Biotza
- 21) Santutasun eta  
bizitzaren itufia ze-  
ran Jesus'en Biotza
- 22) Pekatariok Zeruko  
Aita'ren asafegoza-  
gafi zaitugun Jesus'  
en Biotza
- 23) Jesus ' en Biotza  
iguin-burlaz ase ta  
betea
- 24) Gure gaiztakeriak-  
gatik zatitua izan zi-  
ñan Jesus'en Biotza
- 25) Iltzeraño Aita ' ren  
esanekoa izan zñan  
Jesus'en Biotza
- 26) Jesus'en Biotz lan-  
tzaz zulatua
- 27) Poz guztien itufia  
zeran Jesus'en Bio-  
tza
- 28) Gure bizi ta piztue-  
ra zeran Jesus ' en  
Biotza

ERRUKI ZAKIGU

29) Cor Jesu, pax et  
reconciliatio nostra

MISERERE  
NOBIS

30) Cor Jesu, victima  
peccatorum

31) Cor Jesu, salus in  
te sperantium

32) Cor Jesu, spes in  
te morientium

33) Cor Jesu, deliciæ  
sanctorum omnium,

Agnus Dei, qui tollis  
peccata mundi, par-  
ce nobis Domine.

Agnus Dei, qui tollis  
peccata mundi, exau-  
di nos Domine.

Agnus Dei, qui tollis  
peccata mundi mise-  
rere nobis.

ŷ. Jesu mitis et humi-  
lis corde.

R̄. Fac cor nostrum se-  
cundum Cor tuum.

29) Gure Aitarekiko  
pake ta adiskide-  
gañi zaitugun Je-  
sus'en Biotza

30) Pekatarioen alde-  
ko oparia zeran Je-  
sus'en Biotza

31) Geren ustea Zu-  
gan daukagunen-  
tzat osasuna zeran  
Jesus'en Biotza

32) Zugan iltzen dira-  
nen itxadopena ze-  
ran Jesus'en Biotza

33) Santu guztien atse-  
giña zeran Jesus'en  
Biotza

Gizonen pekatuak ken-  
tzen dituzun Jaungoi-  
koa'ren Bildotsa

Barka zaiguzu, Jauna  
Gizonen pekatuak ken-  
tzen dituzun Jaungoi-  
koa'ren Bildotsa

Entzun eiguzu, Jauna  
Gizonen pekatuak ken-  
tzen dituzun Jaungoi-  
koa'ren Bildotsa

Eñuki zakigu, Jauna  
—Jesus apal eta biotz  
berakoa.

—Egizu gure biotza  
zurearen antzekoa.

ERRUKI  
ZAKIGU

**Oremus**

**O**mnipotens sempiternus Deus, respice in Cor dilectissimi Filii tui et in laudes et satisfactiones, quas in nomine peccatorum tibi persolvit, iisque misericordiam tuam petentibus, tu veniam concede placatus, in nomine eiusdem Filii tui Jesu Christi qui tecum vivit et regnat in unitate Spiritus Sancti Deus, per omnia sæcula sæculorum. Amen.

**Otoitza**

**G**uzialdun eta bertiko Jaungoikoa! Zure Seme maitearen Biotza'n ta Berak pekatarien alde eskeñitako gorapen eta ordain-saríai begira zaiezu, a'ren; eta erukieskean datozkitzun guztioi eman zure barkamena, Jauna; gizaldi ta gízaldietan zurekin eta Espiritu Santuarekin batean E'rege bizi dan Jesukristo zure Seme o'ren beraren izenean. Alaxe.

**Eriotz-lafian daudenen aldeko Otoitza**

Eun ta berogei mila (140.000) giza - emakume inguru egunean ilko dira. Ogeitamaika miloi (31.000.000) inguru urtero.

Sei milatik gora ordubete bakoitzean (6.000); eta eun (100) miñutu bakoitzean.

Oien guztien alde, kristaua, otoitz egizu : eruki zaitez orain Jaungoikoaren aurera dijoazen anima gaixo orietzaz, Jauna zutzaz eruki dedin.

**G**ure animak ainbeste maite dituzun Jesus erukioia : zure Biotz deunaren lañi aldia ta zure Ama Erugabearen oñazeak-gatik, añen eskatzen dizut : eriotz-aldian dauden, eta gauñ ilko diran pekatari guziak, zure odolean garbi ditzazula.

Alaxe.

Eriotz aldian egon ziñan Jesusen Biotz ona : iltzen daudenaz eruki zaite.

(Bi eskari oetako bakoitzagatik 300 eguneko bañkapenak Pio XI ' gañenak, 1907 ' Loreña ' ren 11 ' an).

## Lenengo bederatzi ostiralak edo

### Agindu aundia

#### 1.—*Agindu aundia.*

Asko ta aundiak dira, Jesusen Biotz erukitsuak bere maitaleai egindako aginduak: denetan bañon, bata da berezia, bata nagusiena : lenengo bederatzi ostiralen agindu edo eskeintza aundia. Ona emen, Jaunaren ezpañetatik Alakoke ' tañ Margarita Maria Deunak entzun zituen itz edeñak:

Ostiral goiz batean, digu berak, Jaunañtu ondoren, itz auek esan zizkidan Jesus'ek :

«Nere Biotzaren neufizgañezko erukiak,

ta nere maitetasun guzialdunak, ilaren lenengo bederatzi ostiral jañaitutan Jaunartuko duten guztiei agintzen die: nere aserian ez dirala ilko, ezta elizakoak artu gabe ere; ta azken une lañian nere Biotza iges-leku ziuñia izango dutela».

### 2.—*Agintzen dana*:

Jaungoikoaren adiskidetasunean iltzeko esker edo grazi berezi-aundia eskeintzen digu Jesusen Biotz erukiñak: beraz bederatzi lenengo ostiral jañaitutan Jaunartuko duten guztiok, naiz dala lenagotik elizakoak artzen dituztela, naiz oiek ezin arturik, biotz damu egizkoa egiten dutela, Jaungoikoaren laguntasunean ilko dira, ta zerua irabaziko dute.

### 3.—*Eskatzen zaiguna*:

Esker edo grazi berezi aundi ori irabazteko, *naikoa da, bederatzi lenengo ostiral jañaitutan Jaunartzea*: ez da beraz beñ, Jaunaren adiskidetasunean (grazian) gaudela, ez aitoñterik, ezta beste otoitz edo egikizunik ere. Alabaño irabazi aundiagoak oneraspen ontatik ateratzeko, guztiz goragañia izango da, egun oietan otoitz edo elizkizunak egitea, Jesusen Biotzaren gorespen eta aintzaz.

(Bañkapen osoa irabazten da, lenengo ostiral bakoitzean, aitoñtu, Jaunartu, Aita Santuaren alde eskatu, ta Jesusen Biotzari otoitz bat edo beste esan-da).



*Jaunañtu ondoren, lenengo ostiral  
bakoitzean esan leiken Otoitza.*

Jesus txit ezfitsua! Zure Biotzaren neur-  
riz-gañezko maitetasun eta erukiak, zure  
adiskidetasunean ilko dirala agindu die,  
lenengo bederatzi ostiral jañaitutan Jau-  
nañtuko duten guztiei: añen, eskatzen  
dizut Jauna, erukitu zaitez nitzaz; ta zure  
agindu ori gogoratuaz emaidazu, nere  
oben edo pekatu guztiak goñotaturik,  
zure maitetasunean iltzea.

¡Jesusen Biotz erukioñ, zeruko ate za-  
bala, erukitu zakizkit!

¡Jesusen Biotz erukioñ, aberastasunez  
betea, erukitu zakizkit!

¡Jesusen Biotz erukioñ, Zugan iltzen  
diranen itxaropena, erukitu zakizkit!

# JESUS'EN BIOTZA'REN JAURESKUNDEA (ENTRONIZAZIOA)

(Jesus'en Biotzaganako Eraspenetan; *Sendi edo familiar eskeintza ipiñi degu. Jaureskundera*, ordea, beste gauza bat da. Sendi-kristau guzietan dagokien eginkizun onuratsu au, zer dan eta nola egiten dan, osoro emen jartzan degu, egin ez dezuten guziok lenbaitlen egin dezazuten).

ZER DAN?—«Jesus'en Biotzaren Jaureskundera» Jesus'en Biotza sendi edo familiararen Eregetzat artzea da, etxeko tokirik ederenian bere irudia bakaulki edo tronuan ipiñi ta guzien biotzak berari eskeinirik.

Jesus'en Biotzak Alakoke'tar Margarita Maria Deunari agertu zitzaionean, onela esan zion: *Guzion Eregetza nai du nere Biotzak... eta ugari bedeinkatuko ditut nere irudia agirian jari eta gogoz apaintzen dituzten etxeak.* Auxeda Jesus'en Biotza Eregetzat artuta, etxeko tokirik egokienian al degun etxe-jairik aundienez bere irudia jartzen degunian egiten degun gauz edera. Ez da, bada, etxea edo luñak Jesus'en Biotzaren irudiakin bedeinkatzea; Bera, sendi edo familiko burutzat artu eta bere menpean guziak jartzea baizik; eta ortarako, bere irudia toki agiri ta ondo antolatutako batean ipiñi.

Egun artan, etxeko guztiak aitortu ta Jauna artu bear dute, al ba-da. Onela asiko dira Jesus'

enak izaten, Jaunaítzean Jesus'en Biotzarekin bat eginda.

### Jaureskundera egiteko era

*Berezitako egunean, sendi guzia etxeko gularik egokienian biltzen da : Jesus'en Biotzaren irudi alik edereña jartzen da mai-gañean edo beste tokiren batean.*

*Edozein apaiz, gizon edo emakumek egin lezake.*

*Jaureskundera egiten duena, apaiza ez danean, latíñez daudenak ez dira esaten, eta naikoa da «Gurutze santuaren» ta «Jesuskristo nere Jaun»'ekin astea.*

*Jauresten duena apaiza danean, txaramela (sobrepēñiza) eta estola jantzita, Jesus'en Biotzaren irudia onela bedeinkatuaz, asiko da.*

### Benedictio imaginis Sacratissimi Cordis Jesu Christi Domini Nostri

Ÿ. Adjutorium nostrum in nómine Dómini.

R. Qui fecit cœlum et terram.

Ÿ. Dominus vobiscum.

R. Et cum spiritu tuo.

### Oremus

Omnipotens sempiterne Deus, qui Sanctorum tuorum imágines pingi aut sculpi non réprobas, ut quoties illas oculis córporis, intuemur, toties, eorum actus, et sanctitatem ad imitadum memo-

riæ óculis meditemur; hanc, quæsumus Imaginem in honorem et memoriam Sacratissimi Cordis Unigéniti Filii tui Domini Nostri Jesu Christi adaptatam, bene † dicere et sanc † tificare digneris; et præsta ut quicumque coram illa Cor Sacratissimi Unigéniti Filii tui supliciter cólere et honorare studuerit, illius méritis et obtentu á te gratiam in præsentí, et æternam gloriam obtineat in futurum. Per Christum Dóminum nostrum. Amen.

*(Ultimo aspergat aqua benedicta)*

*Kredua guziyak batean abots beteaz esan, zuen sinismena aitoítzeko.*

### **Biotzak eskeintzeko otoitza**

**A**toz, Jesus mailagaña, zure Ama gozoarekin, eskeintzen dizugun etxetxu onetara, eta bete gaitzatzu emen bizi geranok, zure Jaungoikozko Biotz maite duten sendiai agindurik dauzkatzun mesedez.

¡O Jaun erukitsua! Zuk, Margarita Zorionekoari, *gizonak eskeñ gaiztoz erantzun añen, Berak gizona ainbeste maite duan Biotza*, mundu guzian goratua izatea nai zenuela esan zenion. Guk bein-

tzat maite zaitugu eta pozik jaítzen zaitugu gure etxean, tokirik egokienean. Ona emen guziak bilduta, Zu E'regetzat arturik, Zure mendean jaítzeko. Bai, gure onduan biziko zera, eta gure biotzen jabea Zu izango zera. Poz eta nega'etan, gozotasun ta neke lanetan, etxe ontako gora-bera guzietan, gure onduan Zu izatea nai degu, orain ta beti. Bedeinkatu gaitzatzu, bada; bedeinkatu, Jaungoikoaren naiez, gure a'rtetik joan ziran gure maitiak; bedeinkatu baita gurekin emen a'rkitzen ez diranak ere.

Zu maitatuaz bizi gaitezela, Jauna, sinismenez, zuzen ta garbi; lu'eko zorakerietatik aterata, itsasi itzatzu gure animak Zure Biotz ortan. Zure Biotzeko zauriaren erdi - erdian gorde gaitzatzu eta gero eramán gu guziak sekula guzian Zurekin bizitzera. Beti maitatua, bedeinkatua ta goratua bizi bedi Jesus gure artean.—Bai a'ren, bai.

*Ordu gozo onetan, gogora eka'ri ditzagun etxeko guzi - guziak, ilak eta kanpuan diranak, eta aien alde e'rezatu ditzagun Aita gurea eta Agur Maria.*

*Orain, aitak, amak edo etxeko buruak, artuko du Jesus'en Biotzaren Irudia, eramango du gerturik dagoen tokira eta jarriko du Bakaulki edo Tronuan.—Bitartean, beste guziak «O Biotz Santu» edo beste gauzen bat abestuko dute.*

*Beriala belaunikaturik, otoitz au esango dute :*

### Otoitza

**O**ra or, beste milen artean gure etxetxoa berezi ta jauregizat artu duen Erege Jesus. ¡Gora Jesus'en Biotza! Ariturik gaduzka gure Buru izatera etorita egin diguzun mesede onek : bañen bañendik poztuta ementxe makurtztzen gera zure aurrean; aita bere umeakin bezela telape batian bizi gera, Jauna, gu eta Zu; eta onez aurrea gure pozarekin pozez, ta gure neketan nekez beti gurekin eukiko zaitugu. ¡A! Ez gera gu nor Zu gure etxian sartzeko; baño Zure naya erakutsi diguzu, eta egañirik dagona iturira bezela, Zure Biotzera gatoz betiko asezten duten ur garbiyen bila; zugana gatoz damaturik eta uste osoz.

Zaude gurekin, ¡o Biotz Santu maitatia! Zure zalez daude gure animak; guk

eta besteak ere Zu maitatzea nai degu. Or' daukazu, mundu guzia garbitu ta berotu bear' duan sua. ¡Bai, bai! Izan dedila gure etxea Betania'koa bezin gozua zuretzako; emen arkituko dituzu zurekin beti izan nai duten lagun kutunak. Zure etsayak erbestetu egiten zaituzte Zu; baña ona emen, Ejipto'n bezela, Zu gorde eta bizitzeko tokitxua, ez Zuri dago-kizun bezelakoa, baño bai zintzo gorde maitatuko zaituena.

Atoz, Jesus ona, atoz...! etxe ontan ere, Nazaret'en bezela, maite degu Maria, zero'ek eman zenigun Ama biguñā; atoz, eriotzak eta denborak gure artian utzi dituen utsak betetzera... ¡A! Gure negar'ezko egunetan Zu emen izan baziñā, eztituko zinituen, bai, gure malako ga'atzak, eta Zuk dakizkitzun gure biotzeko zauriak, sendatuko zenituen... ¡Atoz, bai...! laister' agian ba-datozkigu nekaldi negar'gar' ber'iak; gaztetasuneko gure uste ariñak, juañ ziran. Geldi zaitez, bai, gurekin, ilunabaña da-ta; bestela mundu gaiztoak bere odei beltzetan laister bilduko gaitu. Guk Zu nai zaitugu; Zu bait-zera gure Bidea, Egia eta Bizia.

Aldi batean bezela esan iguzu: «Gaur-tandik etxe ontan bizi nai det». Bai Jauna; etxe ontako Eregea Zu zera; eta Zuk nai ta agintzen dezuna, egingo degu guziok: Zure gerizpean biziko gera; ez degu nai bestek emen agintzerik. Zu bakarrik zera gure Eregea. Goraldua zaude etxe ontan. ¡Gora Jesus'en Biotza! Betoñ gugana zure Erenua.—Ala beti.

*Ama Birjiñaren Biotz guztiz garbiaren izenean Salbe bat.*

¡Jesus'en Biotz guztiz Santua: eruki zakizkigu! (3 bideñ).

¡Mariaren Biotz guztiz garbia: eskatu gure alde!

¡Jose Santua: eskatu gure alde!

¡Margarita Maria Alakoke'tar Zorionekoa: eskatu gure alde!

*(Apaiz jaunak bedeinkatuko ditu).*

Benedictio Dei Omnipotentis: Patris, et Filii et Spiritus Sancti † descendat super vos et maneat semper. Amen.

OARAK: 1.—Jaureskunde-egun gogoangari ontan, etxe-ko guziak Jauna aitu bea luteke, eta eskatu Jesus'en Biotzak eruki dezala mundu pekataria, eta bere garaipean guztiok aitu gaitzala.



2.—Etxe ortakuak beartzen dira, urtero Jesus'en Biotzaren egunean Jauna artzera, eta sendi edo familiko jai aundi bat bezela gordetzera, batez ere umeai zerbait pozgafi emanta. Baita egoki izango litzake *Lenengo Ostiraletan* Jauna artzea; Jesus'en Biotzak bederatzi ilabete jarraituetan Jauna artzen dutenai agindurik daukan *eriotz onaren* mesede izateko.

3.—BARKAMENAK.—XV'g. Benedito Aita Santuak mundu guzira emanak auek dira:

I. Jaureskunde-egunean, pekatuen damuz eta Jesus'en Biotzarenaganako zaletasunez aurrean dauden sendiko (familiko) guziak, 7 urteko ta 7 befoigeiguneko barkamenak irabazten dituzte.

II. Etxe-sendiko oyek, egun artan *Barkamen osoa* irabazi dezateke, aitoartu, Jaunaartu eta Elizen batean Aita Santuaren alde zerbait otoiz egiten ba-dute.

Maitetasun bikain au zabaltzen dutenak, entzun Jesusen itz auek:

*«Au zabaltzen dutenen izenak, nere Biotz Jaungoikozkoari ezartita eukiko ditut, kendu ezingo diran eran».*

**¡Sartu zaitez Jauna...!**

*Jesus'en Biotza aulkian jaritzean esan leike*

1 ¡Sartu zaitez! Egin du eguzkiyak  
Egunero jira; ta ilargiyak  
Burua agertzen du.

Gaua luzea da; gañera otza:

Emen dago zuretzat gure biyotza:

Sartu zaitez, Jesus.

- 2 Baldin ba-da ude etxeak Zu aritzeko.  
Ta Buru ipintzeko  
Gogorikan ¡jene! ez dutenak,  
Ez bilduritu, Jesus; gu bizi ezkerro  
Zureak dira, len, orain eta gero  
Emen gaudenenak.
- 3 ¡Sartu zaitet! etzera Zu eskalea;  
Gure Aita, Nagusi, Adiskidea  
Egiten zaitugu.  
Gogor dabiliz, Zure kaltez, etsayak :  
Baña gu ez; gu gera seme alayak :  
Gure Erege aitoritzen zaitugu.
- 4 ¡Sartu zaitez! Danok maite zaitugu,  
Jaingoya egin dizugu  
Gure biyotzetan.  
Zu izango zera gure Eregea,  
Zu izango zera Jaun ta Jabea  
Bizitegi zataritxo onetan.
- 5 ¡Atoz, lasa, Jesus! Guk nai genduke  
Emengo gauzen truke  
Zu sartzea gure biyotzetan.  
Gure artean saltzalerik eztago :  
Zu saldu, edo utzi baño nayago  
Iñ Zure mendean.

6 Ta gure ateraño, etsai gaiztoak  
Suturik, baletoz pozoyak joak,  
Bařena ez beintzat.

Galduko ditugu gure biziak,  
Ařtuko ditugu zauri guztiak;  
Eztira oyek izango Zuretzat.

7 ¡Atoz, Jauna! Uratu gure griñak :  
Gu guztiyok, Zurekin bategiñak  
Bizi nai genduke.

Asmo berdiñen mendean gaudela,  
Untza-ormak bezela  
Alkar erantsi-ta ondo geundeke.

8 Bizitz ontan izaten diran pozak,  
Baita ere samintasun zorotzak  
Ařtuko ditugu.

Atsegiñak, eskerak emateho;  
Naigabeak, Zuri eskeñitzeko;  
Zure oñetan jaři bear ditugu.

9 ¡Sařtu zaitetz! gure Jesus laztana,  
Izan beti Nagusi, Eřege, dana  
Etxetxo onetan.

Ondasunik eztago  
Bai, ordea, beste bat ederago  
Zu maitatzea guztiyok benetan.

## JESUS ' EN BIOTZA ' RI GIZADIA ESKEINTZEKO

### Otoitza

¡Jesus, gizadiaren salbatzaile gozo, atsegiña! Begira eiguzu zure aldare-aurrean auspezturik gaudenoi. Zureak gera, zureak izan nai degu, eta Zurekin gero ta geyago bat egiñik bizi gaitezzen, gutako bakoitzak bere burua ementxe eskeintzen dizu zuri.

Askok, zori txarrez, ez zaituzte Zu oraindik ezagutzen, beste askok zure aginduak alde batera utzi - ta baztartu egin zaituzte Zu. Guztiak eruki izan itzazu Jesus on oreak, eta erakari danak zure Jaungoikozko Biotz oretara.

Jauna, artu bizaitzate beren Eregetzat ez zure mendean beti bizi diranak bakarrik, baita Zagandik uruti dabiltzan seme galtzaileak ere; datozela, aeren, datozela lenbailen beren etxe aldera, goseak eta bearez il ez ditezen. Artu bizaitzate beren Eregetzat gezurak iruzurturik eta asareak sakabanaturik dauzkan guztiak; eramaitzu danak egiaren kai ta sinisme-

naren batasunera, artalde bat eta artzai bat besterik izan ez dedin laxter munduan. Artu bizaitzate beren Éregetzat jentilkerietako ta mhaomataren arteko ilunpean bizi diranak; erakari itzazu guztiak zure Éreinu'ko argi edeñera. Begira ezaiozu aizkenik, erukizko begiz, antziña zure kutuna zan eriarri; ixuri ezaiozu burutik bera, orain beretzat askatasun eta bizitzazko Bataioa izan dedin bein batean bere gain izan zedila eskatu zuan odola.

Emaiozu, Jauna, zure Elizari osotasuna ta lasaitasun bete betea; emaezu ere guztiai zuzentasuna ta pakea: ez dedila, aren, lur zabalean baztar batetik beste-raño deadar au besterik entzun: «Gora Jesus'en Biotza; Berak ekañi digu osasuna; aintza ta Omena Berari orain ta beti». Amen.

## ESPIRITU DONEA'RI BEDERATZIUÑENA

### Otoitzak

*1'gua.* Argi bizaigu guztioi Jaun guzalduna oren argi-erañuak, eta Espiritu Donea'ren igurtziaz sendotu bitza zure

Argia'ren Argia'k, zure laguntzaren bitartez bizitza beñi batera jaio diran guztien biotzak. Kristo gure Jauna'ren ize-nean. Amen.

*(Aita gurea, Agur' Maria ta Gloria Patri).*

*2'gua.* Gaurko egunez kristauen biotzak Espiritu Donea'ren argiaz jakintsu egin zenituan Jauna: eman eigozu, a'ren, Espiritu bero'ren bitartez, zuzen-bidea maite izan ta beti bere pozaz pozturik bizi izateko bear degun zure laguntza zeruta'ra. Amen.

*(Aita gurea...)*

*3'gua.* Zure amabi apostoluai Espiritu Donea eman zenien Jauna: emaiezu zure kristauai ere beren eskarietan eskatzen dizutena, eta len sinismena opa zenienai, opa zaiezu gaur zure pakea. Amen.

*(Aita gurea...)*

*4'gua.* Bego, a'ren, Jauna, guregan Espiritu Donea'ren inda'ra, gure biotzak legunkiro garbitu ta gu geurok etsaikeri guztietatik gorde gaitzan. Amen.

*(Aita gurea...)*

*5'gua.* Argitu bitza, a'ren, Jauna, gure biotzak, Zugandik dato'ren Espiritu Pozka'riak; eta eraman gaitzala gu geurok egi-itu'ri gozoetara Zure'kin eta Espiritu bero'rekin batean betiko E'rege bizi dan Zure Semeak agindu zigun bezela. Amen.

*(Aita gurea...)*

*6'gua.* Emaiozu Jaun e'rukitsu o'rek, Zure Eliza'ri, ez dezaiola i'nungo etsai-erako gaiztok u'ratu, Zuk antzi'na Espiritu Donea'ren bitartez eman zenion batasun ede'ra. Kristo gure Jauna'ren izenean. Amen.

*(Aita gurea...)*

*7'gua.* Ixuri ezazu, a'ren, Jauna, gozoki gure adimenetan zure Espiritua, bere jakinduriaz egin ginduzunok, bere arduraz zuzendu gaitzazun. Kristo gure Jauna'ren izenean. Amen.

*(Aita gurea...)*

### Andre Maria'ri

Otoitz egizu, Ama, munduaren alde; otoitz egizu Eliza'ren alde; otoitz egizu

Eroma'ko Aita'ren alde; otoitz egizu España'ra alde; otoitz egin bai, gizadi guztiaren alde, guztioen gañera Espiritu Doneak bere doaiak ixuri ditzan eta guztiok zerurako bidean ipiñi ta aizkenik beti - betiko bizitzara eramán gaitzan. Amen. (*Salbe*).

*Gazteiz-barutiko «Boletin Ecclesiastico»'tik artua.*

### **Garagañila, Jesusen Biotzaren ila**

XIII'gañen Leon Aita Santu omengañiak, askotan eskatu digu Garagañila Jesus'en Biotzari eskeintzeko, ta gure biotzak irazekitzeañen, bar-kapen oso aundi ta ugariak il ontarako eman ditu : ona emen nagusienak :

1.—7 urte ta 7 berogeiko, Jesusen Biotzaren ila egiten dala, egun bakoitzagatik.

2.—300 eguneko bar-kapenak, bederatziurñena egiñaz, egun bakoitzean ta onen bukaeran *bar-kapen osoa*, aukerazko egun batean.

3.—*Bar-kapen osoa*, Jesusen - Biotzaren jai egunean.

4.—*Bar-kapen osoa*, lenengo ostiral bakoitzean.

5.—*Bar-kapen osoa*, il onen aukerazko egun batean, egunero itz auek esan-da : «Jesusen Biotz guztiz deuna, Zugaran daukat itxaropena».



6.—Garagañilaren azken igandean, *bañkapen osoa*, sañtu - atera - aldi bakoitzean eguneroko itzaldiarekin edo zortziurñenean mixioen antzera, Jesusen Biotzaren ila onela egin dan elizetan.

(Larunbateko eguerdian asi ta, igande gau-erdiraño irabazi liteke ta Garbitokiko animen alde eman ere bai).

7.—Izlariak (sermolariak) eta eliz - eretoreak Garagañilaren azken eguneko mezan, Erñomako Gregorio Santuaren aldareko eskeñi edo grazia (*ad instar*) irabazi lezateke.

8.—Elizkizun oiek egiteko alegin egiten duen bakoitzak 500 eguneko bañkapena aldiro, ta *bañkapen osoa egunero*, egunero Jaunañtzen ba-du. (Au ere Garbitokiko'ko animen alde eman leike).

### *Oarpena.*

Bañkapen osoak irabazteko :

1.—Aitoñtu, Jaunañtu ta Aita Santuaren alde eskatu beañ da.

2.—Egunero edo ia egunero Jaunañtzen dutenak, ez dute aitoñtu beañik, Garagañilaren azken-igandekoak irabazteko ezpada.

3.—Astero aitoñtzen diranak, ez dute beste aitoñtze beañik.

4.—Elizkizunetara au da, bederatziurñen edo ilera, joateko eskatzen danean, joatea beañekoa da; ez ordea Garagañilaren azken igandekoak irabazteko.

5.—Zoitzi egun auñetik aitoñtu leike, eta egun berean edo auñekoan Jaunañtu.

## Jesusen Biotzaren anaidiak eta gutuna

1.—*Jesusen Biotzaren Goi-anaidia* (anaidi burua : *artxikofradia*) Porto-Maurizio-tar Leonardo Deunak, Erroman irasi (jari) zuen.

Lenengoa; 1732'garren urtean, *Jesusen Biotzarenganako maitetasuna* (batezere Aldareko sakramentuan) gero ta geigo zabaltzeko, ta egi ten zaizkion irain-eskegabekeri guziak ordain tzeko.

Ortarako : bazkideai agintzen zaie :

a) Urtero Jesusen Biotzaren jai-egunean aitoitu ta Jaunaitezko.

b) Berebat ilero Jaunaitezko, ta egun ortako elizkizunera joateko.

c) Bazkide bizi ta ilentzako eskatzeko, otoitz egiteko.

d) *Aita Gurea, Agur Maria ta Gloria* egunero esateko. ta otoitz laburtxo au gañera : *Jesusen Biotz ez titsua, Nik gero ta geigo maite zaitzadala.*

Irabazi aundiak ditu! Nagusienak bakañik jañ tzen dira emen :

*Bar kapen osoa* : Anaidian sartzerakoan, Jesusen Biotzaren jai-egunean edo urngo igandean, ileroko lenengo ostiral edo igandean, ilean bein aukeratzen dan egunean, eriotz-al dian, jai aundienetan, Jesusen Biotzaren jai-egun aureko edo ondorengo sei igande edo ostirale tan : beti aitoitu ta jaunañtuta eta abar. (Garbitoki'ko animentzako izan litezke bar kapen oiek).

2.—*Jesusen Biotzaren Zaitasun Omengaria*. (*Guardia de Honor*). 1864'gañen urtean soñtua da «Jesukristoren inguruan egunero biotz on santuak biltzeko, bere Biotzari egiten dizkioten iraiñen ordañez». Leon XIII'gañenak 1878'gañen urtean ontzat eman zuen : asko zabaldu da gerroztik.

Egin beařak : izena anaidian eman eta

a) Aukeratu eguneko ordu bat, Jesukristorekin batean egoteko ta lan egite guztiak ordu artan berari eskeñi.

b) Iñeroko Jaunařtzera juañ.

c) Maiz egunean, bañon batezere ostiral santuan, ařatsaldeko lauretan, Aita Jaungoikoari eskeñi Jesusen Biotzaren odol ta ura, gizon pekatarien alde.

Jesusen Biotzaren Anaidiko bařkapen berberak ditu ta beste batzuek.

### Gutuna

Alakoke ' tař Margarita Maria Deunak dio : *Jesukristo gure Salbatzañeak nai duela, bere maitaleak, Jesusen Biotzaren irudia biotz gañean eraman dezatela. In hoc signo vinces. Ikuř onekin garailari irtengo zera* (esaten digu beřiz Leon XIII'gañenak), *Konstantino bere etsaietatik bezela*.

Onek ere irabazi aundiak ditu : 60 eguneko bařkapenak, gutuna eramanda. otoitz edo egikizun on bat egiten dan bakoitzean, eta abař.

## Otoitz Bidalguntza (Eskarizko Apostoladua)

1844'gañen urtean soñtua da, ta geroztik asko ta asko zabaldu da (1889'g. urtean 15.000.000 eta geigo bazkide bai zitun).

Onen asmoa da: *Jesusen Biotzaren otoitz ta irabaziekin batean kristau on-sutsuenak bilduta, Aita Jaungoikoari eskeintzea, lenbailen bere agintza (ereinoa) luñera etoñi dedin.* Iru mañã ditu: Otoitza, egikizun onak, maiz aitoñtu ta jaunañtzea, Jaungoikoarez aginduak gordetzea, Jesusen Biotzarenganako-maitetasuna zabalitzea eta abañ eskatzen zaiete bazkideai, bañon batezere:

1.—Lenengo mañakoai: *eguneko lan-nekeak Jesusen Biotzari eskeintzeko*: 69'gañen oñialdean jañi dan otoitza esanaz.

2.—Bigañengoai: ortaz gañera Aita Gurea ta eñosarioaren amañeko bat, egunero esateko, Aita Santuarentzat.

3.—Irugañengoai: ortaz gañera Ordaintzako Jaunañtzea, astero edo iñero.

(Irabazi aundiak ditu: emen luzegia litzake oiek guziak aitatzea: anaidiaren zuzendariari, zertzelada auek galdetu).





## ANDRE MARIAGANAKO ERASPENA

Norbaitek esana dago: *Euskal-Erriko mendi-galur bakoitza, gurutze batek bukatzen du*: orobat esan leike: «Gure Euskal - Erriko ibar bakoitzak, eliz bat antxe dauka Andre Mariaren izenari jaso, euskaldun bakoitzak bere biotzean aldare bat jaso dion bezela».

Asi Laburdi'ko erkidetik, eta Aduf ibaia utzita. Ebro ibaiaren ertzetaraño, Euskal - Erri bařena goazela, gero Bizkaiko mugetatik asi ta Napař mugetaraño jexten gerala, non - nai eliz galant edeřak ikusten ditugu, gure sinismenaren gaztelu gordelariak bezela, Andre Mariari jasoak.

Lapuřdi ta Zuberotařak, *Lurdesko edo Lapuřdiko Ama* daukate.

Napařak *Ama Bidekoa*.

*Estibaliz'ko Andre Mariak* zaitzen du Araba.

*Begoñakoak*, Bizkaia.

Eta Gipuzkoan sařtzen gerala, *Guadalupeko Amak* Ondařabin, *Korukoak* Donostin, *Iziar-koak* Deban, *Izaskungoak* Tolosan, *Olaz'koak*

Azpeitin, eta batezere *Arantzazu'koak* Gipuzkoa'ko mugetan, argi-argiro erakusten digute, gure Euskal-Eriak Andre Mariari beti izan eta dion zaletasun, jayera ta maitetasuna.

¿Nork ez daki gañera, gure Batzar nagusietako agintariak, diltzen ziran lenengo egunean: «*Andre Maria Jaungoikoaren Ama, Erugabea ta bere Sortzean guztiz garbia izan zala*» sinistu, aldeztu ta erakusteko, zin edo juramentu egiten zutela, ta jai eder au, Batzar nagusiaren aginduz, ordutik gure artean gordetzen dala?

¡Euskaldunak! «leñargitasunak leñargitasuna eskatzen du, ta odol garbiak egikizun aundiak nai ditu»: gure asaba zañak bezela izan gaitezen beti Andre Mariaren oso zaleak, eta biotz-biotzez maita dezagun gure zeruko Ama.

## AMA NEKETSUA - STABAT MATER

1. Zutik gurutze-ondoan

Ama samiña zegoan,

Ta Semea zintzilik.

2. Bere gogo gaxo iluna

Ezpatak uratu zuna

An zegoan lañirik.

3. ¡Ain estu ta atsekabea

Seme bakañdun Andrea

Amarik onen ura!

4. Oñazez eta naigabez  
Seme kufunaren lanez  
Zegoen kupitua.
5. ¿Nork ez du negar egingo  
Jesukristoren Ama aingo  
Seme gaxoz josita?
6. Beretañen eruekin  
Zigoñka zutela zekin  
Jesus bere maitea.
7. Inortxok ere ez laguntzen...  
Ta azken-arnasak ematen  
Ikusi zun Semea.
8. ¡Ea Ama, maite-ituñia,  
Zurekin samin bizia  
Añ dezadan egizu!
9. Sutu Kristoren maitean  
Biotz au, ta Aren aurrean  
Atsegiña nagizu.
10. ¡Ama, nere biotzari  
Kristo-zauriak ezañi,  
Añen, mami-mamian!

11.     ¡Seme órén neke lana  
Erdiz bialdu nigana  
Ain maite naun sarian!
12.     ¡Zurekin negar' bizian  
Naukazu ta aren zorian,  
Ilko naizeneraño!
13.     ¡Birjiñetan omenduna,  
Ez neri izan ain aztuna,  
Neri negar' eragin!
14.     ¡Kistoren nekauste, eriotz,  
Zauriak artzeko, biotz  
Aul au bizko'ra egin!
15.     ¡Zauritu zure zauriez  
Zoratu nadin odolez  
Gurutz-itu'ripean!
16.     Su-gar'ak ére ez nazaten  
Nere alde jari, aren  
Ama, azken-egunean.



## ARANTZAZU'KO ANDRE MARIARI

## ¿Arantzan Zu?

1

Edeñenetan edeñena zera,  
 Ama, ta arantzan zu?  
 Arantz baten edertasun ber-bera  
 ¿Nola agertu zaigu?  
 Lorerik edeñena arantz-arte  
 Jaunak ipintzen du.

*Oregatik Ama, arant-gañean  
 Agertu zīñan Zu.*

2

Arantzak guretzat mintsuak dira,  
 Ama, ¿ta zuretzat?  
 Mintsuak badira ¿zergatik arñtu  
 Zure bakaulkitzat?  
 Mintsuak dira bai, baña Jesusek  
 Asko maite ditu.

*Oregatik Ama, arant-gañean  
 Agertu zīñan Zu.*

## 3

Zeru-luñen jabe beti zeralako,  
 Jesus Bakaldunak  
 Artu nai izan du guretzako  
 Arantz burestuna;  
 Arantz-burestunduta gurutzean  
 Il zan bada Jesus.

*Oregatik Ama, arant-gañean  
 Agertu zīñan Zu.*

## 4

Bere biotz ontsua erakusteko  
 Gizon gaiztoari  
 Biotzean Jesusek artu ditu  
 Arantzak ugari.  
 Arantzak Semearen biotzean  
 Zoñotzak Zuk dakus.

*Oregatik Ama, arant-gañean  
 Agertu zīñan Zu.*

## Otoitza

**Z**orioneko Andre Maria; barkapenaren  
 iturburu ta esker edo mesede ta maite-  
 tasunaren Ama, luñtañen itxaropen ta

Zeruko egiña zerana : entzun Zugana datozen zure semeen eskariak!

g) Añen Birjiñ agurgaría, nik beti Zugora zaitzadala;

e) Eta nere etsaien kalterako, eman zadazu indaía.

### Eskaria

Jaungoiko guzialdun eta Betikoa, zorionezko Andre Mariaren garbitasun kutsugabekoa mirari arigariekin adierazo diguzun Jauna: bere irabazi ta otoitzaren bidez emaiguzu : luíeko zorakerietatik biotza askaturik, Zure mendekoak beti izan gaitezela, gizaldi ta gizaldietan Zurekin batean zorionekoak izan gaitezen. Amen.

(Arantzazuko Andre Mariaren jaya, Irailaren 9'an ospatzen degu : 1469'gañen urtean, Baltzategi'taí Rodrigo deritzaion artzai gazte batek, eloñi baten gañean, Arantzazuko Amaren irudia arkitzen du, eta bertatik, ezin neurtu añako mesede aundiak, Zeruko Eregiñak gure Eñiari egiten diozka, batezere anai euskaldunen arteko pakea).

### Otoitza

Arantzazuko Ama maitea! Guda ikaragarían alkaí nastuta zebiltzen Euskal-

dunak zure ardurapean biltzearen Aloña mendian agertu ziñalako, eta airezkerok zure eskubidean dauzkazun ontasun azkengabeak, beñere eten-gabe, zabaltzen dituzulako, Euskaldun esker - onekuak beren zerutar Zaindari nagusitzat artu ziñuten.

¡Ene Ama biotz sumuñ! Eruki zaitez gutzaz, artu gaitzazu zure babes atseginañ, eta zaindu gaitzazu gure griña okeñen arantzartean naspilduta galdu ez gaitezen. Alaxen.

(Berogei ta amar eguneko barkapena).

### **BEGONA'KO ANDRE MARIARI**

(Jai eguna Urñila'ren 11'an)

Noiz eta non agertu zan Begoña'ko Andre Maria-ren irudi edeña, gauza agiria ez da : bakañik esan genezake (Bilbao-uria irasi (jaso) zanetik kan dagola, ta Andre Mariaren irudi miragañi ori guztiz ezaguna zala aldi artan : gaur guñtutzen degun irudia beñiz, jakitunen iritzian, VIII'gañen edo IX'gañen gizaldikoa da; ta lenengo eleiza X'gañenekoa; oraingo au XVI'gañenean jaso zuten, sinismen andiko Bizkaitañ zañ gure aũekoak.

Alatz edo mirari asko egin ditu Begoña'ko

Andre Mariak, eta beragatik jayera (debozio) aundia diote Bizkaitařak, eta beste euskaldun guztiok arantzaleak batez ere.

¡Begoña'ko Andre Maria, laztan eder ori! zaitu beti gure Euskal-Eri maite-maitea, lengo oitura garbiak arduraz gordeta, lenbailen iritxi dezagun lengo zorion edera, gure Eliz Ama donearen babespean.

### Otoitza (ex officio)

**A**ren, Jaungoiko maitea! barkatu itzazu zure serbitzarien obenak (pekatuak); eta gure egiñak ezpaizaizkitzu gogozkoak, Zurekin batean bizi dan eta agintzen duen Jesu-Krlsto zure Semearen Amak, bere bitartekotzaz betiko zoriona iritxi dizagula. Alaxen.

### GUADALUPE'KO ANDRE MARIARI

(Jai-eguna Iraila'ren 8'an)

Jaizkibel deritzan, Ondařabitik ipař aldeko mendian, antxe dago Guadalupeko elizatxoa Zeruko Eregiñ aundia bi artzai gaztetxoai agertu zitzaien tokian.

Ama Guadalupekoaren agerpena, Arantzazu-

koa baño lenago edo andik laixter gertatu zala, uste da. Gure aurrekoak jayera aundia izan diote beti, batezere aiantzale ta itxas-gizonak : eta ala ikusten degu, Elkano ospatsuak bere azken nai edo testamentuan zerbait diru uzten diola Guadalupe'ko Andre Mariari; ez dezagun bada Gipuzkoarrok aztuta euki, ainbeste maite gaitun, eta ainbat lagundu izan gaituen Guadalupe'ko Andre Maria.

### Otoitza

**Z**orioneko Andre Maria Guadalupekoa, gure Ama maitea! Egun-sentiko izañak luñari, eguzki pozgarria laixter jayoko dala adierazten dion bezela, ala zure jayotzak ere guri, zeruko eguzki Jesusen etoñera adierazi digu.

Añen bada, entzun itzazu gure eska-riak, eta iritxi zaiguzu gure pekatuen barkamenarekin, ez ditezela gure biotzak luñeko ondasun gezurtiei itsasirik egon. Alaxe.

### LURDESKO ANDRE MARIA ERUGABEARI

(Jai-eguna Otsailaren 11'an)

1858'gañen urtean, Aita Santu Pio IX'gañenak Andre Maria «jatoñizko orban gabe soñtua zala» erabaki zuenetik laugañen urtean, Lourdes izen-

eko efi koskor batean, Zeruko Eregin aundia, Bernardeta zeritzaion gaztetxo bati arkaitz ganean agertu zitzaion. Jakitun batzuek diotenez: Lourdes antziña Lapurdun zan ta, Bidasoz andiko Lapurdi edo Laburdiko erkidean, Euskal-Erian arkitzen zan; eta Bernardeta Soubirous doatsuak ere euskaldun odola zeukan; bere izena jatoriz Zubiri edo Zubiru, izango zan.

### Otoitza

(Antif... ex officio)

**Z**orioneko Zeruko Eregiña gaur luñean agertu da: gaur bere eñari, askatasun eta pakezko beñi-onak ekañi dizkio; gaur aingeru liraiñak, eta kristau onak elkañturik, Eñugabeko Soñtzea (Soñkunde Eñugabea) ospatzen dutela, pozez beterik daude.

g) Jatoriz Eñugabeko Eregiña, guretzat eskatu ezazu.

e) Jesu-Kristoren eskeñiak iritxi zaizkiguzu.

### Eskaria

**E**ñugabeko Andre Mariaren Soñtze gañbiaz, zure Semeari egon-toki egokia prestatu diozun Jaungoikoa! añen eska-

tzen dizugu : Birjin doatsua agertu zan eguna gogoratzen degunok, gorputz go-goaren osasuna iritxi dezagula. Alaxe.

### KARMENGO ANDRE MARIARI

---

**Z**orionezko Birjiñ Erugabea, Karmel-go aintza ta gorespena! Zure gutuna (eskapularioa) daramaten guztiei laguntza berezia ematen diezun ezkerro, itzuli itzazu nigana erukizko zure begiak, eta zure babesean, Ama, artu nazazu. Indartu ezazu zure laguntzakin nere auleria, ta argitu nere adimenaren ilunpeak zure jakintasunarekin; geitu orobat nigan sinismen, itxaropen, eta maitetasuna. Zuri eta zure Semeari oso atsegiñak zaizkizuten doaiz nere gogoa apaindu; ta lagundu zadazu, azkenik, nere bizibide osoan eta batezere eriotz-zori lañian, Alaxe.

---





## AGURTZA DEUNA (EÑOSARIOA)

Otoitz eskari edeñ guzietan, edeñ-edeñenetako bat noski, Agurtza deuna degu : «*Otoitz guztiz edeña*» «*eximia peccatorum formula*» Leon XIII gañenak deitzen dio.

*Otoitz guztiz edeña*: ez bait-da besteak bezela gizonak asmatutakoa, *zerutik jetxia* baño : Andre Mariak berak, Domingo Santuari erakutsi zion, Albigeotañak biurtzeko, 1213'gañen urtean, antxe nunbait.

*Otoitz guztiz edeña*: otoitz edeñenak bere bañenean gordetzen dituelako: Aita Gurea, Jesukristok asmatua, Agur Maria, aingeruak zerutik ekaña, ta Gloria.

*Otoitz guztiz edeña*: bere 15 ezkutapenak (misterioak) Jesus eta bere Amaren bizibide edeña begien aũrean jañtzen digutela, onbide edo birtute guztiak erakusten dizkigutelako.

Oña zergatik Aita Santu guztiak ainbat goratu duten eta ainbat eta ainbat barkapen-eskeñ ugariak erantsi dizkioten.

Barkapen osoa egunero, eřosarioaren 15 ezkutapenak esan da, «Eřosario santuaren» anaidikoentzat; ta 100 egun ta 100 beřogelkoak, eřosarioa eramateagatik bakařik.

### *Oarpenak :*

Agurtza ongi esateko, ezkutapen edo misterioak gogoratu bear dira. Geienean, ez da eřosario osoa esaten, 5 misterioko zati bat baizikan; ořa zergatik, 15 misterio oiek, astearen egunetan banakatuak dauden, egunero ezpada, aste osoan beintzat guztiak esateko.

*III Gure auřekoak, euskaldun zařak, eřosarioaren oso zaleak ziran.*

Jayera (debozio) eder әнек sortu ditu gure Eřian entzute aundiko deun (santu) ospatsuak: Loyolatar Iñazio, Xabier, eta Martin deunak, Lizardi, Tomas eta Beřiotxoa zoriondunak.

Berak gorde ditu gure Eřian, sinismen ta oitura garbiak; eta gure egunetan ere, ainbat sinisgabeko edo sinisgalduko eřidien arıtean, sinismenak (fedeak) gure Eřian dizdiratzen badu, eřosarioari zor diogu.

*Gure asaba zařak bezela, esan dezagun egunero, guztiok batean etxean, agurtza edo eřosario deuna.*

### **Agurtza esateko era**

Gurutze santuaren...

Jesukristo nere Jauna...

1) *Domine, labia mea aperies.*

2) *Et os meum annuntiabit laudem tuam.*

3) *Deus, in adiutorium meum intende.*

4) *Domine, ad adjuvandum me festina.*

5) *Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto.*

6) *Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in sæcula sæculorum. Amen.*

1) Jauna, ideki itzazu nere ezpañak.

2) Ta nere aoak zure gorapena esango du.

3) Jauna, lagundu zadazu.

4) Atozkit azkar neri laguntzera.

5) Aintza Aitari, ta Semeari ta Espiritu Santuari.

6) Asiera zan bezelaxe orain eta beti gizaldi ta gizaldietan. Alaxe.

Maria, esker ta erukiaren Ama.

Etsaietatik gordeaz, eramán gaitzazu Zugana.

**Pozezko ezkutukiak (misterioak)**

*(Astelen-ostegunetarako)*

I'goa : *Jaungoiko - Semearen gizon egitea.*

Maria apal-gordeak, Jaungoikoa bera-ganatu du: ereka-bazter gordetako loretxoak bidaztien begiak bezela.

Emaiguzu, Andre Maria, geren buruak ezertan ez artzea, ta Jainkoaren mendekoak bezela beti agertzea.

*(Aita Gurea... 10 Agur Maria... ta Aintza... Maria esker...)*

II'g.<sup>a</sup> *Andre Mariak bere lengusuari egin zion ikustaldia :*

Negu otzaren biotzean, Maria bere lengusu aur'dun dagoena iker'tzera (ikus-tera) dijoa : maitetasunak darama, ez irabaziak.

¡Andre Maria maitetasunez betea! emai'guzu, gure lagun-ur'koagan Jaungoikoaren antz-irudia beti ikustea.

III'g.<sup>a</sup> *Jaungoikoaren Semearen jayotza :*

Belengo estalpetik Jesus Aur'ak aberastasu'nak, biotzez beintzat, ukatzeko

digu, ta Berak bezela, beartasuna maite izateko.

«Zorionekoak beartsuak». Beartsuetan beartsuena zerana, Jesus Auña; emaignu zu beartsutasuna maite izatea.

IV'g.<sup>a</sup> *Andre Mariaren Elizan sartzea :*

Maria'k bea' ez izan a'ren, Elizara garbitzera joanez guztioi erakutsi nai digu zenbaterañoako arduraz zaitu bea' degun animaren garbitasuna.

¡Ama guztiz garbia, zaitu nere biotzaren garbitasuna!

V'g.<sup>a</sup> *Jesus auña galdu ta arkitua.*

Mariak bere Semea arkitzen duenean, onek esaten du : «*Ez al zenekien, nere Aitaren gauzetan ibili bea' dedala?*» Kristaua, dizu Pablo Deunak : «*Jaungoikoaren izenean ta aintzaz egizu, egin bea' dezun guzia*».

Jauna, zuk nai dezuna egitea izan bedi beti nere asmo bakara.

**Nekezko ezkutukiak**

*(Astearte-ostiraletarako)*

I'goa. *Jetsemaniko baratzan, Jesusen Otoitza :*

Gaitzik okeřena, aundiena, gaitz ba-  
kařa, obena (pekatua) da: oiek jaři dute,  
Jesus gure Eroslea, odol-izerdi patsetan,  
Jetsemaniko baratzen.

Aita Jaungoikoa: Zure Semearen oņa-  
zeagatik sortu ezazu nere biotzean pe-  
katuaganako gořoto bizia.

II'g.<sup>a</sup> *Jaungoikoaren Semea, zigorez  
joa :*

Lurbira - asieran, ikaragarizko ujola  
batek garbitu zituen gizonen lizunkeriak:  
orain beste batek, Jesukristoren odol  
aguręariak garbituko ditu aragizko pe-  
katu guztiak.

¡Ama laztan atsekabetua: zure Semea-  
ren oņazeaz, emaidazu biotz-garbita-  
suna!

III'g.<sup>a</sup> : *Jesukristo'ren arantzazko bu-  
restuna (koroia).*

Ařokeriak galdu zuen aingerua zeruan,  
eta Adan atsegiņ-baratzean. Jesus gure  
Eregeak, arantzaz koroitua pařagarizko  
itxuran agiri zaigula, ařokeria mendera-  
tu-ta gu askatu gaitu.

Emaizkidazu, Jauna, zure arantzak, ta  
ařtu oien ordez nere maitetasun eta da-  
mua.

IV'g.<sup>a</sup> *Jesukristo gurutze aztunaz zamatua.*

«Nere ondoren etoñi nai duenak, dio Jesukristok, bere burua ukatu ta gurutzea arturik, jañaitu bizait». Beraz—jañaitzen du Jeronimo Deunak—«agur egin dizaioke zeruari, gurutzea eramán nai ez duenak».

Jauna, emaidazu zure laguntza gurutzea eramateko.

V'g.<sup>a</sup> *Jesukristoren gurutzeko eriotza.*

Jesukristok gurutzetik Ama txit ona, erukiz betea, eman digu guri, Juan santuari esan dionean: «Oñra or zure Ama». Maria, Jaungoikoaren Ama doatsua, eta orobat nerea: emaidazu añen, izan nadi-la onez auñera zure seme ona beti.

Aintzazko ezkutukiak

(*Asteazken, larunbat eta igandeetarako*)

I'g.<sup>a</sup> *Jaungoiko-Semearen piztuera.*

Jesus gure Jauna ziñez berbizturik, ilobitik atera da, ta ez da atzera ilko. Ziñez berpiztuko gera, lengo ta bizibide txarñ

betiko kentzen badegu, lengo gaiztake-  
rietara biurtzen ezpagera.

Zure piztuera ari garaiagatik, emaiguzu,  
Jauna, ken dezagula obena betiko.

II'g.<sup>a</sup> *Jaunaren igoera zerura.*

Luña kenduta, zeruratzen dalarik, Je-  
susek esaten digu: «Zuentzako toki bat  
geñtutzera noa». An ikusiko ta maitatu-  
ko degu gure Jauna, ta betiko gurea  
izango degu.

Zeruko zorion edera eskeñi diguzun  
Jauna: emaiguzu zure laguntza zerua  
irixteko.

III'g.<sup>a</sup> *Espiritu Santuaren etoñera.*

Espiritu Santuak betetzen ditu Jesu-  
kristoren Bidaliak, eta len lotsati ta bel-  
duñti-koldarñak agiri ziranak, orain bel-  
duñik gabe, antxe aitoñtzen dute Jesusen  
izena.

Atoz, Espiritu Santua, ta piztu gure  
biotzetan, zure maitetasunaren su-gar-  
bizia.

IV'g.<sup>a</sup> *Andre Mariaren zerura Jaso-  
tzea.*

Luñeko basamortutik pozik dijoa Ma-  
ria zerura. Guretzat luña, basamortua  
izan beañean, atsedentokia da: ez degu



utzi nai, ta egunen batean utzi-bea' degulako, beldu' gera. A'ren Jauna ez dezagula lu'eko txorakerietan, Zerua ez aztu.

V'g.<sup>a</sup> *Andre Mariaren bureskundera (koronazioa).*

Maria, Jaungoikoaren Ama, zeruko E'regi'na ez ezik, lurta'ren E'regi'na ere da ga'nera : zeruko e'regi'nak lagundu lizai-guke; lurta'ren e'regi'nak lagundu nai digu. Aberastasuna ta kupira, eskubidea ta e'rukia, bere biotzean laztantzen dira.

«Maria, Zeruko E'regi'na ta gure Ama: ainbeste ondasun-ondoren emaguzu Jesus zure sabeleko Seme bedeinkatua».

*Esan gero Andre Mariaren a'rentza ta ondorengo otoitza 94'ga'ren o'rialdean ja'ri dan bezela.*

### **Agu'ntza esateko era labu'fagoa**

#### *Pozezko ezkutukiak*

(Astelen-ostegunetarako)

1'goa. Jaungoiko-Semea gizon egitea.

*Eskaria* : Apaltasana.

2'g.<sup>a</sup> Andre Mariak bere lengusuari egin zion ikustaldia.

*Eskaria* : Lagun - urkooganako ongi-naia.

3'g.<sup>a</sup> Jaungoiko-Semearen jayotza.

*Eskaria* : Luñeko ondasunetara biotza ez makurtzea.

4'g.<sup>a</sup> Andre Maria Elizan sartzea.

*Eskaria* : Jaungoikoaren eta Eliz-Ama-  
ren legeak jaraitzea.

5'g.<sup>a</sup> Jesus Aua galdu ta arkitua.

*Eskaria* : Pekatuagatik Jauna galdu  
badegu, lenbailen arkitzea.

### *Nekezko ezkutukiak*

(Astearte-ostiraletarako)

1'goa. Jese maniko baratzen Jesusen  
otoitza.

*Eskaria* : Pekatuen damua.

2'g.<sup>a</sup> Jaungoikoaren Semea zigorez  
joa.

*Eskaria* : Loikerizko pekatuetatik iges  
egitea.

3'g.<sup>a</sup> Jesukristoren arantzazko bures-  
tuna (koroia)

*Eskaria* : Gogapen (pentsamentu)  
txarretatik alde egitea.

4'g.<sup>a</sup> Jesukristo gurutze aztunaz za-  
matua.

*Eskaria* : Naigabezko eramankizun-  
eta etsipena.

5'g.<sup>a</sup> Jesukristoren gurutzeko eriotza.

*Eskaria* : Jesukristoren eriotza gure biotzetan pekatu larriaz ez beritzea.

### *Aintzazko ezkutukiak*

(Asteazken, larunbat eta igandeetarako)

1'goa. Jaungoiko-Semearen piztuera.

*Eskaria* : Grazizko bizieran il artera-  
ño irautea.

2'g.<sup>a</sup> Jaunaren igoera zerura.

*Eskaria* : Zeruraztzeko zaletasuna.

3'g.<sup>a</sup> Espiritu Santuaren etoñera.

*Eskaria* : Otoitza maite izatea.

4'g.<sup>a</sup> Andre Mariaren jasoera zerura.

*Eskaria* : Eriotz on bat egiteko santuen antzera bizitzea.

5'g.<sup>a</sup> Andre Mariaren bureskundera (koroazioa).

*Eskaria* : Andre Mariaganako zaletasuna.

## ZAZPI OÑAZEAK

### Otoitza

**A**ndre Mari guztiz atsekabetua! : zure Semearekin batean, Kalbarioan artu dituzun neke-oñazeagatik, aŕen eskatzen

dizut: nere oben (pekatu) guztien bařka-  
mena, ez auřera erortzeko laguntza, ta  
zure zazpi oñazeak gogoraturik, iritxi  
nai nuken esker aukerazko au... (jaři  
emen eskatu nai dezuna). Alaxe.

**Lenengo oñazea:** *Simeon Zararen aldez  
auřetiko iragařkia.*

¡Ama naigabetua! Simeon igarřlearen  
itzak Jerusalengo elizan eman zizuten  
oñazeagatik, eskatzen dizut: iritxi zai-  
dazula nere pekatu guztiak garbituko  
dituen egizko damua.

*(Aita Gurea..., Agurř Maria).*

**Bigarřen oñazea:** *Ejiptora igeska.*

¡Ama naigabetua! Nazaret'etik Ejip-  
tora, zure Semearekin igesi zinjoazen-  
ean, arřtu zenduen oñazeagatik eskatzen  
dizut, iritxi zadazula galbide guztietatik  
iges egiteko asmo sendoa.

*(Aita Gurea..., Agurř Maria).*

**Irugarřen Oñazea:** *Jesus auřa galdua.*

¡Ama naigabetua! Semea galdu zttzai-  
zunean arřtu zenduen oñazeagatik, eska-  
tzen dizut: bizirik diraudan artean, ez

dezadala nik Jesus galdu gero zeruan betiko euki dezadan.

*(Aita Gurea..., Agur' Maria).*

**Laugarren oñazea:** *Jesus gurutzeaz zamatua.*

¡Ama naigabetua! Jesus zure Semea gurutzea sorbalda gañean zeramala ikusirik artu zenduen oñezeagatik, eskatzen dizut, iritxi zadazula nere gurutzea pozik eramateko indaia.

*(Aita Gurea..., Agur' Maria).*

**Bosgarren oñazea:** *Jesus gurutzean josia.*

¡Ama naigabetua! Zure Seme maitea gurutziltzitzen ikustean artu zenduen oñezeagatik, eskatzen dizut: iritxi zaidazula nere griña gaiztoak menderatzeko laguntza.

*(Aita Gurea..., Agur' Maria).*

**Seigarren oñazea:** *Jesus ila bere Amaren altzoan.*

¡Ama naigabetua! Zure Semearen gorputz zauritua, zure besoetan ikusirik artu zenduen oñezeagatik eskatzen dizut: iri-

txi zaidazula beti biotz garbiaz Jauna-  
rtzeko laguntza.

*(Aita Gurea..., Agur Maria).*

**Zazpigarren oñazea:** *Jesus maitea lurper-  
atzen dute.*

¡Ama naigabetua! Zure Semea obian  
sartu zutenean artu zenduen oñazeaga-  
tik, eskatzen dizut: iritxi zadazula peka-  
tua gorotatzeko, ta lurreko txorakeriak  
beti ukatzeko zure laguntza.

*(Aita Gurea..., Agur Maria).*

### Otoitza

**A**ndre Maria, Ama txit naigabetua! Gu-  
rutzepean neke gogoñen artean, soñtu  
ta bizia eman diguzunez, ager zazu nere  
Ama zerala, zazpi oñaze auen asieran  
eskatutako mesedea irabazirik, zure Se-  
meari beti jañaitu dezaiodan emen lurrean,  
gero betikotasun osoan zeruan bera go-  
ratzen bizi izan nadiu. Alaxe.

(Edozein astetan, ostiral gaueko amaiketarik  
igande goiz bitartean, Andre Maria naigabetua  
bere bakañtasunean lagunduko duten kristauak,  
300 eguneko bañkapena irabazi lezateke. Iñeko

aste guztietan auxe egin-da bařkapen osoa, bein aitořtu ta Jaunařtzen badute. Pio VII'gk. 1822'ko Garagařilaren 18'an.)

### Ileroko lenengo larunbata

(Pio X'gařenak, ileroko lenengo larunbata aukeratu zuen, Andre Mariaren kaltezko birauak egun ori Berari eskeņiaz ordaintzeko. *Bařkapen osoa*, lenengo larunbat bakoitzean irabazi leike, Aita Santuaren alde otoitz egiņaz gaņera aitořtu Jaunařtu ta edozein otoitz Andre Mariari esanaz. Eman leike Garbitokiko animen alde.

### Andre Mariari eskeņitako ilak

Iru dira :

Mayatza edo Loreiļa.

Dagoniļa (Agustua) Mariaren Biotz gařbiari eskeņia.

Eta Irailiļa (Agořiļa) Andre Maria Naigabetuari (Doloretakoari) eskeņia.

Iru il oietako bakoitzean 300 eguneko bařkapenak irabazi litezke, nai dan otoitza Andre Mariari egunero esan ezkerro : eta ori il osoan egiņik, *bařkapen osoa*, azken-egun batean, aitořtu, Jaunařtu, ta Aita Santuaren alde otoitz egiņaz.

(Pio VII'gk. 1822'ko Garagařilaren 18'an. Pio X'gk. 1913'ko Epailaren 13'an. Leon XIII'gk. 1888'ko Ilbeltzaren 27'an.)

## ANDRE MARIAREN ELIZ- -BAZKUN, ANAIDI, GUTUN ETA DOMIÑAK

### Andre Maria Deunaren bazkunak (Kongregazioak)

Bi dira : «*Mariaren alabena*» (neskatxentzat); «*Luistarena*» (mutilentzat). Batak eta besteak, lenengo zaindaritzat, Andre Maria dute naiz eta beste zaindariren bat (Luis santua, edo Koska'tar Estanislao santua) euki gañera.

Jesus'en Lagundiko anai Sebastian Cabañasi'k, Siracusa'n lenengo asmatu ta irasi (jañi) zituen. Gaztedia pekatuko galbideetatik aldentzeko asmatu zituen eta Gregorio XIII'gañenak bereala ontzat eman zuen asmo au, ta Benedikto XIV'gañenak gero, eskeñ-mesede aundiz aberastu zuen, esanaz : «Bazkun oiek, garbitasuna zabal-tzen dute, ta gazte galdu asko biuñtzen dituzte bide onera eta askok oietatik atera dute Erlijioan sañtzeko asmoa». Ligorio'tar Alfonso Mariak beñiz, Jakintza Idaztiaren itzak Bazkun oientzat esanak bezela artzen ditu : «On guziak ortik etoñi zaizkit» Cap. VII, v. 11). Ainbat eta ainbat gizon ospatsu bazkun orietatik sortu dira: Aita Santu, Efege, Agintari eta abar; santuen artean Boñomeo'tar Karlos, Sales'tar Franzisko, Ligorio'tar Alfonso, Gonzaga'tar Luis, Kostka'tar Estanislao, Berchmans'tar Juan... eta



beste askoren izen agurra asko arkitzen dituzu : azkenengo Aita Santuen artean : Benedikto XIV, Pio IX, Leon XIII'garrena ere ortxe ikusten ditugu.

*Bazkideen eginbeharak* : Lenengo, izena eman ta kongregazioan sartu, gainera :

a) Goizero, jeikitzean, iru «Agur Maria» esatea (garbitasuna ta beste onbideak eskatzeko).

b) Sari aitortu ta jaunartzea (ilero gutxienez, astero al badu).

c) Lagun gaizto ta dantza nastuetatik alde egitea :

*Irabaziak* : Bazkideen zuzendariak azalduko ditu : bakarik esango det emen, barkapen osoa irabazten dutela bazkidiak, kongregazioan sartzen, eriotz-aldian, jai-nagusienetan, bazkunaren bilera-egunetan; beti, aitortu ta jaunartu ezkeru.

(Barkapen oiek, guziak, Garbitokiko animentzako izan ditezke).

### **Agurtza (errosario) santuaren anaidia**

Aita Domingo Santua il eta laxter, 1221'gn. urtean Valencia'n sartu zan «agurtza deunaren» lenengo anaidia; geroztik Aita Santu guziak, bañon batezere Leon XIII'gk., asko ta asko aberastu dute. Onen asmoa da : «Kristau asko bildu ditezela, errosario santua esanaz Andre Maria goratzeko ta bere laguntza denok batean eskatzeko». Bazkideai, etzaiete besterik eskatzen (eta au ere pekatupean ez) : astero errosario santuaren 15 ezkutapenak esatea baizik.

Irabazi ugariak ditu : bi bakarik aitatuko ditut emen :

a) *Barkapen osoa egunero* (Garbitoki'ko animentzako izan leike), erosarioaren 15 misterioak esanda (esanditezke ama'eko bat orain, ta geroago beste bat), gure Eliz-Amaren alde eskatuta, ta Eliz batean otoitz eginda.

b) 100 eguneko ta 100 berogeiko barkapenak egunean, erosarioa eramateagatik.

### Karmengo-Andre Mariaren anaidia

1251'ko Uztailaren 16'an, Simon Stok, Karmeldaren Agintariari Andre Maria agertu zitzaion, eskuan Karmen'go gutun (eskapulario) bat zeukala, ta esan zion : «*Suleizeko (inpernuko) suga'etatik gordeko zituela Karmengo anaidiko bazkidiak*» kofradikoak (au da : berarizko laguntasunak iritxiko dizkiela Andre Mariak bazkide oiei).

Beste sari eder bat geroztik anaidi oneri egin dio : Aita Santu Juan XXII'ga'nenari agertu zitzaion, irurogei urte geroago, ta agindu zion : «Garbitokian poztu-ko zituala ta andik ainbat laixte'ren, eta batezere il da ur'engo larunbatean aterako zituela, Karmengo Anaidiko bazkideak».

Lenengo saria irabazteko, be'ar da: Karmengo anaidian sa'ntu, ta il artera'ño gutuna (eskapularioa) erabili.

Biga'ena irabazteko : garbitasuna gordetzea (norberaren bizibidean) ta Andre Mariaren Offizio labu'ra egunero esatea. (Otoitz onen orde

esan leizke : 6 Aita Gure, 6 Agur Maria, ta 6 Gloria).

### **Sorkunde Erugabeko Andre Mariaren gutun urdiña**

Jesukristo'k berak, ta bere Amak, Ursula Benincasa Zoriontsuari iragain zioten gutun au. Eskeñita dauzkan mesedeak irabazteko, gutuna (eskapularioa) beti eraman bear da, Andre Mariarenganako maitetasun aundia gorde, ta pekatariak biurtu ditezen otoitz bat egunero esan.

Izugafizko irabazi aundiak dauzka, batezere : *Barkapen osoa* egun bakoitzean : 6 Aita Gure, 6 Agur Maria, ta 6 Gloria esanda, Andre Mariaren Erugabeko Sotzea goratzeko.

### **DOMIÑAK (medalāk)**

#### **Efosarioa**

Efosarioak ditu, bedeinkatua badago :

100 eguneko barkapenak, «Aita Gurea» ta «Agur Maria» bakoitzagatik.

100 urteko ta 100 befogeiko barkapenak; efosarioa eramateagatik (Aita Domingotafak edo beren eskubidedun apaizak bedeinkatuak badira).

500 eguneko barkapenak «Aita Gurea» ta «Agur Maria» bakoitzagatik, Kruziferoen bedeinkapena gañera ba-du.

### Domiña miragaña

Efugabeko Andre Mariaren irudia dakañ alde batetik, eta bestetik *M* bat gurutze ta bi biotztxiki-pean. 1848'gañen urtean, Andre Mariak berak Katalina Laboure gazteari iragañi zion. Guztiz miragañi aundiak egin ditu. Ortik etoñi zaio «Domiña miragaña»ren izena. Bañkapen ugariak ditu onek ere : 100 egunekoa otoitz au esate bakoitzean : «Maria orban gabe soñtua, otoitz egizu Zugana gatozenon alde».

OARA.—Azken aldian *Eliz-abestiak* asten diran ofialdi aurfean dijoa, Andre Mariaren alaben sañerako otoitza.





## JOSE DEUNAGANAKO ERASPENA

Jaungoikoaren ta bere Amaren urén-uréngo tokian Jose Doatsua jañi bea' degu, Jesukristoren Aitordea, Eliz-Amaren Zaindaria, eriotz-aldi lañian lagunik onena.

*Ez daukat gogoan, dio Teresa deunak, nik eskatutako gauzik Jose Deunak ukatu didanik; Jaungoikoak beste santuai, bea' bat edo bestean laguntzeko doaia eman diela, dirudi: santu andi onek ordea, ezagututa daukat, guztietan laguntzen duela, Jaungoikoak adierazo nai digularik, luñean bezela zeruan ere bere menpekkoa dala, ta bere esanak egiten dituela».*

Maita dezagun beraz, Jose Deuna, bañon zinez edo egiaz, bere laguntza eskatu eta bere bizibide edeña jañaituaz: ezkongaiak bere garbitasuna jañai bezate; ezkonduak ikasi beragandik emazteari zoñ dioten maitetasuna ta semeak ongi azten; apaizak eta kristauak Jaunañtzean Jaungoikoari euki bea' zaion itzala: kristau guztiz itz batean, bere eramanpena, lan-zaletasuna

ta zindotasuna jafaiturik, eriotz aldirako zaindaritzat autatu dezagun.

### Afentzak (letañiak)

(300 eguneko barikapenak egunean bein)

Kyrie, eleison

Christe eleison

Kyrie, eleison

Christe, audi nos.

Christe exaudi nos.

Pater de cœlis Deus,  
*miserere nobis.*

Fili Redemptor mundi  
Deus, *miserere nobis.*

Spiritus Sancte Deus,  
*miserere nobis.*

Sancta Trinitas unus  
Deus, *miserere nobis.*

Sancta Maria, *ora pro  
nobis.*

Sancte Joseph

Proles David inclita

Lumen Patriarcharum

Jauna, *eruki zakizki-  
gu.*

Jesukristo, *eruki za-  
kizkigu.*

Jauna, *eruki zakizki-  
gu.*

Jesukristo, entzun zai-  
guzu.

Jesukristo, aditu zai-  
guzu.

Zeruko Aita Jaungoi-  
koa, *eruki zakizkigu.*

Jaungoikoaren Seme,  
gizon Eroslea, *eruki  
zakizkigu.*

Espiritu Santu Jaun-  
goikoa, *eruki za-  
kizkigu.*

Irutasun Deuna, Jaun-  
goiko bakaña, *eruki  
zakizkigu.*

Maria Deuna, *eskatu  
gure alde.*

Jose Deuna

Dabiden jatorri leñargia

Aita Nagusien aŕgia

Dei Genitricis Sponse

Custos pudice Virgini.

Filii Dei nutritie

Christi defensor  
sedule

Almæ Familiæ præ-  
ses

Joseph justissime

Joseph castissime

Joseph prudentissime

Joseph fortissime

Joseph obedientissime

Joseph fidelissime

Speculum patientiæ

Amator paupertatis

Exemplar opificum

Domesticæ vitæ decus

Custos virginum

Familiarum columen

Solatium miserorum

Spes ægrotantium

Patrone morien-  
tium

Terror demonum

Protector sanctæ  
eclesiæ.

ORA PRO NOBIS

ORA PRO NOBIS

Jaungoikoaren - Amar-  
en Senaia

Birjiñaren Zaindari  
Jesus, Jaungoiko - Gizona'k *bi izate* banak  
ditu : beragatik bi adimen eta bi naimen, jaun-  
goikozkoa bata ta gizonezkoa bestea. Bi izateak  
notin edo persona batean, Jaungoiko-Semea'ren  
notiñean, batuak daude.

Ogei ta amar urtez Nazaret'en btzi izan zan  
Jesus, Andre Mari ta Jose'ren etxe ezkutuan;  
Gero azken-iru urteetan bere Bidali edo Apos-  
toluak bildu zituan; baita Juda eta Galilea'n bere  
alatz eta mirarien bidez bere jaungoikotasuna  
egiztatu ere.

### 6.—Erosketa

Erosketa-ordua eldu zalarik Jesus'ek bere bu-  
rua etsaien esku utzi zuan, oiek nekaldi-eriotze-  
tara eraman zezaten.

Judas'ek saldu, eñiko Zaña'k gaitzetsi, Pilato eñomatar-agintariak epaitu zigorkatu, arantzaz burestu, soñekoak kendu ta gurutzean josi ondoren, lapur biren erdian il zan Jesus...

Ordu artan luña ikaraz asi zan, eta añaik alkar joka puskatu, elizako estalkia erdibitu, ilak piztu...

Añi-ilobi beñian eortzi zuten Jesus, baña, bere eriotz-alditik irugañen egunena, berak iragañi zunez ilobiko aña irauli ta antxe irten zan Jesus bizirik eta antxe aurkeztu zitzaien beñogeiegunez, biziz betea, bere Bidali ta eun baño geiago sinismendunei.

Azkenik, Berbizkunde-egunetik beñogeigafenera, zeruratu zan Jesus bere ikasle guztien aurfearan... Adan'ek galdu zigun zerua, Jesus'ek ipiñi zigun beñiro ere gure esku.

## 7.—Kristau-Uzkurtz edo Erlijioa

Kristau-Uzkurtza, Jesus'ek gizon egin eta gu gaizkatzeko (salbatzeko) gurutzean il zan Jaungoiko-Seme betikoñak, jañitako uzkurtza degu.

Jesus'ek etzuan ezer idatzi-ta utzi. Itzez agertu zien eñiai ta ikasleai bere Beñi Ona, eta Bidal edo Apostoluai utzi zien ludi osoan zabaltzeko egitekoa, itz auen bidez: *Zoazte ta eñi guztiai irakatsi egiezute nik agindu dizutedana... Sinisten duana gaizkatuko da ta sinisten ez duana galduko.*

Kristau-Uzkurtzaz beste egiazko erjijiorik ez da ludian.

Ona kristau-sinismenaren egia zerk sinistazten digu : 1. Jesukristo'ren eta Apostoluen alatz edo mirariak; 2'gn. jendea ain ezez kristau egiteak; ez bait-dezake egiak bestek ofelako indarik izan; 3'gn.) kristau-uzkurtza egiztatzeko beren bizia eman zuten Apostolu, lkasle ta mi-laka sinismendunen aitortzak.

## II

### A Z K E N A K

#### 8.—Zerua

Gu guztiok zerurako egiñak gera. Zerua, aingeru ta zoriondunak Jaungoikoa ikusiaz betiko atsegiñetan bizi diran zoriontegia da.

Zerua betikoa da ta bakaña; guztion zoriona, ordea, ez da berdiña izango. Irabazi duan zorion-neuñia emango dio Jaungoikoa'k bakoitzari.

Urri ereiten duanak, guñxi bilduko du; ugari ereiten duanak, ordea, efuz.

#### 9.—Garbitokia

Zikiñik ezin diteke sartu ezertxo ere zeruan. Oben egiñaz Jaungoikoa iraindu ta obenaren zor Jaungoiko - zuzentasunari, neke - ordañez, osoro ordaindu ez dionak, Garbitokira joan beaño du, zor guztiak osoro zuritu ta oben-kutsuak garbitu arte.

### 10.—Inpernua

Pekatuaren mendean edo grazi donetzailerik gabe iltzen dana, inpernura joango da, an bere obenai dagokien zorigaitza izateko.

Bi zorigaitz-era dira inpernua: neke-zorigaitza edo Jaungoiko'rik gabe bizi-beaia (*Uruti nigandik, gaitzetsiok!*), eta zentzun-zorigaitza edo sua (*Zoazte, betiko sutara*).

### 11.—Bakoitz-auzia ta orokar-auzia

Il-da bereala epaituko du Jaungoikoa'k bakoitzaren anima, ta orduan anima, edo zerura edo garbitokira edo inpernura joango da, irabazi duanez. Baño, munduaren azkenean, Jaungoikoa'ren zuzentasuna garbi agertu dedin, Auzi Nagusia egingo da. An bildu bearko degu guztiok, bakoitza bere gorputz eta animarekin, ageriko epaia artzera.

### 12.—Berpizkundia

Gizakume guztiak berpiztuko gera, edo aintzarako edo lotsatarako. Gorputz eta anima egin zuan Jaungoikoa'k gizona; ta orduan, gorputz eta anima, artuko du gizonak, edo betiko saria edo betiko zigoia. Epaikunde-aufetik izango da berpizkundera.

---

## III

**AGINDUAK ETA AOLKUAK****13.—Zeruratzeko nai-ta-naiezkoa :****Jaungoikoa 'ren Legea betetzea.**

*Betiko bizitzan sartu nai ba-dezu, aginduak bete itzatzu.—Sinisten duana, gaiztuko da. Jaungoikoa'ren lenen-legea, bañen-legea da.*

Bañen-legeak, zerbait egin - aurretik, egitera guazena ongi ala gaizki dagon adierazten digu; egi ondoren, beñiz ongi egiña txalotu ta gaizki egiña kezka zimikotu.

Jaungoikoa'k, ordea, bañen-legearen ilunbe, zalantza ta ez-baiak Sinai-mendian emandako Legeaz argitu zituan. Lege oñek amar agindu ditu.

**14.—Jaungoikoa'ren Lege'ko****amar aginduak**

Jaungoikoa'ren Lege'ko lenengo iru aginduetan Jaungoikoa'rekiko ditugun eginbeařak sartzen dira; eta lagun urkoarekiko ditugunak eta gure buruarekikoak, beste zazpiretan.

**Jaungoikoa'rekiko eginbeařak**

1. «*Jaungoiko bakařa gurtuko dezu, ta Bera, beste ezer baño maiteago izango*».

Jaungoikoa'ri *sinismena* zor diogu, egi utsa bait-da Bera; *uste ta itxaropena*, Bera bait-da

gure zorion betea; *goi-maitasuna*, Bera bait-da on azken-gabea; *jaurespena*, Bera bait-da gure asiera ta gure irakasle nagusia; ta azkenik, *beriz*, *otoitza*, Beragandik bait-datorkigu emaitz eta mesede oro.

2'gn. «*Jaungoikoa'ren izena ez dezu alperik mingañean erabili bear*».

Jaungoikoa'ren Aunditasunari, Deuntasunari ta Egiari zor zaion itzalañen eragotzia dago, bearik eta egirik gabe, Jaungoikoa, diogunaren testigotzat artzea, baita Jaungoikoa'ren izenean ziñ-egiñari edo aginduari uts ematea ere.

3'gn. «*Jai-egunak jai egin bear dituzu*».

Egin dizkigun mesede ta on ugari-ordez zor diogun menpetasuna ta omena gizonok obeto agertu dezaiogun, astean egun bat beretzat gorde digu Jaungoikoa'k. Lege Zañean larunbata zan, izadiaren sortze-oroimenez; Lege Beñian, igandea, Jesus Eroslearen Berpizkunde - oroimenez.

### **Lagun urkoarekiko eginbeafak**

4'gn. «*Aita ta ama aintzat euki bear dituzu*». Jaungoikoa'ren laugañen aginduak seme-alabak gurasoai izan bear dien itzala ta maitasuna agintzen du, aiengandik artu bear bait-dituzte umeak beren aziera ta eziera.

Era berean agindu ontan sartzen dira mende-koak beren goikoarekiko dituzten bearkunak ere.

5'gn. «*Gizon-iltzerik ez egin*».

Bostgañen aginduak, lagun urkoari bere gor-



putzean kaltegarri zaion edozer egitea galerazten du.

6'gn. *Aragikeririk ez egin».*

Seigarren aginduak nor beregan eta besteeengan oituran garbitasunari aurka dagon edozer egitea eragozten du; egite loiak, beraz, eta itz eta begiratze lizunak.

7'gn. *«Besteren ondasunik ez ostu».*

Zazpigarren aginduak lagun urkoaren ondasunak eta aien eskubide ta jabetasuna aintzat eukitzeko agintzen du.

8'gn. *«Gezuritzko testigotzarik ez egin eta gezuririk ez esan».*

Zortzigarren aginduak lagun urkoari uste ta sentidana baño ez esateko agintzen du, ta inoren izen onari kaltegarri litzaiokeen guztia galerazten.

9'gn. *«Ezkontzaz landa aragi-atsegiñik ez dezu nai izan bear».*

10'gn. *Okerbidez ez dezu inoren ondasunik nai izan bear».*

Seigarren eta zazpigarren aginduen aurka diran gurari ta gogo txarrik debekatzen dituzte bederatzigarren eta amargarren aginduak. Gurariak, egitera eraman oi du, ta beragatik egiteko gogoia egiña bezela jotzen da.

## 15.—Eliza Ama'ri zor zaion menpetasuna

Gure Jaun Jesukristo'k gizadia zerura-bidean zuzentzeko eratu zuan Eliza Amarekiko menpetasuna da gure Kristau-uzkurtz edo erlijioaren

ezaugafirrik onena ta beafena. Ebanjelioa erakustea ta bere aginduak gordearaztea da Eliza' ren egitekoa.

*«Zoazte ta erakutsi eridi guztiai... Iragari Beri Ona gizaki guztiai... Erakutsi, agindu dizutedana egiten... Luñean zuek lotzen dezutena, zeruan ere lotua izango da; ta zuek luñean askatzen dezutena, zeruan ere askatua geldituko da... Zuei entzuten dizutenak Neri entzuten dit, ta zuek ezesten zaituztenak Nerau ezesten nau... Sinisten duan guztia, gaizkatuko da ta sinisten ez duana, ondatu egingo da».*

#### 16.—Aita Santua Eliza' ren buru ta zuzendari

Bidali edo Apostolu guztiai era batez emandako aginpide nagusia, Bidalien buru Pedro'ri eman zitzaion bereziki, ta Pedro' rangan bere ondorengo Erroma'ko Gotzaiei. Pedro da Eliz ondatu-eziñaren oñari bakara :

*«Zu Pedro zera, ta ari onen gañean jasokodet nere Eliza ta inpernuko ateak ez dute bera beñere menderatuko. Zaitu nere arkumeak, zaitu nere ardiak. Sendotu itzazu zure anaiak».*

#### 17.—Jesukristo' ren egiazko Eliz-ezaugafiak

Jesukristo' ren egiazko Eliza, bear bezelaxe, *Bakara* da, bakara bait-da bere ikaspidea ta bakara bere aginpidea.

*Deuna (Santua)*; Jesukristo' rena ber-bera izanik, deuna bait-da Eliza' ren ikaspidea; gañera

bere eliztañetan deun asko ta aundiak beti izan bait-ditu; eta azkenik oitura ta sinismen-gaietan ezin bait-dezake utsegin.

*Katolikoa*; ludiko eñidi guztietara zabaldua bait-dago edo zabaldu-beaña bait-da.

*Apostoluengandikoa*; etenik gabeko endanan bait-daude apostolu garaitik gaurdaño, Elizan aginpidea duten Gotzaiak eta bereziki Eñoma-koak.

*Eñoma'taña*; Eñoma'n il zan Pedro Deunaren ondorengo, Eñoma'ko Gotzaia izan bait-da beti Elizaren buru ta zuzendari.

### 18.—Eliza'ren aginduak

Eliza'ren aginduak, Jaungoikoa'renak obeto betetzen laguntzeko dira. Bost dira Elizaren agindu nagusiak :

1. Lenengo, jai-egunai dagokiena da. Oben lañi-pean meza osoa entzun bear da jai-egunetan. Igandeak eta beste zortzi egun dira ludi osorako nai-ta-naiezko jai-egunak : Jesus'en Jaiotza, Urte beñi, Iru Eñege, Igokunde, Sortze garbi, Jaso-kunde, Pedro ta Pablo deun, eta Santu guztien egunak.

Españi'rako beste iru geiago : Joseba deun, Gorputz deun eta Santio-egunak.

Eta Euskal-eña'n, iru oez gain : Gipuzko ta Bizkaia'n Inazio deun-eguna; Araba'n Prudenziio deun-eguna ta Napañoa'n Xabier deun-eguna.

2'gn. Grazizko bizitza nai-ta-naiezkoa da zerruratzeke ta bizitza ori da lege guztiaren elburu;

ořegatik Eliza'k bigařen aginduan urtean bein gutxienez aitortzeko agintzen du, aitorketaren bidez, bear izan ezkeru, gure animetan Jaungoikoaren grazia beřitzeko.

3'gn. Eukaristia da beřiz grazi-bizitzaren janari: «*Giza - Semea'ren aragia jan eta bere odola edaten ez ba dezute, ez dezute zuengan bizirik izango*».

Ořegatik agintzen du Eliza'k bere irugařen aginduan urtean bein gutxienez, Pazko-aldian Jaunartzeko.

4'gn. Ama Eliza'k agintzen duanetan aragi-uzte ta barauak egitea.

(Ikus barau, aragi uzte ta barkamenak, liburu onen auren-aldean).

5'gn. Oi danez amařenak eta lenenkariak Eliza'ri ematea.

Kristau guztiak daude, bakoitzak al duan era ta neurian eta Eliza'k agintzen duanez, elizkizun eta eliz gizonentzat zerbait emateko.

Al izan eta ez ematea, oben edo pekatua da.

### 19.—Ebanjelio-aolkuak

Ebanjelio-aolkuak dira kristau-bizitza bikañera eltzeko biderik egoki ta onena.

Iru erlijioso-eskeintzak osatzen dute bide ori.

1. *Beartsutasuna*, au da, Jaungoikoaren, lufeko ondasunak uztea.

2'gn. *Garbitasuna*, Jaungoikoaren, ezkontza ta gorputz-atsegiñak uztea.

3'gn. *Menpetasuna*, Jaungoikoaren, bere or-

dezkoaren mendean, nork bere naia ta aukeramenena uztea.

«*Oso ona izan nai ba-dezu, saldu ezazu dezun guztia ta eman beartsuai; eta etoñi ta jañai neri; zeruan au izango dezu altxoña (aberastasuna).*»

## 20.—Obena edo pekatua

Jaungoikoa'ren legeko aginduak eta Eliza Ama'renak ez betetatzea, oben edo pekatua da.

Jaungoikoa'ren agindua, jakiñaren gañean eta nork bere gogoz, gauza lañian ez betetzea, oben aztuna da. Iikoña esaten zaio oben oni, grazi donetzalea kenduaz, oben egiten duanaren gogo edo anima ila uzten dualako. Pekatu aztuna egin da, grazi ori gabe iltzen dana, betirako inpernura baztartzen du Jaungoikoak. Jaungoikoa'ren agindua, ajola gutxiko gauzetan edo gauza lañian baño ezaguera argi ta gogo oso gabe ez betetzea, oben ariña da.

## IV

### BIDEAK

## 21.—Otoitza

Otoitza egin-bea' dute kristau guztiak gaizkatu edo salbatu nai ba dute, geienetan beintzat otoitza bait-da Jaungoikoa'gandik grazi ta mesedeak iristeko bidea. «*Eskatu ta iritxiko dezute; bilatu ta arkituko dezute*».

Gogo-gaizpena edo animaren salbazioa ta eskar edo grazia eskatzen dizkionari, beti ematen dio Jaungoikoa'k. Agintz ez-bairik gabea da: «*Eskatu ta artuko dezute*».

## 22.—Meza deuna

Kristaudentzako grazi-biderik bikañena, Meza deuna da; Gurutzeko opari ber-bera dalako ta aren indar-era dualako.

Mezak sortzen ditun on eta mesedeak apaizaren esku daude lenengo, berak nai duan asmorako izan ditezen; eta meza entzuten dutenen esku gero. Meza santua lau gauzetarako da:

1. Jaungoikoa agurtzeko edo gure Jaun eta Jabetzat ezagutzeko.

2'gn. Eskeñak emateko.

3'gn. Ontarte edo mesedeak eskatzeko.

4'gn. Barkapena irixteko, naiz pekatuena ta oien ordain-nekeena.

## 23.—Sakramentuak

Sakramentuak Jesukristo gure Jauna'k sortu ta jañitako grazi-bide bereziak dira. Guztiak ematen dute grazia, edo zeruratzeko bear-beaña (donetzalea) edo laguntzalea. Zazpi dira sakramentuak: Bataioa, Sendotza, Eukaristia, Aitor-tza, Azken-igurtzia, Apaizgintza ta Ezkontza.

## 24.—Bataioa

Bataioa'k jatorri-obena kentzen du ta baita ezagueran sartu ta gero, bear diran sinismen eta

damutasunez artzen duanari, berak egin dituan pekatuak ere.

Iñor ezin diteke gaizkatu edo salbatu bataio-gabe : «*Urez eta Goteunez beñiro jaiø ez danik ez da zerura sartuko*».

Estu-aldian nor-naik bataiatu dezake. Bataiatzeko, bataiatu-beařaren buru gañera, ura ixuriaz itz auek esan bear dira : *Nik bataiatzen zaitut, Aita'ren eta Semea'ren eta Goteuna'ren ize-nean*.

### 25.—Sendotza

Sendotza'k Goteuna edo Espiritu Santua eman ten digu bere grazi ugariekin, bide batez Jaungoiko-Semetzan sendotu egiten gaitu ta kristaubizitzarako indartu.

Kristau-gudari-agiria ezartzen digu Sendotza'k eta bein bestetan ezin diteke artu.

### 26.—Eukaristi donea

Eukaristia da sakramentuetan bikañena Eukaristian bait-dago Jesukristo gure Jauna, grazi-egilea bera, bere Gorputz, bere Odol, bere Anima eta bere Jaungoikotasun ta guzti.

Sakramentuaz gañera Eukaristia oparia da, ta, oparia danez Meza deritza. Meza Deunean, ogi ta ardoa Jesus'en gorputz eta odoltzearen bitartez egiten da Eukaristia.

Jaunartzea ren bitartez, beñiz, Eukaristia gure animen janari da : «*Nere aragia ziñez janari da, ta nere odola ziñez edari*». «*Zin-ziñez diotzuet, Giza-Semea'ren aragirik jaten ez ba-dezute ta*

*bere odolik edan ez, ez dezute zuengan bizirik izango».*

0. Ofegaitik Eliza'k : 1. Ezaguera duten kristau guztiai, zazpi urte betezkero gutxi-gora-bera, urtean bein, Pazko'etan Jaunartzeko bearkuna jañi die; eta 2'gn. Kristauai maiz, eta egunero ere bai, artarako bear dan gertueraz, Jaunartzeko eskatzen die.

Jauna ongi artzeko gauza bi dira beañak: Jaungoikoa'ren grazia ta asmo zuzena.

Eriotz-aldian ere Jaunartzera beartuak gaude, inpernuko etsaiaren aurka azken-buñukan indar izateko.

### 27.—Aitortza

Bataiatuzkero egindako obenak barkatzen ditu Aitortza-Sakramentuak.

Lau zati ditu Aitortza'k :

1. *Damua*; damurik gabe ez da barkamenik. Jaungoikoa'k, ain zuzena bait-da, ezin barkatu dio damu ez danari.

2'gn. *Aitorketa*; oben aztunak beintzat guztiak esan bear zaizkio, aitortzan barkatzeko eskubidea duan apaizari: «*Zuek barkatzen dizkiezuenei, barkaturik geldituko zaizkie beren obenak, eta zuek lotzen dizkiezutenei, loturik*».

Oben aztunen aitorketa bakañik da beañezkoa; oñatik oben ariñak aitortzea ere, egoki ta onuragarri, da oben-sustraiak galtzeko ta garbai-penitentzi-egiteko.

3'gn. *Apaizaren azkEspena*.

4'gn. *Ordaña*; edo apaizak ezartzen duan



oben-neke edo penitentzia betetzeko asmo erabakia.

### 28.—Azken-Igurtzia

Itzeko ariskuan daudenai beren pekatuen aztarna ta kutsuak kendu ta inpernuko etsaiaren erasoaldien aurka indaia emateko, Jesukristo'k jañi zuan Sakramentua da Azken-Igurtzia.

1. Pekatuak animan sortutako auleria da oben-kutsuori Azken-Igurtzia'k gorputz-osasuna ere biurtu dezake animaren onerako egoki erizten ba-zaio Jaungoikoa'ri.

2'gn. Gorputz-osasuna ematea ere berez dagokio Azken-Igurtzia'ri, esandako baldintza oñekin ba-da ere.

### 29.—Apaizgintza

Eleiz-lanak egiteko eskubidea ta lan oiek egoki ta beren deuntasunari dagokionez egin alizateko grazia ematen duan sakramentua da Apaizgintza.

### 30.—Ezkontza

Kristau-artean giza emakumeen elkartea onetsi ta ezkonduai alkañekin zuzen bizi ta seme-alabak kristauki azi ta ezitzeko grazia ematen duan sakramentua da Ezkontza.

Elizan jañi zituan Jesukristo'k Sakramentuak, Elizak bere gogora egin eta eman zitzan; oñegatik Eliza'k bakañik du kristau-arteko ezkontza-

buruz legeak eman eta bere gaitasun eta zuzentasunari baldintzak ipintzeko eskubidea.

Eri-agintariak ezkontza-izaeraz ez dute inongo eskubiderik; eri-agintariak, eriarri dagozkion ezkontza-ondorenetan bakarrik dute ikustekorik.

Kristauak, eliz-legeak alde batera utzirik, egiten dituzten ezkon-elkarteak, utsak baño ez dirasasiezkontza zatar batzuek besterik ez.

Ezkontza jatoña, autsi-eziña da ta ezkontz-austea (divorcio) Jaungoiko-legeak eragotzia dauka: *«Jaungoikoa'k batu duana, ez beza gizonak banatu»*.

Obenik egin gabe ezkondu al izateko :

1. Bizi - sakramentueterako bezela, ezkongaien animak grazian, pekatu-rik gabe egon bear dute.

2'gn. Ezkontza, ezkongaietako bat bizi dan tokian egin bear da.

Emen geienetan andregaiaren erian egin oi da.

### 31.—Barkapenak

Pekataria bizitza onetan edo garbitokian bere pekatuaren okeña zuzentzeko ordaindu bear duan aldiko neke-zoñaren azkespena da barkapena.

Aitorketa-azkespenak pekatua ta pekatu aztunari dagokion betiko nekea barkatzen du; baño, geienetan Jaungoikoa'k erabakitzen duan aldiko neke-zoña, gero ordaintzeko gelditzen da.

Barkapenak irabazteko nai-ta-naiezkoa da Jaungoikoa'ren grazian egotea.

Ofezaz gañera Jaunartzea agintzen danean, Jaunartze bakarra da naikoa egun artan irabazi ditezken barkapen guztietarako.

Aitortza agintzen danean, egunero Jaunartzen dutenak, astero edo amabostetik egiten dutena naikoa dute barkapenak irabazteko.

Barkapen geienak garbitokiko animen alde irabazi ditezke, oregatik, barkapen asko irabazi eta anima asko zeruratu ditezke batera.





## VII. Ebanjelioak

### Eliz - Urtea

Eliz urteak. iru aldi nagusi ditu:

1'g.) *Eguberi-aldia.*

2'g.) *Pazkoa edo Piztuera-aldia.*

3'g.) *Pentekostes ondorengo aldia.*

Bakoitzak bere jai nagusiak ditu, bi edo iru, ta oien inguruan beste jaialdiak, aiekin bat bezela egiñik.

1'g.) *Eguberi-aldia:*

Abendu edo Elgaroko lenengo igandean astenda, ta Zazpigarren igandean bukatzen da. Aldi ontan, *Jesukristo gure Jaunaren jayotza ta bere lenengo urteak* gogoratzen dizkigu gure Eliza Amak.

Abendu edo Elgaroko lau asteak jaítzen dira lenbizi, Jesusen Jayotzerako geítuera (prestaera) bezela.

Ufen, Eguberi-eguna, Eregeen jayaldia ta ondorengo igandeak.

Aldi ontako jai nagusienak : *Jesukristoren jayotza ta Jaunaren Agerketa* (Erege jayaldia) dira.

Andre Mariaren beste bi jai aundiak ere, emen sartzen dira, bere *Sortze-garbia ta bere Garbiketa*, gogoratu nai bai digu gure Eliz amak Jesus gure Eroslea eman zigula.

2<sup>gn</sup>. *Pazkoa edo Piztuera-aldia* :

Zazpigarren igandean asi ta Pentekostes ufen-go larunbatean bukatzen da. Aldi ontan *Jesukristo gure Eroslearen Nekaldi-Eriotza, Piztuera, Igoera, ta Espiritu Santuaren etoñera* gogoratzen ditugu. Bi ataletan erdibitzen da :

Lenengoa : Zazpigarren igandetik, Piztuera igandera dijoa, ta *negaraldia* da.

Bigarrena : Piztuera igandetik, Pentekostes-ufengo igandera, ta *pozaldia* da.

Lenengo atalean sartzen dira :

Zazpigarren, Seigarren ta Bosgarren igandeak;

Beñogeikaro edo Garizumaren lau igandeak,

Nekadi-igandea, Abar-igandea

ta Ostegun, Ostiral ta Larumbat Deunak.

Bigarrenean : Piztuera-jayaldia ta bere ondorengo bost igandeak;

Jaunaren igoera eguna, ta ufengo igandea.

Jai nagusienak : Ostegun, Ostiral ta Larumbat Deunak eta Piztuera-igandea dira.

Aldi ontan sartzen da baita Jose Deunaren jaialdi ere.

3'gn. *Pentekostes ondorengo aldia :*

Pentekostes-urango igandean asi ta Elgaro edo Abenduraño dioa. Aldi ontan : Jesukristo gure Jaunaren bizibidea, mirariak, ibilerak itzaldiak, eta abar gogoratzen ditugu.

Ogeitalau igande ditu, ta aldi ontan ere jai aundi-edeñak betetzen dira: aundienak: Gorpuzt-Deun jayaldia, Juan Bataiatzalearen jayotza, Pedro ta Pablo Deunen pozaldia, Andre Maria-ren Jasoera, ta Deun edo Santu Guztien jaieguna.

## ABENDUA

Abendu edo Elgaroz, Eliz-Amak Jesu-Kristo gure Eroslearen (Salbatzailearen) jayotzarako prestatzeko jai digun, barau-neke-ta otoitz-garaia da.

Maiz entzungo dituzute garai ontan, gure Aita-Nagusi ta Igarlien otsak, Aita Jaungoikoari bere Semea, gizonen Eroslea lenbailen bidali dezan eskatuaz.

«Zabaldu bitez zeruak eta betorkigu *Zuzena*; Idiki bide gure luña, ta sortu beza *Salbatzailea*».

Aiekin batean poztu gaitezen gure Eliz Amaren seme onak izan nai degunok gure Eroslea beñiro datořkigulako, ta gertu ditzagun gogo biotzak, neke gogoř ta otoitz sutsu-beroeekin.

**Abendu edo Elgaroko lenengo igandea**

(Luc XXI. 25-33)

***Azken-epai--rako (juiziorako) gertaera  
eta Jesukristoren Etoñera***

**A**ldi artan: Auxe esan zien Jesusek bere ikasleai: Ezaugarñiak izango dira eguzkian ta ilargian ta izañetan (*ludiaren azkenean*), eta luñean giza-emakumeen lañitasuna, itxasoko olatuen oñua entzunda; belduñez igartuak ibiliko dira, mundu osoari etoñi beañ zaizkion ondamendien ikaraz; zeru-luñaren indañ guziak naspilduko baitdira. Orduan ikusiko dute, Gizonaren Semea, eskubide-aundiz ta nagusikiro, odei baten gañean datoñela. Gauz auek gertatzen asi-ta-gero, jaso buruak ta begira ezazute: ba'datoñkizute askatasun-eguna. Eta antz-irudi oekin jañaitu zuen: Begiratu itzazute Piku-ondoia ta beste zuaitzak igaliak (frutuak) ematen asten diranean, ba'dakizute udara uñean dezutela: berebat zuek ere, gertakizun oiek asi dirala dakuszutenean, gogoratu, Jaungoikoaren agintea uñean dagoela. Egi-egiaz diotzuet: ez da gizal-

di au joango, oiek guziak gertatu baño len: zeru-luñak aldatuko dira, baño nere itzak ez dira iñoiz aldatuko.

### Abenduko (Elgaroko) Il-gafen igandea

(Mat. XI. 2-10)

#### *Juan Bataiatzañearen bizibide neketsu zoñotza*

**A**ldi artan: Joanek, katez lotua arkitzen zala, Kristoren mirariak entzun zitue-nean, bi ikasle bidali zizkion galdetzera: —¿Zu al zera Etoñtzekoa (Mesias) ala besteren bati itxoiten gaude? Jesusek erantzun zien: —Zoazte ta gaztigatu zaizkiozute Joani entzun ta ikusi dituzutenak: itxuak ikusten, legendunak garbituak, goñak entzuten, ilak berpiztuta, beañtsuak beñi-ona ikasiak. Eta zorionekoa, nitzaz galbidetzen (ezkandalizatzen) ez dana. Eta aiek joan ziranean, (gañerakoai) galdezka asi zitzaïen: —¿Zertara joan zerate basamortura? aizeak eragindako kañabera ikustera? ¿edo gizon apain jantziren bat? Apain jazten diranak eñege-etxeetan daude, ¿Zertara joan



zerate, ba? ¿igarlea ikustera? Bai; igarlea, ta igarlea baño aundiagoa. Arentzat dago esana: «Nere aingerua bidaliko dizut. Nik Zuri, auretik bideak zuzentzera». Egi-egiaz diotzuet: emakumegandik jayotakoen artean ez da sortu Juan Bataitzalea baño aundiagorik: zeruko eremuan, ordea, txikiena ere, ura baño aundiagoa da.

### **Abenduko (Elgaroko) III gañen igandea**

(Joan. I. 19-28)

#### *Juan Bataitzalearen apaltasuna*

**A**ldi artan: Juduarak apaiz eta apaizlagunak bidali zituzten Jerusalem-dik Joanengana galdetzera:—¿Nor zera zu? Eta aitortu zuen; ez zuen ukatu. Aitortu ta esan zuen:—Ni ez naiz Kristo. Eta beriz galdetu zioten:—¿Nor zera ba? Elias?—Ez-erantzun zien.—¿Igarlea al zera ba?—Ezta-esan zuen. Orduan galdetu zioten:—¿Nor zera ba, bidali gaituztenai erantzuteko? ¿zer diozu zure buruaz?—Basamortuan *Jaungoikoaren bideak zuzendu itzazute*, oju egiten

duenaren abotsa naiz : Isaias igarleak esan zuen bezela. Bidalduak fariseotarak ziran eta galdetu zioten: —Zergatik batayutzen dezu, ba, ez Kristo ez Elias, ez igarle ezpazera? Eta Joaneke erantzun zien : —Nik urez batayutzen det, bañon zuen artean dago, zuek ezagutzen ez dezutena: Bera da nere ondoren etoriko dana; ni baño lenago sortua dana, eta aŕen oñetakoen lokaŕia askatzeko ere ni diña ez naizena. Gertaera auek Betani' an Juan batayutzen zebilela bete ziran.

#### **Abenduko (elgaroko) IV gaŕen igandea**

(Luc. III. 1-16)

#### *Juan Bataiatzalearen erakuspenak*

**T**iberio Erómako nagusiaren 15'gaŕen urtean, Ponzio Pilatos Juduaŕen agintari zala, ta Herodes Galileako eŕege, ta Pilipo bere anaia Iturea ta Trakonitidas zeritzaien alderdietakoa, ta Lisania, beriz, Abilinikoa; Ana ta Kaifas apaiz-nagusien agintaritza-garaian, Jaungoikoak itz egiñ zion basamortuan Zacarias'en seme Juani : eta etoŕi zan au Jordan-

inguruko erietara, eta antxe asi zan non-nai pekatuen barkapena irixteko batayoaren beara erakusten. Isaias igarlearen itzaldi-liburuan esana bait-dago: «Basamortuan oju dagienaren abotsa: Gertu ta zuzendu itzazute bere bideak; ibaiguziak beteko dira, ta mendi ta muñoguziak zapalduak izango dira: bide latzak berdinduak: eta, ikusi, laixter ikusiko dute gizon guziak Jainkoaren osasuna (salbatzalea)».

## EGUBEŔI GARAIA—JESU-KRISTOREN JAYOTZA

Egubeŕi-garai pozgafi-au, Abenduaren 25'an asten da, Otsailaren 2'an bukatzeko: beŕogei egun alai auetan, gure Eliza-Amak Jesus Auŕa-ren jayotzako ezkutapenak (misterioak) gogoratzen dizkigu, Jesus jayo zaigulako poz-atsegiñez bete gaitezen.

### GABON EGUNA

#### Jesukristoren jayotza

Egubeŕi-jaialdi ospatsu-eder ontan, Jainkoseme Jesukristo'ren jayotza ospatzen du gure Eliza-Amak, ta pozaldi ain eder ori gogoraturik gure Erosle, edo Salbatzale Jesukristo'ganako esker ona, ta biotzeko maitetasun gorria eska-

tzen digu. ¡Emaiozu gauñ, kristaua, zure biotz osoa, eskeñi zaiozu zure maitetasuna: maitetasun sutsua, neufigabea ta beti-betikoa!

*Iru meza* ematen ditu apaiz bakoitzak egun ontan, Jesukristo gure Jaunaren iru jayotzak ospatzeko :

*lenengoa*: Jesukristo'ren jayotza luñean, Andre Maria'ren eñaietatik.

*bigařena* : bere gogozko jayotza, kristau guzi-en biotzetan.

*Irugařena* : bere betiko jayotza, Aita Jaungoikoaren altzoan.

### **Lenengo meza**

(Gau-erdikoa Luc. II. 1-14)

*Jesukristo gure Eroslea noiz eta nola jayo zan*

**A**ldi artan: Cesar Augusto Eñomako nagusiak luñalde guzia izendatzeko agindu zuen. Kirino Siria'ko agintariak egin zuen lenengoz izen-biltze au. Eta ba' zijoazen guztiok, bakoitza bere jayote-řira, izena ematera. Dabid eñegearen ondorengo ta jatořikoa zalako, antxe igo zan (joan zan), Jose ere, bere emazte auřdunarekin, Galileako Nazaret'etik, Belen izeneko Judeako Dabiden eñira, an

bere izena ematera. Eta bertan zeudela, aur-egiteko egunak bete zitzaizkion Maria'ri, eta seme bat egin zuen: eta, zapiz bildurik, ganbela batean etzan zuen, ezpaitzuten ostatuan tokirik arkitu. Artzai batzuek zeuden inguru artan gau-zai beren artaldeakin, eta bat-batean zeruko aingeru bat eto'ri zitzaien, eta argitasun bizi batek inguratu zituen; laritu ziran orduan gogofik, bañon aingeruak esan zien: —Ez beldur'tu, poz aundi baten be'ri ematera nato'rkizute, e'ri guztientzako izango dan poza adieraztera: Erosle edo Salbatza'lea jayo zaizute gaur Dabiden e'rian, Kristo gure Jauna; eta o'ra zertan ezagutuko dezuten: Oyal-zapiz bildua, ta bei-askan etzana arkituko dezute au'ra. Eta bereala, aingeru talde aundi bat lenengoeekin elkarturik, an asi ziran guztiak Jauna goresten —Aintza-esaten zutela: —aintza Jaungoikoari zeru goi-goian, eta pakea lu'ean, gogo oneko gizonai».

**Bigarren meza**

(Luc. II. 15-20.)

*Artzaiak Jauna gurtzera datoz*

**A**ldi artan: —Goazen-zioten artzaiak elkarri. —Goazen Belen'era eta ikusi dezagun, orain gertatu dan eta Jaungoikoak jakiñerazi digun mirari au. Lenbailen joan ziran, eta Maria ta Jose arkitu zituzten, aurtxoa askan etzana zeukata. Au ikusirik, igari zuten aurtxoaz entzundakoa egia zala; eta gauz auek entzun zituzten guziak orobat aritu ziran; baita artzaiak ziotenarekin ere.

Mariak, beriz gauza oiek biotz barenean gorde eta antxe gogoratzen zituen. Gero artzaiak aingeruak adierazi zieten guzia ikusi ta entzun zutelako, Jaungoikoa aintzatu ta goratuaz artaldeetara biurtu ziran.

**Irugarren meza**

(Joan. I. 1-15)

*Jesukristoren betiko jayotza ta Jaungoikotasuna*

**A**sieran ba'zan Jainkoaren Semea (Verboa), eta Jaungoiko-seme au, Jaungoiko-

agan zegon eta Jaungoikoa zan. Asi-  
ratik Jaungoikoagan izan zan. Guzia  
berak egiña da, eta ezer ez da Berak  
egin ez duenik. Beragan zegon bizitza,  
ta bizitza gizonen argia zan: eta argiak  
ilunpetan dizdiratzen du, bañon ilunpeak  
ez zuten artu. Juan zeritzan Jaunak bi-  
dalitako gizon bat ba'zan: eta siñista-  
raztera etori zan, argiari siñispidea ema-  
tera, bere bitartez denak siñistu zezaten.  
Bera ez zan argia, argiari siñispidea  
emateko bidaldua baizikan. Ba-zan luře-  
ra datozen gizon guztiak argitzen dituen  
egiazko Argia. Luñean zegon eta Berak  
egin zuen luñbira, eta alaere luñtañak ez  
zuen ezagutu. Bañon ezagutu duten  
guziai, Jaungoikoaren Semeak izateko  
eskubidea eman die: oiek ez bait-dira,  
odolak edo aragiaren ta gizonaren  
gogoak soñtuak, Jaungoikoarenak bai-  
zik. *Eta Jaungoikoaren Semeak gure  
aragia artu zuan* (gizon egin zan) eta  
gure artean bizi izan da, eta guk ikusi  
degu bere aunditasuna, seme bakañak  
Aitagandik daukana bezelakoa, doai  
ta egiz betea.

**Jayotzetik zortziufeneko igandea**

(Luc. II. 33-41).

*Simeon eta Anaren iragarriak*

**A**ldi artan : Ariturik zeuden Jesusen gurasoak, beraz ziotena entzunda : bañon Simeon'ek bedeinkatu zituen ta bere ama Mariari esan zion :—Ora : askoren ondamendirako (galerako) ta askoren piztuerako eta ukatuko dutenen ezaupiderako jaia izango da auxe Israe'en, eta zuri ezpata batek zulatuko dizu biotza (gogoa), askoren biotzak gordetzen dutena agertu dedin. Eta Ana zeritzan emakume igarile bat ere ba'zan an, Phanuelen alaba, Aseren erkikoa (tribukoa); oso zaia zan; ezkonduta zazpi urtetan bizi izan zan senarekin; bañon alargundu zan, eta larogeitalau urtean, egun oso-osoa elizan egoten zan otoitz eta barau, gau ta egun Jauna agurtzen, ordu artantxe sartu zan au ere elizan, eta an asi zan Jauna goresten, eta Jesus Auraz Salbatzaile-zai zeuden Israe'darai itz-egiten.

Eta Jaunaren legeak eskatzen zuen gu-



zia beteta, atzera Galileako beren eñi Nazaretera biurtu ziran. Eta Jesus Auñá, azita indańak artzen zijoala, jakintasun ta Jaungoikoaren doaiez betea agiri zan.

### Jaunaren agerketa-Eregeen jaialdia

(Mat. II. 1-13).

*Soñtaldeko eregeak Jauna guñtzen dute.*

**H**erodes eregearen egunetan, Judeako Belen'en Jesus jayo zanean, Erege batzuek etoñi ziran Soñtaldeetik Jerusalem'a, esanaz :—¿Non dago Juduañen erege jayo-beñia?—Soñtaldean ikusi degu bere izaña, eta agur' egitera gatozkio. Laritu zan Herodes eregea au entzunda, eta orobat Jerusalem'dañak : orduan bildu zituen apaiz-nagusi ta eñi-idazlariak, eta Kristo non jayo beaña zan galdezka asizitzaian :—Belen'en—esan zioten :—Ala bait-dauka Igañleak esana : «Eta zu Belen, Judeako eñia; ez zera ez zu Judeako eñi nagusietan txikiena; zugaran jayoko da, nere eñi Israël zainduko duen zuzendaria». Herodes'ek orduan, Magoak ixilkiro deituta, ardura aundiaz izaña noiz

agertu zitzaien galdefu zien, eta gero Belen'a bidali zituen esanaz :—«Zoazte, ta ikusi ezazute aurá non dagon, eta arkitutakoan deitu nazazute, nik ere joanda agurá dezadan». Aiek, elegearen itzak entzunda joan ziran : eta len sortaldean ikusi zuten izaía, beriz ere auretik zijoakien, eta Aurá zegon tokira eldu ziranean, antxe gelditu zan. Pozez bete ziran izaía ikusita eta etxe-bañenean sartuta, antxe ikusi zuten, Aurá bere ama Mariarekin : eta auspez jañirik agurá zuten, eta bere aberastasunak atera ta opariak eskeñi (egin) zizkioten: uréa, kedatza (intzentsoa) ta miía. Eta lotan zeudela, Herodes-engana ez biurtzeko, esan zitzaien eta beste bidetik an itzuli ziran beren sorteíra.

**Elege egunaren (Jaialdiaren)**

**zortziufeneko igandea**

(Luc. II. 42-52).

*Jesus Jerusalengo Eliz nagusian,  
Erakusle artean.*

**A**ldi artan : Jesus'ek amabi urte zituela, bere gurasoak jai-oitura zan bezela Jeru-

salen'a, joan ziran. Jai egunak bukatuta, biurtzerakoan, Jesus, bere gurasoak igeri gabe, Jerusalem'en gelditu zan. Auek beste lagunen artean izango zalako ustean, egun bateko bidea egin zuten eta gero senide ta ezagunen artean bila asi ziran; bañon arkitu ez zutenean, atzera Jerusalem'a biurtu ziran, arien bila. Iru egunen buruan eliz-nagusian arkitu zuten, jakintsu artean exerita, batean aiei entzuten, bestean aiei galdezka : eta entzuten zioten guztiak aren jakintasuna ta erantzuerak ikusita ariturik zeuden. Bere gurasoak ere aritu ziran ikusi zutenean, eta amak onela esan zion :—Ene Seme: zergatik egin diguzu ori? zure aita ta ni, ementxe ibili gera estu ta lañi zure bila. Berak erantzun zien:—¿Zertaz nere bila ibili? ¿ez zenekiten nere Aitaren lanetan egon beara nintzala? Bañon aiek ez zuten ulertu itz oiekin esan nai ziena. Gero elkarrekin Nazaret'a jetxi ziran, eta bere gurasoen mendean zegon. Bere amak, gauz auek guztiak biotz-barenean gordetzen zituen. Eta Jesus egunero eta jakintasuago ta doaiez (eskeréz) beteago agiri zan Jainko ta gizonen aurrean.

## Efege-egunaren ondorengo II igandea

(Joan. II. 1-12)

*Kana'ko eztaietan Jesusek ura ardo biurtzen du.*

**A**ldi artan: Eztaiak ziran Galilea'ko Kana'n, eta antxe zegon Jesus'en Ama: Jesus ta bere ikasleak ere deitu zituzten eztaietara. Eta ardoa bukaturik, onela esan zion Amak Jesus'i:—Ardorik ez daukate. Jesusek erantzun zion:—Emakumea zeta zer zuri ta neri? Oraindik ez da eldu nere garaia. —Bañon Amak onela esan zien moñoia:—Egin zazute, aginduko dizuten guzia. Juduen garbiketarako, bi-iru suileko sei arizko ontzi zeuden an. Eta Jesusek esan zien:—Bete urez ontzi oiek. Eta goi-goraño bete zituzten: gero esan zien:—Orain atera zazute, ta eramán nagusi-ordeari. Eta eramán zioten. Onek, ardo biurtutako ura ikusi (dastatu) zuenean, nondik atera zan ezpaizekien, deitzen du senara ta esaten dio:—Guztiak, asieran jaitzen dute ardo ona eta edaleak moskoitzen diranean, orduan (txaragoa) motelagoa:

zuk, ordea, azkenarte gorde dezu ardo ona. Au da Jesusek egin zuen lenengo alatza (miraria): orduan erakutsi zuen bere eskubidea (almena), ta orduantxe siñistu zioten bere ikasleak.

### **Efege-egunaren ondorengo III igandea**

(Mat. VIII. 1-13)

*Usteriduna (lepraduna) sendatu.*

*Eunburuaren siñispena.*

**A**ldi artan : Jesus menditik jetxi zanean, giza-talde aundia joan zitzaion ondoren. Eta gizon usteridun bat ureratu zitzaion ta agurtu zuen esanaz :—Jauna, Zuk nai badezu, sendatu nazazuke. Jesus'ek eskua luzatuta ikutu zuen eta esan zion :—Nai det; garbitu zaitez. Eta bat-batean usteriduna garbi arkitu zan. Gero esan zion:—Ez inori esan, bañon zoaz apai-zarengana, ta emaiozu Moises'ek agiritzat agindutako eskeña.

Eta Kafarnaun'en sartu zanean, eunburu bat (100 soldadu dituen buruzagia) ureratu zitzaion ojuka : —Jauna : nere moñoia etxean dago elbaritua, ta oñaze-

tan dago. Jesusek esaten dio :—Joango naiz ta sendatuko det. Bañon eunburuak erantzun zion :—Jauna, ni ez naiz Zu nere etxean sartzeko diña, eta esazu itz bakar bat, ta moñoia sendatuko da. Neroni ere, iñoren mendekoa naiz, bañon ba'ditut nere agindupean gudariak (soldaduak); eta bateri esaten badiot : *zoaz*, joaten da; ta besteari *atoz*, etoítzen da; ta uréngoari, *egin zazu au*, egiten du. Itz auek entzunda, Jesus asko aritu zan, ta onela esan zien bere jaraitzaleai :—Egiaz diotzuet : Ez det Isráel'en onen siñismen (fede) aundirik arkitu. Eta berebat diotzuet : Askok ta asko etoíriko dira ipar-alde ta sartaldetik, ta Abraan, Isaac ta Jakobekin batean exeriko dira maiean, zeruko éreinuan: bañon éreinuko semeak, kanpoko ilunpetara botako dituzte: an izango dira negar ta ortz-kañaskak. Gero eunburuari—*Zoaz* esan zion—eta gerta bekizu siñistatu dezun bezela. Eta ordu artan bertan, aren moñoia sendatua arkitu zan.

## Erege-egunaren ondorengo IV igandea

(Mat. VIII. 23-27)

*Jesukristok, itxasoa baretuaz, bere eskubidea erakusten da.*

**A**ldi artan : Jesus, bere ikasleak lagun zituela, batel batean sartu zan, eta bat-batean izugarizko ekaitza sortu zan itxasoan olatuak batela estaltzen zutela; bañon, Bera lo zegon. Bere ikasleak uñeratu ziran eta esnatu zuten esanaz : —Jauna, gaizkatu (salba) gaitzazu; galduak gera bestela. Eta Jesusek erantzun zioten : —¿Zergetik zerate beldur, sinismen gutxiko gizonak? Gero jeiki ta, aize-itxasoai agindu zien, eta bare-bare gelditu ziran.

Gizon aiek, guztiz arituta zioten : —¿Nor ote-da au, aizea ta itxasoa bere mendean oñela jartzeko?

## Efege-egunaren ondorengo V igandea

(Mat. XIII, 24-30)

*Urítz-oloaren (zizañaren) ipuia.*

**A**ldi artan : Ipui au esan zien Jesusek bere ikasleai : —Zeruko-éreinua (agintea, ala), bere soroan azi ona erein zuen gizon baten antzekoa da, bañon, moñoiak lotan zituela, etoñi zan arén etsaia ta urítz-oloa (iraka, bedar txaña) gari artean erein eta joan egin zan. Gariak, belar eginda, burua jaso zuenean, urítzoloa ere agertu zan soroan. Moñoiak orduan, nagusiarengana joanda esan zioten : —¿Jauna : ez al zenduen azi ona erein zure soroan? ¿nondik dator ba urítz-oloa? Anek erantzun zieten : —Nere etsaiak ereingo zuen nunbait. Moñoiak beriz galdetu zioten : —¿Nai al dezu joanda biltzea? —Ez-erantzun zien nagusiak : —Bestela agian, urítzoloa biltzerakoan, garia ere atera egingo dezute: utzi biok igitaldiraño; azi ditezela; eta orduan igitariai esango diet : Bildu lenbizi urítzoloa txoñtetan, éretzeko, eta garia eramán mandiora.



**Efege-egunaren ondorengo VI igandea**

(Mat. XIII. 31-36)

*Zerba-ale ta legamiaren ipuia.*

**A**ldi artan : Ipui au esan zien Jesusek bere jaraitzaleari : — Zeruko agintea (ala, ereinua), gizon batek bere eskuetan artuta erein zuen zerba (mustarda)-azia bezelakoa da; ale edo azi guzietan bera da txikiena; azita, ordea, beste barazki guziak bañon zuaitz aundiagoa egiten da, eta txoriak jetxi ta bere adaretan jartzen dira. Gero beste ipui onekin jaraitu zuen : — Zeruko agintea, emakume batek artuta, iru zoño-iriñekin ogi (oré) guzia legamiatu artean nastu zuen, legamia bezelakoa da. Eta Jesusek, ipui edo antz-irudietan azaltzen zizkion eñari gauz auek guziak, eta ez zuen bestela itz egiten, lgarlearen esana bete zedin : «Ipuietan itz egiteko idikiko det aoa, eta luñalde asieratik gordeta dauden gauz arigariak olaxe agertuko ditut.

**Irurogeitamargañeneko igandea**

Irurogeitamargañen, irurogeigañen ta beñogeitamargaña deitzen ditugu Garizuma aurreko iru igandek. Gure Eliza Amak, garai ontan,

Befogeikaro edo Garizuman sartu baño len, emen beko txorakeri - atsegiñai agur eginda, biotzak garbitzeko esaten digu azia soroetan erneko ba-da, luña lendauñetik maneatu bea bait da : orobat, gure biotzetan Garizuman eroriko dan grazi-aziak, jayo ta emai (frutu) onak emateko luñ ona eskatzen du.

### Irurogeitamargañeneko igandea

#### Garizuma auñeko lenengoa

(Mat. XX. 1-17)

**A**ldi artan : Ipui au esan zien Jesusek bere ikasleai : —Zeruko Erreinoak, goiz-goizean, bere mastirako, langile - bila irten zan etxejaunaren antza du. Irten zan eta eguneko amañeko bana aginduta, an bidali zituen. Irugañen orduan, beñiro irten zanean, beste batzuek arkitu zituen enparantzan, alperkerian, eta —Zoazte— esan zien : —Zoazte zuek ere, nere mastira, eta bidezkoa dana emango dizutet : eta aiek ere joan ziran. Seigañen eta bederatzigañen orduan iritenda, beste ainbeste egin zuen. Azkenean, amaikagañen orduan irten zan, eta banaka batzuek arkitu zituen lanik gabe, eta onela esan zien : —¿Zertan zaudete emen egun osoan ezer egin gabe? —Ez

bait-gaitu iñork deitu, —erantzun zioten. Orduan esan zien : —Zoazte zuek ere nere mastira. Ilunabaréan, deitu zuen nagusiak langile - zaia eta onela esan zion : —Langileak deitu eta emaiozu bakoitzari bere saria (zor' zaiona), azkenengoetatik asita lenengoetaraño. Eldu ziran lendabizi amaikagañen orduan eto-riak, eta bakoitzak amañeko bat artu zuen. Azkenik lenengoak zerbait geigo artuko zutelako ustean eldu ziran, bañon bakoitzak, amañeko bat besterik ez zuen artu. Orduan mañ-mañean asi ziran nagusiaren kaltez : —¿Zer, neke ta bero guzia guk eramán, eta ordu bete besterik lan-egin ez duten auekin oin batean jañ-tzen gaituzu? Bañon berak onela erantzun zion aietako bateri . —Adiskide, ¿kalterik egin al dizut? ¿ez al nizun amañeko bat agindu? artu ba zurea, ta alde (zoaz); azkeneko oni zuri añña eman nai ba - diot : ¿ezin egingo ote det nai detana? ¿ala zure begia okeña ote da, ni zuzena naizelako? Era berean : azkenekoak izango dira lenen, ta lenengoak azken : asko bait-dira deituak, bañon gutxi aukeratuak.

Irurogeigafeneko igandea, edo Garizuma  
aufeko bigafena

(Luc. VIII. 4-15)

*Aziaren ipuia*

**A**ldi artan: Errietatik etorritako oste (jende - pila) aundia, Jesusengana inguratu zanean, onek ipui au esan zien: —Ereile bat irten zan, azia ereitera, eta, ereiten ari zala, azi batzuek bide-bazteiera erori ziran: auek oinperatuak izan ziran eta zeruko txoriak jan zituzten. Besteak, toki aritsuetan erori ziran, bañon jayo ta laxter, bustirik ez zutelako igartu egin ziran. Beste batzuek arantz-artean erori ta, arantzak azi ziranean ito egin zituzten. Besteak atzenean, iur onean (jatorrean) erori ziran, eta jayo ta eun alako eman zuten. Gero ots aundi batez esan zuen: —Aditzeko belarriak dituenak, aditu dezala. Ipui arek zer esan nai zuen galdetu zioten, Ikasleak eta onela erantzun zien: —Zuek aditu ditzakezute Jainko-agintearen ezkutapenak; besteai orde, ipuietan jartzen zaiete, ikusiaz ikusi ez dezaten, eta entzunda entzun ez deza-

ten. Oña, ba, ipuiaren azalpena : Azia, Jaungoikoaren itza da; bide - bazterean erorifako azi-aleak, itza entzuten duten aditzale batzuek dira, bañon deabruak, laxter etorri-ta, biotzetik kentzen b it-die, sinistu ez dezaten eta zeruratu ez ditezen. Ari-tartean eroritakoak, beste aditzaleak dira : oiek itzak pozik entzuten dituzte, bañon ez bait-dute sustrairik botatzen, piska batean siñisten ba-dute ere, laixter, zitzaldi-garaian (tentazioan), atzeratu egiten dira. Arantz - artean eroriak, itza entzuten duten beste aditzaleak dira, bañon egin-bearak batetik eta aberastasan-atsegiñak bestetik, ito egiten bait-dute, ez du beñere ezer ematen. Azkenean, lur onean eroritakoak, biotz onezko aditzaleak dira, itza entzunda gordetzen dutenak : auek dakarte eramantasunaz emai edo frutu eldua.

**Befogeitamargafeneko igandea edo  
Garizuma-aufeko irugafena**

(Luc. XVIII. 31-43)

*Jesukristok bere Nekaldi - Piztuerak  
iragaítzen ditu. Itxu bat sendatu.*

**A**ldi artan : Ártu zituen Jesusek amabi ikasleak, eta esan zien : —Ora; Jerusaleña igotzera goaz, eta oraintxe beteko dira Gizonaren Semeaz igaríleak esandako gauza guziak : arotzen eskuetan emango (jaríko) dute, paríseka egingo diote, zigoñaz jo ta txistuz zikinduko dute; zigoñaz jo ta gero beríz erail egingo dute; bañon irugañen egunean beríz ere piztuko da. Aiek, ordea, ezin ulerítu zituzten gauz auek : ta itz au ezkutua zitzayen, ta etzuten ulerítzen esaten zana. Eta Jerikora inguratu ziranean, itxu bat arkitu zuten eskean; bide - basteñean. Onek, andik zetoñen ostearen (jendearen) otsa entzun-da, zer ote-zan galdetu zuen, eta Jesus Nazaretaña zetoñela gaztigatu (esan) ziotenean, ojuka asi zan : —Jesus Dabid'en Semea, erukitu zakizkit. Auñetik zijoazenak, ixilik egoteko zioten, ba-

ñon berak gero ta oju aundiagoz zion : —Dabid'en Semea, erukitu zakizkit. Jesus orduan gelditu zan, eta itxua bere aurera ekartzeko agindu zuen; eta eldu zanean, onela galdetu zion : —¿Zer nai dezu zuri egitea? Besteak erantzun zion : —Jauna ikusi dezadala. Eta Jesusek erantzun zion : —Ikusi zazu, ba : zure siñismenak gaizkatu (salbatu) zaitu. Bertatik ikusi zuen, eta Jesusi jaraitu zion Jaungoikoaren eskua goratuaz. Au ikusi zuten guziak, Jauna goretsi zuten.

## BEŔOGEIKAROA (Garizuma)

Beŕogeikaroa edo Garizuma, Austerre egunean (asteazkenean) asten da, ta izenak dion bezela, beŕogei eguneko garai edo aroa da. Jesu-Kristok basamortuan egindako baruen oroi-penaz, barau egin ta aragi-uzten degu egun oietan, gorputza ilduratu ta bere griña gaiztoak menderatzeko, pekatuen neke-saria ordaintzeko, gogo-biotza garbitzeko, azkenean zeruko sari edeŕa guganatu dezagun.

**Berogekaro edo Garizumaren  
lenengo igandea**

(Mat. IV. 1-11)

*Jesukristoren baraua ta zitzaldia basamortuan.*

**A**ldi artan : Gogo - Deunak (Espiritu Santuak), Jesus basamortura eramane zuen, au deabruak ziltzatu (tentatu) zezan : eta berogei eguneko baraua egin ondoren Jesus gosetu egin zan. Ureratu zitzaion orduan tentatzailea eta onela esan zion : —Jaungoikoaren Semea bazera, ogi bihurtu ezazkitzu ari auek. Jesussek erantzun zion : —Ez da gizona ogia bakarrik jan-da bizi, baita Jaungoikoaren aotik irtetzen dan itza entzunaz ere. Eramane zuen orduan deabruak Uri santura (Jerusalena), eta, eliz nagusiaren galurean (tontorean) jarita, esan zion : —Jaungoikoaren Semea bazera, jaurti ezazu zeure burua emendik bera, esana bait-dago : «Bere aingeruai agindu die zaindu zaitzaten, eta eskuetan artu zaitzaten, zure orpoak (oñak) aririk jo ez dezan ». —Esana dago baita, erantzun



zion Jesusek: —Ez dezazula tentatu zure Jaun eta Jaungoikoa. Berriro eraman zuen Jesus mendi goi-goi batera eta luraldeko alderdi eta ederitasun guziak andik erakusten zizkiolarik, onela esan zion: —Oiek guziok emango dizkizut, auspez jarrita guñtzen ba-nauzu. Jesusek orduan esan zion: —Alde ortik, Satanas; esana bait-dago: «Zure Jaun ta Jaungoikoa guñtuko dezu, ta ez dezu beste jaunik izango». Deabruak orduan utzi zuen, eta zeruko aingeruak etorri-ta berak jaten eman zioten.

**Befogeikaro edo Garizumaren II igandea**

(Mat. XVII. 1-8)

### *Jesukristo aintzaldua*

**Aldi artan**: Aitu zituen Jesusek, Pedro ta Santiago ta onen anai Juan, ta mendi garai batera, berak bakarrikan eraman zituen. Eta beste antz edo irudia aitu zuen aien aurrean: arpegia eguzkia bezin argi zeukan eta soñekoak elurá bezin zuria. Eta Moises eta Elias ere antxe agertu ziran Jesusekin itz egiten. Pedrok

orduan, Jesusi onela esan zion: —Jauna, ondo gaude ementxe ta iru txabola egingo ditugu gogo ba-dezu: bata zuretzat, bestea Moises'entzat, eta beste bat Elias'-entzat. Oraindik izketan ari zala, odei argi baten itzalpeak estali zituen, eta odei-ba'endik otsa irten zan: «Au da nere Seme maitea; Beragan ditut Nik nere atsegiñak: entzun zaiozute. Ikasleak, itz auek entzunda, oso belduritu ziran eta auspez erori ziran, bañon Jesus inguratu zitzaien eta ikutu-ta esan zien: —Jaiki zaitezte; ez beldurik izan. Eta begiak jaso zituztenean ez zuten Jesus besterik iñor ikusi.

### **Befogeikaro edo Garizumaren**

#### **III igandea**

(Luc. XI. 14-28)

*Deabrupeko mendetasun gogoña. Zorionekoak Jaungoikoaren Legea gordeko dutenak.*

**A**ldi artan: Bota zuen Jesusek deabrua gizon mutu baten gorputzetik, eta mutua bertatik itz egiten asi zan. Guztiok ariturik gelditu ziran; bañon aietako batzuek

onela zioten:—Onek Beltzebu deabru-  
-nagusiaren indaíez botatzen ditu dea-  
bruak. Beste batzuek zirikatuz mirari  
berí bat eskatzen zioten; bañon Berak,  
aien gogapenak igeríta, onela esan zien:  
—Banakatua dagon éreinuak, berez lur-  
-joko du, eta etxe puskatua laixter eroriko  
da. Beraz Satanas bere baitan erdibiturik  
badago ¿nola dirauke zutik bere érei-  
nuak? Bere izenean deabruak botatzen  
ditudala diozute zuek. Nik, Beltzeburen  
indaíez botatzen baditut deabruak, zuen  
semeak ¿zeñen indaíez botatzen dituzte?  
Onela ba, aiek izango dira zuen epaila-  
riak (juezak); bañon Jaungoikoaren in-  
daíez botatzen baditut deabruak, agiri  
da Jaungoikoaren agintea, zuen artera  
etoíri dala. Gizon bulaítsu izkiludunak  
(armatuak) bere etxea zaitzen duenean,  
ongi gordea dago daukan guzia: bañon  
beste sendoagoko (indaítsuago) bat ba-  
dator eta ura azpiratzen badu, kenduko  
dizkio izkiluak (armak), eta aíen onda-  
sunak antxe sakabanatuko ditu. Nerekin  
ez dabilena, nere kaltez dabil; ta nerekia  
biltzen ez duenak, banakatu egiten du.  
Deabru loia, gizonen gorputza uzten

duenean, toki agorretan dabil atseden bila, ta arkitu eziñik ala dio : «Irten naitzen nere etxera itzuli bear det»; bañan eltzen danean, apain-garbi arkitzen du, ta orduan ba'dijoa beriz, eta beste zazpi lagun bera baño biurriagoak berekin arturik, lengo etxean sartzen da ta antxe jartzten dute bizilekua, eta orrela, gizon arien azkena, asiera bañon okeñagoa izaten da. Jardun onetan ziarduela, jende artetik emakume batek deadañez onela esan zion:—Zorionekoak, zu sortu zaituzten eraiak eta mantendu zaituzten bulañak; bañon Jesusek erantzun zion:—Zorionekoak, Jaungoikoaren itza entzun eta gordetzen dutenak.

### **Berogeikaro edo Garizumaren**

#### **IV igandea**

(Joan VI. 1-15)

*Bost ogi ta bi araiekin Jesusek 5.000 gizon alikatzen ditu.*

**A**ldi artan : Joan zan Jesus, Galileako Itxasoa deritzaion Tiberiades'ko zingiraren beste aldera, eta gizoste (jende)-

-pila aundi batek jañaitu zion; ikusten bait-zituzten, Berak gaixoen alde egingako mirariak. Orduan Jesus mendira igo zan eta antxe exeri zan bere ikasliekin. Laxter zan Pazku, judaeren jai-eguna. Eta Jesus'ek begiak jaso-ta, ain lagun-talde aundiak jañaitu ziola ikusi zuenean, onela galdetu zion Pilipe'ri: ¿Non erosiko ditugu ogiak, auek jan dezaten? Zirikatzeagatik esaten zion ori; bai bait-zekien Berak zer egin. Pilipek onela erantzun zion:—Beñeun amañekoren ogiak ere ez dira naiko, bakoitzak ogi puska bat izan dezan. Orduan bere ikasle batek, Simon Pedroren anai, Andres'ek onela esan zion:—Ba'dago emen mutil bat, bost ogi-tremes (garagañ-ogi) eta bi añairekin; bañon ¿zer dira oiek, onen beste lagunentzat? Jesusek erantzun zion:—Esan gizonai exiritzeko. Belañ asko zegon toki artan. Exiri ziran gizonak, eta bost mila inguru ziran. Artu zituen, ba, Jesusek ogiak, eta eskeñak emanda, exiritakoen arñean banatu zituen eta beste ainbeste egin zuen añaiekin, bakoitzak nai aña. Denok ase ziranean, bere ikasleai onela esan-zien: — Bildu

itzazute gelditu diran puskak; ez dedila ezer galdu. Bildu zituzten, ba, ta ainbeste lagun ase ondoren, bost ogi-tremes aien apuréz, amabi saski bete ziran. Gizon aiek, Jesusek egindako mirari aundi ura ikusi zutenean, onela zioten alkañi: —Auxe bai dala benetan, luñera etoñi bear duan Igarlea. Bañon Jesusek etoñiko zirala, ta indañez erege egin naiko zutela igeri zuenean, mendira iges egin zuen beñiro berak bakañik.

### NEKALDI EDO PASIO'KO IGANDEA

Nekaldi edo Pasio'ko igandea, deitzen dio gure Eliz-Amak gauñkoari gauñtik asi ta, egu-nero gogoratzen bait-dizkigu, Jesukristo gure Erosleak (Salbatzañleak) gurutzean arñtu zituen neke gogoñak eta eriotz latza. Zapi beltzez jantziko ditu gaurtik aldareak, Jesukristoren eriotz negañgañiak gure biotzak naigabez bete ditzan: gure gaiztakeri ta pekatuak bait-dira Jesus gurutzean josi dutenak.

(Joan. VIII. 46-59)

*Jesusek Jainkoa dala adierazten die juduañai, ta auek arñika egin nai diote.*

**A**ldi artan: Onela mintzatu zitzaien Jesus Juduañen giza-taldeai:—Zuetatik

¿nork ezariko dit pekatuak Neri? ¿eta egia esaten ba-dizutet, zergatik ez dezute sinisten? Jaungoikoarena danak aditzen ditu Jaungoikoaren itzak: bañon zuek ez dituzute aditzen, ez bait-zerate Jaungoikoarenak. Juduañak erantzun zioten:—¿Ez degu ongi esaten guk, zu Samaritara zerala, ta deabrua dezula? Jesusek erantzun zien:—Ni ez naiz deabrudun: nik, nere Aita goratzen det, eta zuek iraindu egin nauzute. Ni ez nabil nere aintzaren bila: ba'da bilatu ta aldeztuko duenik. Egi-egiaz diotzuet: Nere itza gordetzen duenak, ez du beñere eriotzik ikusiko. Juduañak onela erantzun zioten:—Oraintxe ezagun dezu diabrua dezuna. Abraan il zan, ta baita igarleak ere, eta zuk zure itza gordetzen duanak eriotzarik ikusiko ez duala diozu? Abraan gure aita zana baño aundiagoa al zera ba Zu? igarleak ere il ziran: ¿nortzat daukazu zure burua? Jesusek onela erantzun zien:—Nere burua goratzen badet, utsa da nere aintza; bañon nere Aitak zuen Jaungoikoa dala diozuten oñek, goratzen nau Ni; zuek ez dezute ezagutzen; nik bai, ezagutzen det; eta ezagu-

tzen ez defala banioke, zuek bezela gezurtia nitzake; bañon ezagutzen det, eta baita bere itza gordetzen ere det. Zuen aita Abraan nere eguna ikusteko pozez egon zan; eta ikusi zuen ta poztu egin zan. Juduañak esan zioten:—¿Zer? Beñogeitamañ urte ez dituzu, eta zuk Abraan ikusi? Jesusek onela erantzun zien:—Egi-egiaz diotzuet: Abraan jayo baño lenago, ba'nitzan ni. Au entzuntean, ariak arñu-ta berari bota nai zizkioten; bañon Jesus gorde eta Elizatik irñen egin zan.







## ABAÑ EDO EÑAMU-IGANDEKO NEKALDIA

(Mat. XXVI-XXVII)

Ba'dute guk ez degun oitura eder bat Bidasoz-  
andiko gare anai euskaldunak.

Abañ (eñamu)-igandeko, meza ixil bakoitzean,  
meza-emaleak aldaretik Nekaldia (Pasioa) lati-  
ñez irakuñtzen duen artean, beste apaiz batek,  
irakastegitik (pulpitotik) guztiok entzun dezaten,  
euskeraz irakuñtzen du. Asko irabazten dute  
ofela, meza entzuten dauden guztiak; batetik ez  
bait-dira nekatzen; bestetik, Jesukristoren Ne-  
kaldi agur gaña, urtean bein beintzat, osorik  
gogoratzen bait-dute.

Beragatik, ots auxe egin nai diet bertatik Eus-  
kal-Eñiko apaiz jaun agur gañiei : ongi badago  
kiote, oitura eder au beren elizetan jañi dezatela.  
Apaiz bakaña dagon elizetan, beste norbaitek,  
sakristauak edo, bere tokitik irakuñi dezake.

*Jesukristo gure Eroslearen nekaldia.*

**A**ldi artan : Onela mintzatu zitzaien Jesus bere ikasleai:—Ba'dakizute bi egun bañu, Pazko-jaya dana, eta Gizonaren Semea artuko dutena, gurutzean josi dezaten. Aldi artan apaiz nagusiak, eta eñiko zañenak, Kaifas apaiz-nagusiaren etxeko atarian bildu ziran, eta Jesus atzipez lotu-ta iltzeko elkar artu zuten. Bañon onela zioten:—Jai egunean ez; bestela, matxinadearen bat edo soñtuko da eñian. Eta Jesus, Betanian, Simon lege-nañdunaren etxean zala, auñeratu zitzaion emakume bat, ukendu edeñdun alabastro edo kelagar-ontzi batekin, eta exerita zegon lekuan, dana burutik bera ixurizion. Ikasleak, au ikusita, aseñetu egin ziran eta onela zioten:—¿Zertarako ondamen ori? Ondo saldu ziteken ba orixe, beartsuai zerbait emateko... Bañon Jesussek ori aditurik, onela esan zien:—¿Zergatik zipokatzen dezute emakume ori? Gauza ona egin dit Neri. Beartsuak, beti izango dituzute zuekin, bañon Ni ez nauzute beti izango. Onek, ni obiratu edo luñperatzeko ixuri du ukendu ori ne-

re gorputzean. Egiaz diotzuet : gertaera au jakingo dan toki guzietan, emakume onek egin duena ere zabalduko da, ta bera goratzeko zabaldu ere. Orduan, Judas zeritzaion amabitako bat, apaiz-nagusiengana joan zan eta onela esan zien:—¿Zer eman nai didazute, eta nik eskuetararuko dizutet? Eta ogeitamar zilar eskeñi zizkioten aiek eta geroztik, noiz aien eskuratuko, aukera bila zebilen. Eta Azimo-jaiaren lenengo egunean, ikasleak Jesusengana joan ziran, eta onela esan zioten: — ¿Non nai dezu, Pazko-aparia gertutzea? Jesusek erantzun zien:—Zoazte urira, orlakorengana eta esaiozute : Erakusleak auxe dio : «zure etxean egingo det, nere ikasliekin, Pazko-aparia». Ikasleak egin zuten Jesusek agindu ziena, eta gertu zuten aparia. Ilunabaréan, bere amabi ikasliekin, maiean exiri zan. Eta jaten ziardutela, onela esan zien:—Egiaz diotzuetet : zue-tako batek salduko nau. Asko naigabetu ziran guztiok, eta galdezka asi ziran:—Jauna ¿ni ote-naiz agian? Berak onela erantzun zien:—Nerekin batean, platearen eskua sartzen duenak salduko nau.

Gizonaren Semea ba'dijoa, eta Beratzaz esana dagon bezela dijoa; ¡bañon erukaria. Gizonaren Semea salduko duena! Obe luke jayo ezpalitz! Judasek,—saldu zuen arek—Ni ote-naiz ba? galdetu zion Jesusek:—Zero'rek diozu erantzun zion. Apaltzen zeudela, Jesusek ogia artu ta bedeinkatu zuen ta puskatu zuen eta bere ikasleai eman zien esanaz:—Artu ta jan zazute: au-xe da Nere gorputza. Gero, edanontzia artu ta eskeñak eman zituen, eta eman zien, esanaz:—Edan zazute guziok ontatik: Auxe da, askoren aldez pekatuen barkaziorako ixuriko dan Itun (Testamentu) Beriko nere odola. Eta auxe diotzuet: ez dedala gaurdanik iñoiz geiago mats-ardorik edango zuekin batean, nere Aitaren ereinuan edango detan arte. Eta eresia esanda, Olibet-mendironantz joan ziran. Orduan Jesusek onela esan zien:—Guztiok eroriko zerate Nigatik gau ontan: esana bait-dago: «Joko det artzaia eta sakabanatuko dira artaldeko ardiak». Bañon beriz-piztuko naizenean, antxe joango naiz zuen aurretik Galileara. Bañon Pedrok onela erantzun zion:—Zuregan guziak gaizpidera-

tzen (eskandalizatzen) ba-dira ere, ni ez naiz gaizpideratuko. Jesusek onela esan zion:—Egiaz diotzut : gaur gabea, oñak abestu bañon len, zuk iru aldiz ukatuko nauzu. Bañon Pedrok—Ez—erantzun zion:—Gaur Zurekin il bea ba-det ere, Nik etzaitut ukatuko. Eta beste ikasle guziak, beste ainbeste zioten. Jesus orduan, Getsemani zeritzaion baratz batera aiekin joan zan, eta—exiri emen—esan zien bere ikasleai:—exiri emen, nik, aruntzago joanda, otoitz egiñarte. Eta Pedro ta Zebedeoren seme biak arturik, naigabetzen ta lañitzen asi zan. Orduan onela esan zien:—Eriotzaren atsekabea dauka nere gogoak : itxo-egin emen, ta Nerekin batean ernai egon. Eta zerbait auñeratuta, auspez etzan zan, eta otoitz egin zuen esanaz:—Nere Aita : aldendu zazu, al bada, ontzi au nigandik : bañon ez bedi nere gogoa bete, zurea baizikan. Eta bere ikaslietara etoñi zanean, lotan arkitu zituen, eta—¿zer?—esan zion Pedrori:—Ezin egon izan zerate, ordu batean ernai, Ni bezela? Egon ernai, eta otoitz egin, ziltzaldian (tentazioan) erori ez zaitezten : gogoa geñtu dago, bañon

aragia argal. Beñero joan zan bigarren aldiz, eta otoitz egin zuen:—Nere Aita: ezin utzi badet ontzi au, edan gabe, egin bedi zure gogoa. Eta beñiz etorri zan, eta lotan arkitu zituen: begiak oso logaletuak (aztunak) bait-zituzten. Utzi zituen ba, ta beñero joan zan, eta otoitz egin zuen, lengo itz berberak esanaz. Orduan ikaslietara biurtu zan, eta esan zien:—Lo egizute eta atsedeen artu: eldu da garaia; Gizonaren Semea oraintxe izango da pekatarien eskuetan jarria. Jeiki zaitzte, ta goazen: ba'dator nere saltzalea. Oraindik izketan zegoela, bere ama-bi lagunetako bat, Judas, eldu zan, eta arekin batean gizatalde aundia, ezpata ta makilekin, apaiz-nagusiak eta eriko-agintariak bidaliak. Saltzaleak ezaupide auxen eman zien: «Nik laztanduko dedana, uraxe da; eldu zayozute». Eta bertatik Jesusengana aureratu zan—Aguñ—esanaz:—Aguñ, Irakaslea (maixua). Eta musu eman zion. Jesusek onela erantzun zion:—Adiskidea, ¿zertara etorri zera? Bañon eldu ziran besteak bereala, eta eutsi zioten eta lolu zuten. Bañon Jesus'ekin zegon batek, eskua

luzatuta, ezpata atera zuen, eta apaiz nagusiaren moñoi bati belarria ebaki zion. Jesusek orduan onela esan zion:—Sartu ezazu ezpata ori bere zoñoan: ezpata darabilkiten guziak ezpataz ilko dira. ¿Uste al-dezu, nere Aitari eskatu ezkerro, ez dizkidala berealaxe amabi aingeru-talde (gudarozte) bañõ geigo bidaliko? ¿Bañõn, nola beteko litzake orduan onela gerta bear duala esanik dagona? Orduan Jesusek, jende-talde aiei onela esan zien:—Lapur baten bila bezela ezpata ta makilekin etoñi zerate nigana: egunero zuen artean elizan erakusten ibili naizenean ez nazute artu. Bañõn auguzia, Igarlearen esanak betetzeko gertatu da. Orduan, bere ikasle guziak utzi zuten, eta igesi joan ziran. Eta Jesus lotuta zeukatenak, Kaifas apai-nagusiaren etxera eramán zuten, eta antxe bildu ziran eriko agintari ta zañenak. Pedrok ere urutitik bederen jañaitu zion apaiz-nagusiaren etxe-atarirañõ. Eta bañenen sartuta, moñoiekin batean antxe exerizán etorkizunari begira. Apaiz-nagusiak eta batzañeko lagun guziak beñiz, Jesus iltzeko asmoz aren kaltezko gezur bila

zebiltzan. Bañon ziñaldari gezur̄ti asko etor̄i ar̄en, etzuten ezer ar̄kitu. Azkenean beste bi eldu ziran, esanaz:—Gizon onek esan du: «Jaungoikoaren eliza bota dezaket nik eta baita iru egunen buruan ber̄iz jaso ere». Eta apaiz-nagusia jeiki zan eta onela esan zion:—¿Ez al-diozu ezer erantzuten, auek zure kaltez diotetenari? Bañon Jesus ixilik zegon. Eta apaiz-nagusiak esan zion:—Jaungoiko biziaren izenean agintzen dizut; esan emen: Zu al-zera Kristo, Jaungoikoaren Semea? Jesusek onela erantzun:—Zero-reek diozu: eta ora nik esan: Laixter ikusiko dezute Gizonaren Semea, Jaungoiko guzaldunaren eskubian exirita, odei-gañean dator̄ela. Orduan, apaiz-nagusiak bere soñekoak ur̄atu eta onela esan zuen:—Biraua bota du: ¿zertarako ditugu ziñaldariak? Zeok entzun dezute biraua. Zer deritzazute? Eta aiek erantzun zioten:—Ilgaria da. Orduan txistua arpegira bota zioten, ukabilka erabili zuten, eta batzuek masailekoak ere ematen zizkioten esanaz:—Ilgari zaiguzu, Kristo, nork jo zaituen. Pedro artean, atarian zegon exirita: ta neskame bat eldu zi-



tzaion, eta esan zion:—Zerori ere, Jesus Galileatararekin batean ziñan. Bañon berak, guzien aurrean ukatu egin zuen, esanaz:—Eztakit zer diozun. Eta atera joan zan. Bañon beste neskame batek ikusi zuen eta an zeudenai onela esan zien:—Ori, Jesús Nazaretarekin zebilen. Eta beriz ere ukatu zuen, zin (juramentu) egiñaz:—Ez det nik inoiz olako gizonik ezagutu. Andik laixter, ureratu ziran an zeudenak, eta onela zioten Pedrori:—Bai bai: zu ere aietakoa zera: izkeran ere ezagun dezu. Orduan asi zan ukatzen eta zin egiten, etzuela inoiz ere gizon ura ikusi: eta berealaxe, or abestutzen (kantatzen) du olañak. Pedrok, gogoratu zituen orduan, Jesusek lentxeago esan zizkion itzak: «Olañak abestu baño lenago, Zuk iru aldiz ukatuko nazu»; eta atera irten-da, atsekabez nega egin zuen. Goiza eldu zanean, beriz, apaiz-nagusi guziak eta eriko zañenak (agintariak) antxe bildu ziran batzañean Jesusen kaltez, Bera iltzeko; eta lotuta eramane eta Ponzio Pilatos agintariaren eskuetan jañi zuten. Orduan Judasek—saldu zuenak—iltzera zeramatela ikusi

zuanean, damutu zitzaion eta ogeitamar zilarrezkoak artu ta apaiz nagusiai eta zarenai eraman zizkien esanaz:—Gaizki egin det: gizon zuzenaren odola saldu det. Bañon aiek—¿Guri zer?—eratzun zioten zeroerek ikusiko dezu. Eta zilarezkoak elizan botata, igesi joan zan, eta soka batetik bere burua urkatu zuen. Eta apaiz-nagusiak, dirua jasota onela esan zuten:—Ez da bidezkoa, oiek diru-kutxan sartzea, odolaren salneurria diruta. Eta elkar arturik ontzigile baten zelaya erostea erabaki zuten arotzak lurperatzeko. Beragatik, soro ari gaur-arte ere *Haceldama* esaten zaio, au da: Odol-zelaya. Orduan bete zan, Jeremias igarileak esandakoa: «Ogeitamar zilar artu dituzte, salduaren salneurri, Israelen semeak nere ordeztzat emandako neurria; eta oiekin, Jaunak agindu zidan bezela ontzigilearen zelaya erosi dute». Eta eraman zuten Jesus, eriburuen aurera, eta onek galdetu zion:—Juduaeren eregea zu al zera?—Zeroerek diozu erantzun zion Jesusek. Bañon apaiz-nagusiak eta zarenak, salatzen bazuten ere, berak etzien itzik ere erantzuten. Orduan Pila-

tosek esan zion:—¿Ez al-dezu entzuten zure kaltez dioten guzia? Bañon Berak etzion itzik erantzun, eta eriburua guztiz arituta gelditu zan. Jai-egun nagusian, ordea, eriburuak eriak nai zuen espetxaldu edo preso bat, askatu oi zuen. Eta Barabas zeritzaion gaizkile ospetsu bat zeukan orduan. Bildu ziranean ba, Pilatosek onela galdetu zien:—¿Zein nai dezute askatzea, Barabas ala Kristo deritzaion Jesus? Bai bait-zekien bekaitzez jañi zutela bere eskuetan. Eta epai-tokian exerita zegoela, bere emazteak bidalitzion esatera:—Ez zaitezela ezertan sartu gizon zuzen oren gauzetan: gaur amestetan, ori dala-ta, atsekabe aundiak izan bait-ditut. Bañon apaiz-nagusiak eta zarenak, Barabas eskatzeko zinesterazioten eriarri, Jesus galdu zezaten. Eriburuak, beriz, galdetu zien:—¿Zein nai dezute bietatik askatzea? Eta aiek erantzun zioten:—Barabas. Pilatosek beriro ere esan zien:—Eta Kristo deritzaion Jesusekin ¿zer egingo det? Guziak erantzun zuten:—Gurutziltzatu. Agintariak orduan esan zien:—¿Bañon zer kalte egin du, ba? Eta guztiak deadañ aundiagoa egin

zuten:—Gurutziltzatu. Pilatosek, ezer aureratatu beaŕean, gero ta zalaparta aundia-goia sortzen zala ikusirikan, ura eskatuta eskuak garbitu zituen eŕiaren aŕean esanaz:—Nik ez det zer-ikusirik gizon oŕen odolarekin : zeok erantzungo dezute. Eta eŕi-osoak erantzun zuen:—Betoŕaren odola gure gain eta gure semien gain. Orduan Baŕabas askatu eta Jesus zigoŕaz zatituta, gurutzean josi zezaten, eman zien. Orduan, eŕiburuaren gudariak, Jesus jauregira eramane zuten, eta gudari guztiak antxe bildu ziran. Eta Jesusi Bere jantziak kenduta, soŕeko goŕibat jantzi zioten, eta arantzezko koroibat eginda, buruan jaŕi zioten, eta eskubiko eskuan kaŕnabera bat. Eta gero aŕean belaunikaturik, paŕ egiten zioten esanaz:—Agur, Juduaŕen eŕegea. Eta txistua botatzen zioten, eta kaŕnabera artuta buruan jotzen zuten. Eta paŕ eginda gero, soŕeko goŕia kenduta lengo jantziak jantzi zizkioten, eta gero gurutziltzatzera eramane zuten. Eta atera irten ziranean, Simon zeritzan Zireneko gizon bat arkitu zuten : eta gurutzea eramateko uraxe itundu zuten. Eta Golgota, au

da, Koskotegi (Buruezurtegi) zeritzan tokira eldu ziran : eta ardoa beazunez nastua eman zioten, edateko : eta artu zuen, bañon ez zuen edan izan nai. Eta gurutzean josi zutenean, zotz - eginda antxe banakatu zituzten bere soñekoak, igarileak esandakoa bete zedin : «Nere soñekoak banakatu dituzte, ta nere soinpekoa zotzegin dute». Eta ixirita, Berari begira jañi ziran. Eta aren buru gañean, eriotz-txartal au idatzi zuten : «Auxe da, Jesus nazaretaña Juduañen eñegea». Baita bi lapur ere gurutzean josi zituzten, bata eskuian, bestea ezkeréan. Eta andik igarotzen ziranak buruari eragin ta birauak botatzen zituzten:—Ea, ba, Jaungoikoaren eliza luñeratu eta iru egunean beriz zutitzen dezun oñek, salba zazu zure burua. Jaungoikoaren Semea bazera, jetxi zaitez gurutzetik. Berebat zioten apaiz-nagusiak ere eta agintariak eta eñiko-zañenak:—Besteai lagundu die, ta bere burua ezin askatu du : Israel'dañen eñegea bada, jetxi dedila gurutzetik, eta siñistatuko diogu. Jaungoikoagan jañi du bere itxaropena : lagundu dezioala, nai badu, Jaungoikoaren Semea dala esan

bait-du. Beste ainbeste zioten arekin baitean gurutzean josiak zeuden bi lapurak ere. Eta seigarren ordutik asita, 9'garren orduraño (eguerditik iruretara-arte) luralde osoa ilundu zan. Eta 9'garren ordu inguruan (irurak-aldian) Jesusek deadar aundi bat eginda, auxe esan zuen : «Eli, Eli lamma sabacthani» : au da : «Ene Jainkoa, ene Jainkoa, zergatik utzi nauzu?» An zeudenetako batzuek, itz auek entzunda onela zioten:—Eliasi deitzen dio. Eta gero ayetako batek arin joanda belaki (esponja) bat artu zuen, eta ozpiñetan busti-ta, kañabera baten muturëan jari eta edateko eman zion. Eta besteak zioten:—Utzi zaiok : ikusi dezagun Elias edo Bera askatzera datoñen. Bañon Jesusek, beriro deadar aundi bat eginda, bere azken asnasa eman zuen. (*Emen guztiok belaunikatzen dira puxka baitean*). Orduan eliz nagusiko zapia, goitik bera, bi zati egin zan; lura dar-darizatu zan; ariak puskatu ziran; ilobiak (sepulturak) ere idiki ziran, eta lurperatuta zeuden gizon askoren gorputzak, berpiztu ziran eta Bera (Jesus) berpiztutakoan, ilobietatik irtenik, urira joan zi-

ran, eta askori agertu zitzaizkien. Jesus gordetzen zeuden, Eunburua ta bere lagunak, beriz, luí-ikara ta beste gertaera aiek ikusirikan, asko beldurtu ziran eta onela zioten:—Egiaz, au Jaungoikoaren Semea zan. Antxen zeuden, urutitik begira, Galileatik irtenda laguntzeko asmoz Jesusi jaraitu zioten emakume batzuek ere: aien artean ziran Mari Maalen ta Maria Jakok'en ta Jose'ren ama ta Zebedeo'ren semien ama. Ilunabartu zanean, eldu zan Jose Arimateara, gizon aberatsa, Jesusen jaraitzaletakoa. Onek, Pilatosengana joan eta Jesusen gorputza eskatu zion. Pilatosek emateko agindu zuen; eta Josek gorputza artuta, maindire garbi batean bildu zuen, eta gero, berak, ari bizian beretzat egiña zeukan ilobian jari zuen. Eta ari aundi bat ilobiaren saieran jari ta joan egin zan. Mari Maalen ta beste Maria, beriz, an zeuden exerita, ilobiaren auran. Biaramonean, Paraskebe-egunaren urengoan, apaiz-nagusiak eta fariseotarak joan ziran Pilatosengana, eta onela mintzatu ziran:—Jauna, orain gogoratu gera, gizon gezurti arek, oraindik bizirik zegoela, nola

esan zuen : «Iru egun-baŕu berpiztuko naiz». Agindu zazu, ba, gorde dezatela ilcobia irugaŕen egunerarte : bestela, agian, etoŕiko dira bere ikasleak, ostuko dute gorputza ta eŕiari esango diote : «Piztu da ildakoen aŕtetik» : ta oŕela bigaŕen gezuŕa, lenengoa baño kaltegaŕia goa izango da. Pilatosek erantzun zien : —Ba'dituzute txiñelak : joan, ba, ta gorde zazute zuek dakizuten bezela. Joan ziran, beraz, ta aŕiari seŕloak ezaŕi zizkioten, ta obi-ondoan txinelak jaŕi zituzten.

### OSTEGUN DEUNA

(Joan. XIII. 1-15)

*Jesusek, bere amabi lagunai (bidaliari) oñak garbitzen dizkie. Mai-alda-reko ikurtona (sakramentua).*

**P**azko-jai aundiaren aŕreko eguna zan eta Jesusek, luŕa utzita Aitarengana joateko, garaia bazetoŕkiola igeri zuenean, ordurarte bezela, azkenean ere maite izan zituen luŕeko bere lagunak (jaŕaitzaŕleak). Apaldu ondoren ba, Simon Is-



kariotearen seme Judasi, sartu bait-zion deabruak biotzean bere Jauna saltzeko asmoa; jakiñik Jesusek, Aitak aren eskuetan jañi zituela gauza guziak, eta Jaungoikoagandik etoñi zan bezela, Jaungoikoarengana zijoala, jeiki zan maietik, kendu zituen soñekoak, eta esku-zapi bat artuta, gerian bildu zuen. Botatzen du gero ura ontzi batean, eta orastan da bere ikaslien oñak garbitzen, eta bilduta zeukan zapiarekin legoñtzen. Eltzen da Simon Pedroarengana, eta onela dio Pedrok:—Zer, Jauna: ¿Zuk neri oñak garbitu? Jesusek erantzuten dio:—Nik egiten dizudana, zuk ezin ulertu dezu orain: bañon geroago igeriko dezu. Pedrok dasaio:—Ez didazu zuk neri oñik garbituko. Jesusek erantzuten dio:—Ez badizkizut garbitzen, ez dezu Nerekin zer-ikusirik izango. Orduan Pedrok:—Jauna, ez oñak bakarik, baita eskuak ta burua ere. Jesusek esaten dio:—Garbi dagonak, oñak garbitzea naikoa du: beste guzia garbia dauka-ta. Eta zuek garbiak zaudezte, bañon ez guziok. Ondo, bait-zekien nork salduko zuen, beragatik esan zuen: «Ez zerate

garbiak guziok». Oñak garbitu zizkie-  
nean, jantzi zituen beriz ere bere soñe-  
koak, exiri zan maiean, eta esan zien:—  
¿Ba'dakizute zuekin zer egin dedan?  
«Jauna» deitzen nauzute, ta «Irakaslea»:  
egia diotzute: ala naiz-ta. Bañon nik  
oñak garbitu badizkitzudet zuen Jauna ta  
Irakaslea izanik, zuek ere, garbitu bea-  
dizkiozute oñak alkañi: erakuste (ikas-  
bide) auxe eman dizutet, Nik zuei egin  
dizutedan bezela. zuek ere beste ainbeste  
egin dezazuten.

### PIZTUERA ALDIA

Piztuera-igandeak, beste aldi edo garai beñi  
bat asten du; aldi au Pentekostes ondorengo  
lenengo igandean bukatzen da; aldi edo garai  
adigañi onek, Jesu-Kristoren piztuera gogora-  
tzen digu ta añen antzera bizibide beñi batera  
piztu gaitezela esaten digu: *Si consurrexistis  
cum Christo, quæ sursum sunt quærite*; Jesu-  
Kristorekin batean piztu zeratenok, utzi itzazute  
emen beko gauza ustelkoñak, ta jañi begiak eta  
biotza zeruan.

## Piztuera igandea

(Marc. XVI. 1-17)

*Mari Maalen ta beste emakumeak Jesusen ilobira dijoaz.*

**A**ldi artan : Mari Maalenek eta beste Maria Santiago 'renak (*Santiagoren amak*) eta Salomek, ukendu-urindunak erosi zituzten, obira joan ta Jesus gantzututzeko (iguítzeko) asmoz. Eta goizean-goiz, astearen lenengo egunean ba'dijoaz obira, eguzkia irtetzean. Eta onela zioten elkarí : —¿Nork kenduko digu, ilobi-saíeran dagon aña? Eta begiak jaso ta, aña kenduta zegoela ikusi zuten : oso aundia zan. Eta ilobira saítuta, eskuiko aldian, gazte eder bat ikusi zuten exirita, zuriz jantzia, ta ikaratu ziran. Bañon areek esan zien : —Ez ikaratu; Nazareteko Jesus gurutziltzatuaren bila zatozte; berpiztu da, ez dago emen: oña oñ, jañi zuten tokia.

Zoazte, ba, ta esan Pedrori ta beste ikasleai : «Zuen auretik joango da Galileara : bertan ikusiko dezute agindu zituzten bezela».

### Piztuera ondorengo I igandea

(Joan. XX. 19-30)

*Bi aldiz apaltegian Jesus bere lagunai agertzen zaie.*

**A**ldi artan: Astearen lenengo egunaren iluntz-aldia zan, eta, ikasleak, bilduta zeuden tokiaren (gelaren) ateak Judaren bilduraz, itxita zeuzkatela, Jesus agertu zan, eta aien artean sartu-ta esan zuan: —Pakea zuei. Eta itz auek esanda, eskuak eta alboak erakutsi zizkien. Ikasleak asko poztu ziran Jauna ikusteaz. Berak beriro esan zien: —Pakea zuei. Nere Aitak bidali nauen bezela, bidaltzen zaituztet Nik ere. Gero aize-eman zien esanaz: —Artu ezazute Espiritu Santua; zuek askatuko dituzuten pekatuak, askatuak izango dira, ta lotuko dituzutenak, lotuak. Bañon Tomas, Didimo zeritzaion amabitako bat, ez zegon aiekin, Jauna etoñi zanean. Beste ikasleak esan zioten: —Ikusi degu Jauna. Bañon berak erantzun zien: —Ezpaditut iltze-zauriak bere eskuetan ikusten, ezpadet beatza iltze-zuloetan, eta eskua alboko zurian sar-

tzen, ez det sinistuko. Zortzi egun igaro ziran, eta ikasleak beriz bilduta zeuden, eta Tomas ere bai aiekin batean. Eta ateak itxita zeudela, Jesus sartu zan, eta aien artean jañi zan eta esan zien: —Pakea zuei. Gero Tomas'i esaten dio: —Ekatzu zure beatza, ta ikusi nere eskuak: ekatzu eskua, ta sartu nere alboan, eta ez zaitez sinisgogoña izan, sinisduna baizik. Tomas'ek erantzun zion: —Nere Jaun eta Jaungoikoa. Orduan Jesusek esan zion: —Ikusi nazulako, sinistu dezu Tomas: zorionekoak ikusi gabe sinistu dutenak.

### Piztuera ondorengo II igandea

(Joan. X. 11-17)

#### *Artzai - Ona*

**A**ldi artan: Auxe esan zien Jesusek, fariseotari: —Ni naiz artzai ona: artzai onak, pozik ematen du bere bizia ardiak-gatik. Alogerakoak (sari-artziak) ordea, ta artzaia eztanak —ardiak bereak ez dituenak —otsoa datorrela ikusirik, ardiak utzi egiten ditu, ta igesi joan: ta otsoak

ardiak ostu ta banakatu egiten ditu. Sari - artzaia, igesi dijoa; alogerekoa bait-da, ta ardiak zer-ikusirik ez bait-dauka. Ni artzai ona naiz : Nik nere ardiak ezagutzen ditut, ta nere ardiak ere ezagutzen naute Ni. Aitak ezagutzen nauen bezela, neronek ere Aita ezagutzen det, ta pozik emango det bizia ardiakgatik. Ba ' ditut, artalde ontakoak ez tiran beste ardiak : bañon aiek ere ekañiko ditut, eta nere itza entzungo dute, ta orduan artalde bat ta artzai bat izango da.

### **Piztuera ondorengo III igandea**

(Joan. XVI. 16-23)

#### *Naigabe ondorengo poza*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikaslea:—Beste pixka bat, eta enaizute ikusiko; ta beriz beste pixka bat, eta ikusiko nauzute; nere Aitarengana bait noa. Bere ikasleak onela zioten orduan elkañi:—¿Zer esan nai ote-digu itz oiekin : «Beste pixka bat, eta enaizute ikusiko, ta beriz beste pixka bat, eta iku-

siko nauzute, eta nere Aitarengana noa»? Eta beriz galdetzen zuten:—Zer esan nai ote-du, *pixka bat* itz ořekin? Eztakigu zer esan nai duen. Jesusek ezagutu zuen, zerbait galdetu nai ziotela, ta onela erantzun zien:—Elkari galdezka zabilzate, zer esan nai ote-detan itz auekin : «Beste pixka bat, eta enauzute ikusiko»: Egi-egiaz diotzuet ba : negar egingo dezutela zuek, bañon mundua poztu egingo dala. Emakumea, aurđun dagola, bere garaia datořkiolako naigabez arkitzen da; bañon aurā-eginda gero, ez dio laritasunari begiratzen, pozik egoten da baizik, munduari gizon bat eman diolako. Ořela ba, zuek ere orain ilun zaude-te; laixter ikusiko zaituztet, ordea, beriz ere, ta orduan zuen biotza poztu egingo da : eta poz ori ez dizute iñork ere kenduko.

### **Piztuera ondorengo IV igandea**

(Joan. XVI. 5-14)

*Jesusek Goteuna (Espiritu Santua) agintzen du.*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek

bere ikasleai : Banoa bialdu ninduena-  
 rengana, ta zuetatik iñork ez dit galde-  
 tzen «¿nora zoaz?» Bañon itz auek esan  
 dizkitzutedalako, naigabeak bete du zuen  
 biotza. Bañon, egia diotzuet: Zueri ondo  
 datořkizute Ni joatea: joango ezpanintz,  
 Goteuna (Espiritu Santua) elitzaikizute  
 etořiko; joanezkero, ordea, Neronek bi-  
 daliko dizutet. Eta datořenean, Berak  
 azaldu-erazoko dio (agirian jařiko dio)  
 munduari bere pekatua, zuzentasuna ta  
 epaia (juizioa). Pekatua : Nigan sinistu  
 ez duelako. Zuzentasuna : Ni Aitagana  
 joan-da geyago ikusiko ez nazutelako.  
 Epaia (juizioa), luřalde ontako nagusia  
 epaitua dagolako. Beste gauz asko ditut  
 zuei esateko, bañon oraindik ez ditzake-  
 zute eraman (*ulerřtu*). Bañon Egidun Go-  
 goa (Espiritu Santua) etořiko danean,  
 Berak erakutsiko dizkitzute egi guziak :  
 ez bait du berez itz egingo, Berak entzun  
 duen guzia esango dizute baizik, eta  
 etořkizuna agertuko dizute. Berak omen-  
 duko nau. Nigandik artutakoa, adierazi-  
 ko-bait-dizute zuei.



## Piztuera ondorengo V igandea

(Joan. XVI. 23-30)

### *Otoitzaren neurigabeko indaia*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai:—Egi-egiaz diotzuet: Nere izenean Aitari zerbait eskatzen badiotzute, emango dizute. Oraindano ez diotzute ezer eskatu nere izenean : eskatu ta artuko dezute, zuen poza osoa izan dedin. Orain arte, ipuietan itz-egin dizutet: bañon eldu da garaia, ta onez aurera ez dizutet ipuietan itz egingo; orain argiro azalduko dizkizutet nere Aitaren gauzak. Orduan nere izenean eskatuko dezute, ta ez dizutet esaten, Neronek Aitari zuen alde eskatuko diodala; Aitak berak ere maite bait-zaituzte, zuek maite nazutelako, ta Aitagandik irten naizela sinistu dezutelako. Bai, Aitagandik irten naiz, ta luera etori naiz; orain beriz, luera utzi ta Aitagana noa. Ikasleak esan zioten:—Ora, orain argiro itz egiten diguzu, ez, len-bezela, ipuietan; oraintxe ezagutzen degu, guzia dakizuna, ta inork ezer galdetu bearik ez dezuna : Beragatik sinis-

ten ere degu, Jaungoikoagandik irten zerana.

### Jaunaren igoera

(Marc. XVI. 14 - 20)

*Jesusen azkenengo itzak.—Bere igoera*

**A**ldi artan : Jesus bere amaika ikasleai, maiean exirita zeudela agertu zitzaien, ta antxe arpegira bota zien beren sinisgabekeria ta biotz-gogorakeria, ez bait zieten Bera berpiztuta ikusi zutenai, sinistunai izan ezer ere. Atzenean onela esan zien : —Zoazte lur bira osora, ta erakutsi giza-emakume guztioi, Ebanjelioa. Sinistu ta batayatuko dana, zeruratuko da; bañon sinistu nai ez duena galdu egingo da. Sinistuko dutenai mirari auek lagunduko diete: Nere izenean deabruak botako dituzte, izkuntza berriak itz-egin-go dituzte; sugeak kenduko dituzte ta edari pozoitua artzen ba-dute, ez die kalterik egingo; gaixoai, eskuak jarita, osasuna itzuliko diete. Itz auek esan ondoren, Jesus gure Jauna, zerura igo zan, eta antxe dago exirita, Jaungoikoaren eskuian. Bere ikasleak joan ziran, ta al-

derdi guzietan Ebanjelioa erakutsi zuten, ta Jaunak laguntzen zien, ta beren itzak mirariz indartutzen zituen.

### Igoera ondorengo I igandea

(Joan XV. 26-27.—XVI. 1-4)

*Kristoren jarraitzaileak nekeak izan (eraman) bear ditu.*

**A**ldi artan: Onela esan zien Jesusek bere ikasleai: Aitagandik sortzen dan Parakleto edo Alaitzañe Egizko Espiritua, Aitagandik nik bidali-ta, etoriko danean, berak emango dizute aitoñera (testimonioa) nitzaz: eta zuek ere emango dezute aitoñera, asieratik nerekin bait zabilzate. Alketu (eskandalizatu) ez zaitetzen esan dizutet au. Batzañ-tokitik (Sinagogetatik) botako zaituzte: eta edozeñek ilko zaituzten garaya, ba'dator. Jaungoikoari atsegiñ egin diola uste izanik. Nere Aita ta Ni ezagutzen ez gaituztelako egingo dizkizute gauz auek. Bañon oña nik esan, bere garaia datoñenean, gogoratu zaitetzen, dana iragañi nizutela.

**Pentekostes.—Goteunaren  
(Espiritu Santuaren) etofera**

(Joan XIV. 23-31)

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai: —Norbaitek maite ba-nau, gordeko du nere itza, ta nere aitak maitatuko du, ta beragana etoriko gera, ta beragan geldituko gera. Maite eznauenak, ez du nere itzik gordetzen. Eta entzun dezuten itza, ezta nere, bialdu nauen nere Aitarena baizik. Auek zuekin nagoela esan dizkitzuet. Bañon, Aitak bialduko duen Espiritu Santu Pozgileak, aiek irakatsiko dizute guzia, eta nik esandako guzia Berak gogoraziko dizute. Pakea uzten dizutet, nere pakea damaitzuet; munduak ez bezela ematen dizutet nik. Ez bedi belduritu zuen biotza. Entzun dezute, esan nizutela : «Ba'noa eta ba'nator'kizute». Maite baninduzute, poztuko zinateke noski, Aitarengana bait noa, ta Aita ni baño aundiagoa bait da. Eta orain, gerta baño len esan dizuet, gertatutakoan sinistu dezazuten. Aurera ez det zuekin askorik itz egingo:

ba'dator mundu ontako nagusia (deabrua), ta ez dauka nigan zer-ikusirik. Bañon munduak ezagutu dezan nik Aita maite dedala, ta Aitak agindu zidan bezela, egiten dedala, jeiki zaitezte, ta goazen emendik.

### **Pentekostes ondorengo I igandea**

Lenengo Ebanjelioa (Mat. XXVIII. 18-20)

*Irutasun Deunaren ezkutapena (misterioa) Jesusek erakusten du.*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai : Neri eman zait eskubide osoa zeruan eta lurrean : zoazte ba, ta irakatsi gizaldi guziai, ta bataiatu Aitarren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, eta erakutsi guztioi nik zuei agindutako guzia betetzen. Eta ara : ni zuekin izango naiz egunero, gizaldia amaitu arte.

### **Azkeneko Ebanjelioa**

(Luc. VI. 36-42)

*Maitetasuna ta apaltasuna*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai:—Izan zaitezte erukitsuak

zuen Aita erukitsua dan bezela. Ez inor epaitu (juzgatu) ta ez zerate epaituak izango; ez inor gaiztetsi (kondenatu), ta ez zaituzte inork gaiztetsiko. Barkatu, ta barkatuko zaitzute.

Eman ta emango zaizute; zuen magalean botako dizute neurri bete-betea, gañezka dijoan neurria. Zuek neuritzen deuzten neurri, neurituko zaituzte besteak ere. Beste antz-irudi au ere esan zien:—¿Itxubatek, beste itxua bidean eramán allezake? ¿Ez ote-dira biak, leiza-zulora eroriko? Ikaslea ez da bere erakuslea (maisua) baño aundiagoa: ikaslea ordea, oso zuzena izango da, bere erakuslearen antzekoa bada. Eta ¿zergatik ikusten dezu zure lagun urkoaren begietan, eta ez dezu ikusten abea zure begietan? eta ¿nola ausartzen zera, zure anaiari esaten: Anaia: utzi zadazu zure begietatik lastoa kentzen zeroerek, zure begietan abea ikusten ez dezula? Aizun oerek (ipokrita oerek) kendu zazu lenda-bizi zure begietatik abea, ta gero zure anaiaren begietatik lastoa kentzen sayatuko zera.

**Jesukristoren Gorputz-Deun jaya**

(Ioan. VI. 56-60)

*Jaun-artzen duena, Jesukristorekin bat egiten da, ta bere bizitzaz bizi da.*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai : Nere aragia egiazko janari da, ta nere odola egiazko edaria; nere aragia jango duena, ta nere odola edan, nigan izango da, ta ni beragan. Ni bidali nauen Aita bizi dan bezela, ta Ni Aitañen bitartez bizi naizen bezela, orobat, Ni jango nauenak, nere bidez, izango du bizitza. Au da zerutik jetxitako ogia. Zuen gurasoak mana jan zuten basamortuan, eta il̄ egin ziran : bañon ogi au jango duenak betiko bizitza izango du.

**Pentekostes ondorengo II igandea**

(Luc. XIV. 14-24)

**Bazkariaren (bazkaldaren) ipuia**

**A**ldi artan : Ipui au esan zien Jesusek farisioai:—Gizon batek apari aundi bat jañi zuen, eta asko deitu zituen. Eta apa-

ri-orduan, bidaldu zuen bere moñoia, bazkaldarai guztia geratu zegoela ta etortzeko esatera. Eta guziak, orobat, aitzakiak ematen asi ziran. Lenengoak onela esan zion:—Basetxe bat erosi det, ta uraxe ikustera joan bear det: azketzi, aren. Bigarrenak onela esan zuen:—Bost uztari-idi erosi ditut, ta oiek ikustera noa: azkesteko eskatzen dizut. Beste batek onela esan zion:—Oraintxe ezkondu naiz: beraz, ezin joan ninteke. Biurtu zan moñoia, ta adierazi zion bere nagusiari guzia. Aseñeturik orduan etxeko jauna—Ua—esan zion bere moñoiari:—Ua bereala uriko zelai ta auzoetara, ta ekañitzak onera beañtsuak, argalak, itxuak eta elbañiak. Eta moñoiak esan zion:—Egin det Jauna, zuk esan bezela, ta oraindik ere ba'da tokia. Ta nagusiak esan zion moñoiari:—Irten adi bide ta etxadietara, ta sar-erazi itzak guziak nere etxea bete dedin. Ora zer diotzedan: deituak izan diran gizon aietatik batek ere ez du dastatuko (probatuko) nere aparria.



## Pentekostes ondorengo III igandea

(Luc. XV. 1-10)

*Ardi galdua. Zerutañen poza pekataria biurtzen danean.*

**A**ldi artan: Zergalari (publikano) ta pekatariak, Jesusen itza entzun naiez ureratu ziran arengana eta farisio ta eskribak mar-marëan asi ziran, esanaz: —Onek, pekatariak artzen ditu, ta aiekin jaten ere du. Eta Jesusek, ipui au esan zien: Zuen arteko batek, eun ardi ba-ditu, ta bat galtzen ba-zaio: ¿ez al da, larogeita emeretziak basamortuan utzita, galdu danaren bila joango, arkitu arte? Eta arkitutakoan, pozik bizkañean jañ-tzen du, ta etxeratzen danean, adiskide ta auzokoai deitzen die esanaz: Poztu zaitezte nerekin batean, arkitu det-eta nere ardi galdua. Nik diotzuet: Oñelakoxe atsegiña izango da zeruan damutzen dan pekatari batengatik, damu bearik ez daukaten larogeita - emeretzi onbidetsu edo justukagatik baño geyago. Eta emakume batek, amar drakma izan-da, bat galtzen ba-du, ¿ez ote-du argia piztu ta

etxe guzia garbitu ta aztertuko arkitu arte? eta arkituta gero, bere lagun ta auzokoak deitzen ditu ta esaten die: Poztu zaitezte nerekin batean, arkitu det-eta drakma (diru) galdua. Eta berean, diotzuet, poztuko dira Jaungoikoaren aingeruak, damutzen dan pekatari bakař batengatik.

#### **Pentekostes ondorengo IV igandea**

(Luc. V. 1-11)

*Miragarizko arantza.—Jesusek bidaliak (apostoluak) deitzen ditu.*

**A**ldi artan : Jesus Jenesaret'eko itxaso-inguruan zebilela, jendea Jaungoikoaren itza entzuteko leiaz pařastaka zijoakion ondotik. Eta itxas-ertzean zeuden bi ontzi ikusi zituen : arantzaleak, ordea, jextiak ziran, ta sare-garbiketari zarduten. Simon'en ontzia zan bata, ta ara igo ta itxas-bazteretik bařenago eramateko eskatu zion. Eta exirita, ontzitik ari zan jendeari irakasten. Eta itzaldia amaitu ondoren, onela esan zion Simoni: —Eraman ezazu itxas zabalera ta sareak bota arantzarako. Simonek erantzun zion :

—Irakaslea, gau guzian nekatu aŕen, ez degu ezer aŕapatu; alabañan, Zuk agindu dezulako, botako ditut sareak. Eta ori egin zutenean, aŕai-pila aundia aŕapatu zuten, eta sareak lertzera zijoazen. Orduan, beste ontzian zeuden lagunai deitu zien, laguntzera etoŕi zitezzen. Eta etoŕi ziran, ta ontzi biak antxe bete zituzten, ondatzeko zorian jaŕtzeraño. Simon Pedrok au ikusi zuenean, Jesusen oñetan auspeztu zan, esanaz : —Jauna, alde egizu nigandik, gizon pekataria naiz-ta. Egin zuten aŕantza ugariaz izututa gelditu bait-ziran bera ta berekin zeuden guziak : eta orobat, Zebedeoren seme Santiago ta Juan, Simon beraren lagunak. Eta ontziak legoŕera ekaŕi ondoren, gauza guziak utzita, Jesusi jaŕaitu zioten.

### **Pentekostes ondorengo V igandea**

(Mat. V. 20-24)

#### *Maitetasun-lege nagusia*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai : —Zuen zuzentasuna eskriba (idazlari) ta fariseotaŕena baño aun-

diagoa ezpada, etzerate zeruko eréinuan sartuko. Entzun dezute antziñekoai esana: «Eztezu iñor ilko: ta iñor iltzen duena, auzi-epaigarí izango da». Baña nik diotzuet: bere anaiarekin aseřetzen dana ere, auzi-epaigarí izango dala. Eta bere anaiari «burugabea» *řaka* esaten diona, batzararen aurrean eruduna izango dala. Eta zentzungabea *fatue* esaten diona, inpernuko (*gehenako*) sugarí izango da. Zure oparia aldare aurrean eskeintzen ba-dezu, ba, ta an oroitzen ba - zera zure anaiak ba' duela zerbait zure kaltez, utzi bertan aldare-aurrean zure oparia, ta zoaz lenbizi zure anaiarekin adiskidetzera; ta orduan etoririk, eskeñiko dezu zure oparia.

### **Pentekostes ondorengo VI igandea**

(Mark. VIII. 1-9)

*Bigarren aldiz, ogi-arai banaka batzuekin 4.000 gizon alikatzen ditu.*

**Aldi artan:** Oste (jende) aundia zan Jesusekin, ta zer jan etzeukatela, Jesusetik ikasleai deiturik onela esan zien: —Eru-

ki det jende au : iru egun baitira nerekin dabilzala, ta jatekorik ez dute : eta beren etxietara baraurik bialtzen ba-ditut, bi-dean auldu bear dute : batzuek urutitik etori baitira. Eta ikasleak erantzun zioten : —¿Nork eta nola basamortu ontan, oiek ogiz ase? Eta berak galdetu zien : —¿Zenbat ogi dituzute? —Zazpi— esan zioten. Eta jendea luñean jañerazi zuan. Eta zazpi ogiak arturik, eskeñak emanaz zatitu zituen, eta bere ikasleai jendeen artean banatzeko eman zizkien, eta banatu zituzten. Ba'zituzten araitxo batzuek ere : ta onetsi (bedeinkatu) zituen ta orobat emateko agindu zuen. Eta jan zuten, ta ase ziran, eta apur-kondarez zazpi saski bete zituzten. Jan zutenak ba'ziran lau mila inguru: eta orduan bialdu zituen.

### Pentekostes ondorengo VII igandea

(Mat. VII. 15-21)

*Gezurantzko igarileak eta gezurantzko kristauak.*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai : —Gorde itzazute zuen bu-ruak gezurantzko igarleetatik : ardi-jantziz

agiri dira, otso lapuñak izanik : beren eginkizunetan (frutuetan) ezagutuko dituzute. ¿Eloñetik matsik, edo sasitik pikorik biltzen ote-da? Oñela ba : zuaitz on guziak, igali (frutu) onak ematen ditu: zuaitz txarñak, ordea, igali txarñak, ematen ditu. Zuaitz onak ezin emango du igali txarñik, ezta zuaitz txarñak ere igali onik. Igali onik ematen ez duan zuaitz guzia, ebaki ta surtara botako dute. Beren frutuetatik ezagutuko dituzute, beraz. Ez, dira «Jauna, Jauna» dioten guziak zeruko éreinunan sartuko : zeruetan dagon nere Aitaren naia betetzen duena : uraxe sartuko da zeruetako éreinuan.

### **Pentekostes ondorengo VIII igandea**

(Luc. XVI. 1-10)

#### *Etxezai (Ogasun-zai) biurña*

**A**ldi artan : Ipui au esan zien Jesusek bere ikasleai: Gizon aberats bat zan, eta etxezain bat zeukan, eta onek ogasunak ondatzen zizkiola jakin zuen. Deitu zuen ba, ta esan zion : —¿Zer da zutzaz en-

tzun dedana? Azaldu itzazu zure ar-  
-eman guziak, gaurtik aurrera ez dezu  
nere ogasunik zaituko-ta. Eta etxezaiak  
bere barrenean ala zion: —¿Zer egingo  
det, nere nagusiak etxezaitzea kentzen  
didan ezkerro? Atxuñtu?, ez naiz gauza;  
¿eskean ibili? lotsatu egiten naiz. Ba'da-  
kit zer egin, nagusiak etxezaitza kentzen  
didanean, aren zordunak beren etxeetan  
arñtu nazaten. Deiturik nagusiaren zor-  
dun guziak, galdetzen dio lenengoari:  
—¿Zenbat zor diozu nagusiari? Eta arek  
erantzuten dio: —Eun zagi-olio. —Eseri  
zaite esaten dio orduan eta tori zure agi-  
ria, ta idatzi (jari) berogeitamañ. Gero  
beste bati esaten dio: —¿Eta zuk, zen-  
bat zor diozu? Onek erantzuten dio:  
—Eun anega gari. —Tori zure agiria  
esaten dio orduan ta jari larogei. Eta  
goretsi zuen nagusiak etxezai biurria, gi-  
zon zur ta azkara agertu bait-zan. Izan  
ere gizarte ontako semeak, argiaren se-  
meak baño zuragoak dira beren egikizu-  
netan. Eta nik ere diotzuet: Egizkizute  
adiskideak gaiztakerizko ogasunez, il-  
tzen zeratenean, betiko egoitzetan (ze-  
rueetan) arñtu zaitzazten.

## Pentekostes ondorengo IX igandea

(Luc. XIX, 41-47)

*Jerusalen ikusita, Jesusek negar' egiten du.*

**A**ldi artan : Jesus, Jerusalemna urbildu zanean, uria ikusirik negar' - malkoak ixuri zituen, eta esan zuan : — ¡Bazeneki, gaur' beintzat, oraindik garaia dezunean, pakerako zer dagokizun...! Orain ordea, ezkutu da zure begientzat. Etor'iko bait-zaizkizu egunak, eta orduan zure etsaiak esiak jar'iko dituzte zure inguruan, eta alde guztietatik estutu egingo zaituzte : zu ta zure semeak ondatuko dituzte, ta ar'iren gañeko ar'irik zugaran geldituko ez da, ezpait-dezu ezagutu Jaungoikoa, zureganatu danean. Gero eliz nagusian sarturik, bota zituen andik saltzale-erosleak, esanaz : — Idatzita dago : «Nere etxea, otoitz-etxea da : zuek ordea, lapur'-zulo egin dezute». Eta egunero eliz nagusian irakasten aritzen zan.



## Pentekostes ondorengo X igandea

(Luc. XVIII. 9-14)

*Fariseotara ta zergalaria. — Jaunak biotz-barena ikusten du.*

**A**ldi artan : Bere buruak zuzentzat, eta besteak gaiztotzat artzen zituzten gizon batzuei, Jesusek ipui au esan zien : — Bi gizon igo ziran elizara otoitz egitera; bata fariseotara, bestea zergalaria (publikanoa). Fariseotarak zutik, onela zion bere barenean : — Jauna, eskerak zuri, beste gizonak bezela, lapur, bidegabe, ta ezkontzausle ez naizelako. Astean bitan barau egiten det : nere ogasunen amarenak ematen ditut. Zergalaria, ordea, an uruti zegoen eta ez zan ausartzen begiak zerurontz jasotzen ere, eta bere bulara joaz onela esaten zuan : — Jauna, erukitu zakizkit pekataria naiz-ta. Nik diotzuet : Donetua jetxi zan au bere etxera; ez ordea bestea: bere burua goratzen duana apaldua (umildoia) izango baita, eta apaltzen duana, goratua.

## Pentekostes ondorengo XI igandea

(Marc. VII 31-37)

### *Goñ-mutua sendatua*

**A**ldi artan : Tiro'ko mugaldetatik irten-  
da, Sidon'en gaindi, Dekapolis'ko eñi-  
taldetik bařena, Galileako itxasora etoñi  
zan Jesus. Eta goñ-mutu bat ekañi zioten,  
eskuak ezañita, ařen, sendatu zezan. Eta  
jende-añtetik bazteñtuta, bakañean añtu-  
rik, bere beatzak belañietan sañtu zizkion,  
eta txistuz mingañña ikutu zion; Eta zeru-  
ronz begiak jasorik, antsi bat egin zuen,  
esanaz : *Effeta*, au da : *idiki adi*. Eta  
bat-batean, ařen belañiak idiki ziran, ta  
mingañneko korapiloa ere askatu zitzaion,  
ta añgi-añgiro itz egiten asi zan. Eta  
iñori ez esateko agindu zion. Bañon,  
zenbat eta geiago agintzen zion, ainbat  
geiago zabaltzen zuen, eta gero ta geia-  
go ari ziran danak esaten : —Guzia ongi  
egiten du : goñai ematen die entzutea, ta  
izge edo mutuai itz egitea.

**Pentekostes ondorengo XII igandea**

(Luc. X. 23-37)

*Biotz-oneko Samaritararen ipuia:**Ziñezko (egizko) maitetasuna*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai : —Doatsuak, zuek ikusten dezutena ikusten duten begiak. Nik dio-tzuet : Igarle ta érege askok ikusi nai izan zuten, zuek dakuszutena, eta ez zuten ikusi; baita entzun ere, zuek entzuten dezutena, ta ez zuten entzun. Jeiki zan orduan lege-gizon bat, eta ziltzatu beárez onela zion : —Erakuslea : ¿zer egin-da iritxiko det betiko bizitza? Jesus-ek esan zion : —¿Legean zer dago idat-zia? zer irakurtzen dezu? Anek eratzun zion : —«Maita zazu, biotz - biotzez, gogo-gogoz, alegin guztiaz, adimen osoz, zure Jaun ta Jaungoikoa; ta zerori bezelaxe lagun-urkoa». Jesusek esan zion : —Ederki erantzun dezu : egizu orixe ta biziko zera. Anek, ordea, bere burua garbitu nayan onela esan zion Jesusi : —¿Ta nor da nere lagun-urkoa? Orduan Jesusek esan zion : —Ba'zijoan

bein gizon bat, Jerusalem'dik Jeriko'ra; ta lapuñen eskuetan erori zan. Auek zeramana kendu, ta zauriz beterik erdi-ilean utzita joan egin ziran. Ba'zetoñen, ala beañ-ta, bide beretik, apaiz bat (judaña): eta eria ikusi añen auñera jo zuen. Berebat, andik zijoan apaiz-lagun (lebita) batek ere ikusi zuen, bañon auñera joan zan. Bidazle samaritañ bat, ordea, eldu zan: eta ikusi zuenean, erukiturik, ureratu zitzaion eta ardo-olioz igortzi ta lotu ziozkan zauriak, eta gero mando-gañean jañi ta ostatura eramane zuen, eta bere ardurapean artu zuen. Biaramonean, deitu zuen ostalaria, ta eman ziozkan amañeko bi, ta esan zion: —Zaitu ezazu gizon ori, eta zerbait geiaeo zoñ ba-dizut, neronek itzultzean ordainduko dizut. ¿Iru gizon oietan nor izan zala deritzazu lagun urkoa, lapuñen eskueta eroritako gizon añentzat? —Erukitu zana-erantzun zion lege-gizonak. —Zoaz ba, esan sion Jesusek, eta egizu orobat zuk ere.

## Pentekostes ondorengo XIII igandea

(Luc. XVII. 11-19)

### *Amañ legenañdun sendatuak*

**A**ldi arñtan : Jesus, Jerusalem joateko, Samaria ta Galilea-ereditik zijoan. Eta alderi batean sartzerakoan, amañ legenañdun (lepradun) atera zitzaizkion bidera; baña uruti gelditurik, deadarka asi ziran:—¡Jesus ikaslea! erukitu zakizkigu! Eta ikusi ta bereala esan zien: —Zoazte, ta agertu apaizengana. Eta zijoazela, garbirik arkitu ziran. Aietako bat, bere burua garbirik ikusi zuanean, atzera itzuli zan Jauna ojuka goratuaz, eta aren oñetan auspeztu zan, eta eskerak eman zizkion; samaritará zan hera. Eta Jesussek erantzun zion: —¿Ez al dira amañ garbituak? ¿non dira, ba beste bederatzia? Atzeritará au baizik, beste inor ez da itzuli, Jaungoikoari aintza ematera. Gero esaten dio: —Jeiki zaite ta zoaz: zure sinismenak gaizkatu (salbatu) zaitu.

**Pentekostes ondorengo XIV igandea**

(Mat. VI. 24-33)

*Jaungoikoak guztion ardura ba'dauka*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai : Ezin ditzake inork bi nagusi otseindu (serbitu) : edo bata gorotatuko du ta bestea maiteko, edo bati adituko dio, ta bestea ezetsiko du. Jaungoikoa ta dirua, ezin ditzakezute otseindu. Beragatik diotzuet : Ez kezketan ibili bizitzeko zer jango, ezta gorputza zerekin jantziko dezuten ere. ¿Bizitza ez al-da jatea baño geyago, eta gorputza jantzia baño? Begira goiko egaztiak, ez baitute ereiten, ez uztatzen, ez ta aletegietan alerik biltzen ere : eta ala ere zeruko zuen Aitak bazkatzen ditu. ¿Ez ote-zerate zuek, aiek baño askoz geyago? ¿Zein da zuetan, bere asmo guziekin, besaldi batez bere burua azi lezake-nik? ¿Eta jantziaz, zergatik zerate kezkatu? Begira landa-loreak (lirioak) nola azten diran : ez dira ez lanean ez ardatzean ari izaten : nik diotzuet ordea : Salomon bera ere, bere gloria edo ain-

tza-aldirik aundienean, ez zan oietako bat bezela jantzi. Beraz gaur lerdan dagolarik, biar labera botako duten landa-belañ bat Jainkoak oñela jazten badu; izenbatez obeki zuek, siniste gutxidunok! Ez, bada, kezkarik izan; «zer jango degu» esanaz «edo zer edango degu, edo zerekin jantziko gera». Ziñesge edo gentilak ibiltzen dira oien guzien ondoren. Ondo daki, ordea, zuen aitak, oiek guziok beañ dituzutela. Bila zazute lenbizi Jainkoaren eñeina ta bere zuzentasuna, ta beste gauza guziak ere emango zaizkizute.

### Pentekostes ondorengo XV igandea

(Luc. VII. 11-16)

#### *Nain'go alargunaren semea berpiztua*

**A**ldi artan : Nain zeritzaion uri batera zijoan Jesus, ta berakin zijoazen baita bere ikasleak eta lagun asko ere. Eta uriko atera ureratzeaz batean, ildako bat zeramaten lurperatzera. Iña, seme bakaña zan, ta bere ama alarguna, ta lagun asko zijoazen arekin. Jaunak, alargun ura

ikusitu zuenean, erukiturik esan zion:— Ez negarik egin. Eta ureratu zan, ta ikutu zuen zeñaldoa (il-kutxa), eta zera-matenak gelditu ziran. Orduan esan zuen:—Gaztea, zuri diotzut: jeiki zaite. Eta ilda zegoena, jeiki ta itz-egiten ari zan, eta antxe eman zion Jesusek amari. Guztiok ikaratu ziran, ta Jaungoikoa goretsi zuten esanaz:—Igarle aundi bat sortu da gure artean, eta oraintxe bai Jaungoikoak bere erria ikeritu (bisitatu) duala.

### **Pentekostes ondorengo XVI igandea**

(Luc. XIV. 1-11)

*Jesusek lotsaturik uzten ditu fariseotarik. Apalak goratuak izango dira.*

**A**ldi artan: Jesus, fariseotañen nagusi (aundiki) baten etxera joan zan bazkaltzera, larunbatez, eta aiek (guziak) zeltan zegozkion. Eta gizon umindun (hidropesidun) bat jañi zitzaion aurean. Orduan Jesusek, lege-gizon ta fariseotañengana biurtuta galdetu zien:—¿Zuzena (bidezkoa) al-da, larunbatez senda-



tzea? Bañon aiek ixil-ixilik zeuden. Berak ordea, ikututa sendatu zuen, ta bidali zuen. Gero, fariseotařengana beřiro biurřuta, esan zien:—Zuen arteko bateri astoa edo idia, zulora erortzen balitzaio, ęez ote-luke lenbailen aterako, larunbata izan ařen? Eta zer erantzun ez zekitela gelditu ziran. Geroago, bazkaldařak lenengo tokien bila zebiltzala ikusirikan, ipui au esan zien:—Eztaietara zoazenean, ez arřtu lenengo tokia maiean; bestela, agian, zu bañon aundiagoren bat deitua ba-da, etorřiko da nagusia biongana, eta esango dizu: «Eman oneri zure tokia» eta orduan lotsaturik azkeneko tokira joan beařko dezu. Norbaitek eztaietara deitzen zaitunean, ba, zoaz azkenengo tokira, nagusia datořkizunean esan dizaizun: «Adiskide, atoz gorago»: eta ořela maikidien aũrean goratua izango zera; bere burua goratzen duana, apaldua (umildua) izango baita, eta apaltzen dana goratua.

**Pentekostes ondorengo XVII igandea**

(Mat. XXII. 34-46)

*Maitetasun-lege nagusia, Jesus Jaungoikoaren Semea.*

**A**ldi artan : Fariseotarak eldu ziran Jesusengana, ta aietako lege-gizon (irakasle) batek, ziltzatuaz (tentatuaz), galde auxe galdetu zion:—Irakaslea : ¿Zein da legearen agindurik nagusiena? Jesusek erantzun zion:—«Maita ezazu biotz guziz, anima guziz, eta adimen guziz Zure Jaun ta Jaungoikoa». Au da agindurik nagusien ta aurrena. Bigarrena beriz oren antzekoa da : «Maita ezazu zerori bezela zure lagun urkoa. Bi agindu oietan biltzen dira lege guzia ta igarreak (*igarreak dakartena*). Eta fariseotarak elkarrekin zeudela, Jesusek galdetu zien : ¿Zer deritzazute Kristotzaz? zeñen semea oteda?—Dabid'ena diote. Jesusek erantzuten die:—¿Nola deitzen dio beraz, Dabid'ek goiargiz, Jauna, esanaz : «Nere Jaunari, Jaunak esan zion : jarizaitz nere eskubian, zure etsai guziak oinperatuko dizkizudan artean?» Dabid'ek,

Jauna deitzen badio ¿nola diteke bere semea? Eta ezin zion inork itzik erantzun, eta egun au ezkeroz, etzitzazion inor ausartu galde beririk egiten.

### **Pentekostes ondorengo XVIII igandea**

(Mat. IX. 1-18)

*Perlesiduna sendatua. Jesusek obena (pekatuak) askatzen ditu.*

**A**ldi artan : Jesus, ontzi batean sarturik, itxasoz beste aldera bere erira (*Kafarnaunera*) joan zan. Eta oiean zetzan perlesidun bat aurkeztu zioten. Eta aien sinismena ikusirik onela esan zion Jesusek perlesidunari: — Seme; izan ezazu uste osoa; barkatzen zaizkizu zure pekatuak. Eta bereala asi ziran idazlari (eskriba) batzuek beren barenean esaten: — Birao bat esan du onek. Eta Jesusek, aien gogamenak igeririk, onela esan zien: — ¿Zergatik oldoztu (pensatu) beardezute gaizki zuen biotzetan? ¿zer da errezago ba, «pekatuak barkatu zaizkizu» esatea, ala «jeiki ta zoaz»? Jakin dezazuten, bada, gizonaren Semeak, luñean

pekatuak barkatzeko eskubidea (almena) ba'daukala, esaten dio perlesidunari:— Jeiki zaitez : ta zure oian artu, ta zoaz etxera. Eta jeiki zan, ta antxe joan zan bere etxera. Au ikusirik, jendea ikaratu zan, ta gizonai orenbeste eskubide damaien Jaungoikoa goratzen asi ziran.

### Pentekostes ondorengo XIX igandea

(Mat. XXII. 2-14)

#### *Eztaien ipuia*

**A**ldi artan : Apaiz nagusi ta fariseotari, ipuietan itz egiñaz, auxe esan zien Jesusek:—Zeruko agintea (ereinua), semeari eztaiak egin zizkion eregearen antzekoa da. Bidali zituen arek moñoiak, bazkaldañak deitzera, bañon auek ez zuten etoñi nai izan. Beñiro beste moñoi batzuek bidali zituen esanaz:—Bazkaria geñturik dago : idi ta egaztiak ilak ditut; guzia jañia dago: atozte eztaietara. Aiek, ordea, erantzun ere ez zioten egin eta an joan ziran, bata bere basetxera, bestea sal-erosteko irabazietara : besteak beñiz eregearen moñoiari elduta, bidegabekeri

asko egiñik, erail egin zituzten. Eta eřegeak, oien beñi jakin zuenean, aseřeturik bere gudarosteak bialdu zituan eta jo ta limurtu zituan iltzale aiek, ta eřia kiskali egin zien. Orduan onela esan zien mořoiari:—Eztaiak gerturik daude, bañon deitu nituanak etziran gai izan. Zoazte, beraz, bide-buruetara, ta deitu itzazute arkitzen dituzuten guziak. Irten ziran, ba, mořoiak bidietara ta arkitu zituzten guziak, onak eta gaiztoak, bildu zituzten, eta eztaietako maia bete zan bazkaldařez. Gero eřegea sarřu zan jantegira (bazkal-gelara), etořitakoak ikus-tera, ta eztai-jantzirik gabe zegon gizon bat ikusi zuen an. Eta esan zion:—  
¿Adiskidea : nola, sarřu zera emen eztai-jantzirik gabe? Eta ixilik zegon. Orduan eřegeak mořoyari onela esan zien:—Anka-besoak loturik, bota zazute kanpoko ilunpetara : an bai izango dala negařa ta ořtz-kařaska. Asko bait-dira deituak, bañon gutxi aukeratuak.

**Pentekostes ondorengo XX igandea**

(Joan. IV - 46 - 53)

*Kafarnaungo gudari-nagusiaren semea  
Jesusek sendatzen du*

**A**ldi artan : Etoñi zan Jesus beñiro Galileako Kana'ra— lenago ura ardo biurñtu zuen tokira— eta an arkitzen zan semea Kafarnaunen gaxorik zeukan yauregitar (*regulo*) bat. Yauregitar onek Jesus Judatik Galileara eldu zala entzun zuenean, joan zitzaion Jesusi ta eskatu zion, Kafarnaunera jetxita bere semea senda zezala, il-zorian zegola-ta. Jesusek esan zion : —Zuek, miraririk ikusten ezpadezute, ez dezute sinisten. Yauregitañak erantzun zion: —Jauna, atoz, nere semea il baño len. Jesusek esaten dio: —Zoaz; zure semea ongi dago. Gizonak, Jesusek esan zion itza sinistu zuen, ta ba'zijoan. Eta bidean zijoala, moñoiak etoñi zitzaizkion, ta semea ondo zegoela adierazi zioten. Galdetu zien, beñaz, zer ordutan pizkoñtu zan, eta onela erantzun zioten : —Atzoko zazpietan beratu zitzaion sukara. Orduan ezagutu zuen aitak ordu

uraxe zala, Jesusek : «Zure Semea ongi dago esan ziona» : ta berak eta etxeko guziak sinistu zuten.

### **Pentekostes ondorengo XXI igandea**

(Mat. XVIII. 21-35)

#### *Moñoi biotz-gogoña*

**A**ldi artan : Ipui au esan zien Jesusek bere ikasleai: Zeruko éreinua, bere moñoiarekin kontu-garbiketa egin nai zuen éregearen antzekoa da. Kontu-garbiketatan asi zanean, amar mila talento zor zizkion bat ekañi zioten. Bañon nondik ordaindu ez zeukalako, añen emazte, seme-alaba ta zeukan guzia saldu ta zoñak ordaintzeko agindu zuen nagusiak. Bañon moñoj añek, auspezturik, —Añen—eskatzen zion : —Izan zaidazu eramantpen pixka bat eta ordainduko dizut guzia. Eta nagusia érukitu zitzaion, eta utzi zion, eta zoña bañkatu zion. Moñoi añek, ordea, atera zanean, eun denario zoñ zizkion moñoi lagun bat añkitu zuen, ta eldurik, itotzeko zorian zeukan esanaz : —Ordain zak zoñ deka-

na. Eta moñoikideak, auspezturik eskatzen zion: —Izan akidak eramannen pixka bat eta guzia ordainduko diat. Bañan aiek etzuen nai izan; baizik joan eta espetxera (kartzelara) bialdu zuen, zoia ordaindu arte. Beste moñoi lagunak, ordea, zer gertatu zan ikusirik, nairgabetu egin ziran oso: eta etoñi ziran, ta antxe eman zioten gertaera guzien beñi nagusiari. Orduan onek deitu ta onela esan zion: —Moñoi zikoitza (txaña); or barkatu diat Nik zoñ osoa, eskatu didakelako eta jez al-akion i ere erukitu bear ire lagunari Ni iri erukitu natzaiken bezela? Eta nagusia asaretu zan eta zigoñ kariengana (boñeguagana) bidali zuen, zoñ osoa ordaindu arte. Orixe egingo dizute zeruko nere Aitak ere, bakoitzak bere anaiari biotzez barkatzen ezpadiozute.



## Pentekostes ondorengo XXII igandea

(Mat. XXII, 15-21)

*Jaun bakoitzari zor zaiona  
itzuli bear zaio*

**A**ldi artan : Joan ziran fariseotarak, ta elkar artu zuten, Jesus itzetan nondik arapatuko zuten ikusteko. Bialdu zizkio-ten, ba, beren ikasleak Erodestarakin batean, esatera : —Irakaslea; ba'dakigu egitsua (egi-zalea) zerana, ta Jaungoiko-aren bidea egiz irakasten dezuna, ta inortaz ere ajolarik ez dezuna : ez bait-  
dezu Zuk nor nor dan bat ere begira-  
tzen. Esan zaiguzu, bada : ¿Zerga Ze-  
sar'i ematea zilegi (bidezkoa) da, ala ez?  
Jesusek ordea, aien gaiztakeria ezagu-  
turik, onela erantzuten die : —Aizunak  
(ipokritak) ¿Zergaitik ziltzaten nauzute?  
Erakutsidazute zerga-dirua. Ta erakutsi-  
zioten denario bat. Eta Jesusek esan-  
zien : —¿Zeñena da irudi ta ikuritz au?  
Zesar'ena diote. Orduan esaten die  
Jesusek : —Biur' zaiozute bada Zesar'i  
Zesar'ena, ta Jainkoari Jainkoarena.

**Pentekostes ondorengo XXIII igandea**

(Mat. IX. 18-26)

*Gaixo zegon emakumea, sendatua.  
Jairon alaba berpiztua.*

**A**ldi artan : Jesus osteari (jendeari) itz egiten ari zala, gizon aundiki bat ureratu zitzaion ta gurtu zuen esanaz :—Jauna : nere alaba oraintxe il da : bañon atoz, ezañi zaiozu eskua ta biziko da. Jeiki zan, ba, Jesus, ta ba'zijoan bere ikasliekin. Eta or ondorazen zaio atzetik ama-bi urtetan odol-jarioz gaxorik zegon emakume bat eta jantziaren ertza ikuitzen dio. Emakumeak bere baitan ala bait-zion : «Bere soñekoa bederen ikutuzkero, sendatua nitzake». Eta Jesus biurtu zan, eta ikusirik esan zion :—Alaba : Izan ezazu uste osoa : zure sinismenak sendatu zaitu. Eta, bertatik, emakumea sendatua arkitu zan. Eta Jesusek jaun aundi añen etxera eldu ta iletariak ta jendearen iskanbila ikusi zituenean, onela esan zuen :—Irten zaitzte : neskatx ori lo dago, ez dago ila. Eta iri-parez zegozkion guztiok. Bañon jendea

bota zuenean, sartu zan, eta eskutik aritu zuen : eta piztu zan neskatxa. Eta mirari orien beria erialde guzian zabaldu zan.

### **Pentekostes ondorengo XXIV igandea**

(Mat. XXIV. 15-35)

*Gure lurraldearen bukaera. Jesukristoren etoñera.*

**A**ldi artan : Onela esan zien Jesusek bere ikasleai :—Daniel igarleak esandako ondamen nardagarria toki donean (santuan) jarria ikusten dezutenean irakurtzen duenak aditu beza : Orduan igo bitzez Judean diranak mendietara; ta saiban dagoena ez bedi jetxi etxera zerbaít artzera; eta soroan dana, ez bedi biurtu soñeko-bila. ¡Zoritxarreakoak, egun aieten aurbidean ta aur-azten diranak! Egundiek laburtuko ez balirake, inor ez litzake gaizkatuko (salbatuko): baño autatuengatik laburtuak izango dira egundiek. Orduan norbaitek esaten badizute : «Ona emen edo an Kristo», ez sinistu. Jeikiko bait dira kristo-aizunak eta igar-

le-aizunak (gezuñezko kristo ta igarleak), eta al balitz, autatuak ere okerean jartzerako ezaugai ta mirari aundiak egingo dituzte. Ora Nik zueri auez esan. Esaten ba-dizute beraz : «Ara, lekaroan (basamortuan) dago», ez irten. «Ara zokotan», ez sinistu. Gizasemearen etoera, eguzki - aldetik atera ta sartalderako agertzen dan tximista bezela izango da. Gorputza arkitzen dan lekuan, antxe bilduko dira aranoak. Egun aietako laialdi ondoren beriz, eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argirik emango, zeru-ortzetik izanak eroriko dira, zeruen sendotasunak kordokatuko dira (dardaratuko dira), eta orduantxe agertuko da zeru-goitik Giza-Semearen ezaugarria : eta orduan negar - maraskaz egongo dira ludiko gizeli (tribu) guziak, eta ikusiko dute gizonaren Semea odei artean almen ta aunditasunez beterik datoela. Eta bialduko ditu bere aingeruak, turuta joaz eta deadarka, eta bilduko dituzte autatuak lau aizeetatik, odai-ertz goyenetik beren azkenetarako. Ar zazute irudiki bat piko zugatzetik : Kimak beritu ta ostoak sortzen zaizkionean, ba'dakizute

uda urbil dala; zuek ere, oiek guziok ikusten dituzutenean, jakin zazute laixteñ dala atean *Gizonaren Semea*. Egiaz diotzuet : Gizaldi au ez da igaroko oiek guziok gertatu arte. Zeru-lurak igaroko dira, bañan nere itzak ez dira igaroko.

## BESTE JAI OSPETSUENETAKO EBANJELIOAK

**Lotazilaren 8.—Andre Mariaren Softze  
gabia**

(Luc. I. 26-28)

*Gabriel aingeruak Jaungoikoaren  
auréan Maria agurtzen du.*

**A**ldi artan : Jaungoikoak Gabriel aingerua, Nazaret zeritzaion Galileako uri batera bidali zuen, Jose izeneko Dabid-eéregearen etxeko gizaseme batekin ezkondua zegon Birjin batengana, arien izena, Maria zan. Eta aingeruak bera zegon tokira sartu zanean, Agur esan zion, Agur eskeréz betea; Jauna zurekin; bedeinkatua zera emakume guzien artean.

**Epala 19.—Jose Deunaren jai-eguna**

(Mat. I. 18-22)

*Jose Deunari, aingeruak adierazten dio, Espiritu Santuaren indaréz Maria aurđun dagoela.*

**M**aria Jesusen Ama, Jose'kin ezkontuta zegoela biok elkarganatu baño lenago, Espiritu Santuaren egitez, aurđun arkitu zan. Bañon bere senar Josek, zuzena zalako, ez zuen galdu nai izan : ixilik bidaltzeko asmoa artu zuan. Eta gogapen auekin zebilela, Jainkoaren aingerua agertu zitzaion ametsetan, eta Jose esan zion —Jose, Dabiden Semea; ez bildurik izan; artzazu zure emazte Maria; bera-gan sortu dana, Espiritu Santuarena da. Seme bat egingo du, ta Jesus izena jarri-ko diozu : Berak gaizkatuko (salbatuko) du bere eria pekatuetatik.

**Piztuera ondorengo II asteko asteazkena**  
**Jose Deun Zaindariaren jai nagusia**

(Luc. III. 21-24)

*Jesus Jaungoikoaren Semea, Jose santuaren seme-ordea (seme-ustezkoa).*

**A**ldi artan : Eri guzia bataiatu zanean, Jesus ere bataiatu zan; eta otoitzean zegon artean zerua idiki zan : orduan Espiritu Santua, uxoaren antz-pean bere gañera jetxi zan, eta zerutikako abotsa entzun zan : Zu zera nere Seme laztana; zurekin (zugan) ditut nere atsegiñak. Ogeitamar urte inguru zituen Jesusek bere lanak asi zituenean, eta guziak Jose'ren semetzat zeukaten.

**Garagañila 24.—Juan Bataitzañe Deuna**

(Luc. I. 57-69)

*Juan Bataitzañearen (Ugutzañearen) jayotza alatzgañia (miragañia).*

**A**urđun zegon Isabel'i eldu zitzaion aurđegiteko garaia, ta seme bat egin zuen. Eta bere senide ta aurđekoak asko poztu ziran, Jauna erukitu zitzañola jakin zute-

nean (aur' gabe bait-zegon). Zortzigañen egunean, aur'a bilebakitzera eramán zuten, eta bere aitari bezela, Zakarias izena jañi nai zioten. Bañon bere amak —Ez olakorik— esan zien : —Baizikan Juan izango du izena. Eta erantzun zioten : —Ez da ordea iñor zure senitarñean izen ori daukanik. Orduan, kiñuka galdetu zioten aitari, zer izen ezartzea nai zuen : eta onek idatz-ola (txarñtela) eskatuta onela idatzi zuen : Juan da bere izena. Guztiok arñturik gelditu ziran; eta bat-batean, mingañña askatu, ta Jauna goresten jañi zan Zakarias. Orduan ikarra aundi batek bete zituen bere auzoko lagun guziak, eta Judeako ibarñ-mendi guzietan berñ auek barñeatu ziran : eta entzuten zituzten guziak, biotz barñenean zerabilzkiten, elkarñ ziotela:—¿Nor izango dala deritzazu aur' au zioten alkarñi? Agiri bait zan Jaungoikoaren eskua (besoa) arñekin zegoela. Eta aren aita Zakarias Espiritu Santuak bete zuen, eta itz-egiten asi zan, esanaz : —Donetsia (Bedeinkatua) Jauna, Israeldarñen Jaungoikoa; Oraintxe ikustatu (bisitatu) ta askatu du bere erñia.



**Garagafila 29. — Pedro ta Pablo Deunak**

(Mat. XVI. 13-19)

*Pedrok Jauna aitoitzen du ta onek gotzai-buru jaitzen du Pedro.*

**A**ldi artan : Etoñi zan Jesus Filipino'ko Zesarea aldera ta bere ikasleai galdefu zien:—¿Zein dala diote gizonak gizona-ren Semea? Aiek onela erantzun zioten:—Batzuek Juan Bataitzalea, besteak Elias, besteak Jeremias edo igarleren bat. Jesusek esaten die:—¿Eta zuek nor naizela diozute? Pedrok onela erantzuten dio:—«Zu, Kristo, Jainko biziaren Semea». Jesusek orduan esaten dio:—Zorionekoa zera, Simon Bar Jona; ez dizu, ez zure aragi ta odolak erakutsi or diozuna, zeruko nere Aitak baizik: nik beriz diotzut : zu zerala Pedro (arria), eta arri oñen gañean jasoko detala Nik nere eliza eta inperñuko ateak (indarñak) ez dutela gainduko (garaituko). Zuri eman-go dizkitzut zeruko ereinuaren giltzak : luñean lotuko dezun guzia, lotua izango da zeruan; ta luñean askatzen dezuna, zeruan ere askatua izango da.

**Dagoniā 15.—Andre Mariaren  
Jasokundea (Asunzioa)**

(Luc. X. 38-43)

*Marta ta Maria aizpak Andre Maria-  
ren irudi.*

**A**ldi artan : Eri txiki batera joan zan Jesus, eta Marta zeritzaion emakume bateg, bere etxean aritu zuen : Maria zeritzan aizpa bat zeukan onek, eta au Jaunaren oñetan exerita zegon, aren itzaldiak entzuten. Marta, artean, lañi zebilēn bear ziran (gauza) guziak gertutzen; eta Jesusengana etoñi eta onela esan zion:— Jauna ¿ez dezu ikusten, nere aizpak bakarrik utzi nauela etxeko lanetan? : esai ozu ba, lagundu zaidala. Bañon Jaunak erantzun zion, esanaz:—Marta, Marta, asko leyatzen zera, ta gauza askotan lañi zabilta : eta egi-egiaz, gauza bakarra da bearekoa. Mariak eginbear obeagoa aukeratu du; beñere kenduko ez zaiona.

**Iraia 9.—Arantzazuko Andre Maria,  
Gipuzkoako zaindari nagusia**

(Luc. I. 26-39)

*Aingeruak Maria agurtzen du, ta Espiritu Santuaren indaréz soñtuko duela adierazten dio.*

**A**ldi artan : Jaungoikoak Gabriel aingerua Nazaret zeritzaion Galileako uri batera bidali zuen. Jose izenezko gizaseme batekin ezkondua zegon Birjin batengana, aren izena Maria zan. Eta aingeruak bera zegon tokira sartu zanean—Agur—esan zion:—Agur, eskeréz betea, Jauna zurekin, donetsia (bedeinkatua) zera emakume guzien artean. Itz auek entzunda lañitu zan, eta agur oñekin zer esan nai ote zion zegon bere artean. Baniñon aingeruak onela esan zion;—Ez belduñtu, Maria, Jaungoikoaren gogozkoa zera-ta; aurdun arkituko zera; seme bat soñtuko dezu ta Jesus izena ipiñiko diozu. Aundia izango da Bera, ta Altsuaren Semea deituko dute, ta Jainko Jaunak Dabid bere aitaren jañ-lekua emago dio; Jakoberen etxean (ondorengoetan) agindu-

ko du beti, ta bere aginteak ez du azkenik izango. Mariak esan zion aingeruari:—¿Nola izan leike ori, gizonik eza gutzen ez badet? Eta aingeruak erantzun zion:—Espiritu Santua zugana etoriko da, ta Altsuaren indarak itzalpetuko zaitu (bere itzalpean arituko zaitu). Beraz zugan jayoko dana, Jaungoikoaren Semea izango da (deituko dute). Ara : Isabel zure lengusuak ere, bere zaítzaroan seme bat soítu du, ta aurégabea zana, seigaren ilean arkitzen da : Jaungoikoarentzat, ez bait-da gauza eziñik. Mariak orduan esan zuen:—Ona emen Jaunaren mirabea : egin bedi nigan zuk diozuna.

### Uztaila 25.—(Jakobo) Santiago Deuna

(Mat. XX. 20-24)

#### *Juan eta Jakobaren Ama Jesusi eskeintzen*

**A**ldi artan : Zebedeotañen ama bere bi semiekin Jesusengana etori zan, eta bere aurean auspeztu zan, zerbait eskatu nairik. Jesusek : —¿Zer nai dezu? esan zion ta arek erantzun : —Agindu zazu

nere bi seme auek, bat zure eskubian eta beste zure ezkeréan exeri ditezela zure éreinuan. Jesusek erantzun zion: —Ezta-kizute zer eskatzen dezuten: ¿Nik edan-go defan ontzia edateko gauza al zerate ba? Aiek esan zioten: —Bai, edan ge-nezake. Orduan esan zien: —Nere edan-ontzia edango dezute bai, bañon nere eskubian edo ezkeréan exeritzea ez da nere eskuetan zuei ematea; ori, nere Aitak geñtu dien aiei emango zaie.

**Uztaila 31.—Loyola'taŕ iñazio Deuna  
Gipuzkoa ta Bizkai'ko Zaindaria**

(Luc. X. 1-10)

*Jesusek bere bidaliai erakusten die,  
eririk-erri nola ibili*

**A**ldi artan: Jesusek aukeratu zituen beste irurogeita-amabi lagun, eta biñaka (bere auretik) bidali zituen, gero ikusiko zituen erri ta urietara. Eta esaten zien: —Uzta ugaria da, bañon langile gutxi: eskatu ba uztaren jabeari, langileak bialtzeko. Zoazte; ara: ardiak otsoetara bezela bidaltzen zaituztet. Ez zoñorik

artu, ez txindirik (dirurik), ezta oñetako-rik ere, eta bidean ez inori agurik egiñ. Sartzen zeraten etxean, lenengoz esan : Pakea etxe ontako bizilagunai : eta bertakoak pake-zaleak ba-dira, jexiko da oien gain zuen pakea; bestela beriz, zuengana biurtuko da. Etxe artan egon zaitzte, bertakoekin jaten ta edaten; langileak, lan-saria bidezkoa du; ez etxerik-etxe ibili. Sartzen zeraten erian, ondo artzen bazaituzte, jan emango ditutena; gaixo daudenak sendatu eta esan jende aiei : Urean dezute Jaungoikoaren ereinua.

### **Azaroa 1.—Deun Guztien jai-eguna**

(Mat. V. 2-13)

#### *Zoriontasunak*

**A**ldi artan: Jesusek, jaraitzen zion oztea (jende pila) ikusi zuenean, mendira igo zan, ta antxe exerita, bere ikasleak inguratu zuten. Orduan, irakasten asi zan, esanaz :

Zorionekoak biotzez beartsu diranak : zeruko ereinua oiena da-ta.

Zorionekoak otzanak, luñaren jabe izango dira-ta.

Zorionekoak negar egiten dutenak, alaituak izango dira-ta.

Zorionekoak zuzentasunaren gose ta egañi diranak, asetua izango dira-ta.

Zorionekoak erukioñak, erukia iritxiko dute-ta.

Zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dute-ta.

Zorionekoak paketsuak (pake zaleak), Jaungoikoaren Semeak deituak izango dira-ta. (Semeen izena emango zaie-ta).

Zorionekoak zuzentasunagatik jazañtuak, berena dute-ta zeruko ereinua.

Zorionekoak izango zerate, Nigatik gizonak madarikatu ta jazañtuko zaituztenean, ta gezuñez zuentzat gaizki-esaka ibiliko diranean: poztu zaitetze orduan : oso aundia da zeruetako zuen saria.

---



## VIII. GOGAKETAK

### (MEDITAZIOAK)

#### GOGO-OTOITZA

Otoitzaren bidez, biotza Jaungoikoagana jasotzen degu, mesedeak berari eskatzeko.

Bi eratakoa da:

Bata.—*Aozkoa*, itzez egiten dana.

Bestea: —*Gogozkoa*, gogo utsezko otoitza.

Biak edera, oso beñak dira, azkenengo au batezere gure egunetan. Nendik dator, bada, asko ta asko kristauen artean, Jaungoikoagandik urrun bizi dirala, bere aginduz oso aztuta epel ta nagiro... «quia nullus est qui recogitet corde», «bañena iñoik azteitzen ez dualako». (Jerem. XII. 11).

«Oñdu laurden bat egunero gogo - otoitzari emaiozu, ta zerua zurea dezu», dio Teresa Deunak.

Oña, ondo merke, zerua irabazteko bidea.



## Gogo-otoitza ongi egiteko era

Goizeko otoitzak bukatu ondoren, jañ zaitez Jaungoikoaren aurrean, gurtu zazu, ta otoitza ondo egiteko laguntza eska zaiozu.

1'n.)—Irakurri gero, astiro-astiro, gogoan aritzen dituzula, berago jañi diran gogaketak (31 dira, ilaren egun bakoitzerako bat).

2'n.)—Ondoren zure buruari galdetu :

¿Ez al da *egia* orain irakurritako guztia?

¿Jesukristok eta doneak ez al dute of eskatzen dana *egin*?

¿Ez al da oso *egokia* neretzat, mesedezkoa oso, txit beara ta guztiz ezeza beste ainbeste egitea?

¿Eta zer *egin* det oraindano).

3'n.)—Zure adimenak lan egin du, orain zure naimenak (borondateak) orobat egin beara du.

Artu emen aurrerakoan obeto egiteko asmo sendoak; beñatik ikusi arkituko dituzun eragozpen edo trabak, eta oiek austeko neurriak aukeratu.

Begira : *egunean egunerako* asmo sendo-sendo artu bear dezu.

Zuk dakizun lagun arekin bear ez diran gauzak itz egiten dituzula? *X' ekin ez det geiago itzik egingo* esatea ez da naikoa.

«*Gaur*» ez det *X' ekin itz egingo* : ori da artu bear dezun asmoa.

*Egunean egunekoari* begiratu; *gaur gaurkoari*. Oriela artzen dezun asmoak, indar geiago du askozaz ere.

Ikus zeroŕek eta egizkatuko dezu.

4'n).—Baño zure asmo onak uts egin ez dezaten, Jaungoikoari, Andre Mariari, Jose Deunari, azkenean, laguntza eskatu. Emen biotzak jaŕdun bear du, ta zenbat eta luzeago, ainbat eta obe.

Otoitza bukatzeko, gogaketa-pean jaŕi diran asmoa ta oldozpena (pentsamentua) irakuŕi, ta oiek buruan aŕtu, egunean maiz gogoratzeko.

«Aita Gure»k amaituko du zure otoitza.

## LENENGO EGUNERAKO

### Sinismena (Fedea)

1). Sinismenak edo fedeak erakusten digun guzi-guzia, Jaungoikoaren itzak egiztatzen du (egia dala erakusten du). Jesu Kŕistoren aotik aŕtu ditu gure Eleiza-Amak, sinistu erazten dizkigun egiak; beraz, ezin okeŕ ibiliko gera, Egia ber-bera dan Jaunak bidea erakusten digu-ta. Nork bere adimen edo aŕazoia, sinispen-mendean jaŕtzea baño, gauza zuzenagorik ez da.

2). Baña sinisten duala esan-da, bere eginkizunak zuzen egiten ez baditu ¿zer irabazten du kŕistauak? Jaungoikoak erakusten diguna ezta-baidan edo zalantzan aŕtzea, zorakeri aundia da; Maŕtirien odolak eta mirari aundienak egia dala esaten digute, ta deabruak berak ere, bein baño geiagotan orixe bera aitoŕtu izan du. Baño askoz zorakeri aundiagoa da Jaungoikoaren esanak egizkoak dirala aitoŕtu ta, gezuŕezkoak

balira bezela bizi izatea. Deabñuak ere beste oren-  
beste egiten dute : sinistu ta Jaungoikoa ukatu.

3). Nere bizibide osoa nere lanbide guztiak  
sinispenak zuzenduko ditu auferakoan. Berak  
nai ez duena, nik ere oez det naiko, naiz eta in-  
darean. Munduko erakusbide txoroen aurrean  
jafi ditzadan Jaungoikoarenak. Bere esanak ja-  
raituerazteko ¿zer dio munduak? «*laister ilko  
gera, ta jan ta edan zagun lasai*» (Sap. lib. II,  
c. II, 6-8). ¿Jesukristok zer dio? Gurutzea laztan-  
durik, neke ta lanak eramateko. ¿Non dago  
egia; Jesukristoren ala munduaren aldetik?

### *Asmoa*

Jaungoikoari eskeñak eman, Eliz-Amaren ma-  
galean jaio zeralako, ta zure sinispena aitortze-  
ko esan astiro «Sinisten det» edo «Kredoa».

«Quid prodest, si quis catholice credat et gen-  
tiliter vivat»—«¿Zer auferatzen dezu, sinispena  
izanik, sinisgabekoak bezela bizi bazera?»

## 2' GAÑEN EGUNERAKO

### Gizonaren azkena

1). Gure azken bakafá, Jaungoikoa da. Jaun-  
goikoak beretzat soñtu gaitu; beste inorenak  
ezin izango gera, ba. Gure biotzak berak Jaun-  
goikoa eskatzen du, ta ezin ukatu genezaioke.

2). Jaungoikoa da gure Jauna. Izan gaitezen  
gu arenak beti. Onez-onean, edo bestela gogo-  
rean eta indarez, Jaungoikoarenak izan bearko

degu; semeen gisara, nai ba-degu; bestela, mendekoak eta moñoiak bezela. Bere maitetasunak ezpada bere zuzentasunak edo zigorak, erabiliko gaitu beti. Bietatik ¿zein nai dezu, kristaua?

3). Gauza bakoitza, bere azkenak zuzendu bear du. ¿Zertarako litzake eguzkia, argi egingo ez balu? Kaltezkoa litzake, noski. Orobat gizonaren biotza. Jaungoikoak beretzat egin du; Jaungoikoagana ez ba-dijoa, ez da ezertarako ona, oker dabil, kaltegaría da. —¿Eta nola bizi naiz ni? ¿Jaungoikoarentzat al ditut nere gogapen guztiak, nere asmoak, nere lagunak? ¡Ene eñukaña! Gutxi, bai, oso gutxi eman diot Jaungoikoari oraindano!...

¿Zertarako bizi naiz, ba, luñean, nere azkena betetzen ez ba-det?

### *Asmoa*

Auñerakoan Jaungoikoaren bila bakañik ibiliko zera, ta Berari zor zaion guzi-guzia emango diozu.

*Dominus meus et Deus meus.*—Nere Jaun eta Jaungoikoa.

### 3'g. EGUNERAKO

#### Mundua ukatu bear da

1). Mundua maite dutenak ez dira egizko Kristauak. Mundu, aundi - zalea, txorakeri ta atsegin galgafiak maite izanik, Jesu-Kristoren etsairik aundiena da. Afen esan ta aginteak, eta

Kristo'ren aginte ta esanak elkarékin bufukan dabiltz beti. Ezin jaraituko diogu bioi; bata edo bestea ukatu bear degu.

2). Munduaren esanai jaraituaz, Bataiuan egindako eskeintzak uratzen dituzu; orduan deabrua, ta bere esan, ta afokeriak, ukatu zenituanean, mundua bera ere antxe ukatu zenuan. Eta orain beriz ¿atsegín-bila zabilta luéan munduko zorion-bila zabilta, zeruak eskeintzen dizkitzun atsegín pozak ezetsi-ta? Txorakeri aundiagorik!

3). Eta ¿zer dauka munduak, ilko ez dan gogo edo animari on zaionik? Ezer ez, gezuézeko aberastasuna ez bada. Gezuézekoak, bai, bere atsegiñak; bere zorionak, pixka batekoak, egun batekoak; eta ezin bete dute, ezin ase dute, biotzaren gose-egafia; gezuézeko ogasunak, askotan zorionaren orde, naigabea ta zoritxaña ekartzen diote aberatsari. Malko ugariak, artzai-txabolan ez ezik, efege-jauregietan ere ixuri oi dira.

## Asmoa

Jaungoikoari eskatu: munduaren zaletasuna zure biotzetik kendu ta aeren tokian bere maite-tasuna piztu dezala.

*¡Vae his qui haeserint transeuntibus, quoniam simul transeunt!* - «¡Zoritxañekoa luéko gauzei itsasiko dana: aiekin batean dijoa!» (S. Aug.)

## 4'g. EGUNERAKO

### Eriotza

1). Ikaratu zaitez, kristaua, kristau onari dagokion bezela bizi ez bazera. Laixter, bai, oso laixter, ilko zera: eta ¿zer erantzungo diozu orduan Jaungoikoari? ¿Bere asafean il nai zenuke, Beragandik uruti? Au eriotzaren bildurgaria, Jaungoikoaren asafean iltzea.

2). ¿Zer nai zenuke egin izan eriotz-zori lafi artarako? Egin zazu orain garaiz, orduan ezin egingo dezuna. Bertatik asi zaitez lanean, gerorako utzi gabe; asti edo denbora ba'dijoa, ta afeekin batean guztiok ere ba'goaz. Gaurko eguna eskuetan daukat; bigarkoa ez dakit; etorkizuna Jaungoikoarena da; oraingoa da nerea; betiko zoriona det eginkizun onen saria.

3). ¿Nola begiratuko diezu aberastasunai eriotz-aufean? Bertatik begiratu ezaiezu, orduan begiratuko diezun bezela. Eriotza egizalea da; bizia gezurtia. Bizi geran artean ogasunak ba'dirudite zerbait; eriotz-aufean argi agertuko da utsak dirala, ezer ez dirala. Osasunean maite ditugu; eriotz-lafian ez ditugu ezertan artuko.

### Asmoa

Jafi zaitez gogoz eriotz-aufean; eta il-zorian bazeunde bezela, galdetu ezaiozu zure buruari, iltzeko prest edo gertu ote-zauden. ¿Ezetz erantzuten dizu? Lenbailen gertutu zaitez, eriotza ustegabeen gaur bertan etofi lizaizuke-ta.

31 miloi giza-emakume iltzen dira urteko luf-bira osoan.

150 mila egunero; 100 miñutu bakoitzean.

Eriotza, lapurra bezela datorkigu: erne egon.  
*Vigilate.*

### 5'g. EGUNERAKO

#### Guztion azken-epaia (juizioa)

1). Azken-epai-egunean, Jesu-Kristo Epailari zuzen eta zofotzaren aurrean egongo naiz. Onek nere eginkizun guztiak miatu ta aztertuko ditu: onak eta txarrak. Orixe baño egi ziuñagorik gure Ebanjelioan ez dago. Sinisten det, bai, ta ba'dirudi adar-ots beldurgaria dagoaneko entzuten dedala.

2). ¿Zer erantzungo diot Epailariari, ainbeste gogapen lizun, ainbeste okefeko eginkizun, ainbat eta ainbat gaiztakeri, arpegira erantzungo dizkidanean? ¡Beldurgarizko eguna, Jaungoikoaren asafe-eguna! ¡Ikaragarizko eguna, nere oben edo pekatu guzti-guztiak danen aurrean azalduko dirana! Zuzenak (justuak) belduraren-belduraz dar-dar arkituko omen-dira, ¿eta pekatariak?

3) Gero Epaileak erabakia emango du, betikotasun osoan aldatuko ez dan epaia.

Ta pekatariari: *Zoazte, zuek, madarikatuak, esango die zoazte inpernuko suñtara.* Epaia bera ikaragarria bazan, galerako erabakia ¿zer izango ote-da?

Jaungoikoagandik ufuti... suñtan... betiko...  
Ora obenaren ofdaña.

**Asmoa.**

Irudimenaren indañez, zoaz Jaungoikoaren epai-tokira. Guztien aurrean zaude. Zure oben guztiak antxe agiri dira. Jaungoikoak erabakitakoan berealaxe emango du epaia. ¿Zer aginduko dizu? ¿Zoriona, zoritxara, zerua, inpernua? Zerokék nai dezuna kristaua: Adiskidetu ezazu Epailaria.

*Ante faciem indignationis ejus, quis stabit?*  
«Bere arpegi asafetuaren aurrean ¿nor zutik egon?»

*Horrendum est incidere in manus Dei viventis.* «Jaungoiko biziaren eskuetan orortzea ikaragarria da».

**6.g. EGUNERAKO****Suleiza (inpernua)**

1) Suleiza, oben lañipean ilko diranen tokia da. Antxe izango dira ikaragarizko oñazetan, su-gañetan beti. Aien oyuak, aien kañaxiak, basoko piztitzar gosetuen antzekoak izango dira noski, miñagoak ez badira. Beren obenak aitortuko dituzte, baño alpeñ-alpeñik, berandu izango da-ta.

2) Ez inoiz Jaungoikoa ikustea, suñtan beti ere ta kiskaltzen egotea, oñaze-min gogoñenak, atsedean gabe, eten gabe batean añtzea, deabru itxusi zikiñak beti begi aurrean eukitzea; naigabea gorputzan, amofua biotzean beti olaxe bizi izatera ¡ikaragarizko bizibidea!



3) Baño aien oñaze-min gogoñenetakoen bat ¿zer deritzazu dala, kristaua? Ain érez irabazi zezatekean zerua, uskeri batez, txorakeri batez, beti-betiko galdu izatea : orixe izango da aien oñazerik aundienetako bat.

### *Asmoa.*

Jetxi zaitetz pixka batean suleizara. Begira : ¿ikusten al-dezu deabruak ia bukatu duten suzko añiluz egindako aulkia? Norentzat ote-da? Agian zuretzat. Pekatu bat geiago egizu ta galdua zera betiko.

*De poena in poenam transeunt*—«Oñaze batetik irten eta beste oñazean sartzen dira».

## 7'g. EGUNERAKO

### Suleizako oñaze betikoak

1) Jaungoikoaren asarrea, batez ere, ontan agiri da : oben larripean iltzen danari, *beti-betiko* oñaze-miñak ematen dizkiola. ¡Jaungoikoa Jainko dan artean zorigaiztokoa izan beara, au bai dala zoritxarretan zoritxarrena!

2) ¡Betikotasuna, betikotasuna! ¡Zu bai zerala itz guztietan sakonena!

Suleizeko su-gar oietan dagoan galdu batek urtero negar-malko-ianño bat botatzen duela, jar zazu, kristaua; negar-malko oiek bilduta miloi ta miloika urteen buruan itxaso zabala beteko dute; bañan ta neurtu ezin diran urte oiek guziak Betikotasunaren aurrean ¿zer dira? Ezer-

ez. Ur-ianño bat itxaso zabalaren aurrean baño gutxiago.

3) Inpernutarak gañera, une bakoitzean, Betikotasun osoaren oñaze guztia batean artzen dute. Jakin nai al dezu zergatik? Betikotasuna oso-osorik beti begien aurrean daukatelako; beren oñaze guztietan beste guztiaz gañera Betikotasunaren beazun mikatza antxe arkitzen dute. Suleiza beldurgafia da; betikoa ez izatera, ordea, atsegintokia litzake.

### *Asmoa.*

Suleizeko oñaze-miñak betikoak izango dirala ezin aditu badezu ere sinistu ezazu biotz-biotzez.

*Momentaneum quod delectat; æternum quod cruciat.*—«Une bateko atsegiña, betiko oñaze-miña». (S. Joan. Crisost.)

## 8'g. EGUNERAKO

### Zerua

1) ¡Zerua! ¡Izen aundia!

Zeruan ez degu atsekaberik izango, ez nairgabe, min, edo eritasun txiki bakañ bat ere; sinismenak argiro erakusten digu: «Jaungoikoak bere santuen negañak legortuko ditu, eta auferakoan ez da negañik izango, ezta min edo oñazerik ere; atsekabe-miñak joanak dira betiko». (Apoc. XXI). ¡Au zorion aundia!

2) Zeruan gañera ondasun guzti-guztiak

esku betez eta aukeran emango zaizkigu: begiak ikusgaririk ederenak antxe ikusiko ditu: belarriak doñu ta abesti gozoenak antxe entzungo: adimenak ezkutuko gauza zalenak argiro ezagutuko, oroipena Jaungoikoaren mesedeak gogorata zoraturik bezela egongo da: naimen edo borondateak nai duen guzi-guzia antxe izango du, azkenean, Zeru-Lufen Jaun Altsua berea izango bait-du. Bai: zeruan; atsegin-ondasun guzien Iturburu ta Egile, gure Jaungoiko maitea ikusiko degu, maitatuko degu, gurea izango degu, eta beti onela iraungo du, *sic semper cum Domino erimus*.

3). ¿Zer dira ba, erbesteko ezbeñak, zer emen beko neke-lan eta naigabeak, zeruan emango zaigun sari eder ofen aldean?

Nekeak, egun batekoak dira; atsedena, betikoa.

Lanak, egiñalak, pixka batekoak; saria, beñiz, ez da bukatuko.

Negarñak joango dira; poza ez da beñere amaituko.

Kristaua: maita ezazu gurutzea, ofetxek idiki-ko dizu-ta zeruko atea. *Per crucem ad lucem*.

## Asmoa

Zure lanetan jaso maiz begiak zerura, eta gogoratu oiek dirala sari edeña irabazten dizutenak.

*Si labor terret, merces invitet.*—«Lanak bel-durtzen ba-zaitu, sarriak pizkortu bizaitza».

## 9'g. EGUNERAKO

**Jainkoa beti begira dagokigu**

1). Non-nai naizela, noranai noala, edozeñekin nabilela, Jainkoa beti begira daukat, lurbira zabal-zabalean neroni bakarra bizi banintz bezela. Guzti-guztia ikusten du. Etorkizuna bezelaxe ikusten du igaro dan astia ere; edo, obeki esateko, bere begien aurrean ez dago ez etorkizunik, ez igaro dan garairik; bat-batean ikusten du guztia, igaro dana, oraingoa ta etorkizuna.

2). Luferko erege edo agintarien aurrean lapur eta egiteaz lotsatuko zinateke, kristaua. ¿Eta batere lotsik gabe, batere beldurik gabe, gaiztakeri aundienak Jainkoaren aurrean egiten dituzu?

¿Edo agian uste dezu, zerofek ikusten ez dezulako, Berak ez zaituela ikusten?

3). Gaueko ilunpe lodiak ez dira argia estaltzeko naikoak. Jainkoak ikusten ez duen toki ezkutu bakar bat ere, ez dago. Gizonagandik iges egin zenezake; baño Jainkoa beti arkituko dezu.

**Asmoa**

Ziltzaldi edo tentazio-aldian esaiozu zure buruari «Jainkoa begira daukat».

*Si peccare vis, quaere ubi non te videat Deus, et fac quod vis.* (S. Aug.). «Obena egin nai ba-dezu, zoaz Jaungoikoak ikusiko ez zaitun tokira, ta bete zazu orduan zure asmoa».

## 10'g. EGUNERAKO

## Gogoaren gaizkapena (salbatzioa)

1). Gauzik beařena, eginbeařik aundiena, nagusiena, bakařa, zerua irabaazte da. Beste egin-kizun guzti-guztiak, eřege-lanak, jakintsu-lanak, guda, pakea... txorakeriak dira, ume-jolasak dira. ¿Zer auřeratzen du gizonak, luřalde osoa eskuraturik ere, bere anima galtzen ba-du?

2). Gauza guztiak ontarako egiřak dira: Oien bitartez eta beren laguntzarekin, zerua irabazi dezazun. Beraz, beste edorzetan erabiltzen ditugunean, alpeřikakoak ditugu, kaltegařiak ez ba-dira, zoriona irabazi beařean ondamendira garamazkite-ta.

3). Anima irabaztea : auxe da gizonen egin-beařik nagusiena, lan bakařa. Alaz guztiz ere, gizonak beste gauza guztietan saiatzen diralarik, auxe bakar-bakařik ez dute aintzakotzat artzen. Batek aberatsa izateagatik izardi patsak aterako ditu; besteak egiřal aundienak egingo ditu, jakintsu izateařen... ¿Nork egiten du oiek aña egiřal, bere anima irabazten?

*Asmoa*

Askotan gogoratuko naiz gaur, anima bakar bat daukatala, ta ori galtzen ba-det, betiko galdua naizela.

«Bi begi dituzu, kristaua, bi esku, bi beları; bat galdua, besteak lagunduko dizu. Baño anima galtzen badezu ¿zer gelditzen zaizu?» (Krisostomo Deunak).

## 11'g. EGUNERAKO

## Obenaren kalteak

1). Urez betetako sakeltxo bat galtzen duen gizonak, asko galtzen du. Bere ondasun guztiak itxasoan edo surtan galtzen dituenak, befiz, geiago galtzen du.

¿Eta Jaungoikoa galtzen duen pekatariak, ez al-du lurbiran diran ure-gorri ta ari dizdiratsu eder guztiak baño askoz geiago galtzen?

2). ¡Pekatua : i bai aizela gorotogaña! Ta ala ere gizonak maite aute!

Gizonak jolasean bezela aitzen du pekatua, ta ez du jolas oiek betiko galera irabazten diotela igartzen. Gizajoak, pekatua eta Jaungoikoa, biok maite izan nai lituzke; beso batekin pekatua laztandu ta besteakin Jesu Gurutziltzatua.

¡Itxumen beldurgaña pekatariarena!

3). ¡Ikuste negargaña, da benetan Jesus Bildots otzana lapur ta gaizkileen artean gurutzean josia ikustea!

Baño nork, pekatuak ez-eta, josi du Jesu-Kristo gurutzean, oren era txarrean?

*Asmoa*

Ziñez, egi-egiaz sinistu ezazu: erbeste neketsu onetan gauza gaitza ta samiña, beldurgañi ta kaltegaña bat babañik dala : pekatua.

*Quasi a facie colubri, fuge peccatum*—«Suge pozoidunari baño ariñago, iges egiozu pekatuari».

## 12'g. EGUNERAKO

## Nork bere burua ilduratzea

1). Etsai gaiztoa garaitzeko lenengoz egin bea dezun gauza, zure burua ilduratu edo mortifikatzea da. Ez du etsairik garaituko, ez du zeruko ondasunik izango, ildura ofetan sartu nai ez duenak. «Nerekin edo nere ondoren etofi nai duenak, dio Jesus onak, ar beza bere gurutzea ta jafai bizait, edo betof nere ondoren». (Mendiburu).

2). Santuak orobat itzegiten dizute. Loyolako Aita Inazio Deunak, norbait Santua zala esaten ziotenean, «ala izango da eratzun oi zuen, ala izango da bere buruaren etsai aundia bada». Nekearekin lantzen ez dan lufean ez da birtuterik jaiotzen, eta jaio ta lafi dana ere laister igartzen da, nekeak berak zerutik duen ura ta janaria ekartzen ez ba-dio. (Mendiburu).

3). Pekatuak bere ordaña eskatzen du: edo emen bean, edo geroago Garbitokian; ez dago igesik.

Garbitokiko su-gar beldurgariari iges egiteko, kristaua, ilduratu ezazu zure gorputza.

*Asmoa*

Zure pekatuen neke-saria ordaintzeko egizu egunero ilduratze edo penitentzi bat txikia bada ere.

*Nisi poenitentiam habueritis, omnes similiter peribitis.* — «Gorputza ilduratzen ez badezute, galduko zerate». (Luc. XIII).

## 13'g. EGUNERAKO

**Jaungoikoagana biurtzea ez bigarko utzi**

1). Asko ta asko luzatzen det Jaungoikoagana biurtzea; badirudi bere eskuetatik iges joan nai dedala. ¿Zer? ¿Kaltegarí ote-det, bada, Arena izatea? Ez al det askoz kaltegaríago beti pekatupean egotea?—«Bigar».—¿Zergatik gaur ez? ¿Zergatik beti bigarko utzi gaur bertan asi neza-kean lana?

2). ¿Zerk nauka Jaungoikoagandik uruti luñari lotuta? Bizia aldatu beařak ematen didan beldurak. Jaungoikoagana biurtzeko; nekea artu beařko dedala? Baño ¿zer dira neke oiek zeruko ondasunen aldean? ¿Eta Jesusek ez al ditu nigatik nekeak artu?

3). «Gaur egin zenezakeana ez bigarko utzi» dio esaera zař batek. Etorkizuna ez da zurea; Jaungoikoak bakarık ezaguntzen du. Egia da biurtzen diraneri barkamena berak agindu diela; bañon bigarko eguna emango digunik ez digu iñola ere agindu. Bigar agian ildakoen artean zera. ¿Nork daki?

*Asmoa*

Gogoratu ezazu gaur maiz Jaungoikoagana biurtzea biaramonerako utzi dutelako, asko galdu izan dirala. «Suleiza asmo onez josia dago», dio santu batek, baño bete gabeko asmoz.

*Et dixi : nunc cœpi*—«Erabaki det : gaur bertan asiko naiz» (Ps. 76).



## 14'g. EGUNERAKO

### Zer esango dutenaren beldufa

1). Mundutarak au ta ori diote; utzi; esan dezatela nai dutena. ¿Txoroen esanak zergatik aintzakotzat artu? ¡Esango dutena! ¿Eta zer esango dute ba? «Gizoneri baño Jaungoikoari belduñ geiago diozula»? Ta, azkenez, Jaungoikoa pozik badaukazu, zuri zer?

2). ¿Ta kristau bat bere Jaungoikoaz lotsa izatea ez al da koldarkeri aundia, egunero, zeinbaitzuk, nagusi añen edo onen moñoi ta mendekoak diralako año dabiltzala ikusirik?

Jaungoikoaren Semeaz lotsatzen ba - zera, kristaua, Bera ere azken-epai edo juizioko egun lañian zutzaz lotsatu egingo da.

3). Jaungoikoaren Semeaz lotsatzen zera¿ Zergatik? ¿Lotsagafia al da bere izena, lotsagafiak bere aginteak, lotsa ematekoa al da zuri bizitza eman dizun bere eriotz tamalgafia?

Jaungoikoaren Semeaz lotsatzen zera... eta aragizko atsegin lizunetan bizitzeaz ez zera lotsatzen, ezta añokeriz puztuta ibiltzeaz ere, edo bide txañez iñoren aberastasunaren jabe izateaz.

Ongi begiratu, kristaua, pekatuak ala Jesu-Kristo'k nork lotsa geiago eman bear dizun.

### *Asmoa*

Aztertu, begiratu, zure bañena, iñoiz zer esango duten belduñaz Jainkoaren aginduren bat bete gabe utzi ez ote-dezun ondo ikusteko.

## 15'g. EGUNERAKO

## Nork bere buruari beldur izan beafa

1) Gizonak etsairik aundiena bere burua du. Bere aulkeriak inpernuko deabruen ekiñaldi guztiak baño beldur gelago eman beaf dio gizonari. Salomon, jakintsuetan jakintsuena, erori bazan; Pedro Deunak, apostoluetan lenengoak, Elizaren oñ-afia zanak, bere Jauna ukatu bazuen ¿nola ez gera beldurtuko gu, zume edo kañaberak bezin aulak geranok?

2) Gelenean gizona burukatu gabe erortzen da. Bere griña gaiztoak, eta batezere bere biotzak, jartzen dute galbidean. Biotzak, deabruaren egiñal guztiak baño gizon geiago galdu ditu. Estutze-neke goñiak ikusi ondoren, beren biotza menderatu al izan ez zutelako, galdu diran gizon asko ezagutu ditugu.

3) Done edo santu aundienak beldur aundia izan diote beti beren buruari, beren gorputzari, beren biotzari batez ere. Azkeneko zori-lafian ere beldur ziran, ordurarte beti Jaungoikoaren adiskidetasunean bizi izan ziran santu asko. ¿Eta gu lasai gaude, biotzari eskatzen digun guzi-guzia emanaz?

*Asmoa*

Galbideetatik alde egizu; eta ez aztu Jesu-Kristok esaten diguna: «galbidea maite duten aiek eroriko dira».

*Qui se existimat stare, videat ne cadat.*-«Zutik dagoenak, ez erortzeko begiratu beza».

## 16'g. EGUNERAKO

Jaungoikoaren eskeñak nola artu  
beñ diran

1) Egunero artzen dituzun goi-esker edo graziak, eta oraindano artu dituzun guzi-guziak, Kristoren odol gurgariari zor dizkiozu, kristaua. Oñaze-miñetan gurutzean josirik zegoela, bere zaurietako odol - tanta bakoitza, ta biotz-antsi bakoitza, zuzen-zuzen zerura zijoan zuri esker oiek irabaztera. Begira ba, ez dezazula ezer-eztzat artu edo oinperatu, esker txikienetako bakar bat ere.

2) Ez artu dituzun eskeñak bakarik, *zure aldetik eragozpenik ez jartzera* artu izango zenituenak ere, Jaungoikoari zor diokiozu. Eguzki-argi dagoenean, leyoak ixten ditugulako bere berotasuna artzen ez ba-degu, gure erua da. Orobat Jaungoikoaren eskeñak galazten ditugunean.

3) Zenbat urte igaro ote-dira Jaungoikoak au edo ori eskatzen dizula, eta artean egin gabe zaudela? 10 agian, 20, 30 bear bada... ¡Au lotsa! ¿Espiritu Santuaren eskolan ainbeste urtean ibilirik ain gutxi aureratu dezu? ¿Zergatik-ote, uskeri batez ez bada? ¿Zergatik Berak bidalitako esker onuragariak ukatzen dituzulako ezpada?

Gogoratu ezazu, goiz edo berandu, oiek guziak ordaindu beañean arkituko zerala.

*Asmoa*

Eskeñak eman Jaunari, artutako mesedeaga-

tik, eta eskatu, ainbat eta ainbat mesede ezetsi dizkiozulako barkapena.

*Cui multum datum est, multum quaeretur ab eo.*-«Asko eman zaionari, asko eskatuko zaio» (Luc. XII).

## 17'g. EGUNERAKO

### Astia (denbora) nola erabili

1) Asti edo denbora galtzea gaitzik okerrenetako bat da. Gure bizitza laburra izanik eta asti une txikiena ain gauza ederra, zer egiñik ez bagendu edo inoiz il bear ez bagendu bezela bizi gera...

2) ¡Ene! Suleizeko galdu bateri emango bali-tzaio, zuk ain erez galtzen dezun asti edo denboraren une txiki-txiki bat-minutu bat jañi dezagun-zerua atzera irabazteko, ¿nola deritzazu aleginduko litzakela, une labur oretan, betiko zoriona bereganatzen?

Eta zuk azkengabeko zoriona eskuetan eukirik beste gauza guztietan saiatzen zera ¿ta au baztertirik uzten dezu?

3) Oker zaude, kristaua, txit oker, zerurako baño erbesterao aberastasun biltzen ardura-tsuago ba-zabiltza. Ez uste izan irabazi aundia-goko eguna onena degunik, Jaungoikoaren aurrean obeki bete degun eguna baizik.

Alegindu zaitez, bada, aurrerantzean eguneko ordu bakoitza onela ongi betetzen. Egun artan norbaitek galdetzen ba-dizu ¿zer ari zera? eran-

tzun dizaiokezu : «Jaungoikoaren alde ta nere buruarentzat lan egiten».

### *Asmoa*

Gogoan ongi artu : Jaungoikoaren alde igarotzen ez degun astia, asti galdua dala.

*Regnum, Dei vim patitur, et violenti rapiunt illud.* - «Zerua indaiez artzen da; alegintzen diranak, irabazten dute» (Mat. XI, 12).

## 18'g. EGUNERAKO

### Sakramentuak nola aftu

1). Ikurton edo sakramentuen bidez ematen dizkitzu Jaungoikoak, bere Semearen Odol deunak zuretzat irabazitako esker ugari edeñak; beraz, anima zeruratzeko oso beañak dituzu. Txarki artuta, ordea, mesedezkoak ezezik, Kristoren odola ta irabaziak, kaltegañiak zaizkizu, jolasean bezela erabiltzen bait-dituzu ain gauza aundiak.

2). Ta Paulo Deunaren itz zofotz aiek batez ere, ikara-lañi aundia eman bear dizute : «Gogo loituaz edo obenpean Kristoren aragi-odola artzen dezunean, betiko galera edo ondamendiaren epaia jaten dezu». Ta Jaunak, Kain odoltzaleari bezela, bere Semearen odolaz zer egin dezun galdetuko dizunean ¿zer egingo dezu zuk? Eta ez bein edo bitan, askotan baizik Odol deun ori ondatu ta oinperatu ba-dezu ¿nora itzuliko zera bere asañeari iges egiteko?

## Asmoa

Aztertu ezazu zure bařena, ain maiz aitofu ařen ain gutxi auferatzea, ta saři Jaunartu ařen ain epel-nagia izatea nondik ote datorkizun ikusteko.

*Probet autem seipsum homo.*—«Aztertu beza gizonak bere bařena, bere biotza». (I. Cor. XI).

## 19'g. EGUNERAKO

### Meza Deuna

1). Meza Deuna ¿zer da?—Jesu-Kristok gurutzean Jaungoiko Aitari eskeřitako opari (sakrifizio) ber-bera, ez antz-irudia bakafik; uraxe ber-bera, egunero gure aldařeetan beřitua. ¡Meza bakar bat bai dala aundia! Gure lufaldean egin diteken gauzarik aundiena, ziurki, eta guretat onuragařiena, uře-meatza bařo askoz eta askoz aberatsagoa.

2). ¿Zertan, jakin nai dezu, kristaua?

a) Jainko-Guzialdunak bere mirariefan bařo eskubide askoz aundiagoa erakusten du apaizak meza emanaz. Ařek gauza guztiak ezer-ezeretik ateratzerakoan bere mendekoeri agindu zien; onek, Jainko ber-berari agintzen dio, ta Jauna menderatzen zaio.

b) Mezaren bidez: Jainko gure Egilea *agurtzen degu*. Egun dizkigun mesedeengatik *eskerřtzen degu*. Gure pekatuen zořa *ořdalntzen diogu*. Esker ugariak *eskatzen dizkiogu*.

d) Mezaren bidez: Garbitokiño anima erukañi-gaxoak askatu ta zeruratzen ditugu.

Bere irabaziak izugañiak dira: zeru, lur ta Garbitokiraño zabaltzen bait-dera.

3). Baño jau itxumen negargañia! Jesu-Kristo gurutzean il zanean arkaitzak erdibitu ziran; eta aldarean eskeintzen danean, kristau askoren biotzak arkaitzak baño gogoñagoak agiri dira.

Kalbarioan il zanean, ilobiak idiki ziran, aldarean opaltzen danean, kristau biotzak itxiak daude.

Kalbarioan emakume ta gudarien begiak negaña zerioten; gure elizetan, beñiz, kristau askok ezpañetan paña azaltzen dute eta begietan asper-nekea.

## Asmoa

Meza entzutera zoazenean, iruditu zaitez Kalbarioan, Jesu-Kristoren il-zorian zaudela.

*In omni loco offertur nomini meo, oblatio munda.*—«Toki guztietan, nere izenean opari garbia eskeintzen dute». (Malach. I-11).

## 20' g. EGUNERAKO

### Beartsuak lagundu beaf dirala

1). Asko ta asko zor diogu Jesu-Kristo gure Jaun maiteari. Ez dakigu zer egin Berari. Berari egin naiko genioken guzi-guzia, egin dizaiegun beartsueri. Auetxek dira Jesus'ek bere tokian utzi dizkigunak. Aldarean, guk agurtu dezagun,

ta gure janari izateko dago; beartsuetan, befiz, efuki gakizkion, ta jaten eman dizaiogun. Ikusten dezu bada, kristaua : Jesu-Kristo dago beartsuaren soñeko-zar-pean gorderik. Bein Martin Deun aundiak ala ikusi zuen; eta bere soñekoa erdibiturik eskaleari eman zion. Ufengo goizean Jesus bera etoñi zitzaion eskeñak ematera, eskale ura Bera zala adieraziaz.

2). Aberatsei emanda agian galduko dezu; Jaungoikoari emanda beñere ez. Berak esan bait-digu, bere izenean emandako ur pixka ere, ez duela ordañik gabe utziko. Len aberatsak izan afen, jokoan edo jan-edanetan dana eralki ondoren asko arkitu izan dira txanponik gabe. Beartsuei lagundu dielako eskutsik arkitu danik nik dakidala ez da iñor; gero ta geiago irabazteko bidea, beartsuei ematea da.

3). Eman dizkigun aberastasunaz erantzuteko, esango digu Jaungoikoak azken-epai-egunean. Jaunak beren gogorkeria arpegira botako dienean, ¿zer esango diote ainbat eta ainbat biotz gogoñeko aberatsek? «Zoazte, esango die Berak, zoazte aberats madarikatu oiek, suleizeko surtara : gose nengoen eta ez zenidaten jaten eman, bilutsik nengoen eta ez niñuzuten jantzi».

Biotz gogor eta zuñak galduak dira; esku zabaleko gizonak zerua irabazia dute. Gure gaiztakeriak aundiak badira ere, Jauna efukituko zaigu, gure soñekoak bere gorputzean eta gure dirua bere eskuetan ikusita. Ez, ez daukagu zeren bildurtu, beartsuak gure alde baditugu.



*Asmoa.*

Zugana datoñen eskalea beañean arkitzen bada, ez beñere esku-utsik bidali.

*Beatus qui intelligit super egenum et pauperem : in die mala liberabit eum Dominus.*—  
«Zorionekoa, beartsu ta eskaleen laguntzalea : Jaungoikoak egun lañian lagunduko bait dio».

**21'g. EGUNERAKO****Ziltzaldia (tentazioa)**

1) Inork ez dizaioke ziltzaldiari iges egin. Aberatsa dala, beartsua : jauregi ederetan jaioa, artzai-txabolan azia; naiz luñeko txorakerietan bizi dala, naiz bakartasunean : toki ta garai guztietan an izango du ziltzaldia, antxe non-nai galbidea. Ziltzaldia etxe bañunbean, ziltzaldia kanpoan; bere inguruan bezela bere bañenean ere. Ziltzaldi-legeak giza-emakume guztiak aña-patzen ditu, ta Jesu-Kristori berari basamorturaño ere jañaitu zion.

2) Baño ziltzaldi-mendekoak guztiak bagera, ez degu ainbestekin lañitu beañ. Ziltzaldia, beraz, ez da, ez ona, ez txaña; lotuta dagoen zakuñ gaiztoaren antzekoa da; zaunka egin lezake; ez, ordea, koskik egin inori, inguratzen ez bazaio.

Gañera ziltzaldiak mesede aundiak ekafi oi dizkigu.

Batetik.—Gure argaltasunaren beñi ematen digu, gure indafen neuñia ezagunerazi :

Bestetik.—Gure aldetik ziltzaldia menderatzen

saiatzen bagera ziltzaldiak berak erakusten digu ez digula Jaungoikoak bere laguntza ukatuko.

3) Ziltzaldia menderatzeko, azpiratzeko, iru gauza eskatzen dira :

Lenengoa.—Galbideetatik iges egitea. Eba, gure lenengo Ama, baldin suge madarikatuarekin jardunetan asi ez balitz; eta Pedro Deunak Kaifas'en etxean, neskatxari jaramonik egin ez palio, ez bata ta ez bestea, noski, ez ziran eroriko, erori ziran bezela. Gogoratu Jesukristoren itz adigariak : «Gaibide edo ariskoak maite dituen, antxe ilko da».

Bigarrena.—Otoitza : oña zergatik eztingun Jesukristok «begiratzeko» bakarik esaten, «otoitz egiteko» baizik. Gañera «*vigilate et orate*». Ziltzaldian Jesukristogana jotzen ba-dezute, Mariaren babesera itzultzen ba-zerate, ¿uste al dezute onek eta bere Semeak zuen etsaien egiñal guztiak autsiko ez dituztela? Esan bada, ziltzaldian, Pedro Deunarekin batean : «Jauna, lagun zaidazu, galtzera noa-ta».

Irugarrena.—Maiz Jaunartzea. Jesukristok berak esaten digu : «Zeruko ogia jango dutenak, ez dira ilko». Bera da gure gogoen janaria, indaia, kemena. «Jaunartzen duenak, begietatik sugaia darion leoi amofatua dirudi». (Krisostomo deunak).

### *Asmoa.*

Galbideetatik ainbat laistefen iges egizu.

*Et ne nos inducas in tentationem.*—«Ez gaitzazu ziltzaldian erortzen utzi».

## 22'g. EGUNERAKO

### Oben ariñak

1) Askok uste dute pekatu lañari iges egitea naikoa dutela. Auek ez dute ezer-ezertan artzen pekatu ariña; gauza txikia dala diote, uskeri bat, ezer ez... ¡Uskeria, gauza txikia Jaungoikoaren gogoa ukatzea! Matrañekoak ere uskeriak dira, gauza txikiak; ez diote inñori bizia kentzen; baño ¿gauza txikia ote-da nork bere amari arpegira txistua botatzea, edo matrañeko bat ematea? Bada Jesukristok bere Nekaldian artutako matrañeko ta txistuak zure pekatu ariñak dira, kristaua.

2) ¿Uskeria, oben ariña? gauza txikia? eze-reza...? Begira itzazu bere ondorenak :

